

2025 ERAKO EAE-KO AURREKONTU OROKORREI BURUZKO LEGE-  
PROIEKTUAREN GENERO-INPAKTUARI BURUZKO TXOSTENA

Ogasun eta Finantza Saila

2024ko urriaren 23an



## AURKIBIDEA

|   |     |
|---|-----|
| 1. ESPARRU ARAUEMAILEA.....   | 1   |
| 2. EUSKO JAURLARITZAREN 2025ERAKO AURREKONTU OROKORRAK. ESTRATEGIA .....  | 4   |
| 3. EUSKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO DIAGNOSTIKO SOZIOEKONOMIKOA.....  | 6   |
| 4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORRAK.....  | 20  |
| 5. GASTUEN AZTERKETA (1): EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO ETA MENPEKO ENTITATEETAKO LANGILEAK. .... | 21  |
| 6. GASTUEN AZTERKETA (2): SAILAK ETA HORIEN GASTUEN AURREKONTU-PROGRAMAK.....                                   | 33  |
| 6.1.    ESTRATEGIA DUALA: GENERO-IKUSPEGIA ETA EKINTZA POSITIBOAK.....  | 38  |
| 6.2.    SOLDATA-ARRAKALA MURRIZTEKO 2030 ESTRATEGIA.....  | 47  |
| 6.3.    AIII. ESKU-HARTZE ARDATZEKO JARDUERAK: "EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK" .....          | 56  |
| 6.3.    HELBURU BAKARRA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEA DUTEN BESTE JARDUERA BATZUK                  | 63  |
| 6.4.    SAILAK, ERAKUNDE AUTONOMOAK, PATZUERGOAK, EITB TALDEA, OSAKIDETZA, SPRI, URA ETA IHOBE                  | 73  |
| 7. ONDORIOAK .....  | 161 |
| 8. ERANSKINAK .....   | 165 |
| 8.1.    TRESNA METODOLOGIKOEN LABURPENA .....   | 166 |
| 8.2.    AURREKONTU-PROGRAMEK GENEROAREKIKO DUTEN GARRANTZIA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK .....                          | 167 |

## TAULAREN AURKIBIDEA

|   |     |
|---|-----|
| 1. Taula. Euskal AEko biztanleria, adin-taldeen eta sexuaren arabera.2023/ 07/01 .....  | 6   |
| 2. Taula. Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa. Genero indarkeria eta sexu erasoa. 2018-2023 .....                                       | 17  |
| 3. Taula. EAEko administrazio langileak, taldearen eta sexuaren arabera.....  | 21  |
| 4. Taula. EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen bitartekotasun-indizeak. 2022ko otsaila..... | 24  |
| 5. Taula. prestakuntza-ikastaroetara joatea. 2020-2023 .....  | 28  |
| 6. Taula. EAEko Administrazio Orokorren gastuen aurrekontu guztia 2025, atalka .....  | 33  |
| 7. Taula. Aztertutako gastu aurrekontua sailaren arabera. ....  | 36  |
| 8. Taula. Genero-ikuspegia duen aurrekontu planifikatua edo diseinu-prozesuan dagoena .....   | 39  |
| 9. Taula. Sailek emandako berdintasunerako ekintza positiboak. ....   | 40  |
| 10. Taula. Sailek Euskadin soldata-arrakala murrizteko aurreikusitako jarduerak .....   | 48  |
| 11. Taula. Soldata-arrailaren bilakaera EITB Taldean.....   | 54  |
| 12. Taula. Esku-hartzeak "emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak" ardatzean .....  | 56  |
| 13. Taula. Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea helburu bakartzat duten jarduerak .....   | 63  |
| 14. Taula. Aztertutako aurrekontua. Lehendakaritza. ....  | 73  |
| 15. Taula. Aztertutako aurrekontua. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.....   | 80  |
| 16. Taula. Aztertutako aurrekontua.Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. ....  | 87  |
| 17. Taula. Aztertutako aurrekontua. Ogasun eta Finantza Saila. ....   | 97  |
| 18. Taula. Aztertutako aurrekontua. Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernu Saila ....                                    | 102 |
| 19. Taula. Aztertutako aurrekontua. Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasun Saila. ....                                 | 108 |
| 20. Taula. Aztertutako aurrekontua. Segurtasun Saila. ....  | 119 |
| 21. Taula. Aztertutako aurrekontua. Hezkuntza Saila.....  | 125 |
| 22. Taula. Aztertutako aurrekontua. Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila.....  | 131 |
| 23. Taula. Aztertutako aurrekontua. Osasun Saila.....   | 135 |
| 24. Taula. Aztertutako aurrekontua. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.....   | 141 |
| 25. Taula. Aztertutako aurrekontua. Mugirtasun Jasangarriaren Saila. ....   | 145 |
| 26. Taula. Aztertutako aurrekontua.. Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza Saila.....   | 147 |
| 27. Taula. Aztertutako aurrekontua. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila.....   | 150 |
| 28. Taula. Aztertutako aurrekontua. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila. ....                                    | 153 |
| 29. Taula. Aztertutako aurrekontua. Justizia eta Giza Eskubideen Saila.....   | 157 |

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

|   |     |
|---|-----|
| 1. Irudia. Genero Berdintasunaren Indizearen bilakaera EAEn. 2010-2021 .....  | 8   |
| 2. Irudia. Denbora-aurrekontuen inkesta. 2023 .....   | 13  |
| 3. Irudia. Osakidetzako batez besteko plantillaren bilakaera 10 urtean 2014-2024ko uztaila).....                                      | 23  |
| 4. Irudia. Telelana. Sailak, Erakunde Autonomoak eta Partzuergoak. 2023-2024.....   | 27  |
| 5. Irudia. Generoarekiko egokitasuna eta garrantzia. Aurrekontu guzia aztertuta .....   | 37  |
| 6. Irudia. Aurrekontuaren banaketa, generoaren eta sailaren arabera garrantziaren arabera .....                                       | 37  |
| 7. Irudia. Soldata-arrakalaren bilakaera, % 5etik gorako arrakala duen talde funtzionalaren arabera .                                 | 53  |
| 8. Irudia. Lehendakaritza. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....  | 73  |
| 9. Irudia. Kultura eta Hizkuntza Politika. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....                          | 80  |
| 10. Irudia. Ekonomia, Lana eta Enplegua. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....                            | 87  |
| 11. Irudia. Ogasun eta Finantzak. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ...                                    | 97  |
| 12. Irudia. Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....   | 102 |
| 13. Irudia. Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. .... | 109 |
| 14. Irudia. Segurtasuna. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....  | 119 |
| 15. Irudia. Hezkuntza. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....  | 125 |
| 16. Irudia. Etxebizitza eta Hiri Agenda. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....                            | 131 |
| 17. Irudia. Osasuna. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....  | 135 |
| 18. Irudia. Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....           | 141 |
| 19. Irudia. Mugikortasun Jasangarria. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....                               | 145 |
| 20. Irudia. Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....              | 147 |
| 21. Irudia. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....               | 150 |
| 22. Irudia. Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....    | 153 |
| 23. Irudia. Justizia eta Giza Eskubideak. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera. ....                           | 157 |

## 1. ESPARRU ARAUEMAILEA

Nazio Batuek, erakundea sortzeko gutunean jadanik, funtsezko printzipiotzat hartzen dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Horren ondorioz, hainbat tresna juridiko landu dituzte, eta horiek, hain zuzen, eskualde-mailako eta tokiko ondorengo lege-garapenerako oinarriak ezartzen dituzte.

Nabarmentzekoa da emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW), oro har 1981 ezker indarrean dagoena eta Espainiak 1983ko abenduan berretsitakoa. Nazioarteko lehen lege-tresna da, unibertsalki aplikatzekoa, eta bidea ematen du bizitzaren esparru guztietan (zibila, kulturala, soziala, politikoa eta ekonomikoa) izateko berdintasuna lortzeko neurri bereziak hartzeko, horrek berekin diskriminaziorik ekarri gabe. Emakumeari buruzko Nazio Batuen IV. Mundu Konferentziak (1995ean egin zen Beijing-en) jauzi kualitatibo garrantzitsua ekarri zuen, tratamendu sektorialetik “gender mainstreaming” deritzon eta “genero-zeharkakotasuna edo ikuspegia” izenaz ere ezaguna den ikuspegi funtsezko eta estrategikora igaro baitzen. Horrek eskatzen du berdintasunaren helburua herrialde kideetako politika publiko eta programa guztietan txertatzea. Geroago, zeharkakotasun-printzipioa eta ekintza positiboak Europako ordenamendu juridikoari gehitu zitzaizkion 1999ko maiatzaren 1ean, Amsterdamgo Tratatu indarrean jarri zenean (2. eta 3. artikulua), eta ordutik funtsezko elementua bilakatu da Europar Erkidegoko politika guztiak diseinatzeko. Nizan (2001), genero-zeharkakotasuna Europar Batasuneko Funtsezko Eskubideen Gutunean jaso zen, eta horrek aintzatespen juridikoa jaso zuen, bete-betean aplikatzekoa, Estrasburgon 2007an Lisboako Tratatu sinatzearekin batera.

2006. urtean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak bere egin zuen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea funtsezko eskubide gisa. Horretarako, eskubide hori bermatzeko asmoz tratatuak interpretatu eta berrinterpretatu zituen.

Emakumeei buruzko NBEren 2000ko Mundu Konferentziak —Beijing +5 delakoa— bere ebazpen orokorrean estatu kideak behartzen ditu genero-ikuspegia aurrekontu publikoetan txertatzera, gobernu-maila guztietan, EBren aurrekontuan barne. Europar Batasuneko estatu kideek, horri erantzuteko, 2015. urtea epemuga gisa ezarri zuten, 2015ean administrazio-maila guztietan aurrekontuak genero-ikuspegiak abiarazteko.

Beijingo Ekintza Plataformaren sorreratik bi hamarkada baino gehiago igaro ondoren, NBE Emakumeak erakundeak "Berdintasun Belaunaldia: emakumeen eskubideen alde eta berdintasunezko etorkizunaren alde" kanpaina jarri du abian, aldarrikapen hauek eskatzeko: berdintasuna ordainsarrietan, berdintasuna etxeko lanak eta ordaindu gabeko zaintza partekatze, sexu-jazarpenari eta emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria mota guztiei amaiera emateko, osasun-zerbitzuek beren beharrei erantzuteko eta berdintasunez parte hartzeko bizitza politikoan eta baita erabakiak hartzen diren bizitzaren eremu guztietan ere. Euskadin, Eusko Jaurlitzak bate gin du ekimenarekin, Lehendakariak 2022ko ekainaren 15ean aurkeztutako **Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitza eta berdintasunaren aldeko** Herri Itunaren bidez. Emakunde<sup>1</sup> bultzatuta, Euskadiko erakunde publikoek eta pribatuak 2026ra arte emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako bidean aurrera egiteko duten konpromiso esplizitua jasotzen du.

Azkenik, gaurdaino, indarkeria matxistaren arloko trataturik garrantzitsuena gauzatu zen emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenean. Istanbulko Hitzarmena izenaz ere da ezaguna, eta 2014tik dago indarrean Europan. Hitzarmen

---

<sup>1</sup> <https://www.emakunde.euskadi.eus/sensibilizacion/-/beijing-igualdad/>

horretan, emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larritzat aitortzen da, horren forma guztietan (fisikoa, psikologikoa eta sexuala, emakumeen mutilazio genitala, behartutako ezkontza, jazarpena, behartutako abortua eta behartutako esterilizazioa).

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Euskadin gure funtsezko erreferentzia da emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua<sup>2</sup>.

Printzipio orokorreari buruzko 3. artikuluan, bi estrategia hauek jasotzen ditu:

- Batetik, genero-ikuspegia txertatzea euskal aginte publikoen politika eta ekintza guztietan; eta argiro adierazten du horiek guztiek ezarri behar dutela desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra.

Lege horren ondorioetarako, genero-ikuspegia txertatzeak esan nahi du:

*“emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera zehatzak txertatzea”.*

- Bestalde, ekintza positiboak hartzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko. Lege horren arabera:  
“herri-agintek denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko”.

Gainera, berdintasunerako Legeak 19.1. artikuluan dio:

*“Arauk garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-agintek modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua”.*

Eta 15.3. artikuluan:

*“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak modu aktiboan eta progresiboan sustatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren % 1, gutxienez, emakumeen eta gizonen artean”.*

Eta, seigarren Xedapen gehigarrian:

*“Euskal Autonomia Erkidegoak pixkanaka handituko du emakumeen eta gizonen berdintasunerako*

---

<sup>2</sup> Aurreran, Berdintasunerako Legea. <https://www.boe.es/eli/es-pv/dlg/2023/03/16/1/dof/spa/pdf>

*politiketara bideratutako aurrekontuaren ehunekoa, 2030erako aurrekontu orokorretan esleitutako guztizko gastuaren % 1,5 izan daitezen gutxienez, hargatik eragotzi gabe aurrekontu-helburu hori lehenago gauzatu ahal izatea.”*

Lege horrexek honela aintzatesten du Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea:

*“Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, taxutu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak emateko ardura duena”*

11. artikuluan berdintasunerako unitateak sortzea aurreikusten du:

*“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak egokitu egin behar ditu bere egiturak, sail bakoitzean administrazio-zuzendaritza edo -unitate bat egon dadin gutxienez, bere saileko zuzendaritza eta arlo guztiak, eta hari atxikitako erakunde autonomo, ente publiko eta organoak bultzatu, koordinatu eta lankidetzan aritzeko, legean eta Eusko Jaurlaritzak onartutako berdintasun-planean xedatutakoa betetzeko. Zuzendaritza edo unitate horiek nahikoa langile eta posizio organiko eta harreman funtzional egokiak izango dituzte, bai eta beren helburuak betetzeko aurrekontu-zuzkidura nahikoa ere”.*

Azkenik, 20. artikulua hau ezartzen du euskal agente publikoei dagokienez:

*“Arau bat egiteko unean, euskal administrazio publikoek, hori sustatzen duen administrazio-organoren bitartez, ebaluatu egin behar dute zein den proposamen horrek emakumeen eta gizonen egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du ea arauan proiektatutako jarduerak ondorio positiboak edo kontrakoak izan ditzakeen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean”.*

Aurrekoa betetzeko, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez, honako erabaki hauek hartu ziren:

*“Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideak”.*

Aurreko guztia kontuan hartuta, Ogasun eta Finantza Sailak txosten hau egin du, 2025erako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege Aurreproiektuari atxikitzeko. Horretarako, sailen ezinbesteko lankidetzatza izan da, eta, oso bereziki, haien berdintasunerako unitate teknikoena.



## 2. EUSKO JAURLARITZAREN 2025ERAKO AURREKONTU OROKORRAK. ESTRATEGIA

Eusko Jaurlaritzaren estrategiaren zati bat da politika publikoak ez direla generoari dagokionez neutroak, hau da, bestelako eragina izan dezaketela emakumeengan eta gizonengan, eta, beraz, ikuspegi kritikoa behar dutela, desberdinkerien murrizketan duten inpaktua zehazteko.

Esparru horretan, aurrekontuei genero-ikuspegia gehitzeak dakar honako hau kontuan izanda planifikatzea: politika publikoen hartzaile diren emakumeak eta gizonak ez dira abiatzen baldintza- eta aukera-berdintasunean, ez dituzte behar eta helburu berak eta, beraz, espero diren emaitzak aintzat hartuta kontuan izan behar da errealitate-aniztasun hori. Beraz, prozesu horrek zenbait fase ditu, eta, horien artean, nabarmentzekoa da aurrekontuen gainean generoak duen inpaktuari buruzko txostena. Izan ere, dokumentu horrek laburbiltzen du administrazio baten politika publikoetan generoa zein neurritaraino txertatuta dagoen, zein aurrerapen egin diren eta hurrengo ekitaldiari begira hobekuntza-proposamenak zein diren jakiteko.

Horrela, aipatutako txostena, gure Administrazioan nabarmentzen ari den bezala, baliagarria da politikaren arloko prozeduran, plangintzan eta ebaluazioan hobekuntzak bultzatzeko. Aldaketa sakonak dira, politika publikoak eraldatzen dituztenak eta epe luzerako horizonte bat eskatzen dutenak, genero-ikuspegiak egindako aurrekontu orokorrak diseinatu ahal izateko.

Eraldaketarako bide horrek sinergiak aurkitzen ditu 2018ko apirilaren 10ean Gobernu Kontseiluak onartutako Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin. Bertan, honako hau jasotzen da berariaz:

“Basque Country 2030 Agenda honek lotu egiten ditu Eusko Jaurlaritzak bere gobernu-programan hartutako konpromisoak garapen iraunkorrerako 17 helburuekin eta 2030 Agendaren xedeekin, eta aukera ematen du gure politika aktiboak lerrokatzeko agenda unibertsal horrekin, eta agerian jartzeko Euskal Autonomia Erkidegoak egiten duen ekarpena 2030 Agenda gauzatzeko eta garapen iraunkorraren helburuak lortzeko”.

Garapen Jasangarriko 17 helburuetatik, bosgarrena "genero-berdintasuna" da, eta helburu hau du: "Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduztea". Nabarmentzekoa da, halaber, 8. helburua, "Hazkunde ekonomiko inklusibo eta jasangarria, guztiontzako enplegua eta lan duina sustatzea", "Balio bereko lanagatik ordainsari berdina ematea" barne hartzen duena.

Konpromiso horiek indartu egiten dira, besteak beste, Emakumeen eta Gizonen arteko Soldata Arrakala murrizteko 2030 Estrategia abian jarrita. Estrategia hori 2018ko azaroaren 27ko Gobernu Kontseiluak onartu zuen. Hain zuzen ere, 2030ean ondoren adierazten den Euskadi lortu nahi duen estrategia:

- Soldata-diskriminazioa desagertu den euskal lan-merkatua izatea.
- Soldata-arrakala txikiena duten Europako bost herrialdeen artean egotea.
- Ordainsari-berdintasunarekin erabat konprometituta dagoen gizartea izatea (herritarrek eta erakundeetako, gizarteko eta ekonomiako eragileak), berdintasunean oinarritutako hezkuntza eta garatutako berdintasun-balioekin koherenteak diren gizarte-portaerak oinarri hartuta.

Gobernu Kontseiluak, 2024ko otsailaren 13an, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategia onartu zuenean, Eusko Jaurlaritzaren jardunerako erreferentziazko esparru estrategikoa eratu zen. Horrela, eta beren jarraibideei jarraituz, 2025ean, sailek, organismo publikoek eta partzuergoek beren jardura-planak egingo dituzte berdintasunaren arloan.

2024-2028 Gobernu Programa berria, "Ongizatean Hazi. Ongizatea, Aurrerabidea, Eraldaketa eta Autogobernua Euskadi global baterako ", 2030 Agendaren 26. konpromisoa hartzean:

*Gure politikek eta ekintzek helburu horiek (GJH) gara eta bete ditzaten lan egingo dugu, pobrezia desagerraraztea, genero-berdintasuna sustatzea, ekintza klimatikoa eta gizarte inklusiboa eraikitzea lehenetsiz, eta, aldi berean, garapen ekonomiko iraunkorra eta inklusiboa sustatzen jarraituko dugu.*

2024-2028 Gobernu Programako Bizikidetzak, Memoria eta Giza Eskubideak IV. Ardatzean honako hau onartzen da:

*"Euskadiko emakumeen eta gizonen berdintasuna eta giza eskubideen defentsa funtsezko gai bihurtu dira gure gizartearentzat"*

Gobernu Kontseiluak uztailearen 9an onartutako 2025erako Euskadiko Aurrekontu Gidalerroak XIII. legegintzaldiko lehen aurrekontuari dagozkio, eta bertan gobernuaren lehentasun estrategikoak jasotzen dira. Dokumentu horretan honako hau jasotzen da:

Genero-berdintasunaren eta LGTBIQ+ eskubideen aldeko politikak funtsezkoak dira bizikidetzak-eredu sendo eta justu bat sustatzeko, pertsona guztiak erabat eta baldintza berdinetan gara daitezkeen ingurunea sortuz. 2025eko aurrekontuarekin, oinarriak ezarriko dira emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko berdintasuneko gizarte bat eraikitzeko, bere adierazpen guztietan; LGTBIQ+ pertsonen errealitatea berdintasun-politiken agendan txertatzeko; balio-aldaketa eta emakumeen eta nesken ahalduz bultzatzeko; eta pertsonen eta kolektiboen diskriminazioaren eta estigmatizazioaren aurka borrokatzeko.

Ilde horretan, Eusko Jaurlaritzak apustu irmoa egiten eta aurrekontuak genero-ikuspegiarekin garatzen jarraitzen du. Izan ere, txosten hau egiteko, eta administrazio-prozedura arruntaren zati gisa, sail guztiek, erakunde autonomoek, partzuergoek, EITB taldeak, Osakidetzak, SPRI Taldeak, URAk eta IHOBek txosten bat bidali dute Ogasun eta Finantza Sailera, datorren ekitaldirako estrategia orokorra eta jarduteko lehentasunak azaltzeko. Gainera, aurreko aldietan bezala, eta denboran zehar jarraipena egiteko asmoz, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren III. Esku-hartze Ardatzaren esparruan egitea aurreikusten dituzten jarduketak laburbiltzeko eskatu zaie: «Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak» eta «Soldata-arrakala»ren aurka 2025ko aurrekontuetarako. Aldi berean, sail guztiek, salbuespenik gabe, ohi bezala, Ogasun eta Finantza Sailaren Aurrekontu Zuzendaritzari bidali dizkiote dagozkien txostenak eta P-Gen formularioak. Informazio horrek edukiz hornitu du txosten hau.

Gainera, txosten honetan aztertutako aurrekontua pixkanaka handitze aldera, lehen aldiz informazioa eskatu zaie Osakidetzari, EITBri, SPRI, URA eta IHOBEn. Orain arte, Administrazio Orokorreko 1. eta 16. arteko ataletara (EAEko Administrazioa osatzen duten beste erakunde batzuentzako transferentziak kenduta) eta haren erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontuetara mugatzen zen azterketa hori.

### 3. EUSKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO DIAGNOSTIKO SOZIOEKONOMIKOA

Genero-berdintasuna oinarrizko giza eskubide aitortua den arren, eta feminismoari esker aurrerapen garrantzitsuak egin diren arren, emakumeen eta gizonen erabateko berdintasuna lortzetik oso urrun dago. Are gehiago, egiturazko desberdintasunek bere horretan dira, eta, kasu batzuetan, areagotzen ari dira. Izan ere, emakumeek eta gizonak gizartean duten posizio eta egoera desberdinetik abiatzen jarraitzen dute. Hierarkizazio horrek (desberdinkeraren erroa) sexuaren araberako jokabide, estereotipo eta patroizko soziokulturaletan du jatorria. Horiek emakumeei esleitzen diete etxearen esparruko erantzukizuna, eta gizonekoei esparru publikoaren ardura, balorazio eta aintzatespen ekonomiko eta sozial oso desberdina oinarri hartuta. Interseksionalitate-ikuspegi batetik, gainera, garrantzitsua da kontuan hartzea emakume askok diskriminazio anizkoitza jasaten dutela; izan ere, sexuaren ondoriozko diskriminazioarekin batera, beste diskriminazio batzuk jasaten dituzte, beste faktore batzuen artean, honako hauen ondoriozkoak: jatorri etnikoa, hizkuntza, adina, dibertsitate funtzionala, ondarea, sexu-orientazioa, etab. Horrek guztiak emakumeei baldintzatu egiten die, sarritan, herritartasunak berezkoak dituen eskubideak bete-betean baliatzea.

Desberdintasun horien kausak identifikatzea ezinbestekoa da, politika publikotik erantzun koordinatuak, integralak eta eraginkorrak emateko, ondorio negatiboak neutralizatuko dituztenak eta berdintasunaren bidean aurrera egitea ahalbidetuko dutenak, inor atzean utzi gabe. Horrela, atal honetan, eta testuinguru horretatik abiatuta, osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisiak Euskal Autonomia Erkidegoko emakume eta gizonengan duen eragin berezia aztertuko da, biztanleria horri zuzentzen baitzaizkio nagusiki euskal administrazioko politika publikoak. Emaitzak abiapuntua dira aurrekontu-programek EAEko emakumeen eta gizonen bizi-baldintzetan duten eragina ezagutu ahal izateko, hau da, gauzatzen ari diren jarduerekin emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomeno estruktural eta unibertsal hori ezabatzeko zer neurritan eragiten den jakiteko.

#### BIZTANLERIAREN AZTERKETA DEMOGRAFIKOA

2023ko uztailaren 1ean, 2.201.462 pertsona bizi ziren EAEn; horietatik % 51,5 emakumeak eta % 48,5 gizonak. EAEko biztanleriak gora egiten jarraitzen du, baina oso poliki<sup>3</sup>.

Immigrazio eta Aniztasunaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) 2023ko EAEko atzerritar jatorriko biztanleei buruz eskainitako panoramikako datuen arabera, 2023ko urtarrilaren 1ean, 2.216.302 pertsona bizi ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horietatik 274.142 atzerrian jaiotakoak ziren; hau da, guztizkoaren % 12,4. Horietatik % 52,4 emakumeak dira eta talderik handiena Latinoamerikatik etorritako emakumeena da.

1. Taula. Euskal AEko biztanleria, adin-taldean eta sexuaren arabera. 2023/07/01

| Adina   | Biztanlea |      | Emakumeak | Gizonak   | Sexu-ratio (E/G) |
|---------|-----------|------|-----------|-----------|------------------|
|         | Guztira   | %    | Zenbat    | Zenbat    |                  |
| ≥ 65    | 523.908   | %24  | 299.055   | 224.853   | 1,33             |
| 20-64   | 1.286.585 | %58  | 644.606   | 641.979   | 1,00             |
| ≤ 19    | 390.969   | %18  | 189.859   | 201.110   | 0,94             |
| Guztira | 2.201.462 | %100 | 1.133.520 | 1.067.942 | 1,06             |

Iturria: Eustat

<sup>3</sup> [https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema\\_159/opt\\_0/typo\\_1/temas.html](https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_159/opt_0/typo_1/temas.html)

Adin-tarteen arabera, bereziki ikusten da 20 eta 64 urte bitarteko emakumeen eta gizonen kontzentrazioa, 19 urtetik beherako biztanleriarena baino hiru aldiz handiagoa. Adin goiztiarretan emakumeak gutxiengoa diren arren, adinean aurrera egin ahala protagonismoa hartzen dute, hirugarren adinean gehiengoa izatera iritsi arte. Belaunaldi-erleborik ez egoteak adierazten du biztanleria pixkanaka zahartzen ari dela, eta are gehiago emakumeen kasuan.

Euskal AEko biztanleen batez besteko adina hamarren bat igo da 2023ko lehen seihilekoan, 45,7 urte. Sexuen arteko aldea 3,1 urtekoa da; izan ere, gizonak 44 urteko batez besteko adina dute, eta emakumeek 47,1ekoa, adin handiko emakume gehiago daudelako.

Adin handiei erreparatuz gero, ikus dezakegu 85 urte eta gehiagoko pertsonak 2003an % 1,9 izatetik 2023an % 4,1 izatera igaro direla, nahiz eta portzentaje hori oso modu desberdinean banatzen den gizonen eta emakumeen artean: Euskadiko gizonen biztanleriaren % 2,7k 85 urte edo gehiago ditu, eta proportzio hori % 5,5eraino igotzen da emakumeen artean. 100 urte eta gehiagoko biztanlerian hazkunde-prozesua biziagoa izan da: 2003an adin horretako 269 pertsona izatetik, 20 urte geroago 883 izatera pasatu da, % 85,7 emakumeak izanik.

Telelaguntza-zerbitzua <sup>4</sup> bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonentzat edo mendekotasun aitortua duten 65 urtetik gorakoentzat da, eta norberaren etxean bizitzen jarraitzeko aukera ematen du, eta horrek zuzeneko helburuak lortzen laguntzen du, hala nola bizi-kalitatea handitzea. Zerbitzuaren azken datuen arabera, 2023. urtea 68.817 erabiltzaile egon ziren; horietatik % 76,31 emakumeak eta % 23,69 gizonak.

2022an, gizonen bizi-itxaropena <sup>5</sup> 80,5 urtekoa zen, urtebete lehenago baino bi hamarren gutxiago; emakumeena, berriz, hiru hamarren jaitsi da, eta 86,1 urtera iritsi da, baina 2019koa baino bost gutxiago dira, Eustaten datuen arabera. Jaitsiera hori 2022ko urtarriletik ekainera bitartean COVID-19aren pandemiak eragindako gain-hilkortasunaren eta urte horretako uztailleko bero-boladaren ondorioz gertatu da.

Euskal AEko ugalkortasuna muga bereziki baxuetan dago konparaziozko terminoetan; izan ere, 2022an batez bestekoa 1,21 jaiotza da emakume bakoitzeko, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago, eta Europar Batasunean ematen diren 1,53en azpitik (azken datua, 2021) eta 1976ko batez besteko 2,7 jaiotzetatik eta belaunaldi-ordezkapenerako beharrezkoak diren 2,1etik oso urrun.

## GENERO BERDINTASUNAREN INDIZEA EAEn

Genero Berdintasunaren Indizea eskala adimentsional batean laburbiltzen duen adierazle sintetiko bat da. Eskala horretan, 1ek erabateko desberdintasuna esan nahi du, eta 100ek erabateko berdintasuna. Adierazle horretan, gizonen eta emakumeen artean oraindik ere dauden desorekak laburbiltzen dira, ongizateari eta garapen pertsonalari eragiten dieten alderdi garrantzitsu batzuetan. Osaeran 31 adierazle daude, sei dimentsiotan hierarkikoki egituratuta, eta, era berean, 14 azpidimentsiotan banatuta.

Eustatek<sup>6</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Genero Berdintasunaren Indizea (GET) egiten du, Genero Berdintasunerako Europako Institutuaren (EIGE) metodologia erabiliz. Horri esker, Euskadiko genero-berdintasunaren arloko aurrerapenak Europar Batasunaren eta 27 herrialdeen erreferentziarekin konpara daitezke, bai eta urteetan zehar izan duten bilakaerarekin ere (2010, 2012, 2015, 2017, 2019 eta 2021). Euskal

<sup>4</sup> Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren 2025eko Aurrekontu Txostena


<sup>5</sup> [https://eu.eustat.eus/elem/ele0021600/not0021671\\_e.pdf](https://eu.eustat.eus/elem/ele0021600/not0021671_e.pdf)

<sup>6</sup> Iturria: [https://eu.eustat.eus/estad/id\\_752/ti\\_genero-berdintasunaren-indizea/azken-prentsa-oharra.html](https://eu.eustat.eus/estad/id_752/ti_genero-berdintasunaren-indizea/azken-prentsa-oharra.html)

AEk 100etik 74,5 puntu lortu ditu 2021eko Genero-Berdintasunaren Indizean, Institutuaren (EIGE) metodologia aplikatuta, eta 2019arekiko 1,4 puntu hobetu ditu eta Luxenburgoren eta Finlandiaren artean kokatzen da Europako sailkapenean, herrialde horiek, hurrenez hurren, zazpigarren eta zortzigarren postuan baitaude.

Euskadin, 2021ean lortutako datuek erakusten dute berdintasun-maila handienak osasunarekin, diruarekin eta denborarekin lotutako alderdietan daudela, eta nabarmen txikiagoa dela boterearekin edo ezagutzarekin lotutakoetan. Desberdintasuna gehien hautematen den dimentsioan botereari dagokiona da, batez ere bere alderdi ekonomikoan, azpidimentsio bat osatzen baitu, zeinaren indizea 52,2 puntukoa baita, eta ondoren gizarte-boterea dator, biak ala biak erabateko berdintasunetik oso urrun.

1. Irudia. Genero Berdintasunaren Indizearen bilakaera EAEn. 2010-2021



Iturria: Eustat

OSASUNA BIZTANLERIAN

Emakundek egindako Zifrak 2022 txostenaren arabera:

- Emakumeak maizago joaten dira medikuarenera gizonetzkoak baino
- Emakumeek pairatzen duten min-maila gizonena baino handiagoa da
- Emakumeen artean medikamentuen kontsumoa gizonena baino handiagoa da. Emakumeen artean, gehienek, %44,4k (430.000) agindutako sendagaiak kontsumitu dituzte eta gizon gehienek, %44,7k diote ez dutela sendagairik hartu.
- Emakumeak gizonetzkoak baino medikalizatuago daude. Alderik handienak tiroideetarako osagaietan (% 88,6), bizigarrietan (% 80) eta antidepressiboetan eta/edo estimulatzaileetan (% 79,1) ikusten dira, gehienak emakumeek erabiltzen dituzten sendagailak baitira. Gizonen artean ohikoagoak dira erreumarako botikak (% 62,8) eta neurri txikiagoan diabeteserako botikak (% 52,1).
- Gizonen artean ohikoagoa da etxeko lanetarako edo adineko pertsonak zaintzeko erabiltzea
- Emakumeek gizonen baino depresio-zorrotasun handiagoa erakusten dute (emakumeen % 79,5 gizonen % 20,5aren aurrean)
- Emakumeek gehiago erabiltzen dute osasun-estaldura Publikoa gizonen baino

Osakidetzaren arabera:

- 2007 eta 2023 artean tabako-kontsumoaren prebalentzian metatutako beherakada handiagoa izan da gizonen artean emakumeen artean baino, baina tabakismoaren prebalentziak handiagoa izaten jarraitzen du gizonen artean ( % 17,2) emakumeen artean baino ( % 13,8). Euskadin egindako Tabako-kontsumoa genero-ikuspegia aintzat hartuta azterlanak tabako-kontsumoko genero-desberdintasunak eta horren Euskadiko determinatzaileak aztertzen ditu. Horrez gain, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ere agerrarazten ditu tabakoa erretzen hasteko motibazioei, prebalentziari, intentsitateari eta tabakoa uzteko prozesuko zailtasunei dagokienez. Osakidetzako tabakismoaren taldeko kudeaketan azterlan horrek izandako eraginaren ondorioz, genero-ikuspegia aintzat hartutako esku-hartze bat garatu da bi talde tipologia hauetan: mistoak eta emakumeak bakarrik.
- 2023an, alkohol-kontsumoaren prebalentzia ia ez da aldatu 2018arekin alderatuta: % 16,6 gizonetan eta % 11,1 emakumeetan. 15-24 urteko gizonen % 9,1ek eta emakumeen % 14,3k alkohol ugari kontsumitzen dute hilean behin gutxienez. Kontsumo mota hori askoz handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino 25 urtetik aurrera. 25 urtetik gorako emakumeen artean, kontsumoa progresiboki murrizten da; gizonen artean, berriz, 45 urtetik aurrera..
- Gizon aktiboen prebalentziak (jarduera fisiko osasungarria) gora egin du 2018an % 79,7 izatetik 2023an % 84,3ra; are gehiago igo da emakume aktiboen prebalentzia, % 73,9tik % 80,0ra. Emakumeen artean, pertsona aktiboen prebalentziak gora egiten du klase sozialak gora egin ahala. Errealitate honek ondorioak ditu osasunean eta frogatuta dago, jarduera fisikoa erregulartasunez eginez gero, hauek izateko arriskua murrizten dela: kardiopatia koronarioak, istripu zerebrobaskularrak, II motako diabetesa, hipertentsioa, koloneko minbizia, bularreko minbizia eta depresioa.

**Osakidetzak** egiten dituen herri baheketa-programei dagokionez:

- Bularreko Minbiziaren Baheketa: 1995ean abiarazi zen. Programa EAEko 50 eta 69 urte bitarteko emakume guztiei eta lehen mailako bularreko minbiziaren familia-aurrekariak dituzten 40-49 urteko emakumeei zuzenduta dago. Parte-hartzea, % 79,4ko balioarekin, nabarmen handitu da aurreko urteekin alderatuta, eta programaren historiako minbizi kopuru handiena antzeman da: 715 kasu 2023an..
- Zerbixeko minbiziaren baheketa: 2018an hasi zen, pixkanaka ezarri zen autonomia-erkidego osoan, eta 2019an iritsi zen bere hedapen handienera. Urte hauetan guztietan, beharrezko gonbidapenak egin dira programaren helburu planifikatuaren arabera: xede-biztanleriaren % 100aren gonbidapena lortzea (25-65 urteko emakumeak) 2024ko abenduan. Programaren parte-hartzea handituz joan da pixkanaka, hainbat estrategia ezarri direlako eta 2023an % 60ra iristea aurreikusten da. Sexu-transmisiozko infekzio baten ondorioz (GPB) emaitza aldatua jasotzen duten emakumeek inpaktu emozional handia izan dezakete; hori dela eta, komunikazio-estrategiei buruzko prestakuntza-ikastaro batzuk egin zaizkie profesionaleri, gutxitzeko. Ikerketa-esparru batean esku hartze horren eraginkortasuna aztertzen ari dira, saiakuntza kliniko baten bidez.
- Koloneko eta ondesteko minbiziaren baheketa: 2019an jarri zen abian 50-69 urteko emakumei eta gizoni zuzendua (2024ko maiatzetik aurrera handitua). Emakumeen parte-hartzea gizonena baino nabarmen handiagoa da, nahiz eta gizonak aukera gehiago dituzten gaiztotu aurreko lesioal eta minbizia garatzeko. Programaren emaitzak eta eragina aldizka monitorizatzen, zabaltzen eta argitaratzen ari dira, parte-hartzea hobetzeko. Talde ahulenetako biztanleekin egiten da lan, etnia desberdinekin eta migratzaileekin. 2021etik, eta Europako Funtsak jaso zirenetik, gutun bereziak zuzentzen zaizkie emakumei eta gizoni, bai eta generoa erregistratuta ez duten pertsoneri ere.
- Jaio aurreko baheketa DNA-Ic sartuz: Jaio aurreko baheketa-programa 2009an onartu zen, eta 2010ean jarri zen abian Osakidetzara jotzen zuten emakume guztientzat. 2024an, DNA-Ic proba bat sartu da, detekzioa hobetzeko eta teknika inbaditzaileak murrizteko. Emakume kalteberen eta beste etnia eta migratzaile

batzuen baheketaren eta baieztapen-proba diagnostikoen (amniozentesia/korio-biopsia) arbuioa aztertzen ari gara, ekitea hobetzeko. Baheketaren onarpena >% 99 da.<sup>7</sup>

- Preeklamsiaren jaioaurreko baheketa: 2024an onartu zen, Osakidetza haurdunaldi-kontrola egitera joaten diren emakume guztientzat. Ebaluazioan, 2024ko ekainean hasi baitzen. Onarpen-ezaugarriak jarraitzen ari dira.<sup>8</sup>

## HEZKUNTZA<sup>9</sup>

2022/2023 ikasturtean oreka zegoen neska-mutilen artean derrigorrezko hezkuntzan. Derrigorrezko bigarren hezkuntzatik aurrera, lehenengo aldeak agertzen hasten dira, eta aldea nabarmentzen doa sarbide berezian: bai aukeratzen diren irakaskuntza motetan, bai batzuek eta besteek aukeratzen dituzten adar edo jakintza-arloetan

**Lanbide Heziketari** dagokionez, emakumeen parte-hartzea oinarrizko lanbide-heziketan %28koa izan zen 2022/2023 ikasturtean eta erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketan %36koa; beraz, emakumeen eta gizonen arteko aldea handia da oraindik. Aurreko ikasturtearekin alderatuta, oinarrizko eta erdi mailako lanbide-heziketan emakumeen zenbatekoa dezima batzuk handitu da, eta goi-mailakoan aldiz, mantendu.

Horrekin batera, familia-profesionalen aukeraketak genero-estereotipoak mantentzen jarraitzen du:

- Hauek izan ziren 2022/2023 ikasturtean maila ertaineko familia-profesional feminizatuenak: irudi pertsonala (% 89 emakumeak dira), ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (%88) eta zerbitzu soziokulturalak eta komunitatearentzako zerbitzuak (%81). Gizonak, familia-profesionalen arabera banaketa handiagoarekin, itsas-arrantza (%98 gizonak), instalazioan eta mantentze-lanetan (%96), garraio eta ibilgailuen mantentzea (%96) eta elektrizitatea eta elektronikan kontzentratu ziren..
- Goi-mailako prestakuntzan antzeko banaketa eman zen: 2022/2023 ikasturtean emakume gehien izan ziren familia-profesionalak ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (%93), irudi pertsonala (% 92), eta osasun saila (%78) izan ziren. Gizonak, gehienbat, garraioa eta ibilgailuen mantentzea (%95), itsas-arrantza (%94) eta Elektrizitate eta elektronikan (% 93) kontzentratu ziren.

Irakaskuntza arautuan eta Lanbide Heziketan, **Hezkuntza-premia bereziak** dituzten eta hezkuntza-sisteman sartuta dauden gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da (% 3,6 gizonen kasuan eta % 1,5 emakumeen kasuan). Emakumeen eta gizonen arteko aldeak oso esanguratsuak dira hezkuntza-etapa guztietan: gizonen presentzia % 70tik gertu dago etapa guztietan, eta % 77ra iristen da erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketaren kasuan.

EAE **adimen-gaitasun handiko** 937 ikasle daude, % 30,6 neskek eta % 69,4 mutilak. Ikasle horiek, gehienbat, Lehen Hezkuntzan (404 ikasle, guztizkoaren % 43,1) eta DBHn (421 ikasle, % 44,9) biltzen dira. Oinarrizko LHn ez dago ezaugarri horiek dituen ikaslerik matrikulatuta, eta erdi-mailako LHn ez dago emakumezko ikaslerik. Hezkuntza-etapa guztietan gizonen presentzia handiagoa da. Alde horiek nabarmenagoak dira hezkuntza-etapa goiztiarretan. 2020ari dagokionez, % 9 igo da gaitasun handiko pertsonen kopurua (860 zehazki 2020an): emakumeen kasuan, igoera hori % 12,5koa izan da.

Unibertsitate-ikasketei dagokienez, 2023an sarbide-probetara aurkeztu ziren pertsona guztien % 55,86 emakumeak izan ziren. Gaindituen ehunekoa altua eta oso antzekoa da bi sexuetan. Graduei dagokienez,

<sup>7</sup> [Garai aurreko preeklampsia jaio aurretik bahetzeko eta prebenitzeko programa - Osasun Eskola \(euskadi.eus\)](#)

<sup>8</sup> [Garai aurreko preeklampsia jaio aurretik bahetzeko eta prebenitzeko programa - Osasun Eskola \(euskadi.eus\)](#)

<sup>9</sup> Informe Presupuestos 2025 Departamentos de Educación y de Ciencia, Universidades e Innovación.

emakumeen eta gizonen presentzian desberdintasun handienak dituzten sektoreak osasun-zientziak ( % 77) eta ingeniari eta arkitektura ( % 70,50) dira.

**Master Ofizialeko eta Doktoregoko** ikasketei dagokienez, ez dago alde handirik emakumeen eta gizonen presentziari dagokionez.

#### ORDAINTUTAKO LANA<sup>10</sup>

Emakumeek eta gizonak goi-mailako ikasketetan eta lanbide-heziketako ikasketetan duten parte-hartze desberdinak zehazten ditu, besteak beste, lan-munduan sartzeko eta parte hartzeko baldintzak.

Biztanleria aktiboa: 516.300 emakume eta 556.500 gizon.

Jarduera-tasak erakusten du lanean ari den edo lan egiteko moduan dagoen 16 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoa (langabezia). 1991tik aurrera, jarduera-tasa globala handituz joan da, emakumeen jarduera-tasaren hazkundeak bultzatuta; hala ere, 2015ean izan zuen mailarik handiena, eta, orduetik, beherakada txiki bat izan du. Gizonen jarduera-tasaren murrizketak are gehiago hurbildu ditu emakumeen eta gizonen jarduera-tasak; izan ere, 2024ko bigarren hiruhilekoko aldea 10 ehuneko-puntutik beherakoa da. 2024ko bigarren hiruhilekoan, Euskadin % 61,2 da gizonen kasuan eta % 52,3 emakumeen kasuan.

Okupazio-tasak, bestalde, enplegatuta dauden edo norberaren konturako lana duten pertsonen proportzioa erakusten du. 2024. urteko bigarren hiruhilekoan, 16 urtetik gorako emakumeen % 67,9 zegoen egoera horretan, gizonena baino 6 puntu gutxiago ( % 73,9).

Langabezia-tasak lanik egiten ez duen eta lana bilatzen ari den biztanleria aktiboaren ehunekoa adierazten du. 2024. urteko bigarren hiruhilekoan, EAEko emakume aktiboen % 7,6 eta EAEko gizon aktiboen % 7,3 lana bilatzeko egoeran daude. Euskal AEko langabezia-tasa % 7,5 da, 2024ko lehen hiruhilekoan baino ehuneko 0,4 puntu gutxiago.

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko lan-merkatuko 2024ko bigarren hiruhilekoko datuek 11.700 landun gehiago eta 4.500 langabe gutxiago islatzen dituzte aurreko hiruhilekoan baino. Eta sexuaren aldagaiari dagokionez, okupazioaren hazkunderik handiena emakumeen artean izan da (+8.300), eta gizonen artean, berriz, 3.200 gehiago.

2024ko uztailean sinatutako KONTRATUEN % 36,3 LANALDI PARTZIALEKOAK dira, % 46,8 emakumeen kasuan eta % 26,3 gizonen kasuan. Kontratazio-mota horren arazo nagusia da gehienak nahi gabeak direla, eta agerian uzten dutela ezarritako kontratu-harremanaren kalitatea eskasa dela. Kontratu mugagabeen % 32,7 lanaldi partzialekoak dira.

Lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak, kontratazio-balio esanguratsua duten jardueren artean, honako hauek dira: ostalaritza ( % 57,6), hezkuntza ( % 57,5) eta administrazio-jarduerak ( % 52,3). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioagatik gehien

---

<sup>10</sup> Informe Presupuestos 2025 del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo y de Lanbide. Datos extraídos de Eustat. II Trimestre 2024



nabarmentzen dena zerbitzuetako langileena da (% 52,8), eta gutxien, lehen sektoreko pertsona kualifikatuena (% 4,8).

Lanaldi partzialeko lana: lan-prekarietatea eta genero-arrakalak azterlanaren arabera, partzialtasuna lan-prekarietatearen beste ertz bat da, behin-behinekotasunarekin eta orduko soldata txikiekin lotzen baita. Emakumeak gizonak baino gehiago kontzentratzen dira partzialtasun handiagoko okupazio eta sektoreetan; baina, aldi berean, okupazio eta/edo sektore beraren barruan, emakumeak dira lanaldi partzialeko kontratuak gehien garatzen dituztenak. Horrek genero-arrakala handia eragiten du partzialtasunean, eta Euskadin oso nahigabea da. Nahi gabeko partzialtasunean dagoen genero-arrakala, neurri batean, okupazioaren segregazioari zor zaio. Bestalde, zaintzagatiko partzialtasunak lanaldi partzialean lan egiten duten emakumeen % 20ri eragiten dio, eta arrazoi hori ia ez dago gizonen artean. Azterlanaren arabera, partzialtasun mota hori ez da oso borondatezkoa; izan ere, emakume horien proportzio handi batek lanaldi osoan lan egingo luke, Estatuak profesional bat kontratatzea finantzatuko balie zainketez arduratzeko.

Laburbilduz, EAEko emakumeek diskriminazioa jasaten dute honako alderdi hauetan: kontratazio-baldintza okerragoak, lanaldi okerragoak eta soldata txikiagoak. Estereotipo sozialek eta gizonen ugalketa- eta zaintza-lanetan gutxiago aritzeak ere eragina dute okupazio-segregazioan, baita emakumeek lanaldi partzialeko lanetarako ustez duten joerari buruzko aurreiritziek ere.

## ZAINZA LANAK

Zaintza-lantzat hartzen ditugu bizitzaren arretan eta zaintzan zentratutako jarduera guztiak (ordainduak edo ordaindu gabeak). Ikuspuntu biologikotik, premia handieneko etapak haurtzaroa eta heldutasun aurreratua dira; hala ere, pertsona guztiek behar dituzte zainketa fisikoak, psikologikoak eta emozionalak bizi-zikloan zehar, gure gizakiaren berezko premia da.

Emakume gehienek beren gain hartu dute etxe barruan eta kanpoan bizitzak mantentzeko ardura. Historikoki, zaintza-lana emakumeei esleitu izan zaie, zaintza ikusezin, sozialki desbalorizatu eta ekonomikoki zigortu. Hala ere, pandemiak iraun duen bitartean, gizarte-onarpen zabala dute, eta herrialdeko bizitzarako eta ekonomiarako ezinbestekotzat jo dute.


Etxeko Lanaren Kontu Satelitearen arabera, EAEko etxeko ekoizpenaren balioa 21.296 milioi euro izan zen 2018an; horrek esan nahi du urte horretako barne-produktu gordinaren (BPGd) % 27.7 izan zela. Emakumezkoek egindako etxeko lanak BPGd-ren % 18,6 lirarteke, eta gizonetzkoek egindakoaren pisu ekonomikoa (% 9,1) bikoiztuko lukete.

Eustaten <sup>11</sup>, Denbora Aurrekontuei buruzko inkestaren arabera, 2023an, gizonen % 90,3k eta emakumeen % 94,8k parte hartzen dute etxeko lanetan (garbiketa, erosketak, janaria prestatzea...), eta tasa horiek igoera argia dakarte 2018ko datuekin alderatuta (% 72,1 eta % 88,2, hurrenez hurren). Eskaintako denborari dagokionez, gizonen eta emakumeen arteko aldea ere murriztu egin da. 2023an, emakumeek gizonen baino 44 minutu gehiago ematen zituzten, eta 2018an, berriz, ordubete eta 11 minutu. Janariak prestatzea da gizonen eta emakumeen artean alde gutxien duen jarduera.

---

<sup>11</sup> [https://eu.eustat.eus/estad/id\\_77/ti\\_denbora-aurrekontuen-inkesta/azken-prentsa-oharra.html](https://eu.eustat.eus/estad/id_77/ti_denbora-aurrekontuen-inkesta/azken-prentsa-oharra.html)

### Euskar AEko 16 urtetik gorako biztanleriaren batez besteko gizarte-denbora jarduera motaren eta sexuaren arabera. 2023



Iturria: Eustat

Etxeko pertsonak egunero zaintzen dituzten gizonak (% 19,8) ordu 1 eta 41 minutu, eta emakumeek (% 26,3) 2 ordu eta 4 minutu. Helduen zaintzan emandako denbora 2018an baino txikiagoa da, bai gizonak (44 minutu gutxiago), bai emakumeek (10 minutu gutxiago). 2018arekin alderatuta, oro har, murriztu egin da erabilitako denbora eta zainketa-taldearen jardueretan izandako parte-hartzea.

Etxeko lanak<sup>12</sup> etxean bertan egiten direnean, % 67,2 emakumeek egiten dituzte. Gainera, nabarmendu behar da aztertutako zaintzako eta etxeko laneko jarduera guztietan emakumeek gizonak baino pisu handiagoa dutela. 2018an aztertutako funtzioen arabera, bizitokian eta etxebizitzan (% 38,0) eta zaintzak eta hezkuntza ematean (% 34,7) ikusten da gizonen ekarpen handiena, eta, ondoren, janaria emateko funtzioan (% 30,9). Gizonak gutxien parte hartzen duten funtzioa arropa eta bestelako ardurak hartzea da (% 17,4).

2021ean, jaiotzak eta adingabeak zaintzeko prestazioak<sup>13</sup> 21.889 dira EAEn, 2020an baino 1.058 gutxiago. Horietatik, % 48,6 lehenengo gurasoari dagozkio (normalean amari). Oro har, lehenengo gurasoak bigarrenak baino neurri txikiagoan erabiltzen du jaiotza-baimena.

Seme-alabak zaintzeko eszedentziak neurri handiagoan erabiltzen dituzte emakumeek. Guztira 5.017 eszedentzia eskatu dira seme-alabak zaintzeko, eta horietatik % 69,5 emakumeek erabili dituzte.

<sup>12</sup> [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio\\_cifras/eu\\_emakunde/adjuntos/zifrak\\_2022.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/eu_emakunde/adjuntos/zifrak_2022.pdf)

<sup>13</sup> 6/2019 Errege Lege Dekretua, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriei buruzkoa, 2019ko martxoan indarrean sartzearekin batera, amatasun- eta aitatasun-prestazioak adingabearen jaiotza- eta zaintza-prestazioak izango dira

Biztanleria aktiboaren eta ez-aktiboaren artean, emakumeek etxeko lanak egin ohi dituzte.

Azkenik, familia askok kontziliaziorako zailtasun handiak zituzten, eta arazo hori hainbat neurritako zailtasunen eraginpean egon daiteke, zaintzatik hasi eta kudeaketa burokratikoetaraino. Otiak 10era bitarteko eskala batean, mendekotasuna duten pertsonak zaintzea da zailena emakumeentzat (4,1), baita seme-alaba adingabeak zaintzea ere, eta norberaren jarduerak egitea (hamarren bat gehiago: 4,2). Gizonen ustez, zailena seme-alaba adingabeak zaintzea da (4,6) eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzea (4,1). Emakumeen zein gizonen kasuan, eskalan behe-behean dauden jarduerak etxeko lanak dira (batez beste, 3,6)..

## ANIZTASUNA ETA BIZIKIDETZA<sup>14</sup>

Immigrazio eta Aniztasunaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) EAEko diskriminazioa eta aniztasuna: ikuspegiak, eremuak eta kolektiboak izeneko azterlana egin zuen, eta 2021ean jaso zuen EAEko biztanleen % 24,4k adierazi zutela beren bizitzako uneraren batean diskriminazioa jasan zutela. Ehuneko hori handiagoa izan zen emakumeen artean ( % 28,9) gizonen artean baino ( % 19,6). Txostenean gehien aipatzen diren arrazoiak generoarekin, jatorriarekin edo adinarekin lotutakoak izan ziren. Urtebete geroago, eta Gazteen Euskal Behatokiak jasotako datuen arabera, 15 eta 29 urte arteko pertsonen % 13,8k adierazi zuten sexu-orientazioagatik edo sexu-identitateagatik diskriminatuta sentitu ziren egoeraren bat lehen pertsonan bizi izan zutela. 2023an, Ertzaintzak argitaratutako Euskadiko gorroto-gertakariei buruzko 2023 txostenaren arabera, erregistratutako gorroto-delituen % 64 arrazista edo xenofoboak izan ziren, eta sexu-orientazio eta -identitatearen eremuan gertakarien % 16 izan ziren (45 kasu).

**Osakidetzan**, Berdintasun Korporatiboko Unitatea Berdintasun eta Parte-hartze Zerbitzuan dago, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren Giza Baliabideen Zuzendaritzako Garapeneko eta Prestakuntzako Zuzendariordetzaren barruan. Honako hauek osatuta dago: bi berdintasun-teknikari, zerbitzuburu bat eta administrari bat. Gainera, zerbitzu-erakunde bakoitzean berdintasun-erreferentea bat dago, bolumen handieneko 5 erakundeetan izan ezik, bina erreferente baitituzte horiek; horrek esan nahi du 25 berdintasun-erreferente daudela, guztira, zerbitzu-erakundeetan. Arduraldia erabat aitortuta dago. Nabarmentzekoa da Berdintasun Plana hedatzeko, haren jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, berdintasun-erreferenteak identifikatu eta hautatzeaz gain (beren lanpostuaren lanaldiaren % 30 soilik berdintasunerako izango da), gobernantzarako organoak eratzen direla.

Beraz, 21 berdintasun-batzorde daude, bat zerbitzu-erakunde bakoitzeko, 12 batzordekide titularrek osatua (6 langileen aldetik, 6 administrazioaren aldetik), bai eta presidenteak, idazkariak eta ordezkoez ere, 600 pertsona inguruk osatua (% 82 emakumeak eta % 18 gizonak), eta Berdintasunerako Batzorde Tekniko bat, zerbitzu-erakundeetako eta Berdintasunerako Unitate Korporatiboko berdintasun-erreferenteak diren pertsona guztiek osatua, 24 batzordekide titularrek osatua (% 89 emakumeak eta % 11 gizonak). Ezarritako gutxieneko maiztasunarekin: urtean 4 bilera (hiruhileko bakoitzeko bat). Pertsonen Zuzendaritzek osatzen dituzte Berdintasun Batzordeetako lehendakaritzak.

**EITBk** generoan aditua den langile bat dauka, EHUren "Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna: Berdintasun Eragileak" masterra daukana (enpresaren eta administrazio publikoaren arloko espezializazioetan). EITBko berdintasun-gaietako arduraduna zuzendaritza-taldean dago, eta Plana ezartzeko nahiz emaitzak ebaluatzeko prozesua gidatzen du. Eremu horretan, Estrategia eta Komunikazio Atalean aritzen da, hortxe garatzen baita EITBk zerbitzu publiko gisa duen misioa. Bestalde, EITB Talde osorako zeharkako politikak ezartzen dira bertan. Berdintasuneko helburuak garatzeko, gainera, aholkularitza-enpresa adituen laguntza jasotzen du. Berdintasun-arloko aurrekontuaren zatirik handiena kanpoko aholkularitza-enpresetara bideratzen da. Berdintasunari esleitzen zaion gainerako aurrekontua atal bakoitzak kudeatzen du (prestakuntza, fikzio-ekoizpena, EITBko Kirolen Zuzendaritza eta abar...). EITBren Berdintasunerako III. Planean planteatutako helburuak lortzea, halaber, Zuzendaritzaren eta Berdintasun Batzordearen esku egongo da (azken horretan, besteak beste, parte hartzen dute zuzendaritzako eta sindikatu etako ordezkariak).

**URA** berdintasunerako antolaketa-egitura bat du, Uraren Euskal Agentzian berdintasun-politikak bultzatzeko eta koordinatzeko ardura bere gain hartzen duen pertsona batez (hemendik aurrera, "Berdintasunaren arduraduna") eta lantalde parekide eta diziplina anitzeko batez osatua. Lantalde horrek, arduradunarekin batera, erakundearen

aldaketa gidatzen du ("Berdintasun Taldea"). Hala, Uraren Euskal Agentziaren 2023-2026 aldirako III. Berdintasun Plana onartu ondoren, III. Planaren Jarraipen Batzordea eratu da, bertan jasotako ekintza eta neurriei ekiteko eta horien jarraipena egiteko. Planaren jarraipen-batzordea paritarioa da: Agentziaren izenean bi pertsona (Administrazio eta Zerbitzuen zuzendaria eta Baliabide Orokorren arduraduna) eta langileen bi ordezkari (bat Bizkaikoa eta bestea Gipuzkoakoa).

URako berdintasun-egituren funtzioei dagokienez:

a) Hauek dira berdintasunaren arduradunaren eginkizunak:

- Berdintasunerako Taldea koordinatzea, bai eta Uraren Euskal Agentziaren Berdintasunerako Planean jasotako neurriak eta ekintzak garatu behar dituzten pertsonak ere.
- Uraren Euskal Agentziaren ordezkari gisa parte hartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren berdintasunerako koordinazio-egituretan, bereziki Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Batzordean eta BAI SAREAn, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak sustatzen duen eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundeek osatzen duten sarean.

Berdintasun-arduradunaren figuraren dedikazioari dagokionez, URako berdintasun-politikaren kudeaketa bere zereginetako bat da. Prestakuntza espezializatua du, besteak beste, Miguel de Cervantes Unibertsitate Europarrean genero-berdintasunean espezializatzeko unibertsitate-ikastaroa (250 ordu).

b) Berdintasun Taldearen eginkizunak honako hauek dira:

- Plangintza: urteko programazioa egitea eta deitutako bileretan parte hartzea.
- Berdintasunerako Planean adostutako neurriak betetzen direla zaintzea.
- Plantillan Berdintasunerako Planaren inguruan sortzen diren zalantzen gainean aholkatzea eta horiek argitzea.
- Berdintasunerako Planean aldaketak proposatzea edo neurri eta jarduera berriak sartzea.
- Berdintasunerako Planaren komunikazio-, jarraipen- eta ebaluazio-lanak egitea.
- Berdintasunerako Taldea eratzeko irizpideak:
- Emakumeen eta gizonen parte-hartzea, paritarioa edo, gutxienez, plantillan duten ehunekoarekiko proportzionala.
- Zuzendaritzak eta plantillako lan-ordezkaritzak parte hartzea.
- Zuzendaritza, lanpostu eta maila profesionalen ordezkaritza.

Agentziaren Zuzendaritza Nagusiak izendatzen du Berdintasun Taldea batzordea, eta, gaur egun, 7 pertsonak osatzen dute. Berdintasunerako arduraduna Baliabide Orokorren arduraduna da.

**SPRIn** eta **IKIESKen**, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren (2020-2023) esparruan, 6 boluntariok osatutako lantalde bat eratu da, zeharkako osaera duena, planeko ekintzak ezartzen laguntzeko.

**IHOBE**n Berdintasunerako Talde bat eratu da, zuzendari nagusiak, Estrategia eta Berrikuntzako zuzendariak eta lau kide gehiagok (3 emakume eta gizon 1) osatua, eta erakundearen berdintasuna sustatzeko dedikazio-denbora eman zaie

## 6. GASTUEN AZTERKETA (2): SAILAK ETA HORIEN GASTUEN AURREKONTU-PROGRAMAK

6. Taula. EAEko Administrazio Orokorraren gastuen aurrekontu guztia 2025, atalka

| EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN GASTUEN AURREKONTUA |  |                         |                 |
|--|--|-------------------------|-----------------|
| Atala  | IZAERA   | €                       | Guztirakoaren % |
| 00   | LEGEBILTZARRA  | 35.465.000              | 0,2%            |
| 01   | LEHENDAKARITZA   | 95.572.000              | 0,6%            |
| 02   | KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA                         | 392.110.000             | 2,5%            |
| 03   | EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA                            | 1.224.891.000           | 7,8%            |
| 04   | OGASUNA ETA FINANTZAK                                  | 122.556.000             | 0,8%            |
| 05   | GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA   | 179.697.000             | 1,1%            |
| 06   | INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA | 631.299.000             | 4,0%            |
| 07   | SEGURTASUNA  | 796.321.000             | 5,1%            |
| 08   | HEZKUNTZA  | 3.247.521.000           | 20,6%           |
| 09   | ETXE BIZITZA ETA HIRI AGENDA                           | 445.996.000             | 2,8%            |
| 10   | OSASUNA  | 5.115.870.000           | 32,5%           |
| 11   | ONGIZATEA, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFKOA            | 357.989.000             | 2,3%            |
| 12   | MUGIKORTASUN JASANGARRIA                               | 567.253.000             | 3,6%            |
| 13   | ZIENTZIA, UNIBERTSITATEAK ETA BERRIKUNTZA              | 612.750.000             | 3,9%            |
| 14   | TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA                   | 57.827.000              | 0,4%            |
| 15   | ELIKADURA, LANDA-GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA    | 273.900.000             | 1,7%            |
| 16   | JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK                           | 359.631.000             | 2,3%            |
| 51   | LAN HARREMANEN KONTSEILUA                              | 2.901.143               | 0,0%            |
| 52   | EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA  | 1.757.857               | 0,0%            |
| 53   | EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA                | 1.184.317               | 0,0%            |
| 54   | HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA                         | 8.921.626               | 0,1%            |
| 55   | DATUAK BABESTEKO EUSAKL BULEGOA                        | 2.795.977               | 0,0%            |
| 90   | ZOR PUBLIKOA   | 1.024.802.826           | 6,5%            |
| 95   | ERAKUNDEEN BALIABIDEAK ETA KONPROMISOAK                | 126.026.667             | 0,8%            |
| 99   | HAINBAT SAIL   | 43.157.587              | 0,3%            |
| <b>GUZTIRA</b>                                       |  | <b>15.728.196.000 €</b> | <b>100%</b>     |

EAEko 2025erako Aurrekontu Orokorrak honela banatzen dira:

- 1etik 16ra bitarteko atalak Eusko Jaurlaritzaren egitura organikoa osatzen duten sailei dagozkie. Politika publikoak gauzatzeko, aurrekontu osoaren % 92,07 jasoko dute, 2024ko aurrekontuak baino pixka bat txikiagoa, zor publikoaren partida handitu egin delako.
- Aurreko ekitaldietan bezala, aurrekontuaren erdia baino gehiago (% 57,1) Osasun Sailean (% 80 Osakidetzan), Hezkuntza eta Zientzia Sailean, Unibertsitate Sailean eta Berrikuntza Sailean biltzen da.
- Emakunderi zuzendutako aurrekontua 194.415 €-koa da, 2024koa baino txikiagoa.

#### TXOSTEN HONETAN AZTERTUTAKO AURREKONTUA

Sailek beren politikak lantzen dituzte, gauzatu beharreko helburu eta ekintza garrantzitsuenak zehaztuta, esleitzen zaizkien aurrekontu-baliabideekin. Plangintza-lan hori "aurrekontu-programetan" islatzen da. Programa horiek, aurrekontuak genero-ikuspegitik aztertzeke sailetako txostenekin batera, txosten hau aztertzeke funtsezko elementuak dira.

Aurreko aurrekontuei buruzko genero-eraginari buruzko txostenetan azaldu den bezala, aurrekontuekin ezartzen diren politika publikoen azterketa konplexua denez, epe luzerako hobekuntza-prozesu gisa planteatzen da. Hau esan nahi du:

- Aurrekontu-esleipenek emakumeen eta gizonen aukera sozioekonomikoetan dituzten eraginak aztertzea, euskal administrazio publikoaren jardun-arlo guztietan, plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan.
- Emakumeen eta/edo gizonen egoerak eta/edo posizioak gure gizartean eragindako diskriminazio-egoerak mantentzen edo areagotzen dituzten partidak berregituratzea.

Ildo horretan, Ekonomia eta Ogasun Sailaren estrategia EAEko aurrekontu orokorra faseka aztertzean datza. Horrela, azterketetan sakondu eta aurrekontuak genero-ikuspegiarekin egiteko prozesua finkatu ahala, aztertu beharreko aurrekontu-zenbatekoa handitzen joango da.

2025eko aurrekontu horietarako, honako aurrekontu kontsolidatu <sup>28</sup> hauen gainean egiten da azterketa:

- a) Eusko Jaurlaritzako sailak (1-16 sekzioak, EAEko Administrazioa osatzen duten beste erakunde batzuei egindako transferentziak kenduta): **7.730.963.370 €**
- b) Eusko Jaurlaritzako sailei atxikitako erakunde autonomoen eta partzuergoak: **1.408.301.563 €**
- c) Osakidetza Taldea (aurreratzean, Osakidetza): **4.019.311.507 €**
- d) EITB Taldea (aurreratzean, EITB): **209.029.553 €**
- e) SPRI- Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia eta SPRI-SCR (aurreratzean, SPRI): **112.679.767 €**
- f) URA: **64.726.969 €**
- g) IHOBEn: **12.407.209 €**

Garrantzitsua da adieraztea zuzenbide pribatuko erakunde publikoak (Osakidetza, EITB, SPRI eta URA) aztertzeke metodologia desberdina dela. Horrela, sailek eta haien erakunde autonomoek eta partzuergoek kudeatutako aurrekontu-programen kasuan, analisia aurrekontu-programei eta aurkeztutako txostenei buruzko P-Gen formularioetan oinarrituta egin da. Osakidetzaren, EITBren, SPRIren, URAREN eta IHOBEn kasuan, azterketa genero-ikuspegitik egindako azterketa-txostenetan oinarrituta egin da, erakunde bakoitzaren berezitasunak

---

<sup>28</sup> Aurrekontu bateratua: EAEko sektore publikoko beste erakunde batzuk finantzatzeko transferentziak kentzen dira.

kontuan hartuta. Inprimakiak eta aipatutako txostenak Aurrekontu Orokorra egiteko arau teknikoen bidez eskatu dira.

Ilido horretatik, aztertutako aurrekontua honela bana daiteke:

- 9.139.264.933<sup>29</sup> € (66%): Administrazio Orokorra (1-16 sekzioak, EAEko Administrazioa osatzen duten beste erakunde batzuei egindako transferentziak kenduta), haren erakunde autonomoak eta partzuergoak
- 4.019.311.507 € (29,6%): Osakidetza Taldearean aurrekontua
- 209.029.553 € (1,5%): EITB Taldearen aurrekontua
- 112.679.767 € (0,8%): SPRIren aurrekontua
- 64.726.969 € (0,5%): URAREN aurrekontua
- 12.407.209 € (0,1%): IHOBEn aurrekontua

Laburbilduz, txosten honetan aztertzen ari garen aurrekontua EAEko aurrekontu osoaren % 86,2 da, 2024ko aurrekontuetan baino bi puntu gehiago. Geroagoko fase baterako geratzen da Administrazio Orokorren eta gainerako erakunde, fundazio eta sozietate publikoen 00 eta 51 eta 99 atalen azterketa.

---

<sup>29</sup> Los 9.139.264.933€ se obtiene de sumar los 7.730.963.370 € y el 1.408.301.563 €



7. Taula. Aztertutako gastu aurrekontua sailaren arabera.

| <b>SAILEN ARABERA AZTERTUTAKO AURREKONTUA</b>  |  |                         |                 |
|--|--|-------------------------|-----------------|
| <b>(Erakunde autonomoak eta partzuergoak, Osakidetza, EITB, URA, SPRI eta IHOBE)</b> |  |                         |                 |
| Atala  | ADMINISTRAZIO OROKORREKO SAILAK                        | €                       | Guztirakoaren % |
| 01   | LEHENDAKARITZA   | 38.574.258              | 0,3%            |
| 02   | KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA                         | 390.400.443             | 2,9%            |
| 03   | EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA                            | 1.252.007.399           | 9,2%            |
| 04   | OGASUNA ETA FINANTZAK                                  | 59.725.000              | 0,4%            |
| 05   | GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA   | 89.650.596              | 0,7%            |
| 06   | INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA | 591.918.931             | 4,4%            |
| 07   | SEGURTASUNA  | 775.641.933             | 5,7%            |
| 08   | HEZKUNTZA  | 3.220.559.174           | 23,8%           |
| 09   | ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA                            | 344.744.734             | 2,5%            |
| 10   | OSASUNA  | 5.059.491.702           | 37,3%           |
| 11   | ONGIZATEA, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOA           | 354.877.055             | 2,6%            |
| 12   | MUGIKORTASUN JASANGARRIA                               | 167.777.120             | 1,2%            |
| 13   | ZIENTZIA, UNIBERTSITATEAK ETA BERRIKUNTZA              | 599.807.721             | 4,4%            |
| 14   | TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA                   | 46.752.923              | 0,3%            |
| 15   | ELIKADURA, LANDA-GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA    | 230.374.543             | 1,7%            |
| 16   | JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK                           | 335.116.406             | 2,5%            |
| <b>GUZTIRA</b>   |  | <b>13.557.419.938 €</b> | <b>100%</b>     |


Azalpen-oharra: sail bakoitzean, aurrekontu bateratuari <sup>30</sup>, erakunde autonomoei eta haien mendeko partzuergoei dagokien aurrekontu osoa gehitu zaio. Gainera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean EITB taldearen administrazio-aurrekontua sartu da, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailean SPRI eta URA erakunde publikoen aurrekontuak sartu dira, baita IHOBE sozietate publikoarenak ere, eta Osasun Sailean Osakidetza taldearen administrazio-aurrekontua sartu da.

Aurrekontua gobernu-politikaren isla ekonomiko eta finantzieroa da, eta, beraz, Gobernuaren eta jarduten duen sektore-eremuen helburuei lotuta dago nahitaez. Horrela, aztertutako aurrekontuaren % 37,3 Osasun Sailean biltzen da, eta Osakidetza % 80 kudeatzen du. Bestalde, osasun- eta hezkuntza-politikek aztertutako aurrekontuaren % 65,5 biltzen dute.

Aztertutako aurrekontuaren % 99,3 generoari dagokio, % 84,2 garrantzi handikotzat jo da, % 12,8 batez besteko garrantzizkotzat eta gainerako % 2,3ek soilik du genero baxuaren garrantzia.

<sup>30</sup> Aurrekontu bateratua: EAEko sektore publikoko beste erakunde batzuk finantzatzeko transferentziak kentzen dira.


5. Irudia. Generoarekiko egokitasuna eta garrantzia. Aurrekontu guzia aztertuta



Generoari ez dagozkion aurrekontu-programak EAEko Industria Segurtasuna, Energia eta Meatzeen Politika eta Garapena eta Trenbide Sare Berria dira.

Bestalde, Lehendakartzak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak, eta Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa Sailak uste dute aurrekontuaren % 100ek garrantzi handia duela. Gainera, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak, Hezkuntza Sailak, Osasun Sailak, Zientzia Sailak, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Justizia eta Giza Eskubideak Sailak uste dute aurrekontu osoak garrantzitsua altua edo ertaina duela generoarekiko.

6. Irudia. Aurrekontuaren banaketa, generoaren arabera eta sailaren arabera (erakunde autonomoak eta partzuergoak barne)



## 6.1. ESTRATEGIA DUALA: GENERO-IKUSPEGIA ETA EKINTZA POSITIBOAK

Nazioartearen iritziz, genero-ikuspegiaren integrazioa eta ekintza positiboak dira emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko estrategia osagarri egokienak..

Ildo horretan, 2024-2028 Gobernu Programak 129. Konpromisoaren barruan jasotzen du. Balio-aldaketa eta emakumeen eta nesken ahalduntzea bultzatzea, 4. ekimena: **Politika publikoen esku-hartze eremuetan genero-zeharkakotasuna txertatzea, eragin politikoko estrategia gisa, egiturari eragiten diona eta gizartea berdintasunean eraldatzen duena.**

Atal honetan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizikidetzarako Legearen testu bateginaren Printzipio Orokorren 3. artikularen jarraipena egin nahi da, 5. atalean (genero-ikuspegia txertatzea) eta 6. atalean (ekintza positiboa).

### GENERO-IKUSPEGIAREKIN PLANIFIKATUTAKO JARDUERAK EDO GENERO-IKUSPEGIAREKIN DISEINATZEKO PROZESUAN DAUDENAK

**Genero-ikuspegiarekin diseinatutako jardueratzat** hartzen dira emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak kontuan hartuta planifikatu direnak, baliabideak baldintza berdinetan eskuratzea bermatzen dutenak eta benetako berdintasunerako bidean izandako emaitzak eta eraginak identifikatu eta ebaluatzen dituztenak.

**Genero-ikuspegiarekin diseinatzeko prozesuan dauden jardueratzat** hartzen dira etorkizunean jarduera horiek genero-ikuspegiarekin diseinatuta egotea ahalbidetzen dutenak.

Genero-ikuspegia duen plangintza-prozesu batean, kontuan hartu beharreko faktore askok esku hartzen dute, hala nola intersektionalitatearen ikuspegiak. Ikuspegi hori planifikatzerakoan zeharka txertatzeak denbora eskatzen du, eta esparru horretan justifikatzen da genero-ikuspegidun diseinu-prozesua.

Ildo horretan, sailek hausnartu dute nola hartu duten kontuan genero-ikuspegia 2025eko aurrekontuen kargura garatuko dituzten jarduerak planifikatzean. Aurrekontua isolatzeko irizpide argirik ez dagoenez, jardueretarako aurreikusitako kostuaren zifra globalak eskaintzea erabaki da, eta ez I. kapituluaren (langileria-gastuak) kargura daudenak aurrekontuan sartzeari, Emakunde izan ezik, horren guztizko aurrekontua genero-ikuspegiarekin diseinatuta baitago. Taula honetan, sailen araberako laburpena ageri da. Informazio banakatua txostenaren eranskinean ikus daiteke.

Jarraian agertzen den taulan, sailaren araberako laburpena agertzen da.

8. Taula. Genero-ikuspegia duen aurrekontu planifikatua edo diseinu-prozesuan dagoena

| Genreo-ikuspegiarekin diseinatutako edo identifikatutako aurrekontuarekin egoteko prozesuan dauden jarduerak.<br>Administrazio Orokorra (1-16 atalak), bere erakunde autonomoak eta partzuergoak | Genero-ikuspegia kontuan hartuta diseinatua | Genero-ikuspegia duen diseinu-prozesuan | 2025ean identifikatutako guztikoa<br>I. kapituluko (langile-gastuak) ez dira sartzen |
|--|---|---|--|
| LEHENDAKARITZA   | 4.791.268                                   | 0                                       | <b>4.791.268</b>   |
| KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA   | 607.600                                     | 38.608.590                              | <b>39.216.190</b>  |
| EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA  | 691.018.206                                 | 155.213.134                             | <b>846.231.340</b>   |
| OGASUNA ETA FINANTZAK  | 390.802                                     | 0                                       | <b>390.802</b>   |
| GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA   | 122.000                                     | 791.784                                 | <b>913.784</b>   |
| INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA   | 145.415.000                                 | 136.617.622                             | <b>282.032.622</b>   |
| SEGURTASUNA  | 2.194.358                                   | 2.491.670                               | <b>4.686.028</b>   |
| HEZKUNTZA  | 36.580.970                                  | 55.768.267                              | <b>92.349.237</b>  |
| ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA  | 2.954.495                                   | 7.624.826                               | <b>10.579.321</b>  |
| OSASUNA  | 6.494.835                                   | 56.054                                  | <b>6.550.889</b>   |
| ONGIZATEA, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOA   | 35.766.239                                  | 126.124.276                             | <b>161.890.515</b>   |
| MUGIKORTASUN JASANGARRIA   | 469.632                                     | 0                                       | <b>469.632</b>   |
| ZIENTZIA, UNIBERTSITATEAK ETA BERRIKUNTZA  | 43.969.176                                  | 10.262.834                              | <b>54.232.010</b>  |
| TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA   | 19.500                                      | 10.237.950                              | <b>10.257.450</b>  |
| ELIKADURA, LANDA-GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA  | 88.217.606                                  | 13.099.228                              | <b>101.316.834</b>   |
| JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK   | 24.378.618                                  | 5.171.800                               | <b>29.550.418</b>  |
| <b>GUZTORA</b>   | <b>1.083.390.305</b>                        | <b>562.068.035</b>                      | <b>1.645.458.340</b>   |
| Aztertutako aurrekontuaren % <sup>31</sup><br>(ENTERik eta Ihoberik gabe)  | 12%   | 6%                                      | 18%  |

Genero-ikuspegia hainbat mailatan txertatuz planifikatutako eta sailek jakinarazitako aurrekontua aztertutako aurrekontuaren % 18 da, Osakidetzaren, EITBren, SPRIren, URAREN eta IHOBAREN aurrekontua kenduta). Gainera, kontuan hartu behar da, lehen azaldu den bezala, aurrekontu espezifikorik ez duten jarduerak gehitu beharko litzaizkiokela, eta, beraz, I. kapituluaren (langile-gastuak) kargura doazela.

Aurreko ekitaldian bezala, Lanbide nabarmentzen da genero-ikuspegiaren eremuan aurrekontutako jarduketan aurrekontu-bolumenagatik, guztizkoaren % 50. Atzetik datoz Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila (% 17,1), Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa (% 9,8) eta Hezkuntza Saila (% 5,6)

<sup>31</sup> Aztertutako aurrekontua, enterik eta Ihoberik gabe: 9.139.264.933 €

## BERDINTASUNERAKO EKINTZA POSITIBOAK

**Ekintza positibotzat** hartzen dira bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeke edo murrizteko emakumeentzat eta gizonentzat desberdinak diren berariazko eta aldi baterako neurriak.

Guztira, 13 sailek eta 3 erakunde autonomok jakinarazi dute berdintasun-ekintza positiboak egin direla hainbat jardueratan. Horietako gehienek emakumeen aldeko berdintasun-klausulei egiten diete erreferentzia dirulaguntzen programen baremazio-irizpideetan; beste batzuetan, berriz, diruz laguntzeko programak dira emakume-kolektibo desberdinei soilik zuzentzen zaizkienak (kirolariak, ikertzaileak, nekazariak, armadoreak, zinemagileak, presoak, genero-indarkeriaren biktimak, besteak beste). Era berean, ekintza positiboak daude genero-indarkeriaren biktimen seme-alabentzat, guraso bakarreko familientzat eta gizonentzat. Azken horiek familia eta lana uztartzeko eremuan.

Oro har, ahalduzera, ekintzailezara, lan-merkatuan sartzera eta sustatzera, familia eta lana uztartzera eta Emakume Nekazarien Estatutua betetzera bideratutako neurriak dira.

Ekintza positiboak ezartzeko sailek 2025erako identifikatu dituzten berariazko aurrekontuak soldata-arrakalaren, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eta berdintasunera bideratutako beste jarduera batzuen tauletan agertzen dira.

### 9. Taula. Sailek emandako berdintasunerako ekintza positiboak.

| IDENTIFIKATUTAKO BERDINTASUNERAKO EKINTZA POSITIBOAK  |
|---|
| Garai hartako Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak, 2006ko maiatzaren 30ean emandako Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan betetzeko, merituen ebaluazioan berdinketa hausteko klausula bat sartu zen. Klausula horren arabera, lehenetsuna ematen zaio emakumeari, baldin eta emakumeak % 40 baino gutxiago badira postuari dagokion kidegoan, aukeran edo eskalan eta lanpostuaren kokapen-mailan. |
| <b>LEHENDAKARITZA</b>   |
| <b>EMAKUNDE</b>   |
| Ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa sustatzea, federazioei, fundazioei eta elkarteei laguntza emanez emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko; izan ere, emakumeen autonomia sustatzeko eta posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzeko ekintzak egiten dituzte, dirulaguntzen eta aholkularitzaren bitartez.   |
| Emakumeen eta feminismoaren ekarpenak ikusaraztea eta bizitzako eremu guztietan parte hartzen lagundu (Emakunde Saria, dirulaguntza izendunak emakumeek hainbat esparrutan parte har dezaten laguntzea –Iruneko Alarde mistoa, Bertsolaritza Elkarte, Gazteriaren Euskal Kontseilua, Enpresariak, ...)  |
| <b>KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA</b>   |
| <b>4512. KIROLAK</b>  |
| Kirol-lehiaketetan parte hartzeko dirulaguntzen deialdiaren barruan emakumezkoen ekitaldietako ligak antolatzeko dirulaguntzak.   |
| BALOREETAN BAT Basque Team programaren esparruan, plantilletan goi-mailako emakume kirolariak sartzeko interesa duten enpresak edo erakundeak identifikatzen dira, eta lankidetzak espezifikoa zehazten dira.   |
| BASQUE TEAMen komunikazioan BATEko emakume kirolarien erakusketa publiko handiagoa egiten da. Horretarako, emakumeen kirol-erreferenteak diren neskak eta mutilak agertzen dira, eta kirol-jarduerarekin lotutako estereotipoak haustea dakarten ekimenak garatzen dituzte edo horietan laguntzen dute.   |

|  |
|--|
| Emakumeentzako kirol-errendimendu handiko prestakuntza-ekintzetarako dirulaguntza  |
| Lidergoari eta goi-zuzendaritzari buruzko ikastaroa emakumeentzat kirol-erakundeetan   |
| <b>4513. KULTURA SUSTAPENA</b>   |
| Musika ekoiztetxeak eta teknikak garatzeko mentoria-programa   |
| NOKA programa: Noka Mentoringen helburua Euskadin eta Nafarroan bizi diren emakume zuzendari hasiberrien film luzeen proiektuak tutorizatu, lagundu eta akonpainatzea da.  |
| AUKERA Programa: Euskal emakume gazteen film laburrak bultzatzeko mentoring programa   |
| <b>4514. KULTURA ONDAREA</b>   |
| Diru-laguntzak emateko aginduan, puntuak ematen zaizkie -proiektuei, kultura-ondarearen eremuan emakumearen presentzia indartzeko eta islatzeko. % 10 inguru   |
| <b>EKONOMÍA, LAN ETA ENPLEGUA</b>  |
| Programetan sartzeko hautaketa-prozesuetan, emakumeen eta gizonen arteko parte-hartze ekitatiboa izateko betebeharrak sartu da (betiere, hautagaien kopuruak aukera ematen badu). Era berean, proiektu batzuetarako, horietan sartzeko baremazioan, "aparteko" puntuazioa eman zaie emakumeei, eta, horrela, horiek eskuratzeko aukera erraztu da. Puntuazio hori ez dago proiektu guztietarako estandarizatuta, bakoitzaren izaeraren arabera erabaki da.   |
| <b>3211. ENPLEGUA</b>  |
| Enpresen eta erakunde zuzendaritza-organoen emakumeen ekintzailetza eta emakumeen talentua sartzeko sustatzeko dirulaguntzen agindua.  |
| <b>3212. GIZARTE EKONOMIA</b>  |
| GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESAK SORTZEKO LAGUNTZA honako agindu honi dagokio: 2024ko irailaren 4ko AGINDUA, bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuarena, gizarte-ekonomian ekiteko laguntzen deialdia egiten duena eta laguntza horiek arautzen dituen 2024 urterako. Agindu horren 22.1 artikuluan dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzen da, eta b) puntuak ekintza positibo bat azaltzen da: b) Aurreko idatz-zatian zehaztutako zenbatekoa 1.000 euro igoko da honako kasu hauetan: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Emakumeak, erakundeko bazkide langile edo lan-bazkideen gehiengoa badira.</li> <li>– Guraso bakarreko aita edo ama izatea, hau da, ordaindutako jarduerarik egiten ez duen ondorengo bat edo batzuk bere kargura izatea.</li> <li>– Genero-indarkeriaren biktimak izan diren pertsonak. Pertsona horiek edo haien seme-alabek ezkontidearen edo antzeko afektibitate-harreman baten bidez modu egonkorrean lotuta dagoen edo egon den pertsonaren indarkeria fisiko edo psikikoaren biktimak izan badira. Egoera horretan daudela ulertuko da, baldin eta gertakari horiek genero-indarkeriaren biktimak babesteko dagokion aginduaren bidez egiaztatuta badira, edo Fiskaltzaren txostenak adierazten badu zantzuen arabera salatzailea genero-indarkeriaren biktimak dela eta, ondorioz, genero-indarkeriako gertakariengatik babes-agindua edo kondena-epaia ematen dela.</li> </ul> |
| GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESEN SOZIJETATE-OINARRIA ZABALTZEA Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren 2023ko maiatzaren 10eko AGINDUARI dagokio. Agindu horren bidez, gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak arautzen dira eta laguntzetarako deialdia egiten da. Agindu horren 10. artikuluan ezartzen dira diruz lagundu daitezkeen gastuak, diru-laguntzen zenbatekoa eta zenbateko hori zehazteko irizpideak. Eta 3. puntuak ekintza positibo bat azaltzen da: 3. – Zenbateko hori hirurehun (300) euro handituko da hurrengo ataletan adierazitako kontzeptu bakoitzarengatik, eta metagarriak izango dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>a.- Emakumea izatea.</li> <li>e.- Guraso bakarreko aita edo ama izatea, hau da, ordaindutako jarduerarik egiten ez duen seme edo alaba bat edo batzuk ardurapean dituenak.</li> </ul>  |

f.- . Genero-indarkeriaren biktima izan diren pertsonak. Pertsona horiek edo haien seme-alabek ezkontidearen edo antzeko afektibitate-harreman baten bidez modu egonkorrean lotuta dagoen edo egon den pertsonaren indarkeria fisiko edo psikikoaren biktima izan badira. Egoera horretan daudela ulertuko da, baldin eta gertakari horiek genero-indarkeriaren biktimak babesteko dagokion aginduaren bidez egiaztatu badira, edo Fiskaltzaren txostenak adierazten badu zantzuen arabera salatzailea genero-indarkeriaren biktima dela eta, ondorioz, genero-indarkeriako gertakariengatik babes-agindua edo kondena-epaia ematen dela.

#### **LANBIDE**

Bazterketa-arriskuan dauden eta/edo indarkeria matxistatik bizirik atera diren 20 emakumeri zuzendutako Emakura Araba programa

Landa eta hiri eremuetan emakumeei laguntzeko programa

Prestakuntza-programetan: "Emakumeei langabeen kolektiboan duten garrantziaren pareko proportzioan parte hartu behar dute (langabezia dauden pertsona guztien % 55), eta, beraz, prestakuntza-taldea, posible bada, emakumeen % 55ek osatuko du gutxienez"

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA

#### **1213. FUNTSIO PUBLIKOA**

Berdinketa hausteko klausula aplikatzea Berdintasunerako Legearen testu bateginean jasotzen diren lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko hautaketa-prozesuetan.

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA

#### **4421. INGURUMENA BABESA**

Ekonomia zirkularreko berrikuntzarako dirulaguntzetan, berdinketa hausteko bigarren irizpide gisa, emakumeen ehuneko handiagoko plantilla izatea ezartzen da.

#### **SPRI**

Emakura programa, EDE Fundazioarekin adostuta emakumeak zuzenean kontratatzeko

Emakumeei gidatutako ekintzailera-proiektuetarako dirulaguntza

#### **SEGURTASUNA**

#### **2223. ERTZAINZA ZERBITZUAN**

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen garapena, uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretua, honako neurri hauek jasotzen dituena:

1. Agenteen eta komisariordeen kategorietan txanda irekiaren bidez sartzeko hautaketa-prozeduretan emakumeei plaza kopuru bat erreserbatzeko betebeharra.
2. Karrera profesionalean aukera-berdintasuna sustatzeko neurriak, hala nola, seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzia edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia daudenak barne-sustapenerako prozeduretan aurkezteko aukera,
3. Seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzia-egoeretan edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeretan igarotako aldiak kontuan hartzea, barne-sustapenerako behar den benetako zerbitzu-denbora kalkulatzeko.

Emakumeak Ertzaintzako agentearen oinarriko eskalan sartzeko I. Plana:

1. Erditze aurreko, erditzeko edo erditze ondoko egoeran dauden emakumeen kasuan, proba fisikoak hautaketa-prozesuaren hurrengo deialdira atzeratzea.
2. Hautaketa-prozesuetan parte hartzeko gutxienezko altuera kentzea.
3. Emakumeei beren lanaren ezaugarri anatomiko, fisiologiko eta psikosozialekin lotuta dituzten premia espezifikoak aztertzea, uniformearen, armariaren edo beste tresna batzuen erabilera barne.

**POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA**

|  |
|--|
| Emakumeek bete beharreko plazen ehunekoa gordetzea agente-kategorian txanda librean sartzeko hautaketa-prozesu bakoitzean. Neurri hau Suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetan ezarriko da ere.   |
| Akademiak sustatzen dituen deialdietan, klausula bat sartzen jarraitzea, zeinaren arabera, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei ematen baitzaie lehentasuna % 40tik beherako ordezkari-tza duten eskala, maila eta kategorietan.   |
| <b>HEZKUNTZA</b>   |
| <b>4211. EGITURA ETA LAGUNTZA</b>  |
| Berdinketa hausteko klausula sartzeari lan-eskaintza publikoak deitzeko aginduetan, emakumeen ordezkari-tza % 40ra iristen ez den espezialitateetan.   |
| <b>4231. HEZKUNTZA SUSTAPENA</b>   |
| Unibertsitateaz kanpoko beken deialdian artikulua bat jasotzen da, eta bertan adierazten da ikaslearen bizikidetzaren unitatean genero-indarkeria jasatu duen kideren bat badago, laguntzak emango zaizkiola, baldintza akademikoak ez beteta ere. Genero-indarkeriaren biktimen kasuan, betekizun akademikoak albo batera utzita, bekari eutsiko zaio.  |
| 164/2023 Dekretuak -eskola-garraioari buruzkoak- ezartzen duenez, eskola-garraioko behin-behineko baimena emateko lehentasuna izango du genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabek, garraiatzeko baldintzak bete ez eta ikasle kopurua plaza hutsen kopurua baino handiagoa denean.  |
| Genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimentzako berariazko beken araubidea.  |
| <b>ETXEBITZA ETA HIRI AGENDA</b>   |
| <b>4312. ETXEBITZA</b>   |
| Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak etxebizitza-premia berezia duten eskatzaileetat hartzen dira alokairu-erregimeneko esleipen-prozeduretan: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzeneko esleipena kasu larri eta salbuespenekoetan eta baldintza batzuk betetzen direnean. Ordaindu beharreko kuota diru-sarreraren arabera izango da.</li> <li>- Etxebiden alokairu-erregimenean izena ematea: 4 puntu gehiago baremazio orokorrean eta lehentasuneko kupo batean sartzeari; gutxienezko diru-sarrerak egiaztatzen salbuestea; etxebizitza ez izatearen betekizuna salbuesteko aukera; eskatzen duen edozein udalerritan errolatzeko betebeharretik salbuestea; eta alokairu-erregimeneko etxebizitza aldatzeko aukera, arriskua egonez gero.</li> </ul> |
| <b>OSASUNA</b>   |
| <b>4116. ADIKZIOAK</b>   |
| Lehentasuna aterpetxeetan gaua pasatzera joaten diren emakumeei  |
| <b>ONGIZATEA, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAKIOA</b>   |
| <b>3123. GIZARTE ZERBITZUAK</b>  |
| Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako prestazio ekonomikoa   |
| Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa.   |
| Sexu-indarkerien biktimentzako laguntza ekonomikoa (emakumeak, haurrak). Sexu-indarkerien biktimentzako dirulaguntzak arautzen dituen uztailaren 9ko 664/2024 Errege Dekretuak arautzen ditu, eta genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurri buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan ezarritako laguntza ekonomikoa arautzen duen abenduaren 2ko 1452/2005 Errege Dekretua aldatzen du.   |
| <b>3124. FAMILIA ETA KOMUNITATE POLITIKA</b>   |
| Ezedentziagatik edo lanaldi-murrizketagatik laguntza baliatzeko gehieneko denbora-mugak handitzea eskatzailea gizona denean, bai N lerroan, bai D lerroan  |



|  |
|--|
| Familia eta Haurren Zuzendaritzaren konpromisoa Familiaren Euskal Kontseiluaren aurrean, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzetan gizonen aldeko diskriminazio positiboko neurriak ebaluatzeko eta, horrela, horien eraginkortasuna baloratzeko.   |
| Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen zenbatekoa % 30 handitzea seme-alabak, mendeko senitartekoak edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko % 50eko edo hortik gorako mendetasun larria edo mendetasun handia (gehikuntza metagarria) duen genero-indarkeriaren biktima den kideren bat duten guraso bakarreko familiei eta familia ugarietara.             |
| Gizonezkoek lan-eszedentzia hartzeko eta lanaldia murrizteko hobekuntza, emakumezko bikotekideen aldean  |
| <b>ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA</b>   |
| <b>4223. UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZA</b>  |
| Genero-indarkeriaren biktimei eta beren kargura dituzten 25 urtetik beherako seme-alabei aplikatu beharreko murrizketak urtero sartzea EHU ordaindu beharreko prezio publikoen aginduan  |
| Hitzarmenak Unibertsitate Sistema osatzen duten unibertsitateekin (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea), ikasleek ordaindu beharreko prezio publikoen kenkariak eta murrizketak finantzatzen laguntzeko. Besteak beste, genero-indarkeriaren biktima izateagatik murrizketa biktimarentzat eta 25 urtetik beherako seme-alabentzat                             |
| Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimek beka jaso ahal izango dute, baldin eta araudian aurreikusitako baldintza guztiak betetzen badituzte, 2023-2024 ikasturtean ezarritako eskola-orduak gainditutakoek izan ezik. Bekadunak izango diren urte-kopuruaren muga eta 2023-2024 ikasturtean kredituen ehuneko bat gainditzea eskatuko zaie.                                    |
| <b>5421. IKERKETA</b>  |
| Euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeek jardura eta programa zientifikoak indartzeko laguntzen deialdian puntu bat emango da ikertzaile nagusia emakumea bada, eta 0,5 puntu, ikertzailea emakumea bada.   |
| <b>TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA</b>   |
| EMET laguntzetan, 4 punturekin baloratzen da % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten emakumeak kontratatzea 2024ko Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendurako laguntzei buruzko Aginduan 2 punturekin baloratzen da erakundearen gobernu-organoetan emakumeen ehuneko % 40koa edo handiagoa bada.  |
| <b>ELIKADURA, LANDA GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA</b>   |
| <b>7111. NEKAZARITZA ETA LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENA</b>   |
| Sasoikako langileentzako ostatu-laguntzetan, puntuak esleitzeko irizpideetan: c) Nekazaritza-ustiategi baten titular edo titularkide den emakume nekazaria izatea, edo, pertsona juridikoaren kasuan, emakumeen esku dagoen ehuneko edo partaidetza soziala gutxienez % 50 izatea, elkartekideak bi badira, edo gutxienez orekatua izatea gainerako kasuetan: Bai: 15 puntu/Ez: 0 puntu. |
| <b>5411. NEKAZARITZA ETA ARRANTZAKO IKERKETA ETA GARAPENA</b>  |

Laguntzak eta dirulaguntzak: lehentasuna emango zaio nekazarien titulartasunari, betiere Europar Batasuneko araudiak debekatzen ez badu.

A) Aurkeztutako eskabideak alderatzen diren prozeduretarako balio-irizpideetan, puntuazio bat emango da, lor daitekeen gehieneko kopuruaren % 15ekoa, gutxienez.

b) Dirulaguntzaren xedea jarduera bat egitea besterik ez denean, titulartasuna, oro har, aurreikusitakoa baino % 10 edo % 20 artean handiagoa duten ustiategiatarako ezarriko da.

c) Hainbanaketa aurreikusten bada, aurreko letran jasotako ustiategiekin zenbateko osoa jasoko dute, hainbanatu gabe.

d) Konparaziorik edo hainbanaketarik ez badago, kuantifikazio-irizpideen artean ezarriko da laguntza eskatzen duen ustiategiaren titularra emakumea izatea, hau da, titulartasun partekatukoa, edo emakumeen esku dauden partaidetza sozialak edo ehunekoa, gutxienez, % 50 diren pertsona juridiko bat izatea, elkartekideak bi badira, edo gutxienez orekatua gainerako kasuetan.

**Art. 19.3** Gizartean eta politikan parte hartzea.

Nekazaritzaren arloan eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek ez diete laguntzarik edo dirulaguntzarik emango nekazaritzaren eremuan diharduten elkarte edo erakunde profesional, enpresarial, sindikal edo bestelakoei, baldin eta zuzendaritza-organotan emakumeen presentzia gutxienez orekatua ez badute. Neurri hori estatutu honen bigarren xedapen gehigarriaren arabera ezarriko da.

**20. Art.** Besteren konturako lana

Norgehiagoka: balorazio-irizpideen artean, gutxienez, emakumeen % 40 enplegatzen duten enpresentzat ezarriko da lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 15, gutxienez. Hainbanaketa aurreikusten bada, aurreko lerrokadan aipatutako enpresek zenbateko osoa jasoko dute, hainbanatu gabe.

Konparaziorik edo hainbanaketarik ez badago, balorazio-irizpideen artean ezarriko da enpresa eskatzaileek emakumeen % 40k, gutxienez, erabiliko dutela.

Aurreko lerrokadetan aurreikusitako lehentasunak ez zaizkie aplikatuko zuzendaritza-organotan emakumeek, gutxienez, proportzio orekatuan parte hartzen ez duten enpresei.

Sasoikako langileentzako ostatu-laguntzetan, puntuak esleitzeko irizpideetan: c) Nekazaritza-ustiategi baten titularra edo titularkidea den emakume nekazaria izatea, edo, pertsona juridikoa bada, emakumeen esku dagoen ehunekoa edo partaidetza sozialak, gutxienez, % 50 izatea, elkartekideak bi badira, edo gutxienez orekatua gainerako kasuetan: Bai: 15 puntu / Ez: 0 puntu.

Itsaspen laguntzak promoziorako eta itsasertzeko eremuen garapenerako baloratzen dute:

- Enplegua sortzea. Proiektuak enplegua sortzeko duen gaitasuna baloratuko da, batez ere gazteena eta emakumeena: 5 puntu, gehienez.
- Jarduera endogenoa. Lehentasuna emango zaie itsasertzeko eremuetan bizi diren pertsonen sustatutako proiektuei, bereziki gazteak eta emakumeak. 5 puntu, gehienez.

57. artikulua. – Laguntzaren zenbatekoa.

Sortutako lanpostu berri bakoitzeko laguntza 5.591,88 eurokoa izango da, eta 6.010,12 eurokoa epe luzeko langabeen familia-zamak dituzten emakumeen eta elbarrien kasuan..

**7112. ARRANTZA**

ITSASORATU deialdian, tratamendu positiboa ematen zaio emakumeak programa honetan sartzeari, 1.000 euroko plusaren bidez, emakume bat marea batean edo bitan praktikak egiteko ontziratzen duten emakumeei.

Arrantza-guneetako partaidetzazko toki-garapenerako laguntza-programa honen esparruan, proiektuak hautatzeko erabilitako balorazio-irizpideekin puntuazio handiagoa jasotzen dute emakumeek sustatutako proiektuetarako.

Gainera, enplegua sortzeko laguntza-lerro bat dago. Ildo horren barruan, tratamendu positiboa ematen zaio emakumea lan-merkatuan sartzeari, laguntzaren zenbaketan plus bat emanez, betiere sortutako lanpostua emakume batek betetzen badu; horrela, emakumeen presentzia handitu nahi da gizonen ordezkaritza berdina ez duten espazioetan.

**JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK**

**1413. ESPETXEAK**

Erdi-askatasuneko erregimenean dauden emakumeentzako espetxeko harrera-etxea GOIZTIRI

Erdi-askatasuneko erregimenean dauden emakumeentzako espetxeko harrera-etxea ADAP

## 6.2. SOLDATA-ARRAKALA MURRIZTEKO 2030 ESTRATEGIA

*Eusko Jaurlaritzaren SOLDATA-ARRAKALA MURRIZTEKO 2030 ESTRATEGIAREN* helburua Euskadi soldata-arrakala txikiena duten Europako herrialdeen artean kokatzea da. Horretarako, 2030ean lortu beharreko erronka hauek aurreikusten ditu:

- Zuzeneko soldata-diskriminazioa ezabatzea eta zeharkako soldata-arraila murriztea
- Lan motaren araberako segregazioa murriztea
- Berdintasuneko eta berdintasunerako hezkuntzan sakontzea
- Zaintza-lanei dagokienez, horiek birbanatuko dituen gizarte-antolamendu berri baten alde egitea.
- Helburu horretan euskal gizarte osoa sentsibilizatzea eta konprometitzea

Horretarako, 4 jarduera-ardatz proposatzen ditu:

- 1. ardatza: Orduko soldatan dagoen desberdintasuna murriztea.
- 2. ardatza: desberdintasuna murriztea lanaldiari dagokionez.
- 3. ardatza: Gizarte-hezkuntza eta -sentsibilizazioa.
- 4. ardatza: Enpresak eta sindikatuak sentsibilizatzea.

Eusko Jaurlaritzaren legegintzaldiko plangintza estrategikoaren (2024-2028) esparruan, honako konpromiso hauek jaso dira:

31. konpromisoa. Garapen iraunkor eta inklusiboaren helburuekin bat datorren Lanbide Heziketa.

3 ekimena. Emakumeak Lanbide Heziketa industrialean sartzeko programa espezifiko berri bat garatzea, emakumeen enpleguaren kalitatea hobetzeko eta soldata-arraila murrizteko tresna gisa.

66. konpromisoa. Enpleguan berdintasun eraginkorrerantz aurrera egiten jarraitzea.

1 ekimena. Elkarrizketa Sozialerako Mahaitik soldata-arrakala murrizteko estrategia bat sustatzea, hura eragiten duten arrazoi guztiak jorratzeko. Soldata baxuenak, erantzukizun-postuetan dauden emakumeen kopurua edo industrian eta teknologian dauden emakumeen kopurua, kontziliazio erantzukidea, nahi ez den kontratazio partziala murriztea eta emakumeen jarduera-tasa handitzea bultzatzea

2 ekimena. Lanean kontziliazio-politikak sustatzea

3. ekimena. Genero-ikuspegiari arreta berezia eskaintzea, emakumeen gizarte- eta lan-errealitatea eta errealitate interseksionala aztertuz. Profil zehatzak babesteko ekintza positiboko neurriak garatzea, hala nola, guraso bakarreko familietako buru diren emakumeak edo emakume migratzaileak, besteak beste.

126. konpromisoa. Soldata-arrakalaren aurkako talka-planaren aplikazioa sustatzea eta enpresetan eta erakundeetan berdintasuna sustatzea

1. ekimena. Lan-merkatu inklusiboa sustatzea, lanean hastean, lanpostuan promozionatzean eta lanpostuan geratzean pertsona guztiei aukera-berdintasun eraginkorra eta diskriminaziorik eza bermatzeko..

2 ekintza. Enpresetan eta erakundeetan berdintasunaren alde indarrean dagoen legerian ezarritako betebeharrak zorrotz betetzen direla zaintzea, berdintasun-planetan arreta berezia jarritz, gizarte-ekimeneko kooperatibek beren planak erregistratzeko aukera izan dezaten erraztuz eta laneko jazarpenaren aurkako protokoloak izanez.

3 ekintza. Norberaren bizitza, lana eta familia uztartzea ahalbidetuko duen enpresa-kultura berri bat sustatzea.

4 ekintza. Emakumeei etorkizuneko eskari handieneko lanbideetan sartzen laguntzea, historikoki gizonok okupatutako arloetan parte har dezaten sustatuz.

5. ekintza Zainketak berdintasun-politiken erdigunean jartzea, gero eta erantzukideagoa den gizarte-antolaketa aurrera egiteko. Kontziliaziotik erantzukidetasunerako trantsizioa eraginkor egitea.

Eta parte hartzen dute, gutxienez:

- Emakumeak industrian sartzeko plana.
- STEAM Euskadi Hezkuntza Estrategia.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2030.
- Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Plana.
- Berpiztu. Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Programa.
- Enpleguaren Euskal Estrategia
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.
- Lanbide Heziketako Euskal Plana.

Horren guztiaren isla izan behar dute, hain zuzen ere, 2025eko aurrekontu hauetarako sailek, Lehendakaritzaz gain, 12 sailek jarduerak garatzea aurreikusi dute. Hau da, sail guztiak, Etxebizitza eta Hiri Agenda, Mugikortasun Iraunkorra eta Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza izan ezik. Ondoren deskribatuko diren jarduerak Soldata Arrakalaren aurkako 2025eko Ekintza Planean jasotakoak dira, baita sailek 2025eko plangintzan sartu dituztenak ere:

10. Taula. Sailek Euskadin soldata-arrakala murrizteko aurreikusitako jarduerak

| SOLDATA-ARRAKALAREN AURKAKO JARDUKETAK   | IDENTIFIKATUTAKO AURREKONTUA 2025 |
|--|-----------------------------------|
| <b>SAIL GUZTIAK</b>  |                                   |
| EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATAZIO PUBLIKOAN GENERO-IKUSPEGIA ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK SARTZEARI BURUZKO JARRAIBIDEA aplikatzea. Jarraibide hori Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 22ko 34/2024 Ebazpenaren bidez onartu zen. |                                   |
| <b>LEHENDAKARITZA</b>  | <b>817.500</b>                    |
| Nazioarteko ekintza bat bultzatzea, ordainsari-berdintasunaren arloko jardunbide egokiak hedatzeko eta erakartzeko (Euskadin soldata-arrakala murrizteko estrategiaren esparruan).   |                                   |
| <b>EMAKUNDE:</b>   | <b>817.500</b>                    |
| Euskadin SOLDATA-ARRAKALA murrizteko strategiaren hedapena diseinatzea, koordinatzea eta jarraipena egitea.  | 50.000                            |

|   |                  |
|---|------------------|
| ENPRESETAN eta erakunde pribatuetan berdintasun-politiken garapena sustatzea, aholkularitzaren, prestakuntzaren, laguntza ekonomikoaren eta gizarte-aitorpenaren bidez. Beste zerbitzu batzuk, BAI SAREA.   | 487.500          |
| GIZONDUZ EKIMENA garatzea, gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplika daitezen sustatzeko.  | 260.000          |
| Herritarrak defendatzea eremu pribatuko sexuaren ziozko DISKRIMINAZIO-EGOEREN aurrean, informazioa eta aholkuak ematea, ikerketak egitea eta gomendioak plazaratzea.  | 20.000           |
| ELKARRIZKETA SOZIALAREN MAHAIAREN genero-taldea koordinatzea, gizarte eragileek soldata-arrakala murrizteko ekintza-plana betetzen duten inplikazioa sustatzeko.  |                  |
| <b>KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA</b>   | <b>313.000</b>   |
| Emakumeen ekitaldi ligak antolatzeko diru-laguntzak ematen dira, kirol lehiaketetan parte hartzeko dirulaguntza deialdiaren baitan.<br><i>Oharra: jarduera hau ekintza positiboan koadroan jasota dago.</i>   | 280.000          |
| BAT Basque Team-eko BALOREETAN BAT programaren baitan, beren plantilletan goi mailako emakume kirolariak sartzeko interesa duten enpresak edo erakundeak identifikatu eta lankidetzan espezifikoak zehazten dira<br><i>Oharra: jarduera hau ekintza positiboan koadroan jasota dago.</i>  | 15.000           |
| BASQUE TEAM-en komunikazioan, BATeko emakume kirolarien erakusketa publiko handiagoa sortzen da. Neska-mutilei kirol erreferente femeninoak erakutsiz eta kirola egiteari lotutako estereotipoak haustea dakarten ekimenak garatuz edo horiekin lankidetzan arituz.<br><i>Oharra: jarduera hau ekintza positiboan koadroan jasota dago.</i> |                  |
| EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko legetik eratorritako emakumeentzako ARDko prestakuntza-ekintzetarako dirulaguntza.<br><i>Oharra: jarduera hau ekintza positiboan koadroan jasota dago.</i>  |                  |
| Lidergoari eta goi-zuzendaritzari buruzko ikastaroa emakumeentzat kirol-erakundeetan<br><i>Oharra: jarduera hau ekintza positiboan koadroan jasota dago.</i>  |                  |
| Basque District District of Culture and Creativity programaren esparruan, generoari buruzko aholkularitza eskaintzen zaie kultura- eta sormen-industrietako enpresei, emakumeen eta gizonen berdintasun-diagnostikoak eta -planak egiteko.  | 18.000           |
| <b>HABE</b>   |                  |
| HABEK berritu eta egokitu 2021/2022 ikasturtean abian jarri eta 2025 bukatzen den 2022/2025 epealdiko dirulaguntzen deialdia, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko.  |                  |
| <b>EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGUA</b>   | <b>6.105.898</b> |
| Jarduera-kanpainak egitea honako arlo hauetan: ezbehar-tasa, behin-behinekotasuna, lanaldi partzialeko kontratazioa, desgaituen kontratazioa, genero-ikuspegia kontuan hartuta.   |                  |
| Laneko Ikuskaritzak emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunarekin lotutako arloetan sektore espezifikoetan jarduteko kanpainekin jarraitzea  |                  |
| Laneko Ikuskaritzako ordainsari-berdintasunerako plan espezifikoarekin jarraitzea eta soldata-auditoretza-sistema abian jartzea   |                  |
| Sexuagatiko soldata-diskriminaziorik ez jasateko eskubideari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak garatzen jarraitzea, enpresei eta, oro har, herritarrei zuzenduta  | 150.000          |
| Hauteskunde sindikaletan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren egoerari buruzko azterlan estatistiko bat egitea   |                  |
| Hitzarmen kolektiboan eta berdintasun-planen genero-inpaktuari buruzko txostenak egitea, Lan Agintaritzari aurkezten zaizkionean gordailutzeko eta erregistratzeko.   | 40.865           |
| Lan-harremanen eremuko Soldata Arrakalari eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko IV. Biltzarra antolatzea.  | 80.000           |

|   |                  |
|---|------------------|
| Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren arloko berariazko prestakuntza-plana garatzea.  | 75.000           |
| Berdintasun-batzordeak gaitzeko eta prestatzeko dirulaguntzen programa garatzea, enpresetan berdintasun-planak negoziatzeko eta garatzeko..   | 170.000          |
| Gizarte Elkarrizketarako Mahaiari laguntza tekniko ematea.  | 75.000           |
| Jazarpen eta diskriminazioaren aurkako Euskal Behatokiari laguntza, genero-diskriminazioaren aurkako dibulgazio-lanak egiteko lankidetzeta-hitzarmenaren bidez.   | 30.000           |
| 232/2021 Dekretua betearaztea, enpresa-elkarteentzako eta erakunde sindikalentzako prestakuntza-planak garatzeko.   | 805.718          |
| Enpresen eta erakundeen zuzendaritza-organoetan emakumeen ekintzailtza eta emakumeen talentua sartzeko sustatzeko dirulaguntzen agindua.<br><i>Oharra: jarduera hau ekintza positiboaren koadroan jasota dago.</i>  | 175.000          |
| HOME CARE LAB KOOP. ELK.arentzako dirulaguntza, zainketen eremuan orientazio- eta bitartekotza-zerbitzuak fase pilotuan ezartzeko.  | 200.000          |
| Dirulaguntza HOME CARE LAB S.COOP.i, zainketen eta bizitza-luzeraren arloko berrikuntza-ekosistema bat garatzeko.   | 180.000          |
| Genero-arrakalei buruzko azterlanak egitea euskal ekonomian (Ekonomiaz/Ikerketak).  |                  |
| <b>LANBIDE</b>  | <b>4.124.315</b> |
| Genero-indarkeriaren, salerosketaren edo sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeak kontratatzeke eta gizarteratzeko konpromisoa duen prestakuntza-programa. (2025erako gerakina sartzeko).  | 19.315           |
| Emakumeen eta gizonen prestakuntza eta kontratazioa eremu maskulinizatu eta feminizatuetan (Sekulakoa)  | 2.000.000        |
| Landa eta hiri eremuetan emakumeei laguntzeko programa<br><i>Oharra: jarduera hau ekintza positiboaren koadroan jasota dago.</i>  | 1.050.000        |
| 164/2019 Dekretua, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa... V. kapitulua. Seme-alabak eta mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileak ordezkatzeko laguntzak. | 1.055.000        |
| Curriculum itsua kontsultatzeko zerbitzua   |                  |
| <b>OGASUN ETA FINANTZA</b>  |                  |
| Soldata-arrakalaren aurkako 2030 Estrategiaren esparruan gauzatutako aurrekontuaren eta gastuaren jarraipena egitea.  |                  |
| Berdintasunerako plangintza sustatzea, erakunde laguntzaileekin formalizatuko diren hitzarmen bidez   |                  |
| Emakumeen jarduera-tasa handitzea, EGF+ programaren bidez kalitatezko enpleguetan parte hartuz.   |                  |
| <b>GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBIERNUA</b>  | <b>50.000</b>    |
| 2030eko Soldata Arrakalaren aurkako Plan Estrategikoari buruzko ekintzak  | 50.000           |
| <b>INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA</b>   | <b>0</b>         |
| Lanbide-sailekaren sisteman eta ordainsari-politikan, lanpostuen aldizkako balorazioa egitea, eta Berdintasunerako II. Planaren Jarraipen Batzordeari identifikatutako arrakalen ebaluazioaren berri ematea urtero.   |                  |
| <b>SPRI</b>   |                  |
| Aldizkako lanpostuen balorazioa egitea.   |                  |
| Urtero, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren Jarraipen Batzordean, identifikatutako arrakalen bilakaeraren berri ematea.  |                  |
| <b>URA</b>  |                  |

|   |                   |
|---|-------------------|
| Telelanak enplegua sustatzeko prozesuetan duen eraginaren azterketa   |                   |
| BAI SAREA berdintasunerako entitateen sarean aktiboki parte hartzea.  |                   |
| <b>SEGURIDAD</b>  | <b>12.000</b>     |
| SAZLko langileei zuzendutako I. Berdintasun Plana   | 12.000            |
| <b>POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAK</b>  |                   |
| Ertzaintzako agentearen oinarrizko eskalan emakumeak sartzeko I. Plana<br><i>Oharra: jarduera hau ekintza positiboan koadroan jasota dago.</i>  |                   |
| <b>HEZKUNTZA</b>  | <b>97.197.651</b> |
| Soldata-arrakala Berritzeguneen Plan Zuzentzailea   | 50.000            |
| Ikastetxeetako hezkidetzarduradunak hezkidetzaren oinarri buruz prestatzea, Berritzegune Nagusiaren bitartez.   |                   |
| Orientazio ez-sexistari buruzko prestakuntza, orientazioko langileei zuzendua.  |                   |
| Industria-arloko LHN emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna murrizteko orientazioa eta sentsibilizazioa   | 100.000           |
| 0-3 urte bitarteko haurrentzako haur-eskolen titularrak diren EAEko udalei zuzendutako dirulaguntza, zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako udal-titulartasuneko haur-eskolen mantentze-kostuak finantzatzeko. | 3.500.000         |
| Haurreskolak Partzuergoak eskaintzen duen zerbitzua doakoa izango da familia guztientzat.   | 77.212.551        |
| STEAM ekimenak zentro publikoetan 2024-25   | 70.000            |
| Ikasleen talentua curriculum-eremuetan garatzeko topaketak  | 2.000             |
| EAEko titulartasun pribatuko Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskolei zuzendutako dirulaguntza  | 16.255.000        |
| PREST GARA deialdian 8 ikastaroak   | 8.100             |
| <b>OSASUNA</b>  |                   |
| <b>OSAKIDETZA</b>   |                   |
| Kontziliazio-lizentzien erabilerak sustapen-aukeretan eta soldatetan duen benetako eta hautemandako eragina ebaluatzea, genero-ikuspegia txertatuz.   |                   |
| Osakidetzan Administrazio Publikoko beste arlo batzuekin gertatzen diren lanaldi-murrizketen azterketa konparatiboa egitea, ondoren genero-berdintasunaren ikuspegitik ezar daitezkeen neurriak identifikatzeko.  |                   |
| <b>ONGIZATEA, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOA</b>   | <b>5.058.080</b>  |
| Erakundeentzako laguntza-programak, diagnostikoa eta kontziliazio-plana egiteko (2024-2025/2025-2026)   | 420.000           |
| Kontzilia Zerbitzua   | 58.080            |
| Kontziliazio arduratsuko programa   | 28.284            |
| Familia-inguruneke zainzaileei laguntzeko estrategia  |                   |
| Gurasotasun positiboko programa   | 100.000           |
| Adiskidetze-politikei ebidentzia zientifikoa aplikatzea   | 50.000            |
| Kontzilia komunitatearen garapena   | 70.000            |
| 3 urtetik beherako seme-alaben zainzaileak kontratatzea (amaitzear)   | 10.000            |
| Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak, amatasun-lizentzia baliatu ez duten gurasoentzat  | 390.000           |
| 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko pertsonak kontratatzeko laguntzak   | 1.500.000         |
| 3 eta 14 urte bitarteko seme-alaben zainzaileak kontratatzea  | 5.000             |
| 17 asterainoko gurasotasun-baimenerako laguntzak, urtebetetik beherako adingabea zaintzeko (dekretu berria)   | 1.000.000         |



|  |                    |
|--|--------------------|
| Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak, adingabeak zaintzeko langileentzat                               | 5.000              |
| Adiskidetzeari buruzko biltzarra   | 100.000            |
| Kontziliazio erantzukideko programa berriak  | 121.716            |
| Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak, mendekotasuna/osasun-egoera oso larria duten pertsonak zaintzeko | 1.200.000          |
| <b>TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO</b>  |                    |
| Turismo-enpresetan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzeko esku-hartzeak inplementatzea         |                    |
| <b>ELIKADURA, LANDA GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA</b>   |                    |
| Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legea betetzeko jarduerak                           |                    |
| <b>JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK</b>  | <b>30.000</b>      |
| II. Plana ezartzea Justizia Administrazioiko langileen eremuan   | 30.000             |
| <b>SOLDATA-ARRAKALAREN AURKAKO JARDUEREN AURREKONTUA, GUZTIRA</b>  | <b>109.584.129</b> |

Taulari buruzko oharra:

1. Taulan ageri diren jarduketak batzuek ez dakarte aurrekontu espezifikorik, bai langileen gastuei buruzko I. kapituluaren kargura doazelako, bai aurrekontu zabalagoen barruan daudelako. Bigarren kasu horretan, aurrekontuak ezin izan dira zehaztu EIKAREN aurrekontu-aplikazioan.


Soldata-arrakalaren aurkako jarduketan aurrekontua aztertutako sailen, erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontuaren % 1,2 da. Osakidetzan, EITBn, SPRIn, URAn eta IHOBEn soldata-arrakalari aurre egiteko jardueren aurrekontua ez da jasotzen taulan, baina bai dagozkien berdintasun-planetan.

**Osakidetzak.** Soldata-arrakala asko aldatzen da Osakidetzako lanbide-taldeen artean. **2023an**, urteko soldataren arrakala globala % 15,75koa izan zen; hau da, emakume baten batez besteko soldata orokorra gizon baten soldataren batez bestekoa baino % 15,75 txikiagoa izan zen, plantilla osoa aintzat hartuta (langile finkoak eta ez-finkoak). 2024an, uztailean arteko datuekin, zifra % 13,82ra murriztu zen.

Gizonek, gizonen guztizko plantillaren aldean, ordainsari handiagoko taldeetan (pertsonal medikoa eta agente-postuak) kontzentrazio-indize handiagoa izateak azaltzen du ordainsarien arteko alde hori, beste hainbat arrazoiren artean. Horregatik, lanbide-kategoria bereko emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-aldeei begiratzen badiegu, horietako bakoitzaren barruko arrakala askoz txikiagoa da arrakala globala baino, eta arrakalarik ere ez dago kategoria batzuetan.

Urteetan zehar, kategoriaren arabera soldata-arrakala murrizten ari da, eta gero eta gutxiago dira % 5etik gorako arrakala duten kategoriak. Osakidetzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren (2021-2024) helburua da kategoriaren arabera soldata-arrakala % 5 edo txikiagoa izatea.

7. Irudia. Soldata-arrakalaren bilakaera, % 5etik gorako arrakala duen talde funtzionalaren arabera



Iturria: Osakidetza

2023an, % 5etik gorako soldata-arrakala zuten taldeak lau dira:

- A1 Fakultatibo Medikoak
- A2 Goi Mailako Teknikariak
- B2 Erdi Mailako Teknikariak
- C2 Teknikari Espezialistak

Horretarako, honako ekintza hauek proposatzen ditu 2025erako:

- Kontziliazio-lizentzien erabilerak sustapen-aukeretan eta soldatetan duen benetako eta hautemandako eragina ebaluatzea, genero-ikuspegia txertatuz.
- Osakidetzan Administrazio Publikoko beste arlo batzuekin gertatzen diren lanaldi-murrizketen azterketa konparatiboa egitea, ondoren genero-berdintasunaren ikuspegitik ezar daitezkeen neurriak identifikatzeko: azterlan konparatiboa.

Gainera, Zuzendaritza Nagusiaren barruan, soldata-arrakala murrizteko planteatutako ekintzetan lan egiteko prestakuntza espezifiko duen soldata-arrakalaren talde bat eratu du.

**EITB.** Oro har, erakundeak emakumeen aldeko soldata-arrakala du, eta taldearen arrakala orokorra % **2,65** da. Datuen bilakaera mantendu egin da. **Soldaten osagarri** guztien eta beste aldagai batzuen azterketa sakona egin da, eta ez da zuzeneko diskriminaziorik antzeman.

Jarraian, datuen bilakaera ageri da, negozio-unitateen arabera:

11. Taula. Soldata-arrailaren bilakaera EITB Taldean

|                    | 2017         | 2018          | 2019          | 2020          | 2021          | 2022          | 2023         | %plantilla  |
|--------------------|--------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|--------------|-------------|
| <b>EITB TALDEA</b> | <b>% 8,2</b> | <b>% 6,51</b> | <b>% 3,24</b> | <b>% 3,86</b> | <b>% 2,62</b> | <b>%-0,60</b> | <b>%2,65</b> | <b>%100</b> |
| EITB               | % 11,1       | % 8,26        | % 3,92        | % 7,36        | % 8,7         | %6,35         | %-2,71       | %6          |
| ETB                | % 5,6        | % 4,17        | % 0,28        | % -1,97       | % -4,07       | %-5,86        | %-1,43       | %60         |
| IRRATIAK           | % 10,5       | % 8,90        | % 5,87        | % 10,47       | % 11,06       | %4,86         | %9,72        | %29         |
| NET                | % 14,2       | % 16,52       | % 10,98       | % 19,10       | % 15,85       | %12,24        | %6,86        | %5          |

2023an, EITBk **emakumeen eta gizonen presentzia eta parte-hartzea** neurtzeko ikerketa piloturako eta lagin-azterketarako neurtzeko egin zuen. **ETB1eko, ETB2ko, Euskadi Irratiko, Radio Euskadiko eta Radio Vitoriako** 35 saio etengabe (2023ko iraila) grabatu eta aztertu ziren lehen ikerketa da. Datuek **pertsona-kopurua, agerpen-kopurua, generoa, kategoria eta gaia** jasotzen dituzte

Datu horien analisiaren arabera (2024ko otsailean amaitua), EITBn gizonen aginte-diskurtsoa presentzian dago aztertutako programetan, eta batez beste gizonezkoen presentzia handiagoa da albisteetako protagonista edo elkarrizketatu gisa. Atalen arabera, **kirol-programak dira emakumeen parte-hartze eta presentzia txikiena** dutenak. Gainera, nabarmentzekoa da **euskarazko irratiek eta telebistek beren programetan emakumeak sartzeko joera handiagoa dutela, eta emakumezko aurkezle gehiago dituzte.**

**Emakumezko kazetari gehiago egon arren, emakumeen presentzia txikiagoa da** aztertutako programetan; datu kontraesankor samarra da hori, eta esan nahi izan dezake beirazko sabaia edo emakumezkoen talentuaren ikusezintasuna dagoela. Bestetik, **oraindik ere badago aztertutako gaien araberrako genero-bereizketa:** emakumeen presentzia areagotu egiten da kulturaz, ikuskizunaz edo gizarteaz hitz egiten denean; eta jaitzi egiten da gai, aldiz, ekonomikoak, politikoak eta, batez ere, kirol-gaiak jorratzen direnean.

2024an zehar hainbat ekintza aktibatu dira gizonen eta emakumeen presentzian parekotasuna maximizatzeko esparru eta rol guztietan. Txosten horretako datuak eta ondorioak plan berrirako diagnostikoaren zati izango dira.

2025erako, Soldata-arrakalaren arloan, konpromiso hauek hartu ditu EITBk:

- Berdintasun Planean jasotako adierazleak zehazten eta aztertzen jarraitzea eta txostenak erregularitasunez aurkeztea, indarrean dagoen legearen arabera.
- Soldata-arrakalaren bilakaera zaintzea eta eragina duten faktoreen azterketan sakontzea, irtenbide egokiak ezartzeko.

EITBk soldata-arrakala neurtzen eta aztertzen du urtero, indarrean dagoen legediari eta Emakunde (Emakumearen Euskal Erakunde) emandako jarraibideei jarraituz.

Oro har, erakundeak emakumeen aldeko soldata-arrakala du, eta taldearen arrakala orokorra **% 2,65** da. Datuen bilakaera mantendu egin da. **Soldaten osagarri** guztien eta beste aldagai batzuen azterketa sakona egin da, eta ez da zuzeneko diskriminaziorik antzeman.

**SPRI eta IKEKS.** 2023an egindako diagnostikoaren ondorioz, honako hau ikusi da:

- Soldata-erregistroak eta soldata-arrakalaren auditoretzek 2022ko ekitaldiari buruz emandako datuek adierazten dutenez, SPRIk balio bereko lanpostuetarako egokitasunaren, osotasunaren eta objektibotasunaren irizpideak eta ordainsari berdinen printzipioa errespetatzen ditu.

- Ez da emakumeentzako arriskurik identifikatzen, haurdunaldiko, edoskitzaroko eta abarreko egoerei dagokienez.
- Sexuen araberako oreka dago maila taktikoan eta operatiboan. Hala ere, zuzendaritza-postuetan desoreka dago, gizonen presentzia handiagoa baita.

**URA.** 2025ean garatu beharreko ekintzetako bat, 4. helburuaren barruan sartzen dena. "Enpleguaren kalitatea hobetzea, genero-joerak hautemanez eta ordainsarrietan eta sarbide-prozesuetan, horniduran, barne-sustapenean eta prestakuntzan egon daitezkeen faktore diskriminatzaileak kenduz" da telelanak enpleguko sustapen-prozesuetan duen eraginaren azterketa egitea. Gainera, Uraren Euskal Agentzia Emakundek ematen duen "Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Lankidetzako Erakundea" da, eta BAI SAREA berdintasunerako erakundearen sareko kide gara.

**IHOBE.** Plantillako soldata-arrakala kalkulatzeko eta aztertzeko azterlan bat egiten ari da. Gainera, Emakunderen "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzako Erakundea" da, eta BAI SAREA berdintasunerako erakundearen sareko kidea.

### 6.3. AIII. ESKU-HARTZE ARDATZEKO JARDUERAK: "EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK"

Martxoaren 1eko 8/2013 Dekretuaren arabera, Emakunderi dagokio emakumeen aurkako indarkeriaren arloko politikak zuzentzea eta koordinatzea. Zehazki, honako hauekin koordinatzen da:

- Eusko Jaurlaritzako sailak: Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa; Justizia eta Giza Eskubideak; Osasuna; Segurtasuna; Ekonomia, Lana eta Enplegua; Hezkuntza; eta Etxebizitza eta Hiri Agenda.
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.
- Udalak – EUEDEL.
- Organismo autonomikoak, nazionalak eta nazioartekoak.

Halaber, honako gune hauek koordinatzen ditu:

- Sailarteko Batzordea.
- Erakunde arteko Batzordea.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko III. Akordioa.
- Berdinsarearen Indarkeria Batzordea (Eudel).
- Emakumeen eta neskatoen sexu-esplotaziorako salerosketaren aurkako mahaia

Emakumeen aurkako indarkeriak egiturazko sustraiak ditu, eta bizitzako dimentsio eta eremu guztiei eragiten die. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak eman beharreko erantzuna diziplinartekoa da lldo horretan, 13 sail batzen dira, nahiz eta beren eskumenen arabera hainbat neurritan batzen diren, taula honetan ikus daitekeen bezala:

12. Taula. Esku-hartzeak "emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak" ardatzean

| <b>EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK (EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAREN III. ARDATZA)</b>  |                                 |
|--|---------------------------------|
| AURREIKUSITAKO JARDUKETAK  | Identifikatuta<br>k aurrekontua |
| <b>SAIL, ERAKUNDE AUTONOMO ETA PARTZUERGO GUZTIAK</b>  |                                 |
| Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren 2021eko uztailaren 9ko Aginduaren aplikazioa. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena gertatzen den kasuetan jarduteko prozedura arautzen da. |                                 |
| <b>LEHENDAKARITZA</b>  | <b>1.117.200</b>                |
| Euskal Etxeei zuzendutako prestakuntza, indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak daudenean edo emakumeen aurkako indarkeria kasuetan jarduteko jarraibideei buruzkoa.   | 700                             |
| GIZONDUZ: Genero-indarkeriari lotutako prestakuntza (Emakunde)   |                                 |
| <b>EMAKUNDE</b>  | <b>1.116.500</b>                |
| Euskal gazterian emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko BELDUR BARIK programa bultzatzea eta kudeatzea   | 97.000                          |
| Emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio eta/edo prebenitzeko-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzako DIRULAGUNTZEN deialdia kudeatzea   | 300.000                         |
| Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ezagutza sustatzea, eta indarkeria horren eraginari eta dauden baliabideei buruzko datuak sistematikoki biltzea eta zabaltzea   | 45.000                          |

|   |               |
|---|---------------|
| JABETUZ – Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzako prestakuntza sustatzea.   | 156.500       |
| Prebentzioan esku hartzeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen berriei arreta emateko programak sustatzea detekzioan eta erantzun integralean laguntzen duten erakundeei laguntzak edota laguntza zuzenak emanda   | 295.000       |
| Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen kudeaketa tekniko eta administratiboa zuzentzea eta bere gain hartzea  | 80.000        |
| EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren arloko beste koordinazio-jarduera batzuk kudeatzea  | 143.000       |
| III. akordioaren Jarraipen Batzordearen esparruan, sexu-esplotaziorako emakume eta neskatuen salerosketaren aurkako mahaia lideratzea.  |               |
| Deustuko Unibertsitatean emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko unibertsitate-master ofiziala egiteko Laguntzak kudeatzea   |               |
| Sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatuen salerosketaren aurkako mahaia koordinatzea.   |               |
| <b>KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA</b>   | <b>62.400</b> |
| “Lan-kultura berdintasunerantz eta Aniztasunerantz eraldatuz” proiektuaren barruan prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak garatzea.   | 3.000         |
| ZURE TALDEKOAK GARA zerbitzua ematen jarraituko da, kirol-arloko indarkeria-kasuei arreta emateko   | 32.400        |
| Kirol-klubetan sexu-jazarpenik eta sexuan oinarritutako jazarpenik gabeko ingurune inklusiboak sortzeko esku-hartze pilotu bat abian jarri ondoren, esku-hartze horrek sortutako ondorioen azterketa  | 17.000        |
| Kultura-eremuetan genero-indarkeriaren aurkako ekintzak   | 10.000        |
| <b>HABE</b>   |               |
| Emakumeen aurkako indarkeria-motei eta horiek desberdinkeriarekin duten harremanari buruzko gizarte –pertzepzioa areagotzea euskara ikasten ari diren ikasleen artean. Euskara ikasi/irakasteko HABEK lantzen dituen baliabideen bitartez emakumeen aurkako indarkeriari buruzko sentsibilizazioa handitu.. |               |
| <b>EITB</b>   |               |
| Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloa.   |               |
| <b>EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA</b>  | <b>19.315</b> |
| <b>LANBIDE</b>  |               |
| Genero-indarkeriaren, sexu-salerosketaren edo -esplotazioaren biktima diren emakumeak kontratatzeko eta laneratzeko konpromisoa duen prestakuntza-programa<br><i>Oharra: jarduera hau Ekintza Positiboen eta soldata-arrakalaren koadroetan jasota dago.</i>  | 19.315        |
| Genero-indarkeriaren tutoreen prestakuntza Lanbideko bulegoetan   |               |
| Lanbideko langileentzako ikastaroa, laneko sexu-jazarpenean eta sexuan oinarritutako jazarpenean.   |               |
| Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatuentzako Lanbideko langileentzako ikastaroa  |               |
| Lanbideren bulegoetan indarkeriaren biktima diren emakumeekin jarduteko protokoloa eguneratzea eta prestakuntza-jardunaldia.  |               |
| <b>EUSTAT</b>   |               |
| Azaroak 25, Genero indarkeriari buruzko txostena argitaratzea   |               |
| <b>OGASUN ETA FINANTZA</b>  |               |
| Aurrekontu orokorreari buruzko genero-txostenean, emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako borrokara bideratutako jardueren eta haien aurrekontuaren jarraipena egitea.   |               |
| <b>GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBIERNUA</b>  |               |

|  |                   |
|--|-------------------|
| EAEko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan sexu-jazarpenerako eta sexuan oinarritutako jazarpenerako kasuetan jarduteko protokoloaren aplikazioa eta eraginkortasuna kontrolatzea                                |                   |
| <b>INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA</b>  |                   |
| <b>URA – URAREN EUSKAL AGENTZIA</b>  |                   |
| Sexu-jazarpenera eta jazarpen sexistara edo sexuan oinarritutakoa prebenitzeko eta horrelako egoeretan jarduteko protokoloa  |                   |
| <b>SPRI</b>  |                   |
| Hitzarmen kolektiboan genero-indarkeriaren biktima diren langileei zuzendutako neurriak sartzea  |                   |
| Sexu-jazarpenerako eta jazarpen sexistarako kasuetan jarduteko protokoloa eguneratzea, irisgarritasunean eta zabalkundearen hobekuntzak sartzea eta prestakuntza espezifikoa eskaintzea.   |                   |
| Pertsonen arteko jokabide desagokien eta/edo gatazkatsuen aurrean jarduteko protokoloa (EPOE, SPRIren hitzarmen kolektiboa) aplikatzearen ondoriozko diziplina-araubidea   |                   |
| III. Plana indarrean dagoen bitartean protokoloaren bertsio berriak SPRIko pertsona guztien artean hedatuko eta horien esku jarriko direla bermatzea, eta dokumentu horiek ere eguneratzea langile berriei harrera egiteko prozesuan |                   |
| SPRIrentzat zerbitzuak ematen dituzten enpresak sexu-jazarpenerako eta/edo sexuan oinarritutako jazarpenerako egoerei aurre hartzeko eta aurre egiteko prozesuan sartzea   |                   |
| Berariazko prestakuntza espezializatua ematea sexu-jazarpenerako eta sexuan oinarritutako jazarpenerako kasuetarako protokoloa aplikatzean parte hartzen duten pertsonentzat, betiere horrelako prestakuntzarik ez badute            |                   |
| Langileentzako sentsibilizazio-jarduerak egitea sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzeko, eta sexu-jazarpeneraren eta sexuan oinarritutako jazarpeneraren berezko jokabide sexistak identifikatzeko        |                   |
| SPRIko pertsona guztien hedapena eta irisgarritasuna bermatzea III. Planaren indarraldian protokoloaren bertsio berrietan, eta dokumentu horiek ere eguneratzea langile berriak hartzeko prozesuan.                                  |                   |
| Gehien bat emakumezko langileek bete ditzaketen lanpostuen arriskuen balorazioan sexu-indarkeria sartzea laneko arriskuen artean, eta langileei arlo horri buruzko prestakuntza eta informazioa ematea                               |                   |
| Emakumeen enplegarritasunari laguntzea (babesgabatasun ekonomikoko egoeran, askotariko diskriminazioan edo genero-indarkeriagatiko diskriminazioan badaude), zuzeneko edo zeharkako kontratazioen bidez                              |                   |
| <b>SEGURTASUNA</b>   | <b>11.369.084</b> |
| "EBA Informazioaren Kudeaketa Partekaturako Polizia Sistema (Etxekoen eta Emakumeen Babesa)" aplikatzea  | 61.759            |
| Indarkeria matxistari arreta emateko koordinazio-protokoloak 2022-2024 ezartzea eta horien jarraipena egitea Ertzaintzan   | 40.000            |
| Arreta espezializatua ematen jarraituko du indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei (app Bortxa)  | 53.803            |
| Indarkeria matxistaren biktimen arriskua baloratzeko tresnaren ebaluazioa, eguneratzea eta jarraipena  | 90.258            |
| Biktimak babesteko segurtasun pribatua   | 6.000.000         |
| Genero-indarkeriaren alorrean arreta berezia duten 99 ertzain  | 5.123.264         |
| Ertzaintzaren Gizakien Salerosketaren aurkako Plan Estrategikoaren helburu orokorrei jarraipena ematea   |                   |
| <b>POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA</b>  |                   |
| Azaroaren 25aren inguruan sentsibilizazio-ekintzak egitea Akademian.   |                   |

|   |               |
|---|---------------|
| Genero-indarkeriaren arloan emandako prestakuntza berrikustea eta eguneratzea, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa eta ikerketa hobetuz, beste erakunde eta instituzio batzuekin koordinatuta.   |               |
| Genero-indarkeriari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa emateko ekintza espezifikoak, emakumeen aurkako indarkeria matxistako egoeretan prebentzioan, detekzioan eta arreta goiztiarrean funtsezko eragile diren aldetik.   |               |
| Indarkeria matxistari buruzko prestakuntza espezializatua Akademiako langile guztientzat  |               |
| Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko berariazko prestakuntza ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia osoari, eta prestakuntza espezializatua eta etengabea ematea indarkeria matxistaren biktimei diren emakumeak zuzenean artatzen dituzten profesionalentzat. |               |
| Akademian dauden pertsona guztientzat genero-ikuspegia duen jokabide-kode bat definitzea.   |               |
| Emakumeen aurkako indarkeria matxistagatiko diziplina-falta oso larria sartzeko PLEaren Barne Erregimeneko Araudian, eta, bereziki, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena, bai eta hautaketa-prozesuetan izandako beste jokabide batzuk ere.                      |               |
| Akademian sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean jarduteko protokolo espezifiko baten diseinua eta ezarpena sustatzea.   |               |
| Pertsonen sexuagatiko jazarpena eta sexu-jazarpena identifikatzen jakiteko ekintzak sustatzea.  |               |
| Ekintza espezifikoak bultzatzea sexuagatiko jazarpenaren eta sexu-jazarpenaren aurrean dauden mekanismoak ezagutzeko.   |               |
| Eskubideak zabaltzeko ekintza espezifikoak bultzatzea, emakumeek ez dezaten salatzen beldurrik izan sexuagatiko jazarpen edo sexu-jazarpen kasuetan.  |               |
| <b>HEZKUNTZA</b>  |               |
| Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko III. Akordioaren Erakundearteko Talde Teknikoan parte hartzea.   |               |
| II. Hezkidetzaren Planaren esparruan, honako jarduerak hauek egingo ditu:   |               |
| 1. Indarkeria matxistaren arloko prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak, Emakunderekin lankidetzan eta Emakunde egiten dituen kanpainak zabalduko dira. Jarduera hori barne-baliabideekin egiten da.   |               |
| 2. Indarkeria matxistaren arloko prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak, Emakunderekin lankidetzan eta Emakunde egiten dituen kanpainak zabalduko dira   |               |
| 3. Irakasleen prestakuntzarekin jarraitu  |               |
| 4. Ikastetxeetan detektatutako emakumeen eta nesken aurkako indarkeria-kasuei buruzko datuak biltzea, mota guztietako eraso sexistak, sexualak, homofobikoak, lesbofobikoak eta transfobikoak barne   |               |
| 5. Indarkeria matxistako kasuen jarraipena egitea, mota guztietako eraso sexistak, sexualak, homofobikoak, lesbofobikoak eta transfobikoak barne, Hezkuntza Ikuskaritzatik eta baita Berritzegune Nagusitik.  |               |
| 6. Hezkuntza Ikuskaritzatik genero-indarkeriako kasuen kopuruari buruzko txosten bat egitea, mota guztietako eraso sexistak, sexualak, homofobikoak, lesbofobikoak eta transfobikoak barne hartuta.   |               |
| <b>HAURRESKOLAK PATZUERGOA</b>  |               |
| Sexu-jazarpena prebenitzeko Haurreskoletako Protokoloa berrikustea eta eguneratzea, indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.   |               |
| <b>ETXEBITZA ETA HIRI AGENDA</b>  | <b>47.304</b> |
| Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko Erakundearteko III. Akordioan parte hartzea.   |               |



|   |                  |
|---|------------------|
| Alokairu-erregimeneko etxebizitza zuzenean esleitzea: genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei alokairu-erregimeneko etxebizitza bat esleitzen zaie, eta etxebizitza horren kuota haien diru-sarreraren arabera izango da. Neurri hori kasu larrietan eta salbuespenekoetan aplikatzen da, betiere baldintza batzuk betetzen badira.<br><i>Oharra: jarduera hau Ekintza Positiboan koadroan jasota dago.</i>  |                  |
| Etxebiden izena ematea alokairu-erregimenean: 4 puntu gehiago baremazio orokorrean eta lehentasuneko kupo batean sartzea; gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzenetik salbuestea; etxebizitzarik ez izateko baldintza salbuesteko aukera; eskatzen duen edozein udalerritan erroldatzeko betebeharretik salbuestea eta, arriskua dagoenean, alokairuko etxebizitza aldatzeko aukera.<br><i>Oharra: jarduera hau Ekintza Positiboan koadroan jasota dago.</i> | 47.304           |
| Indarkeria matxistaren arloko sentsibilizazioa, Etxebizitza Sailburuordetzako langileak prestatzeko eta hedatzeko jardueren bidez.  |                  |
| Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimek dituzten etxebizitza-premiei erantzuteko beharrezko bitartekoak eta baliabideak jartzea eta horiei buruz hausnartzea   |                  |
| Genero-ikuspegia txertatzea lurralde- eta hirigintza-plangintzako tresnetan eta hiri-berroneratzeko prozesuetan. Espazio publikoan segurtasuna bermatzeko beharra.  |                  |
| Etxebizitza eskuratzeko aukera genero-ikuspegiarekin sustatzea: etxebizitzaren araudia egokitzea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateari dagokionez, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Berdintasunerako Legea   |                  |
| Etxebizitza Sailburuordetzak kudeatzen dituen etxebizitzak eraikitze prozesuetan genero-ikuspegia txertatzea: besteak beste, segurtasunik eza edo segurtasunik ezaren pertzepzioa sor dezaketen elementu guztiak azpimarratuz.  |                  |
| <b>OSASUNA</b>  |                  |
| Programa-kontratuaren esparruan, kalitate-irizpide gisa genero-indarkeriaren adierazleak kontuan hartzea ESletan, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan eta osasun mentaleko sareetan.  |                  |
| Genero-Indarkeria detektatzeko eta prebenitzeko ekintzak bultzatzea   |                  |
| <b>OSAKIDETZA</b>   |                  |
| Tratu txarren eta genero-indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra sustatzea, eta emakumeen osasun mentaleko arazoak, tratu txarrekin eta genero-indarkeriarekin zerikusia dutenak, goiz detektatzeko ekintzak hedatzea..   |                  |
| Elkarteen eta erakundeen parte-hartzearekin jarduerak indartzea, sexu-organoen ebaketa prebenitzeko eta praktika horren biktima diren emakume eta neskatilen arreta hobetzeko   |                  |
| Genero-indarkeriaren eta haren adierazpen ezberdinen arloko laguntza ematen duten langileei prestakuntza ematen jarraitzea, haiek identifikatzeko eta datuak erregistratzearen garrantziaz sentsibilizatzeko.   |                  |
| Genero-indarkeriarekin lotuta kalteberatasun berezia duten emakumeen premia espezifikoak aztertzea kolektibo horien ordezkari-taldeekin.  |                  |
| Genero-indarkeriaren protokoloaren aplikazioaren jarraipena egitea  |                  |
| Genero-indarkeriaren biktima diren seme-alabengan eta sexu-indarkeriaren biktima diren 14 urtetik gorako emakumeengan osasun-arloko profesionalak jarduteko gidak zabaltzea eta abian jartzea.  |                  |
| <b>ONGIZATEA, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOA</b>   | <b>5.406.151</b> |
| SATEVI (Indarkeriaren Biktimentzako Telefono Bidezko Arreta Zerbitzua) kudeatzea eta koordinatzea.  | 514.081          |
| Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako prestazio ekonomikoa.<br><i>Oharra: jarduera hau Ekintza Positiboan koadroan jasota dago.</i>   | 1.600.000        |

|  |                   |
|--|-------------------|
| Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa<br><i>Oharra: jarduera hau Ekintza Positiboen koadroan jasota dago.</i>  | 450.000           |
| Sexu-indarkerien biktimentzako laguntza<br><i>Oharra: jarduera hau Ekintza Positiboen koadroan jasota dago.</i>  | 1.800.000         |
| Erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzak-ekintzetan parte hartzea: Indarkeria Matxistaren III. Erakunde Akordioaren ondoriozko egitura guztietan parte hartzea, maila politikoan zein teknikoan, Bizkaiko Behatokia                                    |                   |
| Barnahus proiektua, sexu-indarkeriaren biktima diren adingabeei eta haien familiei arreta espezializatua eta integratua ematea.  | 652.370           |
| Haur eta nerabeenganako indarkeriaren aurkako estrategia (2022-2025)   | 45.000            |
| Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Zerbitzua (Zeuk Esan)   | 344.700           |
| <b>ZIENTZIA, UNIBERTSITATEAK ETA BERRIKUNTZA</b>   | <b>80.000</b>     |
| UPV/EHUn ordaindu beharreko prezio publikoen aginduan sartzea genero-indarkeriaren biktimei eta haien kargura dauden 25 urtetik beherako seme-alabei aplikatu beharreko murrizketak.<br><i>Oharra: jarduera hau Ekintza Positiboen koadroan jasota dago.</i> |                   |
| EAEn egoitza duten unibertsitateekiko hitzarmenetan, genero-indarkeriaren biktima izateagatik matrikuletan aplikatzen diren murrizketak mantentzea<br><i>Oharra: jarduera hau Ekintza Positiboen koadroan jasota dago.</i>                                   | 80.000            |
| <b>JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK</b>  | <b>7.235.828</b>  |
| Erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzak-ekintzetan parte hartzea: Indarkeria Matxistaren III. Erakunde Akordioaren ondoriozko egitura guztietan parte hartzea, maila politikoan zein teknikoan, Bizkaiko Behatokia.                                   |                   |
| Jarraipena emango zaio emakumearen aurkako, familia barruko eta sexu-askatasunaren aurkako indarkeria-delituaren biktimei berehalako laguntza juridikoa emateko Legelarien Euskal Kontseiluarekin sinatutako hitzarmenari.                                   | 2.300.000         |
| Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ) indartzea   | 1.183.957         |
| Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua.   | 1.007.734         |
| Doako laguntza juridikoaren kalitatea eta eraginkortasuna eta ofiziozko txanda bultzatzea.   | 50.000            |
| Justiziarikiko lankidetzak-zerbitzu guztiak Istanbulgo Hitzarmenean jasotako emakumearen aurkako indarkeriaren definiziora egokitzea.  |                   |
| Epaitegietan behar adina langile eta material egongo dela bermatuko da, biktimei babes osoa emateko adierazpide guztietan.   |                   |
| Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Euskadiko Koordinazio Zentroa .   |                   |
| Gakoa Programa   | 2.486.067         |
| Laguntza psikoterapeutikoko zerbitzu bat eskainiko zaie genero-indarkeriako eta/edo sexu-erasoko delituak egiten dituzten zigortuei  | 208.070           |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>25.337.282</b> |

Azalpen-oharra: Jarduera batzuek ez dakarte aurrekontu espezifikorik, langileria-gastuen I. kapituluaren kargura egiten baitira, edo partida handiagoen parte dira.

**Osakidetzak.** Genero-indarkeriaren, sexu-erasoen eta emakumeen genitalen mutilazioaren biktima diren emakumei ematen zaien laguntza indartzeko eta hobetzeko, identifikatutako jarduerak egiten jarraituko da.

**EITB.** Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa dauka. Azken urteotan, gutxika-gutxika, ETBko hitzarmen kolektiboetan, zehapen-araubidearen barruan, falta larri edo oso larri gisa jaso dira "sexu-jazarpeneko eta sexuagatiko jazarpeneko" ekintzak eta jokaerak.

**SPRI y SGEIC.** PRIk 2015az gero sexu-jazarpenaren eta/edo sexuagatiko jazarpenaren kasuetarako jarduketa-protokoloa du. 2021aren amaieran eguneratu bazen ere, hobetzeko neurri garrantzitsuak aurreikusi dira, lehen azaldutako taulan ikus daitekeen bezala. Formalki, jokabide desegokien eta/edo pertsonen arteko gatazken aurrean jarduteko protokoloa esaten zaio.

**URA.** Sexu-jazarpena eta jazarpen sexista edo sexuagatiko jazarpena prebenitzeko eta horrelako egoeretan jarduteko protokoloa aplikatzen da, 2021eko ekitaldian eguneratua eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Planaren barruan. Protokoloa Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko 50 langile baino gehiagoko erakundeetan sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko protokoloaren proposamenean oinarritzen da, Uraren Euskal Agentziaren errealitatera egokituta. Protokoloaren lehenengo bertsioa 2016ko otsailaren 23an onartu zen, eta 2021ean berrikusi egin zen, puntu batzuk aldatuz, hala nola aholkularitza konfidentzialaren osaera eta hura osatzen duten pertsonen langileei komunikatzeko modua.. 2024an berriro eguneratzen ari da, Emakunderen gida berriaren arabera.

Hala, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako borrokari dagokionez, txosten hau idazteko aurkeztu diren aurrekontu-partidak EAeko 2024ko aurrekontu orokorraren % 0,16 dira, eta Administrazio Orokorraren aurrekontu aztertuaren % 0,28 (1-16 atalak, EAeko Administrazioa osatzen duten beste erakunde batzuei egindako transferentziak kenduta) eta erakunde autonomo eta partzuergoak. Emakumeen bizitzak indarkeria matxistarik gabe egon daitezen lortzeko jardueretarako identifikatutako guztizko aurrekontua handitu egin da 2024ko aurrekontuekiko. Hala ere, ez da benetako aurrekontua, ez baita kontuan hartu I. kapituluko (Langileak) gastua, 2025ean burutzea aurreikusten den jarduera askok dakarrena.

### 6.3. HELBURU BAKARRA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEA DUTEN BESTE JARDUERA BATZUK

Atal honetan, soldata-arrakalaren, ekintza positibioen eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzaren ataletan jaso ez diren eta helburu eskusiboa emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea duten guztiak jasotzen dira. Alde horretatik, berdintasuna helburu bakarra duten jardueratzat hartzen dira genero-desberdintasunak ezabatzen eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen dutenak.

Jarraian, sailka, berariazko aurrekontua eta jarduketa horiek zehazten dira, identifikatu ahal izan direnean. I. kapituluko aurrekontua ez da kontuan hartu aurrekontua zehazterakoan.

13. Taula. Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea helburu bakartzat duten jarduerak

| EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZERA BIDERATUTAKO BESTE JARDUERA BATZUK (Soldata-Arrakalaren aurkako Planaren partiden aurrekontua, Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak, eta ekintza positiboak ez dira sartzen)             | IDENTIFIKATUTAK AURREKONTU ESPEZIFIKOA 2025 |
|--|---|
| EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATAZIO PUBLIKOAN GENERO-IKUSPEGIA ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK SARTZEARI BURUZKO JARRAIBIDEA betetzea, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2024ko martxoaren 12an onartua                                |   |
| Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak sustatzeko eginkizunak dituzten langileentzako aurrekontua. I. Kapituluak. Administrazio Orokorra eta bere organismo autonomoak.                  |   |
| Sailetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan estrategikoak egitea, bai eta horiei dagozkien 2025eko urteko planak ere.  |   |
| <b>LEHENDAKARITZA</b>  | 2.704.568                                   |
| <b>1121. EGITURA ETA LAGUNTZA</b>  |   |
| Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretu berrian onartutako aldaketan ondoriozko prozesuak eguneratzea |   |
| "Euskal Etxeak + Berdintasunaren WEBGUNEA mantentzea eta berdintasunaren arloko bi INFORMAZIO-BULETIN egitea eta zabaltzea.  | 7.500                                       |
| Euskal Berdintasunerako Eskola webgunearen online campusa eguneratzea.   | 400   |
| Euskal Etxeetako berdintasunaren arloko sare sozialak mantentzea.  | 2.000                                       |
| Euskal Etxeetako zuzendutako "Genero-identitatea euskal dantzaren eraikuntzan" ikastaroa   | 500   |
| Euskal Etxeentzako berdintasunaren arloko prestakuntzarako ONLINE CAMPUS berria edukiz hornitzea.  | 10.000                                      |
| Prestakuntza-saioa antolatzea GAZTEMUNDU programaren esparruan.  | 400   |
| <b>1122. GIZARTE KOMUNIKAZIOA ETA BERRIKUNTZA</b>  |   |
| Gobernuaren nortasun korporatiboa sustatzea, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako komunikazioaren eta publizitatearen konpromisotik abiatuta.   |   |
| IKUSKERAK seriearen bidez azterlan bat egitea, gai interesgarriei buruz emakumeek eta gizonak dituzten iritzi desberdinak aztertzeko.  |   |
| 2030 Agenda Bonuen programako laguntzen eta dirulaguntzen lerroan, 5GH zeharka txertatzen duten jarduerak sustatzea. Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea.   |   |

|   |         |
|---|---------|
| Trantsizio Sozialerako Eragile Anitzeko Foroaren eta Euskadiko 2030 Agendaren bidez (GJHen sustapenean inplikaturako erakunde eta entitate guztien bateratze operatiborako gunea) berdintasunaren arloan ezagutza duten ordezkari instituzionalen presentzia mantentzea   |         |
| <b>1311. KANPO HARREMANAK</b>   |         |
| Emakunderen lidergoan nazioarteko lankidetzak-ekintza bat sustatzea, lankidetzak berriak bilatzeko eta akordioak ezartzeko nazioarteko organismoekin eta beste herrialde batzuekin, bai eta egun daudenak sendotzeko ere.   |         |
| Berdintasunaren arloan aitortutako agenda globaletako eta nazioz gaitzak sareetako hitzordu nagusietan parte hartzea sustatzea: nazioarteko erakundeekin lankidetzarako esparru eta/edo dinamika egonkorak ezartzea, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan giltzarri diren nazioarteko sareekin ere, hala nola NBE-EMAKUMEAK edo Genero Berdintasunaren Europako Institutuarekin, bai eta Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiarekin edo Eskualdeen Europar Kontseiluarekin ere. |         |
| Berdintasunaren arloko prestakuntza- eta sentsibilizazio-proiektua sustatzea mundu osoko euskal etxeetako langileentzat, berdintasuna kudeaketaren kalitate-elementu gisa landuz.   |         |
| <b>EMAKUNDE - EMAKUNDEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</b>   |         |
| Berdintasunerako Legearen Testu Bateginaren aurreikusitako aginduak bete daitezten sustatzea  | 90.000  |
| Emakunderen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana garatzea   | 30.093  |
| Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030erako Euskal Estrategiaren hedapena bultzatzea   | 85.000  |
| Kudeatu udalerrri, kuadrila eta mankomunitateek emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak egiteko eta/edo planak eta/edo plan sektorialak egiteko eta ebaluatzeko diru-laguntzen deialdia, bai eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko tokiko protokoloak egitea ere.   | 500.000 |
| IVAPEkin lankidetzan aritza berdintasunari buruzko prestakuntza espezifiko diseinatzen eta ematen eta prestakuntzan genero-ikuspegia txertatzen.  | 10.000  |
| Aholkatu eta laguntza eman Europako Egitura eta Inbertsio Funtsekin batera finantzaturako esku-hartzeetan genero-ikuspegia txertatzeko  | 18.000  |
| Sustatu eta onartu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen kudeaketa tekniko eta administratiboa  | 47.000  |
| Sustatu eta onartu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail Batzordeko kudeaketa tekniko eta administratiboa   |         |
| Garatu EUDELekin tokiko eremuan berdintasunerako politiketako hitzarmena  | 85.000  |
| Ezarri Europako eta nazioarteko institutuaren antzeko helburuak dituzten beste erakunde batzuekin partaidetza eta lankidetzak   |         |
| Ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa sustatzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko federazioei, fundazioei eta elkartei emandako laguntzaren bidez. Izan ere, emakumeen autonomia sustatzeko eta emakumeen posizio soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzeko ekintzak egiten dituzte, dirulaguntzen eta aholkularitzaren bidez.<br><i>Oharra: jarduera hau Ekintza Positiboan koadroan jasota dago.</i>   | 430.000 |
| Ikustarazi emakumeen eta feminismoaren ekarpenak eta bizitzako eremu guztietan parte hartzen lagundu.<br><i>Oharra: jarduera hau Ekintza Positiboan koadroan jasota dago.</i>   | 62.400  |

|  |         |
|--|---------|
| Generation Equality proiektuaren esparruan, zeina Pekineko IV. Konferentziaren 25. urteurrena ospatzeko prestatu baitzen, HERRIALDE-ITUNA sustatzea berdintasuna lortzeko, eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabe bizitzeko.   | 75.000  |
| Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko kanpainak egitea, baita gizartea informatzeko eta sensibilizatzeko.   | 735.022 |
| Aurreikusi da EZAGUTZA ADITUA bultzatzeko jarduerak egitea generoaren arloan ikertzeko eta dokumentatzeko, eta laguntzak emateko genero-ikerketak egiteko eta generoan prestatzeko.  | 396.253 |
| Lan-planaren kudeaketa eta garapena zuzentzea eta bere gain hartzea "publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Batzordea" (BEGIRA)  | 60.000  |
| HEZKIDETZA sustatzeko hezkuntza formalean eta ez formalean ikerketak, materialak eta gidak sortuz  | 60.000  |
| <b>KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA</b>  | 465.000 |
| <b>4511. EGITURA ETA LAGUNTZA</b>  |         |
| Legegintzaldiko Berdintasun Plana diseinatzea eta garatzea: Saileko langileak berdintasunean sensibilizatzeko materiala (egutegia, liburuxkak...)  | 10.000  |
| Kargudunei eta langileei berdintasunari buruzko prestakuntza ematea  | 2.000   |
| <b>4512. KIROLAK</b>   |         |
| Euskal Federazioen kirol-programetan berdintasunari lotutako ekintzak puntuatzen dira ematen zaien diru-kopurua finkatzerakoan.  |         |
| Euskal Kirol Federazioen Batasunarentzako diru-laguntzaren zati bat berdintasuna bultzatzera dedikatzen dute.  | 50.000  |
| Kirol Eskolako formakuntza-programan ekintza batzuk berdintasuna bultzatzera bideratuta daude  | 40.000  |
| BATEko kirolari eta entrenatzaileen zaintza-beharrak modu eguneratuan ezagutzea, Basqueteamekin sinatutako kontratu bakoitzarekin bete beharreko formulario baten bidez.   |         |
| Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren 2025eko berdintasun-plana: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Sentibilizazio-kanpainak.</li> <li>– Prestakuntza.</li> <li>– Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko langileak sensibilizatzea</li> <li>– Generoa eta kirola konbinatuko dituen jardunaldi bat antolatzea</li> <li>– Kirolaren eta emakumeen arloan espezializatutako foroetan parte hartzea.</li> <li>– Emakumeari eta kirolari buruzko material espezifikoak egitea eta zabaltzea</li> </ul> | 140.000 |
| <b>4513. KULTURAREN SUSTAPENA</b>  |         |
| Musikan ekoiztetxeak eta teknikak garatzeko mentoretza-programa<br><i>Oharra: jarduera hau Ekintza Positiboan koadroan jasota dago.</i>  | 15.000  |
| NOKA programa, duela 6 urte sortutako ikus-entzunezko emakumezko zuzendari zuzenduta<br><i>Oharra: jarduera hau Ekintza Positiboan koadroan jasota dago.</i>   | 60.000  |
| AUKERA programa, mentoretza-programa ikus-entzunezkoetako ikasleei zuzendua, lehen film laburra egiteko<br><i>Oharra: jarduera hau Ekintza Positiboan koadroan jasota dago.</i>  | 30.000  |
| BDCC (Basque District of Culture and Creativity) genero plangintzak aurrera eramateko aholkularitza  | 18.000  |
| Kulturklikeko genero azterketak bultzatu   | 15.000  |
| <b>4514. ONDARE HISTORIKO KULTURALA</b>  |         |

|   |         |
|---|---------|
| HAKOBAREN esparruan Museoetako eta Arte Zentroetako genero-politikei buruz egindako azterlana eguneratu   |         |
| Azterketa bat egingo da genero-ikuspegitik, bai biztanleriari dagokionez, bai dirulaguntzen deialdiak jasotzen dituzten erakundeei dagokienez, bai dirulaguntza zuzen eta izendunei dagokienez  |         |
| <b>4711. HIZKUNTZA POLITIKA</b>   |         |
| BERDINTZEN beka   | 30.000  |
| Euskararen Aholku Batzordearen Genero eta Euskara Batzordearen jarduerak  | 30.000  |
| <b>HABE - HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA</b>  |         |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua   | 25.000  |
| <b>EITB</b>   |         |
| Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana ezartzea   |         |
| <b>EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA</b>  | 130.000 |
| Ikerketak euskal ekonomiari buruzko aldizkako txostenak egitea, Ekonomiaz aldizkariaren monografikotik eratorriak (genero-ikuspegiari buruzko politika publikoen gomendioak)  |         |
| <b>LANBIDE</b>  |         |
| Lanbideren emakumeen eta gizonen berdintasunerako plangintza berriaren diagnostikoa, diseinua eta ezarpena  | 50.000  |
| <b>OSALAN</b>   |         |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua   | 40.000  |
| Genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan txertatzeari buruzko dibulgazio-jarduerak (egindako azterlanen ondorioak zabaltzea: etorkinen ezbehar-tasa eta gaixotasun profesionala genero-ikuspegiarekin; emakumeen eta gizonen ezbehar-tasa eta gaixotasuna profesionala; generoari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko jardunaldiak eta txostenak). |         |
| Genero-ikuspegia eta laneko arriskuen prebentzioa txertatzeari buruzko online prestakuntza-modulu bat martxan jarri eta eguneratzea, langileentzat, enpresaburuentzat eta prebentzio-zerbitzuentzat   | 40.000  |
| Osalani dagozkion jarduerak garatzea, Emakunderekin lankidetzan, laneko segurtasunean eta osasunean genero-ikuspegia txertatzea sustatzeko (sexu-jazarpenaren modulua, kontsultei erantzutea)   |         |
| Enpresei aholkularitza emateko proiektua, genero-ikuspegia prebentzioaren kudeaketan txertatzeko jarraibideei buruz.  |         |
| <b>EUSTAT</b>   |         |
| "Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna" web-atala eguneratuta edukitzea  |         |
| Euskal AEko emakumei eta gizonei buruzko urteko txostena, martxoaren 8an zabaltzekoa  |         |
| Emakumeak eta neskak zientzian gaiari buruzko prentsa-oharra,   |         |
| <b>OGASUN ETA FINANTZAK</b>   | 45.700  |
| <b>6110. EGITURA ETA LAGUNTZA</b>   |         |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua   | 35.000  |
| Saileko langileen prestakuntza, kargu publikodunena barne   | 8.000   |
| <b>6111. EKONOMIA ETA GASTU PUBLIKOA</b>  |         |
| Aurrekontu orokorretan genero-ikuspegia txertatzeko prozesua bultzatzea.  |         |

|  |        |
|--|--------|
| EGEF 2014-2020 eta 2021-2027 y FSE+ programetarako lizitazioetan berdintasun-klausulak sartzea.  |        |
| EGEF 2014-2020 eta 2021-2027 EAEEP planifikatu, programatu eta kudeatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren zeharkako printzipioaren arabera, Sailaren eskumenen esparruan.   |        |
| EGEF eta FSE+ programek genero-desberdintasunari egiten dioten ekarpena ikusaraztea.   |        |
| EAEko 2014-2020 EGEF eta 2021-2027 EGEF eta EGEF+ programazio-programak planifikatzeko eta programatzeko prozesu integraleko emakumeen eta gizonen berdintasunerako arduradunekiko koordinazioa eta lankidetzaren indartzea              |        |
| FSE+ 2021-2027 Programa gauzatzeko, kudeatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeneko prozesuetan berdintasuna sartzea.   |        |
| Generoaren arabera banatutako egitaritza eta emaitza-adierazle komunak erabiltzea, FSE+ gauzatzeko aurrerapenen jarraipena egiteko.  |        |
| 22.5 1/2023 Legegintzako Dekretuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginean ezarritako baldintza betetzen dela egiaztatzea, fiskalizatu beharreko kontratuetan. |        |
| Dirulaguntzen Erregistro Orokorrean genero-ikuspegiaren datuak behar bezala betetzen direla sustatzea eta egiaztatzea.   |        |
| Dirulaguntza Programen eta Laguntzen urteko ebaluazioan genero-ikuspegia txerta dadin bultzatzea.  |        |
| Emakunderekin batera, dirulaguntza publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko jarraibideak prestatzen parte hartzea  |        |
| 6112. ZERGA POLITIKA   |        |
| Zerga-politikako gaiak genero-ikuspegitik jorratzen dituzten artikulatuak eta kolaborazioak argitaratzea ZERGAK aldizkarian  |        |
| 6114. ONDARE ETA KONTRATAZIOA  |        |
| Saileko berdintasun-unitatearekin eta Emakunderekin batera, Administrazio Orokorreko 72 kontratu aztertzea berdintasun-klausulak proposatzeko  |        |
| Administrazio Orokorreko kontratazio-organismoek kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta berdintasun-klausulak sartzeari buruzko 1/2004 Jarraibidea nola aplikatu duten ebaluatzea  |        |
| <b>LEA/AVC - LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA.</b>  |        |
| Berdintasunaren arloko prestakuntza  | 700    |
| Emakumeen sareetan parte hartzea, eremu bereziki maskulinizatueta (W@competition Iberia)   | 2.000  |
| Bereziki maskulinizatutako eremuetan emakumeei zuzendutako programetan parte hartzea (Mentoring programme eta Activa el Liderazgo Femenino)  |        |
| <b>GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA</b>  | 62.000 |
| 1211. EGITURA ETA LAGUNTZA   |        |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua  | 15.000 |
| Langileei berdintasunaren arloan prestakuntza ematea bultzatzea  | 7.000  |
| 1213. FUNTZIO PUBLIKOA   |        |
| Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Planeko ekintzak  |        |
| Langile guztiek emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren arloan oinarritako prestakuntza mailakatu, iraunkorra eta nahitaezkoa izan dezaten beharrezkoak diren neurriak hartzea.                                    | 30.000 |



|   |         |
|---|---------|
| 1214. INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK   |         |
| Tresna teknologikoak genero-ikuspegidun estatistika eta azterlanetara egokitzeari buruzko 1/2003 Zirkularren betetze-mailaren jarraipena  |         |
| "Aurrera" buletinaren atala. Helburua da emakumeek zientziaren eta teknologiaren arloetan egiten dituzten ekarpenak ikusaraztea.  |         |
| <b>IVAP-HAEE</b>  |         |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua   | 10.000  |
| <b>INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA</b>   | 601.210 |
| 4421. INGURUMENAREN BABESA  |         |
| Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaien dirulaguntzan, 3 puntu ematen dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduerak egiteko:   |         |
| h) Plantillaren kudeaketan emakumeen eta gizonen berdintasunerako Plan bat duela egiaztatzea, edo "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea" dela aitortzea, edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken edo jardueren garapenean ibilbidea izatea.. |         |
| Ingurumen-boluntariotzarako dirulaguntzetan, bost puntu eman zaizkie genero-ikuspegia duten proiektuei.   |         |
| 7211. KABINETEA ETA ZERBITZUAK  |         |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua   | 20.000  |
| Zerbitzuko teknikarien eta arduradunen lanpostuak betetzeko zerbitzu-eginkizunetan, meritu gisa balioesten dira emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikastaroak, GOI MAILAKOAK. Ikastaro bat baloratzen da, eta bat baino gehiago bada, ordu gehien dituen aukeratuena da.  |         |
| Zerbitzu-arduradunaren lanpostuak betetzeko proiektu-probetan, diagnostikoaren atalean genero-ikuspegiari buruzko galdera bat sartu da, probaren xede den proiektuari buruzkoa.   |         |
| Berdintasunari buruzko prestakuntza ez da kontuan hartzen eska daitezkeen urteko ikastaroen zenbaketan.   |         |
| Berdintasunari buruzko prestakuntza eska daiteke, baldin eta prestakuntza hori betetzen den lanpostuaren zereginen buruzkoa bada, nahiz eta zeregin-pilaketaren izendapena edo urtebetetik beherakoa izan.  |         |
| 7212. INDUSTRIA GARAPENA ETA EKINTZAILEENTZAKO LAGUNTZA   |         |
| Enpresek berdintasun-planak, jazarpen-protokoloak, berdintasunerako enpresa homologatuaren ziurtagiriak eta abar izatea baloratzea, betiere legez behartuta ez badaude  |         |
| <b>EUSKAL PATZUERGO ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOA</b>   |         |
| Berdintasunerako I. Planean jasotako jarduerak, besteak beste, Emakume Ikertzaileen II. Topaketan eta Doktoretza egiten ari diren emakume ikertzaileei edo teknikariei zuzendutako mentoring programa   |         |
| Emakume Ikertzaileen II. Topaketa antolatzea  | 20.000  |
| <b>URA - URAREN EUSKAL AGENTZIA</b>   |         |
| URAREN III. Berdintasun Planean jasotako neurriak gauzatzea   | 12.000  |
| BAI SAREA sarearen banaketa-esparruko ekintza espezifikoak  |         |
| <b>SPRI</b>   |         |

|   |         |
|---|---------|
| Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana (2024-2027) gauzatzea  | 531.000 |
| Arrisku Kapitala Kudeatzeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2024-2027) gauzatzea   | 13.210  |
| <b>IHOBE</b>  |         |
| IHOBEren Berdintasunerako IV. Planaren garapena   | 25.000  |
| <b>SEGURTASUNA</b>  | 530.000 |
| 2211. EGITURA ETA LAGUNTZA  |         |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua   | 10.000  |
| Ertzaintzarako emakumezko hautagai berriak erakartzeko kanpaina   | 300.000 |
| 112 SOS-Deiak aplikazioen publizitatea  | 190.000 |
| 2223. ERTZAINZA ZERBITZUAN  |         |
| Ertzaintzan Emakumeak Sustatzeko I. Plana<br>1. Proba fisikoak hautaketa-prozesuaren hurrengo deialdira atzeratzea, jaio aurreko, erditzeko edo jaio ondoko egoeran dauden emakumeen kasuan.<br>2. Hautaketa-prozesuetan parte hartzeko gutxieneko altuera kentzea.<br>3. Emakumeek beren lanaren ezaugarri anatomiko, fisiologiko eta psikosozialekin lotuta dituzten premia espezifikoa aztertzea, uniformearen, ezkutu edo beste tresna batzuen erabilera barne. |         |
| <b>POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA</b>   |         |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua   | 30.000  |
| <b>HEZKUNTZA</b>  | 208.000 |
| EAEko hezkuntza-sistamarako II Hezkidetzako Plana, berdintasunaren eta tratatu onaren bidean  |         |
| Hezkidetzako III. Plana egitea eta onartzea   |         |
| 4211. EGITURA ETA LAGUNTZA  |         |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua   | 18.000  |
| <b>HAURRESKOLAK PATZUERGOA</b>  |         |
| Haurreskolak Partzuergoaren diagnostikoa eguneratzea eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana egitea   | 190.000 |
| <b>ETXEBITZA ETA HIRI AGENDA</b>  | 130.500 |
| 4311. EGITURA ETA LAGUNTZA  |         |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua   | 15.000  |
| 4312. ETXEBITZA   |         |
| Euskadin etxebizitza eskuratzeari buruzko txostena, genero ikuspegitik  | 5.500   |
| 4313. LURRALDE ANTOLAMENDUA   |         |
| Genero-ikuspegia lurralde- eta hirigintza-antolamenduan txertatzeko gida bat formulatzeari buruzko ikerketa-lana, berroneratze inklusibo baterako.  | 40.000  |
| <b>OSASUNA</b>  | 35.000  |
| 4111. EGITURA ETA LAGUNTZA  |         |

|  |         |
|--|---------|
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua  | 25.000  |
| Administrazio osoko langileei zuzendutako zeharkako ikastaroen eskaintza koordinatzea, IVApekin batera.  | 10.000  |
| <b>OSAKIDETZA</b>  |         |
| Osakidetzan emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana egin, onartu eta abian jartzea  |         |
| <b>ONGIZATEA, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOA</b>  | 284.203 |
| 3111. EGITURA ETA LAGUNTZA   |         |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua  | 30.000  |
| 3122. INMIGRAZIOA  |         |
| MIGRAZIO ETA ASILORAKO EUSKAL FOROAREN Berdintasun Batzordea:  |         |
| 1. jarduketa. Foroko batzordeetan parte hartzen duten pertsona guztiei zuzendutako genero-gaiei buruzko prestakuntza eta kontzientziazioa.   | 180.000 |
| 2. jarduketa. EMAKUNDEekin lankidetzan ezkontza behartuei buruzko protokoloa   |         |
| Dirulaguntza izenduna Nazio Batuen Biztanleria Funtzari (UNFPA), emakume migratzaileen sexu- eta ugalketa-osasuneko proiektua garatzeko.   | 30.000  |
| Integrazio eta Kultura arteko Bizikidetzak Zerbitzua:  |         |
| 1. jarduketa. Migratutako pertsonen gizarte-erakundeei laguntza/orientazioa ematea emakume migratuen berdintasuna eta ahalduntzea sustatzeko.  | 506     |
| 2. jarduketa. Erakunde publikoei aholkularitza ematea emakumeak elkartzeko guneetan emakume migratuen partaidetza soziala sustatzeko.  | 1.518   |
| 3. jarduketa. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jardunaldietan parte hartzea, beste erakunde publiko eta/edo sozial batzuek antolatuta.   | 1.000   |
| 4. jarduketa. Rolei, genero-harremanei eta kultura-aniztasunari buruzko prestakuntza.  | 2.170   |
| 5. jarduketa. Zurrumurruei, generoari eta immigrazioari buruzko prestakuntza.  | 486     |
| 6. jarduketa. Kulturartekotasunari eta genero-indarkeriari buruzko prestakuntza.   | 8.066   |
| 7. jarduketa. Kultura-aniztasunari eta enpleguari buruzko prestakuntza   | 1.236   |
| 8. jarduketa. Familiekiko esku-hartze sozialerako gakoari buruzko prestakuntza, kulturarteko ikuspegitik   | 695     |
| 9. jarduketa. Hezkuntza-estiloari buruzko prestakuntza hainbat kulturatan.   | 6.480   |
| 10. jarduketa. Generoari eta aniztasunari buruzko prestakuntza hezkuntzaren eremuan.   | 552     |
| 11. jarduketa. Sentsibilizazioa emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko harremanetan, helduen hezkuntzako zentroetako ikasleentzat   | 1.440   |
| 12. jarduketa. Sentsibilizazioa kulturarteko ikuspegiari emakume migratuekiko harremanetan. Emakume eta feministen espazioetan parte hartzen duten emakume autoktonoei zuzenduta dago.                                       | 2.568   |
| 13. jarduketa. Familia-erreferenterik gabeko gazte magrebtarrei zuzendutako sentsibilizazioa: emakumeen eta gizonen berdintasuna, genero-harremanak, maskulinitatea eta indarkeria matxistaren prebentzioa, sexu-aniztasuna. | 1.038   |
| 14. jarduketa. Emakume musulmanei eta jantziei buruzko sentsibilizazioa: aurreiritziak hausteko begirada.  | 982     |
| 15. jarduketa. Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroaren berdintasun-batzordean parte hartzea.  | 1.520   |
| 16. jarduketa. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko mahai tematikoekin egindako jardunaldietan parte hartzea.  | 1.226   |
| 17. jarduketa. Emakume migratuen elkarten direktorioa eguneratzea.   | 380     |
| 18. jarduketa. Emakume migratuen elkarteak indartzea.  | 1.220   |

|   |         |
|---|---------|
| 19. jarduketa. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko jardunaldiak eta bestelako ekitaldiak antolatzeak aholkularitza, kulturarteko eta intersekioko ikuspegiarekin.   | 1.140   |
| 20. jarduketa. Berdintasuna sustatzearekin eta emakumeen aurkako indarkeria eta kultur-aniztasuna prebenitzearekin zerikusia duten azterlan, ikerketa eta argitalpenei laguntzea.   | 1.900   |
| 21. jarduketa. Migratutako pertsonen parte-hartze soziala eta asoziazionismoa sustatzearekin zerikusia duten azterlan, ikerketa eta argitalpenei laguntzea.   | 380     |
| IKUSPEGI. Atzerritar jatorriko emakume-taldean azterketa-deskribatzailea eta gizarte-errealitatearen, egoeraren eta premien azterketa   |         |
| 3123. GIZARTE ZERBITZUAK  |         |
| Ijito Herriarekiko Euskal Estrategiaren eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzera bideratutako jarduerak  |         |
| 3222. GAZTERIA  |         |
| Gazteen Euskal Behatokiak (GEB), gazteekin lan egiten duten eragileentzako prestakuntza-planaren barruan, 4 ikastaro egingo ditu berdintasuna sustatzeko eta indarkeria sexista prebenitzeko  | 7.700   |
| Hezkuntza-Aisialdiaren esparruan, berdintasun-edukiak dituzten materialak erabiliko dira, besteak beste, Beldur Barik Gida, aisialdiko begirale izango denak gutxieneko prestakuntza izan dezan gai horretan.   |         |
| <b>MUGIRKORTASUN JASANGARRIA</b>  | 15.000  |
| 3111. EGITURA ETA LAGUNTZA  |         |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua   | 15.000  |
| <b>ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA</b>  | 313.331 |
| 4223. UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZA  |         |
| Euskal unibertsitate-sisteman berdintasun-politikak indartzea, 2023-2026 Euskal Unibertsitate Sistemaren Planeko jardueren bidez  |         |
| UPV/EHUK, Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea 2023-2026 programa-kontratuen barruan, neurri berriak ezartzen jarraituko du genero-berdintasuna bermatzeko eta horretan aurrera egiten jarraitzeko   | 160.000 |
| Deustuko Unibertsitateak, Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea 2023-2026 programa-kontratuaren barruan, genero-berdintasunaren eta berdintasunaren aldeko kontzientziazio-, sensibilizazio-, prestakuntza-, komunikazio-, partaidetza-, sustapen- eta kontziliazio-programak eta -ekintzak garatzen ditu unibertsitate-politikan eta -jardueran. | 90.775  |
| Mondragon Unibertsitateak, Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea 2023-2026 programa-kontratuaren barruan, prestakuntza-eremuan genero-berdintasuna sustatzeko jarduerak jarriko ditu abian, arreta nagusia ikasleengan eta ikerketa-eremuan jarriz, fakultate bakoitzeko berdintasun-planekin bat etorritik.                                      | 62.556  |
| <b>5412. IKERKUNTZA</b>   |         |
| Emakume ikertzaile gehiagori mugikortasuna ahalbidetzea   |         |
| <b>TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA</b>   | 6.500   |
| 7510. EGITURA ETA LAGUNTZA  |         |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua   | 5.000   |
| Langileei berdintasunaren arloan prestakuntza ematea bultzatzea   | 1.500   |
| <b>ELIKADURA, LANDA GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA</b>  | 115.000 |

|  |                  |
|--|------------------|
| 7110. EGITURA ETA LAGUNTZA   |                  |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua  | 15.000           |
| 7111. NEKAZARITZA ETA LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENA  |                  |
| ENE - Emakume Nekazarien Estatutuaren esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko laguntzak  | 100.000          |
| Jardueraren diseinuan genero-ikuspegia 5 punturekin baloratzen da eta 2 ekintza positiborekin  |                  |
| 7112. ARRANTZA   |                  |
| Arrantza-udalerrietako jarduera ekonomikoa dibertsifikatzeko programaren barruan (FEMPA-Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtza 2021-2027 esparruaren barruan), Toki Garapeneko Estrategiak (TGE) hautatzeko prozesuan, eta Arrantzarako Toki Ekintzako Taldearen (ATET) barruan, zeinak arrantza-jardueraren mendeko EAEko eremuetako etorkizuneko Toki Garapen Parte-hartzailea kudeatuko baitu, garrantzia emango zaio arrantza-sektoreari lotutako emakume-kolektiboek parte hartzeari, emakumeek beren komunitateen bizitza ekonomikoan, politikoan eta soziokulturalean duten partaidetza areagotzeko eta eremuen garapen iraunkorrean (garrantzia puntuazio handiagoa lortzen da arrantza-jarduerari lotutako emakumeen parte hartzea duten ATETetarako. Estrategiei dagokionez, horien diseinuak, besteak beste, berdintasuna sustatzean eta genero-ikuspegia integratzean oinarritu behar du, eta arreta jarri behar die emakume ekintzaileek gidatutako proiektuei. Hala ezarrita geratu da 2023/7/31ko EHAAn argitaratutako EDLP eta GALP hautatzeko deialdian. |                  |
| <b>JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK</b>  | <b>533.580</b>   |
| 1410 EGITURA ETA LAGUNTZA  |                  |
| Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua  | 30.000           |
| 1413. ESPETXE ERAKUNEA   |                  |
| Berdintasuna eta genero-ikuspegia jarduera-ildo diren Euskadiko espetxe-eredu berria garatzea, bai eta oinarritzko printzipio bat ere: neurriak eta berdintasunari buruzko prestakuntza ezartzea   | 60.000           |
| "Emakume ijitoa, arrazakoa eta gerlaria" tailerra ADAP   | 580              |
| Erdi-askatasuneko erregimenean dauden emakumeentzako espetxeko harrera-etxea GOIZTIRI  | 160.000          |
| Erdi-askatasuneko erregimenean dauden emakumeentzako espetxeko harrera-etxea ADAP  | 263.000          |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>6.179.592</b> |

Taulan identifikatutako aurrekontuan, baztertu egin dira dagoeneko Soldata Arrakalaren aurkako Planean jasota daudenak, bai eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetara iristeko jarduerak ere.

Identifikatutako aurrekontu osoa aztertutako aurrekontuaren % 0,05 eta EAEko aurrekontu osoaren % 0,04 da.

## 6.4. SAILAK, ERAKUNDE AUTONOMOAK, PATZUERGOAK, EITB TALDEA, OSAKIDETZA, SPRI, URA ETA IHOBE

### 01. LEHENDAKARITZA


Bere eginkizunak betetzeko, EAEko gastuen aurrekontu orokorraren %0,6 dauka.

Txosten honen ondorioetarako, hauxe da aztertutako aurrekontua:

14. Taula. Aztertutako aurrekontua. Lehendakaritza.

| LEHENDAKARITZA   |              |
|--|--------------|
| AURREKONTUA  | 38.574.258 € |
| AZTERTUTAKO PROGRAMAK  |              |
| 1121. Egitura eta laguntza                                       | 8.993.336    |
| 1122. Komunikazioa eta Gizarte berrikuntza                       | 8.713.491    |
| 1311. Kanpo Ekintza  | 13.376.590   |
| <i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak::</i> |              |
| EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakunde                           |              |
| 3223. EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakunde                     | 7.490.841    |

8. Irudia. Lehendakaritza. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera.



Aurrekontu osoa da egokia eta garrantzi handikoa .

### JARDUERA GARRANTZITSUAK

#### 1. JARDUKETA: BERDINTASUN-POLITIKAK SUSTATZEA LEHENDAKARITZAREN EGITURAN.

- Lehendakaritzaren 2022-2024 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana ezartzen eta haren jarraipena egiten jarraitzea, eta 2025-2028 Plan berria egiten hastea, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiaren arabera.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretu berrian onartutako aldaketen ondoriozko prozesuak eguneratzea.

- Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontu espezifiko bat esleitzea, Berdintasunerako Unitatearen lana indartzeko estrategia gisa.
- Genero-ikuspegia txertatzea 2026ko aurrekontuetan, eta arlo horretako prestakuntza espezifikoa bultzatzea.
- Berdintasunaren arloko lantalde teknikoetan eta sailen artekoetan parte hartzea.
- Lan-bilerak egitea politikariek eta teknikariek, Lehendakaritzan berdintasun-politiketan aurrera egiteko.
- Kontratazioan, Lehendakaritzan emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunerako klausulen jarraipena egitea, bai eta soldata-arrakalaren aurkako neurrien jarraipena ere.
- Berdintasun-printzipioa araudian, estatistiketan eta azterlanetan txertatzea.
- Berdintasunerako Unitatearen parte-hartzea sustatzea XIII. Legegintzaldian adostutako plan sektorialen jarraipena egiteko.
- Jaurlaritzaren plangintzak doitzea, ezarritako genero-adierazleen jarraipenaren bidez.
- IVAPEK eta GIZONDUZEK, oro har, berdintasunaren arloan eskaintzen dituzten prestakuntza-programa berrietara joatea sustatzea.
- Sartu berri diren langileei zuzendutako berdintasunaren arloko sentsibilizazio-saioak antolatzea, printzipio hori Lehendakaritzaren lan-prozeduretan sartze aldera.
- "Euskal Etxeei zuzendutako berdintasunaren arloko bi informazio-buletin egitea bultzatzea.
- Prestakuntza-saioa antolatzea Gaztemundu Programaren esparruan.
- EUSKAL BERDINTASUNERAKO ETXEAK – BERDINTASUNERAKO ESKOLA ekimenaren barruan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko bi unitate didaktiko garatzea, online campusa abian jartzeko.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eta soldata-arrakalaren arloko jardura espezifikoak:

- **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA:** EUSKAL BERDINTASUNERAKO ETXEAK – BERDINTASUNERAKO ESKOLAREN esparruan bi prestakuntza-saio ematea, webgunea mantentzea eta prestakuntzarako online campuserako bi unitate didaktiko sortzea. Zenbateko espezifikoa: 700 €
- **SOLDATA-ARRAKALA:** Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2022-2025 Ekintza Plan Operatiboan jasotako jardueren jarraipena. ESLEITUTAKO AURREKONTURIK EZ. Zehazki, honako hau da jardura: 3.4.2. "*Ordainsari-berdintasunaren arloan jardunbide egokiak dibulgatu eta erakartzea xede duen nazioarteko ekintza bultzatzea*". Zenbateko espezifikoa: 0 €

**Aurrekontu zenbatetsia - berriaz berdintasunerako: 21.500 €** (indarkeria matxistaren eta soldata-arrakalaren jarduketak barne).

## **2. JARDUKETA: GOBERNUAREN NORTASUN KORPORATIBOA INDARTZEA, KOMUNIKAZIOAK ETA PUBLIZITATEAK BERDINTASUNAREN ALDE ETA INDARKERIA MATXISTAREN AURKA DUTEN KONPROMISOTIK**

- Oro har, Jaurlaritzaren eta, bereziki, Lehendakaritzaren komunikazio-euskarrietan berdintasunaren arloko aurrerapenak ikusarazten dituzten, emakumeak eta gizonak modu ez-estereotipatuan aurkezten dituzten eta hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egiten duten edukien kopurua handitzea.

**Aurrekontu zenbatetsia - ezin da kuantifikatu berdintasunari buruzko berriazko aurrekontua:** programa/memoria bat denez, eta haren jardura gehienak genero-ikuspegitik landuko direnez, aurrekontua 1. kapituluaren islatzen da.

## **3. JARDUKETA: LEHENDAKARITZAREN AZTERLANETAN BERDINTASUNA TXERTATZEA ETA IKUSKERAK AZTERLANEI EUSTEA**

- Pertsonen buruzko informazioaren bilketan, tratamenduan, analisisan eta hedapenean genero-ikuspegia barne hartzen duten azterlanen ehunekoa handitzea (sexuaren aldagaia sistematikoki txertatzea, genero-adierazle berriak, laginak, adina, jatorri etnikoa, klase soziala, hizkuntza eta abar).
- IKUSKERAK ikerketaren azterlan berri bat egitea, emakumeen eta gizonen iritzi-desberdintasunak aztertzeke.

**Aurrekontu zenbatetsia** - ezin da kuantifikatu berdintasunari buruzko berriazko aurrekontua: programa/memoria bat denez, eta haren jardura gehienak genero-ikuspegitik landuko direnez, aurrekontua 1. kapituluaren islatzen da.

#### **4. JARDUKETA: 2030 AGENDAK ETA GIZARTE-BERRIKUNTZA NAGUSIEK ERAGINDAKO ESTRATEGIAK ETA JARDUERAK DINAMIZATZEA ETA KOORDINATZEA, GENERO-IKUSPEGITIK**

##### **BERRIKUNTZA SOZIALA ETA 2030 AGENDA:**

- Berrikuntza sozialeko, politikoko eta kalitate eta kultura demokratikoaren sustapeneko proiektuak eta ekimenak sustatzea, genero-ikuspegitik.
- Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak antolatzea, genero-ikuspegidun gizarte-berrikuntzan oinarrituta.
- Ikuspegi intersektional batetik, emakumeen parte-hartzea sustatzea, herritarrek parte hartzeko guneetan.
- *2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren* esparruan, laguntza-ildoari jarraipena ematea, *2030 Agenda Bonuen Programaren* bidez, GJH ezartzeko dibulgazio eta/edo prestakuntza-ekintzak garatzeko. Eduki horien artean, 5. GJHekin (Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahaldunduz) lotutakoak sustatuko dira, eta horiek, aldi berean, zeharkakoak izango dira landutako gainerako GJHekin.
- *2030 Euskadi Agenda Foroaren* bidez (GJHen sustapenean inplikaturako erakunde eta entitate guztien bateratze operatiborako gunea) berdintasunaren arloan ezagutza duten ordezkari instituzionalen presentzia mantentzea.
- Prestakuntza- eta sentsibilizazio-espazioak sustatzea, baita genero-ikuspegia duten 2030 Agendaren arloko proiektuak ere.

**Aurrekontu zenbatetsia** - ezin da kuantifikatu berdintasunari buruzko berriazko aurrekontua: programa/memoria bat denez, eta haren jarduketa gehienak genero-ikuspegitik landuko direnez, eta berdintasunaren arloko jardura zehatzik egiten ez denez, aurrekontu egozgarria 1. kapituluaren islatzen da.

#### **5. JARDUKETA: BERDINTASUNAREN ALDEKO BASQUE COUNTRY MARKA ZABALTZEA, BERDINTASUN-POLITIKEN ABANGOARDIAN DAGOEN EUSKADI IKUSGARRI EGINGO DUTEN BERDINTASUN-ELEMENTUAK GEHITUZ.**

- *Euskadi Basque Country 2025* Estrategiaren jarraipena egitea, bai eta *Basque Country Markaren Plan Operatiboaren* eta berdintasunaren arloko jarduketa zehatzen jarraipena ere.
- Emakunderen lidergoan nazioarteko lankidetzaren ekintza bat sustatzea, nazioarteko organismoekin eta beste herrialde batzuekin lankidetzaren berriak bilatzeko eta akordioak ezartzeko, bai eta egun daudenak sendotzeko ere.
  - Emakunde nazioarteko hainbat erakundekin egindako lana babesten parte hartzea.
  - Ordezkaritzek berdintasunaren arloan egin behar duten lana bultzatzea.
  - Kanpoko emakume taldeak sustatzea eta indartzea: laguntza tekniko eta materiala bidaltzea.
- Berdintasunaren arloan aitortutako agenda globaletako eta nazioz gaindikoa sareetako hitzordu nagusietan parte hartzea sustatzea: nazioarteko erakundeekin lankidetzarako esparru eta/edo dinamika egonkorak ezartzea, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan giltzarri diren nazioarteko sareekin ere, hala nola NBE-EMAKUMEAK edo Genero Berdintasunaren Europako Institutuarekin, bai eta Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiarekin edo Europako Eskualdeen Batzordearekin ere.



- Berdintasunaren arloko prestakuntza- eta sentsibilizazio-proiektua sustatzea mundu osoko euskal etxeetako langileentzat, eta kudeaketa egiterako orduan berdintasuna lantzea, betiere berdintasuna kalitatearekin lotuz:
  - a. BERDINTASUNERAKO ESKOLA - EUSKAL ETXEAK prestakuntza-proiektuari eustea.
  - b. Euskal etxeei zuzendutako *Berdintasunerako Eskola - Euskal Etxeak* proiektuaren edukiak kokatzeko web atala eguneratzea.
  - c. Euskal diasporako emakumeek egindako ekarpenaren berri ematea EAEn, haien errealitatea eta ekonomiari, kulturari eta EAeko gizarte globalaren garapenari egin dioten ekarria ezagutarazteko.
- Europa mailako berdintasun-adierazleen azterketan lan egitea, genero-berdintasunaren indizea hobetzeko. Horretarako, lidergo-posizioari eusteko eremuak identifikatu eta posizio hobea lortzeko jarduerak areagotuko dira.

Soldata-arrakalaren arloko jarduera espezifikokoak:

- **SOLDATA-ARRAKALA:** Ordainsariaren berdintasunaren arloan nazioarteko ekintza bat bultzatzea, jardunbide egokiak hedatzean eta erakartzean oinarritutakoa (Euskadin soldata-arrakala murrizteko estrategiaren esparruan). ESLEITUTAKO AURREKONTURIK GABE. Zehazki, honako hau da jarduera: 3.4.2. *"Ordainsari-berdintasunaren arloan jardunbide egokiak dibulgatu eta erakartzea xede duen nazioarteko ekintza bultzatzea*. Zenbatekoa: 0 €

**Aurrekontu estimatua - ez da kuantifikatzen berdintasunaren alorreko berariazko aurrekontua:** programa/memoria honen jarduera gehienak genero-ikuspegitik lantzen direnez, egotz daitekeen aurrekontua 1. kapituluari islatzen da.

## 6. JARDUKETA: EUSKADI BERRIA.

- Prospekzio-azterketen jarduerak sustatzea eta emakumeen eta gizonen berdintasunari lotutako politika publikoak, esperientziak eta nazioarteko arrakasta-kasuak identifikatzea.

**Aurrekontu estimatua - ez da kuantifikatzen berdintasunaren alorreko berariazko aurrekontua:** programa/memoria honen jarduera gehienak genero-ikuspegitik lantzen direnez, egotz daitekeen aurrekontua 1. kapituluari islatzen da.

Emakunderen<sup>32</sup> misioa berdintasun-politikak diseinatu, bultzatu, aholkatu, koordinatu eta ebaluatzea da, eta gizartea sentsibilizatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoko bizitza politiko, kultural eta ekonomikoaren esparru guztietan.

### JARDUERA GARRANTZITSUAK

Ondoren, Emakunderen ekintza-planaren helburuak eta horietako bakoitzari esleitutako aurrekontua azalduko dira. Era berean, **Soldata Arrakalaren aurkako Planean** jasotako jarduketei buruzko informazioa ematen da.

- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legea aplikatzea sustatzea.**  
Berdintasunerako Legean aurreikusitako aginduak betetzen direla sustatzeko, programak **90.000 euroko** zuzkidura du.
- **Institutuaren kudeaketa hobetzea eta gizartearekiko eta jasangarritasunarekiko konpromisoa sendotzea berrikuntzaren, etengabeko hobekuntzaren, gardentasunaren eta kontuak ematearen bidez, bai eta hizkuntza-eskubideak babestuz eta euskararen erabilera sustatuz ere.**  
Emakunderen kudeaketa hainbat planen bidez egiten da, hala nola Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana, Kudeaketa Publiko Aurreratuko Plana eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana. Horretarako, **65.093euroko** aurrekontua dago.
- **EAEko botere publikoen berdintasuneko jarduera bideratzeko jarraibide orokorrak ezartzea.**  
Helburu horretarako aurrekontua **585.000 eurokoa** da, eta nagusiki honako hau da xedea: Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2030erako Euskal Estrategia zabaltzea eta laguntzak kudeatzea udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateek emakumeen aurkako indarkeriaren arloko diagnostikoak egiteko edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planak egin eta ebaluatzeko, edo sektoreko berdintasun-planak eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko toki-protokoloak egiteko.
- **Administrazio publikoetako langile orenen berdintasunerako gaikuntza sustatzea.**  
IVAPekin elkarlanean diseinatu eta eman nahi da berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoa, baita prestakuntzan genero-ikuspegia txertatu ere, eta horretarako, Emakundek **10.000 euroko** zuzkidura espezifikoa du.
- **EAEko erakunde publikoei laguntzea berdintasuna txertatzen beren antolamenduan, lan-prozeduretan eta politika espezifikoetan.**  
EAEko erakunde publikoei berdintasuna euren antolamenduan, lan-prozeduretan eta politika espezifikoetan txertatzera bideratutako aholku eta laguntza teknikoa emateko, eta Europako egitura- eta inbertsio-funtsek kofinantzatutako esku-hartzeetarako, Emakundek **18.000 euroko** aurrekontu espezifikoa bideratzen du.
- **EAEEn, koordinazioa bultzatzea berdintasunerako politika publikoak gauzatzeko.**  
Emakundek **140.000 euro** ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordearen eta Sailarteko Batzordearen arteko koordinazioaren kudeaketa teknikoa eta administratiboa egiteko, bai eta EUDELekin tokiko berdintasun-politiketarako hitzarmena garatzeko ere.
- **Estatu mailako eta nazioarteko lankidetzaren areagotzea.**  
Elkarlanean aritzeko eta parte hartzeko bideak finkatu eta bultzatu nahi dira antzeko helburuak dituzten beste erakunde batzuekin, hala Estatukoekin nola Europakoekin eta nazioartekoekin.
- **Emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa sustatzea.**

---

<sup>32</sup> <https://www.emakunde.euskadi.eus/hasiera/>

Emakumeen ahalduzko pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa sustatzeko **514.900 euroko** aurrekontua dago. Horri esker, laguntza ekonomikoa ematen zaie emakumeen federazio, fundazio eta elkartei emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko; aurreko horiek, ekintzak egiten dituzte emakumeen autonomia sustatzeko eta beren posizio soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzeko helburua dute, eta halaber, laguntza ekonomikoa ematen zaie emakumeen eta feminismoaren ekarpenak ikusaraztera eta eremu guztietan parte hartzera bideratutako jarduketei.

– **Antolaketa soziala eta ekonomikoa eraldatzea sustatzea, eskubideak bermatzeko.**

Helburu horren aurrekontua **2.153.775 eurokoa** da, eta honako xede hauek dituzten jarduketetarako da:

- Diseinu-, koordinazio- eta jarraipen-lanak egitea, EAEn SOLDATA-ARRAKALA murrizteko estrategia hedatzeko eta aurre egiteko emakumeek soldata-eremuan pairatzen duten diskriminazioari.
- Generation Equality proiektuaren esparruan, zeina Pekineko IV. Konferentziaren 25. urteurrena ospatzeko prestatu baitzen, HERRIALDE-ITUNA sustatzea berdintasuna lortzeko, eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabe bizitzeko.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko kanpainak egitea, baita gizartea informatzeko eta sensibilizatzeko beste ekintza batzuk egitea edo horietan laguntzea ere, hala nola martxoaren 8ko kanpainak, Emakumeen Nazioarteko Eguna, eta azaroaren 25ekoa, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna.
- Era berean, gizarte-antolaketa berdintasunerantz eraldatzea bultzatzeko, aurreikusi da EZAGUTZA ADITUA bultzatzeko jarduerak egitea generoaren arloan ikertzeko eta dokumentatzeko, eta laguntzak emateko genero-ikerketak egiteko eta generoan prestatzeko.
- Dagoeneko finkatuta dauden lan-ildoak garatzen jarraitzen da informazio-, aholkularitza- eta ikerketa-jarduketekin, eta gomendioak bidali dira helburu hauetarako: herritarrak defendatzeko eremu pribatuko sexuaren ziozko DISKRIMINAZIO-EGOERETAN; HEZKIDETZA sustatzeko hezkuntza formalean eta ez formalean ikerketak, materialak eta gidak sortuz; GIZONDUZ ekimena garatzeko, gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde gehiago inplika daitezzen bultzatzeko; eta BEGIRA publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko batzordearen lan-plana garatzeko.
- Gainera, gizarte- eta ekonomia-antolaketa eralda dadin, sustatuko da berdintasuneko politikak gara daitezela ENPRESETAN eta antolakunde pribatuetan, eta, horretarako, aholku, prestakuntza, ekonomia-laguntza eta gizarte-aitortzak emango dira.

– **Laguntzea emakumeen aurkako indarkeria matxista murrizten eta prebentzioa, detekzioa eta arreta hobetzen.**

Emakumeen aurkako indarkeriaren aurreko erantzun instituzionala indartzera eta finkatzera bideratuta dago Emakunderen ahaleginen eta baliabideen zati handi bat; zehazki, **1.193.000 euro** 2024ko aurrekontuan.

Besteak beste, jarduketa hauek egin nahi dira:

- Emakumeen aurkako indarkeria matxista murrizten laguntzea, gazteen artean emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko BELDUR BARIK erakundearteko programaren bidez, eta emakumeen aurkako indarkeria-portaerak prebenitzeko edo horien inguruan sensibilizatzeko jarduerak bultzatzea eta sustatzea, erakunde, elkarte eta fundazioentzako DIRULAGUNTZEN deialdien bidez.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak artatzen dituzten profesionali zuzendutako prestakuntza sustatzea (JABETUZ), edo Deustuko Unibertsitateko emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko unibertsitate-master ofiziala egiteko laguntzak kudeatzea.
- Erakundearteko koordinazioa zuzentzea eta babestea emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eta EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundearteko III. akordioaren Jarraipen Batzordearen esparruan, sexu-esplotaziorako emakume eta neskatuen salerosketaren aurkako mahaia koordinatzea, emakumeen aurkako askotariko indarkeria matxistaren formak lantzeko esku-hartze prebentibo, sensibilizazioko eta arretako programak bultzatzea erakundeei ematen zaizkien dirulaguntzen edo jarduketa zuzenen bitartez salerosketaren

biktima diren emakume eta neskatoei arreta osoa emanez eta detekzioaren eta harreraren bidez, eta Gela Morea ekimena martxan jarri duten udal eta ikastetxeei laguntzea.

Amaitzeko, lehen adierazi dugun moduan, Emakunderen 2025eko lehentasunezko helburua da **soldata-arrakala ezabatzea**. Horretarako, **817.500 euroko** aurrekontua du. Jarraian, hainbat ekintza zerrendatzen dira, erakundeak aurreikusi dituenak soldata-arrakala ezabatzeko estrategia eta jarduketa-plana garatzeko:

- EAEko soldata-arrakala murrizteko EKINTZA-PLANAREN (2022-2025) ezarpena, koordinazioa eta jarraipena (50.000€).
- Euskal enpresa-sareak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin duen konpromisoa sustatzea ENPRESETAN eta erakunde pribatuetan berdintasunerako politikak garatuz, eta horretarako, aholkularitza, prestakuntza, laguntza ekonomikoa eta gizarte-aitortza ematea eta Enpresariak EAEko emakumezko enpresarien, zuzendarien eta profesionalen federazioarekin lan egitea (507.500€).
- Gizartea, eta bereziki gizonak, sentsibilizatzea baterako erantzukizun handiagoa izatearen beharrea, denbora-erabileretako egungo arrakala gutxituz, besteak beste GIZONDUZ ekimenaren bitartez; bere helburua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde gizonak gehiago inplikatzeko (260.000€).
- Herritarren defentsa eremu pribatuko sexuaren ziozko DISKRIMINAZIO-EGOEREN aurrean, informazioa eta aholku emanez, ikerketaren bidez eta gomendioak plazaratuz.
- ELKARRIZKETA SOZIALAREN MAHAIAREN genero-taldea koordinatzea, gizarte eragileek soldata-arrakala murrizteko ekintza-plana betetzen duten inplikazioa sustatzeko.

## 02. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA


Bere eskumenak gauzatzeko EAEko aurrekontu orokorraren % 2,5 jasotzen du.

Txosten honetan, aurrekontu hau aztertzen da:

15. Taula. Aztertutako aurrekontua. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

| KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA                              |               |
|---|---------------|
| AURREKONTUA:  | 390.400.443 € |
| AZTERTUTAKO PROGRAMAK   |               |
| 1228. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa                     | 729.737       |
| 4511. Egitura eta laguntza  | 3.663.489     |
| 4512. Kirolak   | 14.504.828    |
| 4513. Kultura sustatzea   | 29.815.534    |
| 4514. Ondare Historiko Artistikoa                                 | 35.953.890    |
| 4515. Gizarte Hedabideak  | 970.000       |
| 4711. Hizkuntza-politika  | 26.703.412    |
| 5414. Berrikuntza Funtza  | 1.750.000     |
| Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:          |               |
| Habe - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea     |               |
| 4713. Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea      | 67.280.000    |
| Zuzenbide pribatuko erakunde publikoa. Administrazio-aurrekontua: |               |
| EITB Taldea- Euskal Irrati Telebista                              | 209.029.553   |

9. Irudia. Kultura eta Hizkuntza Politika. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera.



Sailaren aurrekontuaren %54 EITB-Euskal Irrati Telebistak kudeatzen du.. Berdintasun-plan propioa ezartzen ari den erakundea.

Aurrekontua, guztira, generoari dagokio, guztiak garrantzi handikoak dira. Hau da, eragin nabarmena izan dezakete emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko politiken hartzailerik diren herritarren artean.

## JARDUERA GARRANTZITSUAK

Sailak 2025rako egingo dituen jarduerak garrantzitsuenei dagokienez, atal honetan Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren arloan hartutako konpromiso estrategikoei (emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza eta soldata-arrakalaren aurkako jarduerak) bat datozenak nabarmentzen ditugu. Era berean, Sailaren plangintzan aurrekontu-inpaktuaren eta genero-ikuspegia txertatzearen azterketan garrantzitsuenak direnak jasotzen ditugu

### Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak

- Sentsibilizazio-kanpaina bat eta prestakuntza-ekintzak garatzea "**Lan-kultura berdintasunerantz eta Aniztasunerantz eraldatuz**" proiektuaren esparruan, Sailaren barruan sexu-jazarpenaren eta jazarpen sexistaren prebentzioan lan egiteko **(3.000 € Egitura eta Laguntza Programa 4511)**.
- Kirol-eremuan indarkeria-kasuei aurre egiteko **ZURE TALDEKOAK GARA** zerbitzua ematen jarraituko da **(32.400 € Jarduera Fisikoa eta Kirola 4512 Programa)**.
- Kirol-klubetan sexu-jazarpenik eta sexuan oinarritutako jazarpenik gabeko ingurune inklusiboak sortzeko esku-hartze pilotu bat abian jarri ondoren, esku-hartze horrek sortutako ondorioen azterketa egingo da **(17.000 €). € Jarduera Fisikoa eta Kirola programa 4512)**
- 4.Kultura-eremuetan genero-indarkeriaren aurkako ekintzak egitea aurreikusten da **(10.000 € Kultura sustatzeko programa: 4513)**

**Guztira: 62.400 €**

### Soldata-arrakala

- Kirol-lehiaketetan parte hartzeko dirulaguntzen deialdiaren barruan, emakumeen ekitaldien ligak antolatzeko dirulaguntzak eman dira **(100.000 €€ Jarduera Fisikoa eta Kirola programa 4512)**
- BAT Basque Team-en BAT EN VALORES programaren esparruan, plantilletan goi-mailako emakume kirolariak sartzeko interesa duten enpresak edo erakundeak identifikatzen dira, eta lankidetzak espezifikokoak zehazten dira **(15.000 € Jarduera Fisikoa eta Kirola programa 4512)**
- BASQUE TEAMen komunikazioan BATEko emakume kirolariaren jendaurreko erakusketa handiagoa egiten da. Neskak eta mutilak kirol-erreferente femeninoak erakutsiz eta kirol-praktikarekin lotutako estereotipoak haustea dakarten ekimenak garatuz edo haiekin lankidetzan arituz **(Jarduera Fisikoa eta Kirola programa 4512)**
- Euskal Autonomia Erkidegoan jarduerak fisikoko eta kiroleko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko 2022/08 Legetik eratorritako emakumeei zuzendutako kirol-errendimendu handiko prestakuntza-ekintzetarako dirulaguntza (aurrekontua ez da zenbatetsi). **(Jarduera Fisikoa eta Kirola programa 4512)**
- Kirol-erakundeetan **emakumeentzako lidergo- eta goi-zuzendaritzako ikastaro** bat egitea (aurrekontua ez da zenbatetsi). **(Jarduera Fisikoa eta Kirola programa 4512)**
- Basque District District of Culture and Creativity programaren esparruan, generoari buruzko aholkularitza eskaintzen zaie kultura- eta sormen-industrietako enpresei, emakumeen eta gizonen berdintasun-diagnostikoak eta -planak egiteko **(18.000 €). Kulturaren sustapena (4513)**.

**Guztira: 133.000 €**

### Berdintasunaren edo genero-ikuspegia txertatzearen arloko jarduerak garrantzitsuak

- Egitura eta laguntza programaren esparruko jarduerak garrantzitsuak (4511)

Sail honek estrategikotzat jotzen du bere langileak eta saileko karguak berdintasunaren arloan gaitzen eta sentsibilizatzen jarraitzea. Ildo horretan, berdintasunerako unitateak sentsibilizazio-, prestakuntza- eta

hausnarketa-ekintzak antolatzen ditu urtero urte osoan zehar, Sailarentzako zeharkako gaiei dagokienez: estatistikak, hizkuntza inklusiboa, berdintasuna kontratazio publikoan, sexu-jazarpena eta sexu-genero arrazoiengatikoz jazarpena. 2025erako prestakuntza-ekintza horiek sustatzeko aurrekontua **2000 €-koa** da, eta berdintasun-plana garatzeko aurrekontua **10.000 €-koa**.

Nabarmentzekoak dira, halaber, "**Lan-kultura berdintasunerantz eta aniztasunerantz eraldatzen**" proiektuaren esparruan egingo diren jarduerak. Proiektuaren helburua da lan-eremu seguru bat sortzea, eraso sexistarik, matxistarik eta LGBTIfobikorik gabea (**3000 €**). 2023an, jazarpena prebenitzeko **Berdintasuna eta Aniztasuna Lanean** dekalogoia egin zen, eta, 2024an, Saileko langileen artean gizarteratzeko lan egin zen, zabalkunde-ekintzen (egutegiak, kartelak, liburuxkak) eta prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzen bidez. 2025ean dekalogoia sozializatzen jarraitzea aurreikusten da, saileko langileei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina baten bidez (**3.000 €**).

Gainera, programa honek nabarmendu nahi du 2025ean Berdintasunerako Legegintzaldi Plan berria egitea aurreikusten dela, eta plan horrek EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030erako Estrategiaren jarraibideak jarraituko dituela. Berdintasunerako Administrazio Unitateak eta Sailean dauden berdintasunerako 4 batzorde tekniko-politikoek bultzatuko dute hori egitea, jarraipena egitea eta gauzatzea.

Programa honetan nabarmendu beharreko beste jarduera bat kontratu publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko eta euskara bultzatzeko kontratazio-taldea da. Talde horrek, aurtun, Saileko kontratu publiko handienetan genero-ikuspegia eta hizkuntza-normalizazioa zenbateraino txertatzen diren ebaluatuko du, eta jarraipen-mekanismoak hobetuko ditu.

#### - Kultura sustatzeko programaren esparruko jarduera garrantzitsuak (4513)

Programa honetan, kulturaren alorreko azpisektoreetan dauden genero-arrakalak agerian uzteko egiten ari den lana nabarmendu behar da. Kulturklik plataformaren esparruan ikerketak bultzatzen dira urtero, eta horien bidez, emakumeen obrek kultura-sektorean, azpisektoreetan, duten ikusgaitasun-maila aztertu nahi da. 2023an, "**Emakumeek eta gizonen EAEko 2022ko musika-sorkuntza eta -ekitaldietan duten presentziaren eta parte-hartzearen azterketa**" argitaratu zen. Azterketa horrek datu oso esanguratsuak ematen zituen musikaren sektorean gertatzen den desberdintasunari buruz. Eta ildo horri jarraiki, 2024an "**Emakumeen eta gizonen presentziaren eta parte-hartzearen azterketa EAEko 2023ko antzerki-programazioan eta -sorkuntzan**" argitaratu da. Horrelako txostenak urtero egingo dira kulturaren azpisektore guztietan. 2025ean dantzaren sektoreari buruzko txostena egitea aurreikusten da (**15.000 €**).

2025ean, kultura-sektoreko emakume-elkarteei laguntzen eta emakumeek sortutako kultura-produktuak bultzatzen jarraituko da. Ildo horretan, "Emakumeek eta gizonen musika-sorkuntzetan eta -ekitaldietan duten parte-hartzeari" buruzko azterlanean lortutako datuen ondorioz, musikan ekoiztetxeak eta teknikak garatzeko mentoretza-programa bat sortzeko beharra ikusi da (**15.000 €**). Gainera, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak **NOKA programarekin** jarraituko du (**60.000 €**), duela 6 urte sortutako ikus-entzunezko emakumezko zuzendariei zuzenduta. 2025eko ekitaldirako ikuspegi industrialak indartu nahi da.

Azkenik, sendotu beharreko beste programa bat **AUKERA programa** da. Mentoretza-programa bat da, ikus-entzunezkoetako ikasleei zuzendua, lehen film laburra egiteko. Programa hori (H) EMEN ikus-entzunezkoen emakumeen elkarteak kudeatzen du, eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak finantzatzen du partzialki (**30.000 €**).

Jarduera horiez gain, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak berdintasun-klausulak sartzen ditu laguntzen eta dirulaguntzen, kontratuen eta hitzarmenen deialdietan. Azpisektore horiek etengabe berrikusten eta egokitzen dira, azpisektoreetan gertatzen diren eraldaketen eta publiko hartzaileen egoeraren arabera.

- Kultura-ondarearen programaren esparruko jarduera garrantzitsuak (4513)

Programa honetan aurreikusten da azterlan bat egitea genero-ikuspegitik, bai biztanleriari buruz, bai dirulaguntzen deialdiak jasotzen dituzten erakundeei buruz, bai zuzendaritzak kudeatzen dituen dirulaguntza zuzen eta izendunei buruz. Gainera, berdintasunerako administrazio-unitatearekin lankidetzan lan egitea aurreikusten da, deialdietan genero-ikuspegi integratua hobetzeko eta egoera horien jarraipena egiteko mekanismoak hobetzeko. Azkenik, **HAKOBaren esparruan Museo eta Arte Zentroetako genero-politikei buruz egindako azterlana eguneratuko da** (2018).

- Hizkuntza-politika programaren esparruko jarduera garrantzitsuak (4711)

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, azken bi legegintzaldietan, lan-ildo sendoa garatu du bere politiketan genero-ikuspegia txertatzeko, eta, horretarako, hausnarketarako guneak bultzatu ditu, generoak euskararen biziberritzean duen eraginari buruz gogoeta egiteko, bai eta berdintasun-politikek eta hizkuntza-normalizazioko politikek zeharkako politika gisa elkarrizketa ezartzeko eta elkarrekin indartzeko guneak sortzeko ere.

2025ean egindako lanarekin jarraitu nahi da, orain arte bultzatutako proiektuak indartuz, hala nola: **Genero eta Hizkuntza Batzordea (EAEko Euskararen Aholku Batzordearen barruan) (30.000 €)**; laguntzen deialdia **(BERDINTZEN) generoari eta euskarari buruzko ikerlanak egiteko (30.000 €)**.

- Jarduera fisikoaren eta Kirolaren-programaren esparruko jarduera garrantzitsuak (4512)

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak **35.000 €-ko** aurrekontua du gordeta urteko kudeaketa-berdintasunerako plana garatzeko. Plan horren esparruan, sentsibilizazio-kanpainetan, materialak egiten, jardunaldietan, prestakuntzan eta sektoreko eragileei (federazioak, klubak, etab.) zuzendutako sentsibilizazio-jardueretan lan egitea aurreikusi da. Euskal federazioen kirol-programetan berdintasunarekin zerikusia duten ekintzak balioesten dira ematen zaien zuzkidura ekonomikoa finkatzeko orduan, eta Euskal Kirol Federazioen Batasunari ematen zaion dirulaguntzaren zati bat berdintasuna sustatzeko erabiltzen da. **(50.000 €)**. Azpimarratu beharreko beste ekintza bat da Euskal Kirol Eskolak duen prestakuntza-programan berdintasuna sustatzeko ekintzak sartzen direla. **(40.000, - euro)**.

Zuzendaritza honek genero-ikuspegia lantzen du bere deialdietan, eta sistematikoki sartzen ditu berdintasun-irizpideak eta -klausulak dirulaguntzetan, bai eta emakumeen ekitaldien ligak antolatzeke ekintza positiboak ere, kirol-lehiaketetan parte hartzeko dirulaguntzen deialdiaren barruan **(100.000 euro)**.

## HABE

HABEren erakunde-helburua da helduen euskalduntzea sustatzea eta, horretarako, euskara-ikastaroak ematea, nola euskaltegietan aurrez aurre, hala hizkuntzak irakasteko eta ikasteko beste modalitate batzuen bitartez (osorik edo zati batean baliabide digitaletan oinarritzen diren modalitateen bitartez hain zuzen ere —e-learning edo b-learning—).

## JARDUERA GARRANTZITSUAK

Kontuan hartuta adierazitako datuak eta zein unetan gauden. Alde batetik, XIII. legegintzaldiaren hasiera eta EAEko 2030erako Berdintasunerako Estrategia onartu berria oraindik ez zaio heldu legegintzaldi honetan erakundea zuzenduko duen plangintza berria lantzeari. Beraz, erreferentzia gisa dugu aurreko jarduera-esparrua, berdintasunaren arloan ditugun helburuetan aurrera egitea eta 2025 urtean egingo den legegintzaldi honetarako berdintasun-plana diseinatzea.



Erakundearen azkeneko plangintza kontuan hartuta eta beti ere, 2030 EAE-emakumeen eta gizonen berdintasunerako Estrategia kontuan hartuta, HABEK lehentasunezko zat jotzen du helduen euskararen irakaskuntzan genero-ikuspegia txertatzeko bidean aurrera egitea. Horregatik 2025ean honako jarduera hauek lehenetsiko dira:

- Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua bermatzea eta 25.000 euro esleitzea.
- Erakundearen emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken garapena bultzatzea XIII. Legegintzaldiko Berdintasun plangintzaren bitartez.
- Berdintasun arloan erakundeko langileen sentsibilizazioa eta prestakuntza hobetzea..\_Langileak gaitzea, IVAPen, Emakunderen edo sailaren ikastaro espezifikoaren bidez edo barne-prestakuntzaren bidez, bai administrazio-prozeduretan genero-ikuspegia hobeto txertatzeko, bai euskararekin eta generoarekin lotutako prestakuntzan.
- Erakundearen kontratuetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako klaukulak sartzeari buruz Gobernu Kontseiluak onartutako jarribide berrien aplikazioan aurrean egitea. Gidalerro berriak hedatzea, horiek aplikatzeko aholkularitza teknikoa ematea, prestakuntza espezifikoaren antolatzea eta erakundearen prozedura sistematzea, besteak beste.
- Erakundearen berdintasun-politikaren gardetasuna sustatzeko web gunearen kudeatzailearen lankidetzan berdintasunari dagozkion berriak erakunde osoan zabaldu. Aldi berean, Berdintasun-unitatearen web guneko atala elikatu eta era iraunkorran gaurkotu.
- Berdintasunerako administrazio-unitatea sendotzea eta ezagutaraztea ezinbestekoa eta, horretarako erakundearen langile berriei harrera egiteko *“HABEn Berdintasun politika, egiturak, plangintza eta genero ikuspegia txertatzeko oinarriak”* dokumentua langileen artean hedatzen jarraitu da. .
- Genero-ikuspegia txertatzea erakundearen komunikazioan eta abian jartzen dituen kanpainen.
- Berdintasunerako lege bateginak ezarri dituen mandatu juridiko berriak aztertu egingo dira eta betetze aldera aurrerapausoak eman. Eusko Jaurlaritzan diru-laguntzetan genero ikuspegia txertatzeko adosten diren irizpide komunak aplikatu.
- Erakundeak egingo dituen estatistika eta ikerketetan genero ikuspegia txertatu.
- Helduen euskalduntzeari buruzko informazioa bildu, aztertu eta zabaltzean genero-ikuspegia kontuan hartu eta beste aldagai batzuekin (adina, jatorria, etabar) nola gurutzatzen den jakiteko interseksionalitatearen azterketan aurrerapausoak eman.

#### **Sektoreko ekintzak:**

- Genero-berdintasunaren ikuspegitik euskara maila egiaztatzearen proben analisia egin, emaitzak baiestea eta txostena egin.
- Etorkinak eta beste autonomia erkidegoetatik etorritakoak euskara ikasteko baldintzak hobetu. ( A1 Komunikagaitasun- maila lortu).
- Prestakuntza arlotik 2025.urteko prestakuntza-saioak antolatzeari begira, genero- berdintasunaren alorreko berariazko saioak aurreikusi.
- IKASBIL atarian, berdintasuna sustatu atal guztietan. (dokuteka, jarduerak, biografiak.)
- IRAKASBIL webguneko Didaktea atalean Berdintasun arloa elikatu.
- Helduen euskara ikasteko material didaktikoetan emakumeen ikusgarritasuna eta genero berdintasuna sustatu. Horrela, Primeran material didaktikoetan genero ikuspegia txertatu.
- Sekuentzia didaktikoetan edota ariketen gaiak hala eskatzen badu berdintasun unitatearen txosten edota aholkua jaso ahal izango da.
- INGURA euskara online ikasteko ikas-plataforma garatzerakoan berdintasuna sustatu.

- HABEren liburutegian ondare bibliografikoan feminismoa eta berdintasuna jorratzen dituzten liburuak eskuratu eta zabaldu. Bestalde, sare sozialetan nobedade aukeratuen berri ematerakoan, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, feminismoa eta generoa aztertzen duten lanen berri eman.
- Hizkuntza Politikarako sailburuordetzatik sustatutako hizkuntza eta genero politika publikoen lantaldeko lan teknikoetan parte hartu da.
- Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak 2030 agendako GJH 5 helburuaren inguruan egiten den lanketa (Genero-Berdintasuna) HABEko liburutegiko zerbitzuetara ekarri eta erakunde barruan zabaldu.
- eHIZPIDE aldizkarian didaktika eta generoaren arteko lotura esploratzen duten artikulua argitaratu.

### **Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak**

- Emakumeen aurkako indarkeria-motei eta horiek desberdinkeriarekin duten harremanari buruzko gizarte – pertzepzioa areagotzea euskara ikasten ari diren ikasleen artean. Euskara ikasi/irakasteko HABEK lantzen dituen baliabideen bitartez emakumeen aurkako indarkeriari buruzko sentsibilizazioa handitu.
- Gobernantza eta Autogobernu sailak sexu-jazarpenerako eta sexuan oinarritutako jazarpenerako kasuak gertatzen direnean prozedura arautzen duen Agindua onartu zuen. Berdintasun Unitateak Gobernantza eta Autogobernu sailak antolatutako prestakuntza espezialitatua jaso zuen. Agindu honek ekar ditzakeen lan-jardunak burutzea eta protokoloaren ezagutza erakundearen barne sustatu.

### **Soldata-arrakalaren aurka**

- 2023ko uztailaren 27ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunarako Sailarteko Batzordean adostu zen arabera Euskadin Soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategian aldaketak egingo dira. Hausnarketa-prozesu berri bat irekitzea planteatu da, Estrategia honetan Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde guztiei parte hartzeko aukera irekitze aldera.  
Horretarako, Estrategia ezagutzeko lan teknikoko prozesu bat abiatu da Sailarteko Talde Teknikoan. Beraz, HABEK prozesu horretan parte hatuko du, prozesu horretatik eratortzen diren ekintzak egingo ditu eta esparru horretako jarduerak propioak zehaztuko ditu, bere eskumenen arabera.
- 2025 urtean, HABEK berri eta egokitu 2021/2022 ikasturtean abian jarri eta 2025 bukatzen den 2022/2025 epealdiko dirulaguntzen deialdia, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko.

## **EITB TALDEA**

EITB – Euskal Irrati Telebista zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da. Eusko Jaurlaritzak 1982an sortu zuen, eta euskal irrati eta telebista publikoari sostengua eman zion.

### **JARDUERA GARRANTZITSUAK**

Aurreikuspenen arabera, 2024an onartuta egongo dira EITBren berdintasunaren egoeraren diagnostikoa eta datozen lau urteetarako berdintasun plan berria. Plan berri honen prestaketak egungo legediaren eskakizunei eta «EITB 2030 ESTRATEGIA» eta «EITB 2022-2025 Programa Kontratuak» dokumentuek ezarritako konpromisoei erantzuten die, bai forman, bai emaitzan. Diagnostikoari esker, foku eta helburu berriak ikus ditzakegu.

Edukietan genero-ikuspegia txertatzeko jarduerak, 2025eko aurrekontu-banaketaren ondoretarako, EITBk interes handiko proiektutzat jotzen ditu berariazko zuzkidura esanguratsu baterako:

- EMAKUMEZKO KIROLARIAK. Azken urteetan bezala, emakumeek egiten dituzten kirolen emankizunetarako (futbola, saskibaloia eta abar) eskubideak eskuratzearen alde egiten jarraitzen dugu. Denboraldi honetan, berritasun gisa, eskubaloia emango dugu: BERA BERA - EHF European League.
- Berriro egingo dugu emakumeek gure hedabideetan duten presentziari eta parte-hartzeari buruzko diagnostikoa, bai kualitatiboki, bai kuantitatiboki.
- ZINEMA. Emakumezko zinemagileak babesten jarraituko dugu, euskal zinemaren sektorearekin sinatutako hitzarmenean txertatutako politika positiboekin.


### 03. EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGU SAILA

Bere eginkizunak betetzeko, EAEko gastu aurrekontu orokorraren %7,8 dauka. Txosten honen ondorioetarako, hauxe da aztertutako aurrekontua

16. Taula. Aztertutako aurrekontua. Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

| EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA                                   |                 |
|---|-----------------|
| AURREKONTUA:  | 1.252.007.399 € |
| AZTERTUTAKO PROGRAMAK   |                 |
| 3110. Egitura eta laguntza  | 4.362.896       |
| 3112. Lana  | 22.590.181      |
| 3121. Gizarteratzea   | 4.457.844       |
| 3211. Enplegua  | 7.678.932       |
| 3212. Gizarte Ekonomia  | 8.664.888       |
| 6116. Ekonomia eta Plangintza                                     | 2.706.614       |
| Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:          |                 |
| LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzua                                |                 |
| 1228. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa                     | 54.886.752      |
| 3111. Enplegu eta Pol. Egitura eta Laguntza Sozialak              | 759.159.292     |
| 3121. Gizarteratzea   | 211.396.570     |
| 3211. Enplegua  | 140.733.733     |
| 3231. Heziketa  | 54.886.752      |
| OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea       |                 |
| 3113. OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea | 18.321.000      |
| EUSTAT – Euskal Estatistika Erakundea                             |                 |
| 5513. Eragiketa eta argitalpen estatistiko ofizialak              | 17.048.697      |

10. Irudia. Ekonomia, Lana eta Enplegua. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera.



Aurrekontu osoa iraunkorra da, eta garrantzi handia eta ertaina du. Hau da, eragin nabarmena izan dezake emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko politiken hartzaileraren artean Gizarte Ekonomiako, Ekonomia eta Plangintzako eta Eustateko programak dira garrantzi ertaina dutenak.

## JARDUERA GARRANTZITSUAK

Arestian adierazitako datu guztiak kontuan hartuta, eta estrategian adierazi den bezala, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak **GOBERNU ONAREN** eremuan honako jardura hauek lehenetsiko ditu:

- Sailaren berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea
- Berdintasunerako Unitateak sailean egiten duen lana indartzeko estrategiarekin jarraitzea, plan sektorialak egiteko koordinazio-taldeetan parte hartuz.
- Araudian berdintasun-printzipioa txertatzea, Emakundek genero-eraginari buruzko txostenetan egindako gomendioak sartuz eta berdintasun-printzipioa Sailaren txosten juridikoetan sistematizatuz.
- 2025eko aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea, eta sailari dagozkion aurrekontu-programa bakoitzaren analisi-txostenak egitea genero-ikuspegiarekin.
- Sailaren plan estrategikoetan genero-ikuspegia txertatzea.

**LANAREN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN** eremuan, lehentasunezko zat jotzen dira Euskadin soldata-arrakala murriztera bideratutako jarduketak, lehen aipatutako "Euskadin soldata-arrakala murrizteko estrategia eta ekintza-plan eragilea" (2022-2025) dokumentuan jasotakoak.

- Jarduera-kanpainak egitea honako arlo hauetan: ezbehar-tasa, behin-behinekotasuna, lanaldi partzialeko kontratazioa, desgaituen kontratazioa, genero-ikuspegia kontuan hartuta.
- Laneko Ikuskaritzak emakumezkoen eta gizonen berdintasunarekin lotutako arloetan sektore espezifikoetan jarduteko kanpainekin jarraitzea.
- Laneko Ikuskaritzako ordainsari-berdintasunerako plan espezifikoarekin jarraitzea eta soldata-auditoriako sistema bat abian jartzea
- Sexuagatiko soldata-diskriminaziorik ez jasateko eskubideari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak garatzen jarraitzea, enpresei eta, oro har, herritarrei zuzenduta
- Hauteskunde sindikaletan gizonen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren egoerari buruzko azterlan estatistiko bat egitea
- Hitzarmen kolektiboen eta berdintasun-planen genero-inpaktuari buruzko txostenak egitea, Lan Agintaritzari aurkezten zaizkionean gordailutzeko eta erregistratzeko.
- Lan-harremanen eremuko Soldata Arrakalari eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko IV. Biltzarra antolatzea.
- Gizonen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren arloko berariazko prestakuntza-plana garatzea.
- Berdintasun-batzordeak gaitzeko eta prestatzeko dirulaguntzen programa garatzea, enpresetan berdintasun-planak negoziatzeko eta garatzeko.
- Gizarte Elkarrizketarako Mahaiari laguntza tekniko ematea.
- Jazarpen eta diskriminazioaren aurkako Euskal Behatokiari laguntzea, genero-diskriminazioaren aurkako dibulgazio-lanak egiteko lankidetzak-hitzarmenaren bidez.
- 232/2021 Dekretua betearaztea, enpresa-elkarteentzako eta erakunde sindikalentzako prestakuntza-planak garatzeko.

Soldata-arrakalarekin lotutako lehentasunezko jardura horiek garatzeko, 1.433.336 euroko aurrekontua aurreikusten da.

Era berean, EAEko enpresetan emakumezkoen lan-baldintzak hobetzea helburu duten beste jarduera batzuk ere planifikatuta daude.

- Gizarte-eragileen arteko hiru aldeko elkarrizketa eta etengabeko negoziazioa bultzatzea, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren bidez, lantaldeak indartuz (besteak beste, Berdintasunerako lantaldea)
- Estatistika sozio-laboralak hilero argitaratzen eta urteko memoria egiten jarraitzea.
- *"Oñatiko Adierazpena: Lan Harremanen Eredu Berriturako Dekalogo"* delakoan jasotako helburuen garapena eta aplikazio praktikoa sustatzea. Adierazpen hori 2019ko apirilean onartu zen, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) mendeurrena zela-eta.

Bestalde, gizarte-ekonomiako enpresa-sarea sustatu eta bultzatzeko, 2024an Gizarte Ekonomiaren Sailarteko eta Erakundearteko Plan Estrategikoa (2022-2026) ezartzen jarraituko da, eta dirulaguntzen hainbat programa bultzatuko dira, guztira 4.315.000 €-ko aurrekontuarekin.

- Gizarte-ekonomian ekiteko eta gizarte-ekonomiako enpresa bakoitzaren lurralde-sustapenerako laguntzen deialdia egiten duen eta laguntza horiek arautzen dituen dirulaguntzen agindua.
- Agindua, dirulaguntzak ematekoa, gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzen deialdia egiten duena eta laguntza horiek arautzen dituena.
- Agindua, dirulaguntzak ematekoa, enpresetan langileek parte hartzeko laguntzen deialdia egiten duena eta laguntzok arautzen dituena.
- EAEko Enpresen Gizarte Erantzukizuna hedatzeko eta ezartzeko laguntzen deialdia egiten duen eta laguntza horiek arautzen dituen Agindua.

**ENPLEGUAREN ETA GIZARTERATZEAREN** eremuari dagokionez, honako hauek dira genero-desberdintasunak ezabatzea eta berdintasuna sustatzea helburu duten jarduera nagusiak, eta, gainera, genero-ikuspegiarekin diseinatuta daude:

- Emakumezkoen ekintzailtza sustatzeko eta enpresa eta erakundeetako zuzendaritza-organoetan emakumezkoen talentua sartzeko dirulaguntzen agindua
- Dirulaguntza SSI Taldeari, fase pilotuan orientazio- eta bitartekaritza-zerbitzuak ezartzeko zainketen esparruan
- Dirulaguntza HOME CARE LAB S.COOP.i, zainketen arloko berrikuntza-ekosistema bat garatzeko
- Dirulaguntza ADR Lautadari, Lautadaekin Erausquyn programarako
- Dirulaguntza izenduna TENDELi, Diversi-Otxar Gizarte-eraberritzeko proiekturako.
- Inklusiorako V. Euskal Planaren proiektu esperimentalak eta ibilbide mistoak garatzeko dirulaguntzak.

Jarduketa horiek egiteko 2.635.000 €-ko aurrekontua aurreikusi da.

Bestalde, genero-ikuspegiarekin diseinatzeko prozesuan dauden jarduketak:

- Dirulaguntza izenduna Novia Salcedo Fundazioari, gazteen enplegarritasuna hobetzeko esperientzia errazteko programa egiteko eta Gazteen Enpleguaren Hamarkadaren Adierazpenerako eta IX. Bilbao Youth Employment Forum antolatzeko Nazioarteko Kanpainaren 2025 Ekintza Plana egiteko.
- Dirulaguntza Bizkaiko Industria Ingeniaritzaren Elkargo Ofizialari, "PROMETEO - Profesionales para la nueva longevidad" proiektua gauzatzeko.
- Dirulaguntza Sormen Industrien Fundazioari, EAEko kultura-industriak sustatzeko eta indartzeko. BIME PRO CAMPUS.
- Dirulaguntza zuzena Sarturi, errotze sozialaren bidez migratzaileak erregularizatzeko W proiekturako.
- Dirulaguntza Gizatea-Euskal Autonomia Erkidegoko Laneratzeko Enpresen Elkartearantz, laneratzeko enpresa berriak ezartzeko edo finkatzeko.
- Dirulaguntza ONCE Fundazioari, proiektu esperimental bat egiteko, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean sartzeko proiektua diagnostikatu eta proposatzeko.

Jarduera horiek egiteko aurrekontua 1.707.022 eurokoa da.

**EKONOMIA** eremuari dagokionez, genero-desberdintasunak ezabatzea eta berdintasuna sustatzea helburu duten jarduera nagusiak, eta, gainera, genero-ikuspegiarekin diseinatuta daudenak, honako hauek dira:

- Euskal ekonomian genero-arrakalei buruzko azterlanak egitea (Ekonomiaz/Ikerketak)
- EAEko ekonomiari buruzko aldizkako txostenak egitea Ekonomiaz aldizkariaren monografikotik eratorritako (genero-ikuspegiari buruzko politika publikoen gomendioak)
- Ekonomiaz eta Ikerketak aldizkarietan, bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko neurri ekonomiko eta fiskalak jorratzen dituzten artikulua eta txostenak proposatzea (47. artikulua), eta, hala badagokio, azterlana gauzatzea.
- Koiunturako dokumentuetan genero-ikuspegia pixkanaka txertatzea:
  - Koiuntura klik batean: lan-merkatuaren atala.
  - Hiruhileko txostena: lan-merkatuaren azterketa.
  - Urteko txostena: lan-merkatuaren eta soldata-arrakalaren azterketa

Jarduera horiek baliabide propioez egiten dira.

## LANBIDE

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren helburua da enplegu egonkor eta kalitatezko eskubidea erabat garatzen laguntzea, eta langileen enplegarritasuna bermatzen eta enpresen eskakizunetara egokitutako langileen beharrak asetzen lagunduko duen lan-merkatua eratzen laguntzea, bai eta gizarte- eta lurralde-kohezioari laguntzea ere, enplegu-politikak kudeatuz eta legeria egikaritzuz. Lan-legepekoak direnak Halaber, bere zerbitzuen erabiltzaileei arreta emateko sistema modernizatzea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea du helburu.

Lanbide - Enplegu Zerbitzu Publikoak hiru helburu estrategiko planteatzen ditu emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.

1. BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA LANBIDEREN ANTOLAKETAN ETA FUNTZIONAMENDUAN TXERTATZEA, BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOEN ESTRATEGIAK ETA ESKAERAK GARATZEKO
2. ZERBITZU INTEGRAL ETA PERTSONALIZATUAK ESKAINTZEA, EMAKUMEEK LAN-MERKATUAN BERDINTASUN-BALDINTZETAN SARTZEKO, IRAUTEKO ETA AURRERA EGITEKO AUKERA IZAN DEZATEN
3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA ENPRESEKIKO HARREMANETAN ETA ZERBITZUETAN TXERTATZEA

## JARDUERA GARRANTZITSUAK

Lanbidek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan duen jarduerari dagokionez, honako lan-ildo hauek lehenetsi ditu:

- A. Helburu bakarra berdintasuna eta espero diren emaitzak sustatzea dutenak  
Baliabide Orokorren Zuzendaritza

- Genero-ikuspegidun lan-bitartekaritzan diharduten Lanbideko langileentzako ikastaroa. Emakumei lana bilatzen nola lagundu jakiteko ikastaroa, bereziki kalteberak diren kolektiboetatik datozenak, genero-ikuspegia duten laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak, enplegu-baliabide inklusiboak eta abar azpimarratuz.
- Lanbideko langileentzako "Berdintasuna normalizatzen" hizkuntza ez-sexistari buruzko ikastaroa. Lanbideko eta zentro laguntzaileetako langileei komunikazio inklusiboko prestakuntza eskaintzeko ikastaroa, harremanak izateko, genero-joerarik gabe idazteko eta komunikatzeko. Hizkuntza bakoitzaren berezitasuna identifikatzea, bakoitzaren erabilera ez-sexistari dagokionez.
- Lanbideren emakumeen eta gizonen berdintasunerako plangintza berria diseinatzea. Lankidetzeta-prozesua, aldi horretako jardun-lehentasanak ezarri aurreko diagnostiko bat egiteko, erakundearen berdintasunaren zeharkakotasunean aurrera egiteko. Aurrekontua: 50.000 €

### **Lanbideren programak emakumeentzako ekintza positiboekin<sup>33</sup>**

- Toki-erakundeek gazteak kontratatzea
- Lehen Aukera 2024
- Enplegua sustatzeko tokiko ekintzak (ALPES)
- Gizarte-segurantzako kuotetarako dirulaguntzak, langabezia-prestazioen onuradunentzat. Ordainketa bakarra
- Laneratzeko enpresak
- Txanda-kontratua
- Ekintzailetzarako laguntzak
- Enplegu lagundua (ILE) eta desgaitasuna duten eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko laguntza
- 30 urte edo gehiagoko iraupen luzeko langabeak kontratatzea
- Pertsona landunen prestakuntza 2022-2024
- Langabeen prestakuntza (ikastetxe pribatuetan eta publikoetan) 2022-2024
- Proiektu bereziak
- Kudeaketa-gomendioa Hezkuntza Sailaren LHko ikastetxe publikoekin, 2020-2023 eta 2023-2025 LANDUNEN prestakuntzarako
- Kudeaketa-gomendioa Hezkuntza Sailaren LHko ikastetxe publikoekin, LANGABEEI prestakuntza emateko 2020-2023 eta 2023-2025
- Lanbideren eta Hezkuntza Sailaren arteko kudeaketa-gomendioa, 2020-2023 eta 2023-2025 LANDUNEN (lehen sektorea) nekazaritza-, itsas-, arrantza- eta elikagai-gaikuntzarako prestakuntza-programazioa egiteko.
- Lanbideren eta Hezkuntza Sailaren arteko kudeaketa-gomendioa, 2020-2023 eta 2023-2025 LANGABEAK (lehen sektorea) nekazaritza-, itsas- eta arrantza-arloan eta elikagaigintzan gaitzeko prestakuntza-programazioa egiteko.
- HAZI fundazioaren enkargua, lehen sektoreko prestakuntza-ekintzak, 2020-2023 eta 2023-2025 langile LANDUNENTZAT

---

<sup>33</sup> Prestakuntza-programetan jasotzen diren ekintza positiboak: "Emakumeek langabeen kolektiboan duten garrantziaren pareko proportzioan parte hartu behar dute (langabezia dauden pertsona guztien % 55), eta, beraz, prestakuntza-taldea, posible bada, emakumeen % 55ek osatuko du, gutxienez".

"Emakumeen presentzia nahikoa ez duten jarduera-eremuei buruzko profesionaltasun-ziurtagirietan, emakumeek izango dute lehentasuna. Deialdi honen ondorioetarako, honako lanbide-arlo hauetako prestakuntza-ekintzak hartzen dira emakumeen presentzia eskasa duten jarduera-eremutzat: AFD, AGA, ELE, ENA, EOC, FME, IEX, IFC, IMA, IMS, INA, MAM, QUI, SAN, SEA, TMV. "



- HAZI fundazioaren enkargua, lehen sektoreko prestakuntza-ekintzak LANGABETUENTZAT 2020-2023 eta 2023-2025
- Kualifikazio txikiko 16-25 urteko gazteentzako prestakuntza-laguntzak 2023-2025
- Enplegu-nitxo berriak, profesionalizazioa eta lan-merkatura egokitzea
- Langabeen gaitasun digitalak hobetzeko prestakuntza-programazioa, ekintzailtza eta landa-garapena sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko.
- 50+ programa, langabezia urtebete edo gutxiago daramaten 50 urtetik gorako pertsonak kontratatzeko laguntzei buruzkoa.

C. “Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak” (EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiaren esku hartzeko IV. ardatza).

- Genero-indarkeriaren, sexu-salerosketaren edo -esplotazioaren biktima diren emakumeak kontratatzeko eta laneratzeko konpromisoa duen prestakuntza-programa.  
Programa horren helburua da genero-indarkeriaren edo sexu-salerosketaren eta -esplotazioaren biktima diren emakumeak pertsonalki, sozialki eta lan-arloan aktibatzeke 10 ibilbide pertsonalizatu garatzea. Horretarako, gizarte-trebetasunak eskuratzeko eta lanbide-gaikuntzarako prozesu bat abiaraziko da, hitzartutako enpresetan kontratatzeke konpromisoarekin. 2025ean amaituko da programa, parte-hartzaileen % 50 gutxienez laneratuta.
- Genero-indarkeriaren tutoreen prestakuntza Lanbideko bulegoetan.  
30 orduko ikastaro berritu eta eguneratua, Lanbideren prestakuntza-plataforman, bulegoetako emakumeen aurkako indarkeriaren tutoreentzat. Orain arte, Lanbideko 247 pertsonak jaso dute gai horri buruzko prestakuntza, eta erakunde horren asmoa da prestakuntza espezializatua eta indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta hobea emateke tresnak dituzten enplegu-zerbitzuetako profesionalak izateke legezko agindua betetzea.
- Lanbideko langileentzako ikastaroa, laneko sexu-jazarpenean eta sexuan oinarritutako jazarpenean.  
Ikastaroa, ikasleei lan-eremuko sexu-jazarpeneke eta sexuan oinarritutako jazarpeneke jokabideak emakumeen aurkako indarkeria matxistaren beste modu bat bezala identifikatzen laguntzeko. Jazarpene detektatzeko eta prebenitzeko tresnak ematea, enplegu-zerbitzuko arretako profesional gisa jarduteke berezko eremuan. Halaber, sexu-jazarpenearen eta sexuan oinarritutako jazarpenearen inguruan Eusko Jaurlaritzak duen protokoloa eta prebentzio-neurriak ezagutzea.
- Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatoentzako Lanbideko langileentzako ikastaroa  
Lanbideko profesionaleri salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimak detektatzeko tresnak eman nahi zaizkie. Genero-indarkeria mota horien azterketa prostituzio-eskariaren ikuspegitik txertatzea. Euskadin sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatoen salerosketaren errealitateari buruzko ezagutzak eskuratzeko. Salerosketaren biktima diren emakumeentzat dauden baliabideak ezagutzea. Enplegu Zerbitzuaren erabiltzaileak diren eta gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeei laguntza hobea emateke ezagutzak eskuratzeko eta gaitasunak garatzea.
- Lanbideren bulegoetan indarkeriaren biktima diren emakumeekin jarduteke protokoloa eguneratzea eta prestakuntza-jardunaldia.  
Lanbideren esku hartzeko prozesuak emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko egungo esparruetako eskakizunetara egokitzea. EAEko biktimei arreta ematen dieten gainerako erakunde eta eragileekiko koordinazioa hobetzea, arreta integralagoa izan dadin.
- Emakura Araba, ibilbide mistoak.  
Udaletako eta foru-aldundietako gizarte-zerbitzuen eta laneratzeko prozesuetan espezializatutako Hirugarren Sektoreke bi erakunderen arteko koordinazio-programa, enplegua lortzeko zailtasunak dituzten emakumeei zuzendutako gizarteratzeko plan integratu eta pertsonalizatuak artikulatzeko. Kasu honetan,

bazterketa-arriskuan dauden 20 emakume eta/edo indarkeria matxistatik bizirik atera direnak, lan-merkatutik urrun daudenak, udaletako eta/edo foru-aldundietako gizarte-zerbitzuen erabiltzaileak, Araban bizi direnak.

D. Soldata-arrakalaren kontra.

- 2024. urterako dirulaguntzen deialdia, eremu maskulinizatu eta feminizatuetan emakume eta gizon langabeak kontratatu eta kontratatzeako konpromisoarekin prestatzeko (Morrokotudak). Kontratatzeako konpromisoa duten prestakuntza-ekintzak. (Egindako lan-kontratueterako finantzaketa)

Egiturretan aldaketak sustatzea, gaur egun emakumeek ordezkari txikia duten lan-jarduerako sektoreetan sartzea, irautea eta mailaz igotzea zailtzen dutenak. Gizonak ordezkari txikia duten eta emakumeek presentzia nabarmena duten okupazio eta jardueretan sartzea bultzatuko duten ekimenak garatzea. Horrek, aldi berean, eragina izan du eremu horietan gizonen presentzia handiagoa izan ez balitz izango ez ziren lan-, ekonomia- eta gizarte-arloko desberdintasunak betikotzeko. Estrategia berri horren helburua gizartean errotuta dauden dinamikak aldatzea da, etorkizun hurbilean sektore maskulinizatu edo feminizatu hitz egiteari utzi ahal izateko eta aukera-berdintasunaz eta lan-baldintzez hitz egin ahal izateko. Aurrekontua: 2.000.000 €

- Landa eta hiri eremuetan emakumeei laguntzeko programa

Banakako ibilbideetan parte hartzen duten landa-eremuetako eta hiri-eremuetako emakumeei arreta pertsonalizatua emateko dirulaguntzen lerroa, hainbat motatako ekintzak uztartzen dituen, hala nola lan-orientazioa, aholkularitza, informazioa, prestakuntza, zeharkako gaitasunak eskuratzea, laneratzea erraztea eta enpleguan laguntzea, eta haien gaikuntza eta laneratzea, aldi berean benetako berdintasuna eta enplegua lortzeko diskriminaziorik eza indartuz 2024ko geldikina 2025eko aurrekontuei gehituko zaie

- Adingabeak eta mendekoak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileak ordezkatzeko laguntzak.

Adingabeak, mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileak ordezkatzeko enpresentzako laguntza-lerroa. Langabetu gisa inskribatutako pertsonak kontratatzea diruz lagunduko da, besteren konturako langileak edo kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak ordezkatzeko, baldin eta zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu badute. Diruz lagunduko da, halaber, eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dagoen langile baten lanpostua betetzeko aurretik lanaldi partzialerako kontratatutako langile baten lanaldia luzatzea.

- Curriculum itsua kontsultatzeko zerbitzua

Lan-bitartekaritzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea. Curriculum anonimoa edo itsua ezartzea enpresa eskatzaileek horretarako berariazko baimena eman duten pertsona inskribatuak hautatzeko prozesuetan

E. Genero-ikuspegiarekin DISEINATUTAKOAK.

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta laneko errentetatik edo norberaren konturako jardura ekonomikotik datozen diru-sarrerekin bateragarria izateari buruzko dekretua.

Helburu orokorrekin batera, honako hauek dira emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburuak:

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun diren bizikidetzaren unitateetako bigarren kideen (gehienak emakumeak) lan-jarduerarik eza murriztea.
- Enplegutik lanaldi partzialerako trantsizioa lanaldi osoko enplegura sustatzea Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunen artean, gehienak emakumeak baitira.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun diren guraso bakarrek familien kasuan, enplegua lortzeko hazkuntzari lotutako aukera-kostua ekonomikoki konpentsatzea, bereziki, guraso bakarrek ama duten familien kasuan.

Aurrekontu-partidarik gabe, DSBerako partidaren barruan sartzen da.

## OSALAN

Programak Osalaren jarduera biltzen du bere erantzukizun-arloan, hau da, Autonomia Erkidegoko botere publikoek laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan ezartzen dituzten politikak kudeatzean, lanari datzekion arriskuak jatorrian ezabatzeko edo murrizteko eta laneko osasuna sustatzeko.

Osalanek laneko segurtasun- eta osasun-politikak garatu nahi ditu, pertsonak ardatz hartuta eta berdintasuna bermatuz pertsona guztien babestean.

## JARDUERA GARRANTZITSUAK

Aurreko ataletan adierazitako datu guztiengatik, Osalanek lehenetsitakotzat jotzen du generoak laneko segurtasunean eta osasunean duen eraginaren ezagutzan sakontzea; ezagutza hori zabaltzea eta hedatzea prebentzioko eta Osalaneko profesionalen zein herritarrei, oro har, eta ezagutza hori enpresen prebentzio-praktikara eta zailtasun bereziak dituzten lan-sektoreetara eraman dezaketen materialen eta tresnen garapenean eragitea. Horregatik, eta 2021-2026 aldirako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategian adierazitakoari jarraikiz (berdintasunaren arloko jarduketara nagusiak ere jasotzen ditu), Osalanek honako jarduerak hauek lehenetsiko ditu 2025ean:

Genero-ikuspegia txertatzea generoari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko ezagutzak dituzten profesionalen aldetik, hurrengo jardueren fase guztietan, proiektuaren diagnostikotik eta gauzatzetik hasi eta haien jarraipena eta ebaluazioa egin arte:

- 1. jarduera: Berdintasuna sustatzeko jarduerak, LAPen genero-ikuspegia txertatzeari buruzko dibulgazio-jarduerak barne (egindako azterlanen ondorioen hedapena: genero-ikuspegia zenbateraino txertatu den prebentzio-zerbitzu propioa duten enpresetan eta emakumeen eta gizonen istripuei eta gaixotasun profesionalen buruzko aurreko azterlanak; Emakunderekin eta Lan Ikuskaritzarekin lankidetzan egindako jardunaldia, eta generoari eta LAPari buruzko txostenak foroetan eta dibulgazio-materialak egitea), eta erakundeak berdintasunaren arloan 2022-2024 aldiran egindako jardueren eta 2025-2028 aldiko plangintzaren ebaluazioa
- 2. jarduera: Genero-ikuspegia eta laneko arriskuen prebentzioa txertatzeari buruzko online prestakuntza-modulu bat martxan jarri eta eguneratzea, langileentzat, enpresaburuentzat eta prebentzio-zerbitzuentzat..
- 3. jarduera: Osalani dagozkion jarduerak garatzea, Emakunderekin lankidetzan, laneko segurtasunean eta osasunean genero-ikuspegia txertatzea sustatzeko (sexu-jazarpenaren modulua, kontsulterei erantzutea).
- 4. jarduera: Enpresei aholkularitza emateko proiektua, genero-ikuspegia prebentzioaren kudeaketan txertatzeko jarraibideei buruz..

Proiektu horietarako aurreikusitako aurrekontua, guztira, 80.000 eurokoa da. 3. eta 4. jarduerak Osalaneko langileek garatuko dituzte oso-osorik, eta, beraz, ez dute langile-gastuaren aurrekontu independenterik.

Dirulaguntza hauetan berdintasun-klausulak txertatzea edo, hala badagokio, mantentzea, berrikustea eta ebaluatzea:

- 5. jarduera: UPV/EHUrentzako dirulaguntza, Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Masterra garatzeko. Era berean, master horren esparruan, Osalanek hainbat prestakuntza-saio emango ditu, eta, horien artean, generoak LSON duen eraginari buruzko bat.
- 6. jarduera: UPV/EHUn Laneko Medikuntza eta Erizaintzari buruzko Katedrako jarduerak burutzeko dirulaguntza.
- 7. jarduera: Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako dirulaguntza.
- 8. jarduera: Langile autonomoak eta ekintzaileak laneko arriskuen prebentzioan prestatzeko dirulaguntza.

Genero-ikuspegia txertatzea, berdintasun-klausulen bidez, honako jardura hauek garatzeko egiten diren kontratuetan, bai eta Osalanetik bertotik zuzenean berdintasun-, segurtasun- eta osasun-edukiak sortuz ere:

- 9. jardura: EAEn laneko arriskuen prebentzioa komunikatzeko eta sustatzeko kanpainak, langileei eta herritarrei zuzenduak
- 10. jardura: Laneko Arriskuen Prebentzioaren kalitate-eredu bat aztertzea eta bilatzea enpresa-eredu desberdinetarako: ETEak, Laneko Arriskuen Prebentzioan sartzea zailagoa duten sektoreak.
- 11. jardura: Arazo muskuloesketikoak gutxitzeko proiektua: egoera aztertzea eta industriaren sektoreko prebentzio-neurriak hobetzeko proposamena – ERGO PREBEN webgunea

Proiektu horietarako aurreikusitako aurrekontua, guztira, 960.000 eurokoa da.

## EUSTAT

Eustat da Euskal AEko estatistika-informazio ofiziala garatu, ekoitzi eta zabaltzen duen erakunde publikoa. Estatistika-jarduerari dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 5. artikuluan xedatzen duenez, erakunde komunek emakume eta gizonen berdintasunaren arloan duten eskumena da “Estatistikak berdintasun-printzipiora egokitzeko metodologia planifikatu eta diseinatzea, bai eta estatistikak egokitu eta eguneratzea ere, Autonomia Erkidegoak esku hartzen duen eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi duten egoera desberdina ezagutu ahal izateko”.

## JARDUERA GARRANTZITSUAK

1.-Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko atala EUSTATEN webgunean.

Atal honen helburua da berdintasunaren aldeko kultura sustatzea (balioak aldatzea) eta informazio estatistikoa generoaren arabera gardentzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ezagutza estatistikoa sentsibilizatzeko, zabaltzeko eta komunikatzeko, gizarte zibilari, gizarte-eragileei eta administrazioari berari zuzenduta

[Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko atala Eustaten webgunean](#)

22-Euskal AEko emakumei eta gizonei buruzko urteko txostena, martxoaren 8an zabaltzekoa, Eustaten webgunean Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna atalari buruzko informazio berrienarekin eta alderdi garrantzitsuenekin.

Berdintasunaren aldeko kultura sustatzen duen etengabeko jardura (balio-aldaketa), emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan ezagutza estatistikoa sentsibilizatzeko, zabaltzeko eta komunikatzeko, sare sozialei zuzenduta

[2024ko martxoaren 8ko txostena](#)

3.-Azaroak 25, Genero indarkeriari buruzko txostenean, gaiarekin harremana duen informazio berri eta esanguratsuena biltzen du. Eustatek, eragiketa estatistiko bat dauka, non gertakariei buruzko hainbat ezaugarri jasotzen diren, hala nola, delitu edo falta mota, emakumeak jasandako kaltegarritasuna, biktimizazioa bikotearen eskutik, bai eta emakumeek etxean izaten dituzten antzeko beste indarkeria mota batzuk ere.

[Azaroak 25](#)

4.- Emakumea eta neskatoa zientzian gaiari buruzko prentsa-oharra, otsailaren 11koa, azterlan eta ikerketa zientifikoei buruzko datu garrantzitsuenekin

5.- Eustatek, bestalde, jarduketa positiboak egiten ditu honako alderdi hauetan:

5.1. Emakumeei eta gizonei buruzko estatistika-informazioa sortzea.,

- Estatistika-planak eta -programak garatzea, estatistika-eragiketen diseinuan genero-ikuspegia bermatuz.
- Pixkanaka eguneratzea estatistika-eragiketen proiektu teknikoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako atalaren hedapenean sartzen diren sexuaren arabeko taulak barne.
- Euskal Estatistika Planeko estatistika-eragiketa bakoitzaren urteko ebaluazioan, Eustat arduratuko da generoa aldagai egokia den lekuetan horri buruzko hausnarketa bat sartzear, eta ebaluatuko du, gutxienez, aldagai garrantzitsuenak sexuaren arabera tabulatuta daudela eta eragiketaren definizioetan genero-ikuspegia kontuan hartu dela.
- Hizkuntzaren inguruko landa-eskuliburuak, galdetegiak eta bestelako dokumentazioa pixkanaka hobetzea, genero-joera duten kontzeptuak saihestuz.
- Generoari dagozkion prentsa-oharretan genero-ikuspegia ziurtatzea eta oraindik falta diren oharretan garatzea.
- Genero-ikuspegiaren arabeko estatistika-eragiketen aldizkako ebaluazioa

5.2. Langileei berdintasunari buruzko prestakuntza ematea,

- Eustateko langile gehienek dagoeneko jaso dute emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarrizko prestakuntza. Hortik aurrera, hasi berri diren langileen berdintasunari buruzko prestakuntza sustazen da.
- Lanbide-profilari lotutako prestakuntza espezifikoa, IVAPen bidez, Eustatek diseinatua. Lanbide-profilaren arabeko prestakuntza diseinatzea.
- Eguneroko prentsa-dosierrean genero-ikuspegia aipatzen duten albisteak sartzear.

5.3. Besteak beste, honako gai hauetan,

- Berdintasun-printzipioa erakundearen araudian txertatzea.
- Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.

## 04. OGASUN ETA FINANTZA SAILA


Bere eginkizunak betetzeko EAEko gastu aurrekontu orokorraren %0,8 dauka.

Txosten honen ondorioetarako, hauxe da aztertutako aurrekontua:

17. Taula. Aztertutako aurrekontua. Ogasun eta Finantza Saila.

| OGASUN ETA FINANTZA SAILA                                       |              |
|---|--------------|
| AURREKONTUA:  | 59.725.000 € |
| AZTERTUTAKO PROGRAMAK   |              |
| 6110. Egitura eta laguntza                                      | 2.746.215    |
| 6111. Ekonomia eta gastu publikoa                               | 10.541.567   |
| 6112. Zerga-politika  | 3.642.879    |
| 6114. Ondarea eta Kontratazioa                                  | 10.891.052   |
| 6311. Finantza-politika   | 29.748.287   |
| <i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i> |              |
| Lehiaren Euskal Agintaritza                                     |              |
| 6115. Lehiaren Euskal Agintaritza                               | 2.155.000    |

11. Irudia. Ogasun eta Finantzak. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera.



Aurrekontu guztia iraunkorra da, eta horietatik bi programa garrantzi handikotzat jo dira (6110 y 6111), hau da, eragin nabarmena izan dezake emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko politiken hartzaile diren herritarren artean. Zerga Politikako eta Ondare eta Kontratazioko programak garrantzi txikikotzat jo dira, eta Finantza Politikakoak, berriz, garrantzi ertainekotzat.

**A. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduera garrantzitsuenak:**

1. Sailaren berdintasun-politikak bultzatzea eta koordinatzea. Administrazio Orokorraren 72 kontratutan berdintasun-klausulak txertatzeari buruzko azterlana jasotzen du.

Aurrekontua: 35.000 €

2. Saileko langileei, goi-kargudunak barne, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza ematea. Berdintasunerako oinarrizko eta berariazko prestakuntza sustatzeko (IVAPen bidez, zuzenean BAUtik edo BAUk sustatu eta antolatutako ikastaro espezifikoek bidez), Zerbitzu Zuzendaritzak jarraibide bat eman zuen, eta, horren arabera, Saileko langileak joaten diren berdintasun-ikastaroak ez dira zenbatzen baimendutako urteko gehieneko ikastaroen ondorioetarako.

Aurrekontua: 8.000 €

3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Saileko 2025-2028 Plan berria egitea.

4. Aurrekontu orokorretan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzea. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea onartu zenetik, aurrekontuak genero-ikuspegitik diseinatzeko prozesua bultzatzen du euskal administrazioak. Izan ere, orduetik, Sailak aurrekontu orokorrei buruzko genero-eraginaren txostena egiten du ekitaldi bakoitzerako, eta, Emakunderen eta sailtako eta haren erakunde autonomoetako berdintasun-teknikarien laguntzarekin, tresna berriak sartu ditu, etengabe hobetzen eta egokitzen ari direnak, aurrekontuak genero-ikuspegiarekin bultzatzeko. Gainera, prestakuntza-jarduerak eskaini zaizkie kargu publikoei eta Administrazio osoari. 2025eko aurrekonturako honako hau planteatzen da:

- Aurrekontu orokorren diseinu-fasean hobekuntzak sartzea.
- Berdintasun-gainegitura gauzatzen den jarraipena egitea.
- Berdintasunaren arloan, ondorengo ekitaldietarako gainegitura berriak sortzeko/aldatzeko beharra aztertzea.
- Berdintasun-politiketan egindako gastuaren jarraipena egiteko behar diren mekanismoak sartzea.
- Egiteke dauden berdintasunerako administrazio-unitateak sortzeko aurrekontu-zuzkidura erraztea.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzko 1/2024 Jarraibidea Administrazio Orokorreko kontratazio-organoek nola aplikatzen duten ebaluatzea. Administrazio Orokorreko kontratazio-organoak 1/2024 jarraibidea zenbateraino erabiltzen ari diren jakiteko informazioa lortu nahi da. Informazio horri esker, informazio horren ezarpen-maila ikusi ahal izango da, baita haiek erabiltzean izan ditzaketen zailtasunak ere. Datuak aztertu ondoren, beharrezko neurri zuzentzaileak hartu ahal izango dira.

6. 2014-2020 eta 2021-2027 EGEF Programa Operatiboa planifikatzea, programatzea eta kudeatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren zeharkako printzipioaren arabera, Zuzendaritzaren eskumenen esparruan:

- Gogoraraztea sailei Ekonomia Politika eta Kohesio Zuzendaritzari bidali behar zaiola genero-ikuspegiaren adierazleei buruzko informazioa, EGEF Programan jasotako jarduerak garatzeari dagokionez, eta horren berri eman behar zaiola Jarraipen Batzordeari..
  - Programetan generoak duen eraginari buruzko informazioa sartzea Urteko Gauzatze Txostenetan.
  - Elkarrekin finantzatu beharreko jarduerak hautatzeko printzipio gidarietan berdintasunaren, inklusioaren eta diskriminaziorik ezaren irizpideak errespetatzen dituzten eragiketak hautatzeko irizpideak ezartzea.
  - Egitura Funtsetako Berdintasunari buruzko Erakunde arteko Lantalde Teknikoak (GTTIIFE) emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jardunbide egokien proiektuak hautatzeko adostutako egiaztapen-zerrenda organo kudeatzaileen artean zabaltzea.
7. Berdintasuna txertatzea EGF+ 2021-2027 Programa gauzatzeko eta kudeatzeko prozesuetan.
- Genero-berdintasuna Europako Gizarte Funttsaren jardunen printzipio horizontal gisa ezartzen da, eta genero-ikuspegia txertatzen da, bai garatu beharreko jarduketan diseinuari eta plangintzari dagokienez, bai horien jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez, eta ekintza positiboko beharrezko neurriak sartzen dira, enpleguaren kantitateari eta/edo kalitateari dagokionez gure lan-merkatuan egon daitezkeen desorekak zuzentzera bideratuta.
  - Programak osatzen dituzten jarduera/eragiketetan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren sustapena bermatzeko ekintzak ikusarazi nahi dira.
  - Laguntza teknikoko kontratuak EAEko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzko jarraibidea betetzeko diseinatzen dira.
  - Eragiketen aukeraketak, eragiketak hautatzeko nahitaezko irizpideen artean, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa errespetatzen du, Lehiaren Defentsarako Erregelamenduko 9.2. artikuluan eta EGF+eko 3. eta 6. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Eragiketak hautatzerakoan, honako hauek hartzen dira kontuan balorazio-irizpideen artean:
    - o edo eragiketaren diagnostikoan xede-biztanleriaren genero-desberdintasunen azterketarik dagoen, proiektuaren esku-hartze zehatzaren eremuan.
    - o edo enplegura edo emakumeen enplegarritasuna hobetzera bideratutako helburuak txertatzea eta laneratzearekin lotura handiagoa izatea.
    - o edo emakumeak ahalduzera eta/edo desberdintasunen arrakalak murriztera bideratutako eta emakumeen bizi-baldintzak hobetzera bideratutako helburu eta/edo emaitza zehatzak zehazten diren.
8. EAEko 2014-2020 EGEF EPE, 2021-2027 eta EGF + Programa Operatiboaren plangintza- eta programazio-prozesu integraleko emakumeen eta gizonen berdintasunerako arduradunekiko koordinazioa eta lankidetzaren indartzea.
- Saileko berdintasun-teknikariak eta Emakundek Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartzea.
  - Emakundek koordinatutako Europar Batasuneko Egitura Funtsetako berdintasunari buruzko Erakunde arteko Lantalde Teknikoan (GTTIIFE) aktiboki parte hartzea.
  - Berdintasun Sarean parte hartuz.
9. Emakunderekin batera, dirulaguntza publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko jarraibideak lantzen parte hartzea.
10. Berdintasunerako plangintza sustatzea, 2025ean Elkargi EBBrekin birfinkatzeko bi hitzarmen berri formalizatuz.
- Elkargiko bazkideen artean emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak eta sexu-jazarpenaren aurkako protokoloak onar daitezzen sustatzea.
  - Enpresa txiki eta ertainen artean berdintasunaren arloko prestakuntza sustatuko da Elkargi, SGR.



sozietatearen bidez, zerbitzuak ematen dizkieten enpresen artean berdintasun-planen diseinua bultzatzeko mekanismo gisa.

- Elkargi EBBk urtero eman beharko du birfidantzamenduaren onuradun diren eta berdintasun-planak onartuta dituzten enpresen txostena.
11. ZERGAK aldizkarian zerga-politikako gaiak genero-ikuspegiarekin jorratzen dituzten artikulua eta kolaborazioak argitaratzea. Aurrekontua: 421 €
  12. Genero-ikuspegia txertatzea tasei, prezio publikoei eta tarifei (edo beste zerga propio batzuei) buruzko araudian. Tasak, prezio publikoak eta tarifak (edo beste zerga propio batzuk) kudeatzen dituzten sailen artean jarduera-arlo hori genero-ikuspegitik aztertzea sustatuko da, ikuspegi hori araudi erregulatzailan txertatzeko aukerak detektatzeko eta, era berean, kontabilitate- eta kudeaketa-aplikazioen diseinua sustatzeko, tasa, prezio publiko eta tarifen zerga-gastuak genero-ikuspegiarekin aztertu ahal izateko.
  13. Genero-ikuspegia txertatzea Euskal Ogasunen Urteko Txosten Integratua informazioaz elikatzen duen aplikazio berrian:
    - Euskal Ogasunen Urteko Txosten Integratuaren aplikazio berrian sexuaren eta errenta-mailen aldagaia sartzea.
    - Egindako estatistika eta azterlanen iturri diren beste administrazio batzuek emandako informazioa, pixkanaka sexuaren arabera banakatuta egiteko eskatzea.

Jarduera horien bidez, zerga-informazioa hobetu eta zabaldu nahi da, kasu batzuetan, generoaren ikuspegitik garrantzitsuak diren datu berriak garatuz edo txertatuz; horrela, tributuen funtzionamendua eta ondorioak hobeto ezagutu ahal izango dira generoaren ikuspegitik.

Euskal Ogasunen Urteko Txosten Integratua beste erakunde batzuek, batez ere foru-aldundiek, ustiatutako eta emandako informaziotik abiatuta egiten den heinean, erakunde horietako arduradunei eskatuko zaie informazioa aurkezteko formatuetan genero-ikuspegia sar dezatela pixkanaka. Gauza bera gertatzen da DATak eta DRIak foru-jatorriko edo kanpoko beste iturri batzuetako datuak finkatzeaz arduratzen diren beste txosten batzuekin ere.

#### **B. Soldata-arrakalaren aurkako jarduerak**

- Soldata-arrakalaren aurkako 2030 Estrategiaren esparruan gauzatutako aurrekontuaren eta gastuaren jarraipena egitea.
- Emakumeen jarduera-tasa handitzea, EGF+ programaren bidez kalitatezko enpleguetan parte hartuz.
- Enpresa txiki eta ertainen artean berdintasunaren arloko prestakuntza sustatzea, Elkargi, SGR. sozietatearen bidez, bere zerbitzuak jasotzen dituzten enpresen artean berdintasun-planen diseinua bultzatzeko mekanismo gisa.

#### **C. "Emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzak"**

- Aurrekontu orokorre buruzko genero-txostenean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko jardueren eta horien aurrekontuaren jarraipena egitea.

## **LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA**

Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) helburua da lehia askeko eta merkatuko gardentasuneko baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan gauzatzen diren jarduera ekonomikoei dagokienez (1/2012 Euskal Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa. 2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.). Horrela, jarduera. nahiz eta azken eragina izan kontsumitzaileengan, batez ere pertsona juridikoengana (operadore ekonomikoengana) eta administrazioengana – operadore gisa zein erregulatu gisa – zuzentzen da.

- Komunikazioan berdintasuna bultzatzea: Sortzen den kanpoko dokumentazioaren hizkuntza artatzea eta berrikustea, betiere genero-ikuspegitik egin dadin: hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista, eta emakumeen eta gizonen irudi berdinzalea eta estereotiporik gabea transmititzea.
- LEA/AVCKo langileak prestatzea, politikariak barne. Langileak genero-ikuspegian trebatzea, eguneroko lanean genero-ikuspegia finkatzeko.  
Aurrekontu zenbatetsia: 700 €
- Bereziki maskulinizatutako eremuetan emakumeen sareetan parte hartzea, emakumeen ahalduntze pertsonalaren ikuspegia txertatuz, berdintasuna lortzeko ezinbesteko baldintza baita  
Aurrekontu zenbatetsia: 2.000 €
- Emakumeei zuzendutako programetan parte hartzea, bereziki maskulinizatutako eremuetan
- LEA/AVCK egin ditzakeen lizitazioetan eta erakundeekin egin daitezkeen hitzarmenetan berdintasun-klausulak sartzea.
- Berdintasunerako plangintza eta haren ebaluazioa hobetzea. a. Berdintasun Plana planifikatzea eta haren jarraipena egitea, Sailaren Planarekin koordinatuta.

## 05. GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNU SAILA


Bere eginkizunak betetzeko EAEko gastu aurrekontu orokorraren %1,1 dauka.

Txosten honen ondorioetarako, hauxe da aztertutako aurrekontua:

18. Taula. Aztertutako aurrekontua. Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernu Saila

| GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNU SAILA           |              |
|---|--------------|
| AURREKONTUA:  | 89.650.596 € |
| AZTERTUTAKO PROGRAMAK   |              |
| 1125 - Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa                          | 1.544.908    |
| 1211 - Eusko Jaurlearitzaren egitura eta laguntza Pub. eta Autogob. | 4.506.214    |
| 1212 - Zerbitzu Orokorrak   | 38.321.919   |
| 1213 - Funtzio Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza       | 6.529.036    |
| 1214 - Informatika eta Telekomunikazioak                            | 3.424.933    |
| 1215 - Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa                   | 8.482.785    |
| 1217 - Erakunde-harremanak  | 4.619.249    |
| 1218 - Araubide juridikoa   | 4.691.122    |
| 1219 - EAEko Administrazioko beste Zerbitzu batzuk                  | 846.894      |
| 1228. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa                       | 2.904.486    |
| Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:            |              |
| HAEE/IVAP - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea                 |              |
| 1216. Administrazioko langileak hautatzea eta prestatzea            | 5.478.478    |
| 4714. Euskalduntzea eta Hizkuntza Normalizazioa                     | 8.300.572    |

12. Irudia. Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera.



Aurrekontu guztia iraunkorra da. Programei emandako garrantzia honako hau izan da:

- Egitura eta Laguntza; Funtzio Publikoa, eta Langileen Hautaketa eta Prestakuntza; eta Informatika eta Telekomunikazioak generoari garrantzia handia ematen dioten programak dira.
- Zerbitzu Orokorrak: Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa; Harreman Instituzionalak; Euskalduntzea eta Hizkuntza Normalizazioa, aurreko aurrekontuekin alderatuta, garrantzi txikitik garrantzi ertainera igaro da.
- Batzorde Juridikoa, Araubide Juridikoa eta beste Zerbitzu batzuk genero baxuaren garrantzian mantentzen dira.

## JARDUERA GARRANTZITSUAK

Lehenik eta behin, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean 2022-2024 aldirako indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako Sailaren planaren barruan dauden jarduera esanguratsuenak azalduko ditugu. Halaber, indarrean dagoen planekoak ez izan arren, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiaren helburu programatikoei erantzuten dieten jarduerak jaso ditugu; estrategia hori Sailaren berdintasunerako plan berriaren bidez (2025-2027) izango da eraginkorra. Azkenik, Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategiaren barruko jarduerak aipatuko ditugu.

### I. ARDATZA. Gobernu Ona:

Sailean indarrean dagoen plana eta 2025ean argitaratuko den plan berria egituratzen dituzten lau ardatzetako lehena Gobernu Ona da, hori baita Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren jarduer-esparruko eremu estrategikoa.

#### I. programa. Konpromiso politikoa

##### – Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontuak handitzea

2025an, 1213 Funtzio Publikoa programan berdintasuna sustatzeko aurrekontua 200.000 eurokoa da, 2024an bezala. Aurrekontu horren barruko neurri funtsezkoetako bat Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen Berdintasunerako III. Planarekin lotuta dago; III. Plana 2025an negoziatzea ezartzea aurreikusten da, xede hartuta II. Planean hartutako neurriak sendotzea, egiteke dauden neurriak ezartzea eta neurri berriak proiektatzea.

Gainera, aipatutako aurrekontuan 90.000 euroko partida bat dago, genero ikuspegiarekin diseinatu oso-osorik, ikerketa kuantitatiboak eta kualitatiboak sustatzeko. Era berean, 30.000 euroko partida bat dago, genero-ikuspegia txertatzeko diseinu-prozesuan, Administrazio Orokorraren, haren erakunde autonomoen eta sozietate publikoen zerbitzura dauden langileen lan- osasunean eragin positiboa izango duen arriskuen prebentziarako kultura eta politika bat garatzeko genero-planteamenduekin. Azkenik, 30.000 euro bideratuko dira langile guztiak berdintasunaren arloan prestatzeko behar diren neurriak hartzera, eta 50.000 euro bideratuko dira administrazio soldata-arrakala murrizteko strategiaren ekintzetarako. Aurrerago zehaztuko dira ekintza horiek.

Bestalde, 2025ean aurreko bi urteetako aurrekontu bera izango da Sailean emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko 1211 programan (Egitura eta Laguntza): 15.000 euro.

#### II. programa. Berdintasunerako trebakuntza

- Saileko langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan prestakuntza espezifiko jaso dezaten aurrekontuko partida 7.000 eurokoa izango da 2025ean ere, aurreko hiru urteetako kopuru bera. Sailean

lan egiten duten pertsonen berdintasunerako prestakuntza jaso dezaten sustatzeko, berdintasunaren arloko prestakuntza-orduak ez dira zenbatuko prestakuntzako ordu-kredituaren urteko zenbaketan. Horrez gain, 80.000 euroko aurrekontua dago saileko langileen prestakuntza orokorrerako, 1211 eta 1213 programetan banatuta. Partida horretan aurreikusitako prestakuntza-ekintzen plangintzan genero-ikuspegia sar daitekeenez, PGEN-25 inprimakien aurrekontua islatzeko tauletan "prozesuan" zutabeen sartu dugu.

Halaber, 2025ean, EAEko Administrazio Orokorreko prestakuntza-politika genero-ikuspegiarekin aztertzea aurreikusten da; horren helburua zera da: modalitateak, ordutegiak, edukiak eta prestakuntza-tipologiak erabiltzeko aukerak planteatzea, prestakuntza kontziliazio-neurriekin bateragarria den jakitea, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak diseinatzea.

### **III. programa. Genero-ikuspegia lan-prozeduretan**

#### **– Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea**

Jarduera honek ez du partida espezifikorik programen aurrekontuan, batez ere Saileko langileen lanaren bidez gauzatzen delako. Hala ere, Sailaren lan-prozeduretan genero-ikuspegia txertatzeko aurrerapauso garrantzitsua da, aukera emango baitu diagnostiko eta ikerketa berriak egiteko, adierazleak sortzeko eta genero-berdintasunerantz aurrera egiteko politikak eta neurriak diseinatzeko, aplikatzeko eta horien jarraipena egite aldera datu erabilgarriak lortzeko.

Ildo horretatik, 2023ko amaieran, EAEko Estatistikari buruzko Legea aldatu zen, eta Euskal Estatistika Planaren Lege Proiektua onartu zen, 2026ra arte EAEko estatistika-jarduera antolatzeko. Plan berriak aurreko planak baino garrantzi handiagoa ematen dionez emakumeen eta gizonen berdintasunari, 2025ean Saileko estatistika-arloak egokitzen jarraituko du eragiketa, adierazle eta genero-analisi berrietara. Saileko barne-prozeduretan aldaketak eragiteaz gain, genero-ikuspegia estatistiketan eta azterlanetan sistematikoki txertatzeak lagundu egingo du Saileko Estatistika Organo Espezifikoaren web-atariaren bidez herritarrei zuzenean ematen zaien informazioa hobetzen eta areagotzen, zeinak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko atal bat baitu.

Bestalde, neurriak aldaketak dakartza sistema informatiko berrien garapenean, baita informazio-sistemen eguneratzeetan eta aldaketetan ere; izan ere, hemendik aurrera, sexuaren arabera bereizitako datuekin estatistikoki ustiari ahal izateko moduan diseinatu beharko dira sistema horiek. Horren harira, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzak tresna teknologikoak genero-ikuspegia duten azterlanetara egokitzeari buruzko 1/2023 Zirkularra igorri zuen uztailen, eta 2025ean egingo da zirkular horren jarraipena (1214 programa).

#### **– Kontratu, dirulaguntza, hitzarmen, beka, sari, hautaketa-prozesu eta epaimahaietan berdintasunerako klausulak sartzea.**

Kontratazio publikoan eta dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak sistematikoki txertatzeak aukera ematen du genero-erabakigarritasunaren sentsibilitatea duten aurrekontuak ezartzeko bidean aurrera egiteko. Adibide bat ematearren, aurrekontuko partida bat Informatika eta Telekomunikazioak programari dagokio, 580.784 eurokoa, azterlan informatikoak egiteko. Kontrataziorako klausulak txertatzeaz gain, azterlanak egiteko emakumeen presentzia bermatzen da, eta, horrela, baliabideak modu bidezkoagoan banatzen dira tradizioz oso maskulinizatuta egon den sektore horretan.

Bestalde, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritako berdintasunerako klausulak administrazio-egintzetan sartzeko lan-prozedurak egokitzeaz gain, 2025ean aurrera egingo da Sailak emandako sarietan genero-ikuspegia txertatzeko lanean. Adibidez, Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak ematen dituen Elkarlan sarien kasuan (1217 programa); 2025ean, 36.000 eurokoa izango da.

- **Erakundeen gobernantza-eredua eraldatzea: parte-hartzea, berrikuntza, gardentasuna eta kontuak ematea.**

Gobernu Onaren ardatzaren barruan, ildo estrategiko hori ez dago Sailaren indarreko planean sartuta, baizik eta EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategian.

Ildo horretatik, nabarmentzekoa da Gobernu Irekiaren Zuzendaritzaren ekimena (1217 programa): iLab-Euskadiko Parte-hartzeko Berrikuntza Gunea. iLab-ek berdintasun-edukiak txertatzen ditu zerbitzu guztietan, talde feministen eta emakumeen elkarrizketa eta parte-hartzea sustatzeaz gain.

## **2. II. ARDATZA. Emakumeen ahalduntzea.**

- **Emakumeen protagonismoa sustatzea eta esparru guztietan egiten dituzten ekarpenak aitortzea eta balioestea.**

*Aurrera* buletinak, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzaren Kabinete Teknologikoak hiru hilean behin argitaratzen duenak (1214 programa), 2025ean jarraituko du artikulu bat txertatzen zenbaki guztietan, emakumeek zientziaren eta teknologiaren eremuetan egindako ekarpenak ikusarazteko.

## **3. III. ARDATZA. Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.**

### **Kaltea hautematea, arretea ematea eta konpontzea (EAEko Berdintasunerako VII. planaren 7. programa)**

Saileko Berdintasunerako Unitatearen bidez urtero sustatzen diren sentsibilizazio-jarduerez gain, atal honetan nabarmendu behar da Sailak parte hartzen duela EAEko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuetan jarduteko protokoloa aplikatzen. Alde horretatik, Sailak protokoloaren fase guztietan parte hartzen du: komunikazio- eta harrera-fasean (lehenbizikoa), Aholkularitza Konfidentzialaren kargura; ikerketa-fasean (bigarrena), Ikerketa Batzordearen bidez; eta ebazteko fasean (hirugarrena), Funtzio Publikoko Sailburuordetzaren ardurapean.

Era berean, Saileko Berdintasunerako Unitatea eta Prebentzio Zerbitzua arduratzen dira, prozeduraren ondoren, protokoloa aplikatzearen ondorioz sortu diren neurri zuzentzaileen aplikazioa eta eraginkortasuna kontrolatzeaz, baita prozeduraren ondoren pertsonak inplikaturik geratu diren lan-egoera berrikustez ere. Programa horretarako ez dago partida espezifikorik aurrekontuan, Saileko langileen lanetik abiatuta garatzen baita.

Sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuetarako protokolo erreaktiboa aplikatzeaz gain, 2025ean prebentzio-protokolo bat diseinatzea aurreikusten da.

## **3. Soldata-arrakalaren aurkako jarduketak**

Euskadin Soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategiari eta 2022-2025 aldirako Ekintza Plan Operatiboari dagokionez, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailari dagozkion jarduketak garatzen jarraituko dugu 2024an. Planaren lehen gidalerroaren barruan (erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan emakumeen presentzia eta eragina handitzea), sektore publikoko zuzendaritza-postuetan eta administrazio-kontseiluetan emakumeen presentzia aztertzen jarraituko dugu 2025ean.

Bestalde, *Euskal Administrazio Publikoan kontziliazio erantzukidea sakontzea* gidalerroaren esparruan, Sailari dagokio telelanak administrazioan duen eragina ebaluatzea, hura egokitze aldera. Azkenik, *Euskadiko soldata-arrakalean eragina duten faktoreen bilakaeraren jarraipena egitea eta arazoa monitorizatzea ahalbidetuko duen ikerketa-dinamika bat txertatzea* gidalerroaren jarraipenari dagokionez, Sailak soldata-arrakalaren diagnostikoa egiten jarraituko du Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Orokorrean, baita EAEko erakunde autonomo eta enpresa publiko nagusietan ere.

Era berean, IVAPekin partekatzen da 2025ean langileei zuzendutako soldata-arrakalaren arloko prestakuntzaren gaineko erantzukizuna. Soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Plan Operatiboa garatzeko aurrekontua mantentzen da, 50.000 euroko partida, eta partida hori genero-ikuspegiarekin diseinatzeko prozesuan dago Funtzio Publikoaren 1213 programan.

## HAEE/IVAP

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP) erakunde autonomoa da, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikita dago. Hiru jardun-eremu nagusi ditu:

1. Giza baliabideen hautaketa eta prestakuntza,
2. Herri-administrazioetako langileen euskalduntzea, bai eta administrazio-hizkeraren itzulpena, interpretazioa, terminologia eta normalizazioa ere, eta
3. Administrazioari buruzko ikerketa eta irakaskuntza, oro har, eta, bereziki, euskal autonomiaren berezitasunei buruzkoa, bai eta liburuak eta aldizkari espezializatuak argitaratzea ere.

## JARDUERA GARRANTZITSUAK

IVAPen 2021-2024 plan estrategikoko helburuen artean berdintasuna hobetzeko ekimenak jasotzen dira. 2021. urtean, IVAPeko Berdintasun teknikari lanpostua sortzen da eta, horrekin batera, Berdintasunerako zerbitzua egiturari kokatzen da. Aipatutako konpromisoan aurrerapauso garrantzitsua ematen da, helburua lortzeko oinarrizko baldintzetako bat jarrita.

Berdintasun zerbitzuaren egitekoak, besteak beste, ondorengoak dira: IVAPen berdintasun-planak eta -programak proposatzea, horien jarraipena egitea, genero-ikuspegia txertatzea erakundearen jardura-eremuan, erakundeko pertsonalari aholku ematea, pertsonalaren prestakuntzari buruzko diagnostikoa eta proposamenak egitea, eta berdintasun-politiken koordinazio teknikoan parte hartzea.

2022. eta 2023. urteetan Berdintasun Zerbitzua egonkortzen joan da IVAPen egiturari. Zeharkako lana eta koordinazioa indartu dira Berdintasunerako Barne Batzordearen bidez, bai eta parte-hartze aktiboa ere, koordinaziorako beste gune batzuetan.

Izan ere, erakundearen EKI planaren barruan, Batzorde hori indartzeko proiektu bat garatu da. Horrela, izan behar duen garrantzia eman nahi zaio: bere jardura areagotuz eta hobetuz, zerbitzu guztietako ordezkariekin, berdintasun-politiken zeharkakotasuna bermatu ahal izateko.

Berdintasun Plana indartu da, diagnostikorako eta datuak biltzeko baldintzak garatuz, besteak beste, hurrengo urtean garatu ahal izateko.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko bizitzeko Legearen testu bategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua izan denaren sarrerarekin eta legearekiko aldaketak barneratuta, zerbitzu bakoitzak bere jardura-eremuan nola eragiten duen identifikatu ahal izateko moduan aztertu da. Dokumentu hau Erakundearen intranetean dago eskuragarri.

Bestelako erakundeekiko koordinazioa

IVAPeko Berdintasun zerbitzuak lan aktiboa egiten du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordean eta baita Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomoetako Berdintasun Batzorde Iraunkorrean ere. Besteak beste, lehenengoan EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VIII. planaren diseinuan parte hartzen ari da. Eta, bigarrean, II. Berdintasun-plana egiteko lanketan aritu da.

Era berean, Gobernantza eta Autogobernu saileko Berdintasunerako talde teknikoan ere parte hartzen du.

Aurreko puntuan aipatutako eskemari jarraituz, hauek dira 2024rako IVAPek planifikatutako dituen ekintza estrategikoak:

1. IVAPen Berdintasun-planerako diagnostikoa egitea.
2. IVAPeko Berdintasun-plan propioa garatzea arlo guztiekin elkarlanean eta plan horren betetze maila aztertzea.
3. Datu-bilketa automatizatzea eta sistematizatzea (zerbitzu guztietan).
4. IVAPeko lan-taldeen gizonen eta emakumeen presentzia parekidea bultzatzea.
5. Hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatzeko plangintza/ekintza espezifikoak egitea.
6. Proiektu estrategiko guztietan genero ikuspegia bermatzea.
7. Proiektu estrategikoen artean, berdintasun proiektuak izaera propioarekin aurrera eramatea.
8. IVAPeko langile guztiak ezagutzea Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomoetako sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuak gertatzen direnerako prozedura-protokoloa.
9. Berdintasun arloko oinarritzko dokumentuak IVAPeko langile guztientzako eskuragarri jartzea.
10. Txantilioi guztien berrikusketa, gure oinarri-dokumentu guztietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatzeko.
11. Berdintasun gaiak gure baliabideetan ikusiaraztea.
12. Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.
13. IVAPeko kudeaketa-planean berdintasunari buruzko ekintzak uztartzea.
14. Harrera-protokoloaren barnean, etorri-berriaren eskuliburuan hain zuzen, berdintasun-politiken berri ematea eta gure eguneroko jardunean berdintasuna betetzeko jarraibide eta irizpideak jasotzea.
15. Erakundearen argitalpen eta jardunaldietan hizkera, irudi eta eduki ez-sexista ziurtatzea.
16. Berdintasun-klausulak kontratazio irizpideetan barneratu.
17. IVAPen estilo liburu berritza genero ikuspegia eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa kontuan hartuta.
18. Hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatzeko prestakuntza.
19. Euskara eta berdintasuna bultzatzeko beharrezkoak diren baliabideak sustatzea.
20. Euskara planean genero-ikuspegia bermatzea.
21. Hautaketa-prozesuetako epaimahaietan gizonen eta emakumeen presentzia parekidea bultzatzea Funtzio Publikoarekin elkarlanean.
22. Hautaketa prozesuetan erditze-egoeran eta erditze-ostean dauden emakumeek izan behar dituzten eskubideak edo neurriak ezartzea.
23. IVAPeko langileei oinarritzko prestakuntza ematea berdintasun gaietan.  
Berdintasunari buruzko prestakuntzarako plan-estrategikoa Emakunderekin diseinatzea.
24. Berdintasunari buruzko prestakuntza eskaintza handitzea, ibilbide zehatzak garatuz.
25. Lidergorako prestakuntza-ekintzak planifikatzea, etorkizunean erantzukizun handiagoko lanpostuak bete ditzaketen bigarren mailako teknikarientzat bereziki, helburu bikoitzarekin: buruzagitza-postuetan dauden pertsonen genero-ikuspegia integratuta izatea eta emakumeek lanpostu horiek eskuratzea (proportzionalki, gizonekiko).
26. Prestakuntza-dukietan genero ikuspegia txertatzea.
27. Prestakuntza-ekintzetan emakumeen eta gizonen parte-hartzea bultzatzeko ekintzak garatzea, eta, bereziki, gizonen maskulinitateekin eta erantzukidetasunarekin lotutako ekintzetan parte hartzea (adibidez, prestakuntza horiek gehiago puntuatuz, berariazko barne-kanpainak eraginez, etab.)



## 06. INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUN SAILA


Bere eginkizunak betetzeko EAEko gastu aurrekontu orokorraren %4 dauka.

Txosten honen ondorioetarako, hauxe da aztertutako aurrekontua:

19. Taula. Aztertutako aurrekontua. Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasun Saila.

| INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA        |               |
|---|---------------|
| AURREKONTUA:  | 591.918.931 € |
| AZTERTUTAKO PROGRAMAK   |               |
| 1228. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa                     | 37.741.624    |
| 4421. Ingurumena babestea   | 34.747.733    |
| 5121. Uraren Plangintza eta Administrazioa                        | 200.000       |
| 5413. Teknologia  | 197.004.671   |
| 5414. Berrikuntza Funtza  | 20.765.000    |
| 5415 - Eraldaketa digitala eta ekintzailatza berritzailea         | 7.073.775     |
| 7211. Egitura eta Laguntza  | 7.937.979     |
| 7212. Industria Garapena  | 76.633.797    |
| 7213. Industria-segurtasuna                                       | 9.662.066     |
| 7214. Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia                    | 2.240.505     |
| 7311. Energia eta Meatzeen Politika eta Garapena                  | 5.875.836     |
| Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:          |               |
| EUSKAL PARTZUERGO ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOA                         |               |
| 5413. Tecnologia  | 2.222.000     |
| Zuzenbide pribatuko erakunde publikoa. Administrazio-aurrekontua: |               |
| SPRI TALDEA – Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia                | 112.679.767   |
| URA – Uraren Euskal Agentzia                                      | 64.726.969    |
| IHOBE   | 12.407.209    |

13. Irudia. Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera.



SPRIK sailaren aurrekontuaren % 19 kudeatzen du, URAK % 11 eta IHOBek %2. Guztiak haien berdintasun-planak lantzen ari dira.

URAK eta IHOBek uste dute beren jarduera ez dela generoaren araberakoa.

Industria Seguratasuneko eta Meatzeen Politika eta Garapen Energetikoko programak ez dira generoarekin bat etorri. Bestalde, gainerako aurrekontu-programei ez zaie garrantzi handiegirik eman..

Los programas de relevancia baja son el de Desarrollo Industrial y el de Transformación Digital y Emprendimiento Innovador.

## JARDUERA GARRANTZITSUAK

### Berdintasuna sustatzeko berariazko jarduketak

- Berdintasunarekiko konpromiso politikoan sakontzea: hasitako prozesuak finkatzea eta zabaltzea.
  - Zerbitzu zuzendariaren berdintasun-arloko koordinazio-lana erraztea, erabiliko den jarraipen-koadroaren berri emanez zuzendaritzako gainerako arduradunei.
- Berdintasun-politikak eta arlo horretan dituzten erantzukizunak aurkezteko dokumentu bat egitea zuzendarientzat, XIII. Legegintzaldiaren hasieran.
- XIII. Legegintzaldirako Berdintasun Plana egitea
- Saileko Berdintasun Unitatea eta berdintasunerako lantaldeak indartzea.
  - Saileko STT lantaldeei eta genero-ikuspegia duten aurrekontuei eustea.
- Lan-prozesuak eta -prozedurak hobetzea.
  - Sailaren lan-prozesu komunen egutegia eta Zerbitzu Zuzendaritzak zuzendariari unean-unean eskatuko dizkien dokumentuak zabaltzea.
  - Araudiaren aldaketak sartzeko Aholkularitza Juridikoak, Kontratazio Zerbitzuak eta Berdintasun Unitateak aholkatutako lan-prozesu eta -prozeduretan
  - Aholkularitza juridikoa inplikatzeko koordinatzen eta aholkatzen dituen prozesu eta prozeduretan indarrean dauden berdintasun-araudira eta -aginduetara egokitzeko, bereziki Dirulaguntzen Plana eta Ogasunera bidaltzen den dirulaguntzen urteko jarraipen-txostena.

- Laguntza-aginduek berdintasun-aginduak jasoko dituzte, bai testu arautzailean, bai inprimakietan.
  - Planaren urteko bertsioa eginez, aldatutako fitxak ordeztuz. Urtero aldatzen diren fitxak Berdintasunerako Legearen aginduaren arabera idatziko dira.
  - Ogasunera bidali beharreko dirulaguntzen jarraipenari buruzko urteko txostenak Sail horrek bidaltzen duen eredia jarraituko du fitxa guztietan, eta ez aurreko bertsioak, eta osoa izango da erantzun-eremu guztietan.
- Kontratazio-zerbitzua: berdintasun-instrukzioen edukia Sailaren kontratazio handiago eta txikian sartzea.
- Berdintasuneko prestakuntza ematea.
- Saileko langile guztiei prestakuntza ematea, batez ere zerbitzuburuari eta webguneaz arduratzen den pertsonari dagokienez.
  - Urtebete baino gutxiagoko zeregin-pilaketetan eta ordezkapenetan dauden pertsonentzako ekintzari eustea: lan-pilaketen bidez kontratatutako pertsonari edo, beren zereginekin zerikusia badute, urtebetetik beherako kontratuak dituztenei berdintasun-ikastaro bat onartzea.
  - Sailaren intranetean dagoen Berdintasunerako Ataria mantentzea eta eguneratzea.
  - Generoarekin lotutako sektore-materiala sartzea liburutegian eta aldizkarietan.
  - Saileko langileen berdintasunari buruzko ezagutzen mapa eguneratzea, sailean sartu berri diren langileena integratuz.
  - Saileko langile guztiak prestatzea, eta, bereziki, zerbitzuburuak, Berdintasun Atariko edukiak erabiliz, berdintasuneko oinarritzko prestakuntzak ezartzeko.
    - Ekintza positiboa urtebetetik beherako zereginak eta ordezkapenak metatzen ari diren pertsonentzat: Zereginak metatuz edo urtebete baino gutxiagorako kontratatutako pertsonari berdintasuneko ikastaro bat onartzea, baldin eta beren zereginekin zerikusia badu.
  - Berdintasun-araudia hobeto ezagutzea eta lan-prozesuetan eta -prozeduretan aplikatzea.
  - Sailaren intraneteko Berdintasun Ataria mantentzea eta eguneratzea.
  - Zuzendaritzari berdintasuneko ezagutza sektoriala ezagutaraztea.
  - Lanpostuak betetzeko garaian, batik bat zerbitzu-arduradunen eta III.A teknikarien lanpostuak, lehentasuna ematea berdintasuneko ezagutzari.
    - Merezimendutzat hartuko dira emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikastaroak, ALT lanpostuarekin lotura mailarekin, teknikarien eta zerbitzu-arduradunen lanpostuak betetzeko zerbitzu-eginkizunetan.
    - Genero-ikuspegiari buruzko galdera bat sartuko da zerbitzu-arduradunen eta IIIA teknikariaren lanpostuak betetzeko proiektu-proben diagnostikoaren atalean.

### **Soldata-arrakala eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako jarduketak**

Sailak generoko soldata-arrakalaren aurka egiten dituen jarduketan artean, Sailak berak eta hari atxikitako erakundeek egiten dituztenak daude. Sailak, XIII. Legegintzaldirako Berdintasun Plana egin gabe dagoenez, dirulaguntzetako berdintasun-aginduak betetzean oinarrituko du bere jarduerak.

Sailak ez du emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako jarduerarik, azaroaren 25eko kanpaina izan ezik, gaiari buruzko buletin batekin parte hartu baitzuen

## **CONSORCIO TECNOLÓGICO - BRTA**

BRTA Partzuergo Teknologikoa (Basque Research and Technology Alliance) sortu da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko 16 zentro teknologikoren eta ikerketa kooperatiboko zentrotan, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien eta SPRI Taldearen arteko lankidetzaren bitartez.

baten bidez. Helburua da Euskadiko industria-erronkei erantzun eta ikerkuntzan eta teknologiaren garapenean nazioarteko korporazio lider handiekin lehiatu.

## JARDUERA GARRANTZITSUAK

2021ean egindako diagnostikotik ateratako ondorioetan oinarrituta, BRTAK BRTAko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana egin zuen. Honako ildo estrategiko hauek osatzen dute, eta 4 ardatz nagusi eta 9 programa dituzte:

### **1. ARDATZA: Gobernu ona.**

#### 1. KONPROMISO POLITIKOA

- 1.1. BRTAren misio, bisio eta balioetan berdintasunaren helburua txertatzea
- 1.2. Berdintasunerako Plana garatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea
- 1.3. Berdintasunerako Plana gauzatzeko bitartekoak jartzea

#### 2. TREBAKUNTZA

- 2.1. BRTAko langileak berdintasunean trebatzea, berdintasuneko trebakuntza espezializatua eskainiz

#### 3. GENERO-IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN ETA JARDUERETAN

- 3.1. Inprimaki, erregistro eta datu-baseetan sexuaren aldagaia txertatzea, hau da, sexuaren arabera bereizitako datuak jasotzea
- 3.2. Datuak genero-ikuspegitik aztertzea/irakurtzea
- 3.3. Berdintasun-ikuspegia txertatzea komunikazioan
- 3.4. BRTA egiten dituen kontratuetan berdintasun klausulak txertatzea
- 3.5. BRTAko jarduera nagusietan genero-ikuspegia txertatzea, emakumeei eta beren lanari ikusgarritasuna emateko

#### 4. KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA

- 4.1. Berdintasuneko lana partekatzea eta koordinatzea sare-mailan
- 4.2. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin berdintasunaren eremuko lana koordinatzea
- 4.3. Emakundek sustatutako erakundeen arteko sarean (Bai Sarean) parte hartzea
- 4.4. Nazioarteko erakunde eta eragileekin berdintasun-politikak partekatzea eta sinergiak baliatzea

#### 5. PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA

- 5.1. BRTAren zuzendaritzan emakumeen gutxieneko partaidetza bermatzea
- 5.2. BRTAk antolatzen dituen hitzaldi, jardunaldi eta ekimenetako gonbidatuen artean osaera orekatua bermatzea

### **2. ARDATZA: Emakumeen ahalduntzea.**

#### 6. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA

- 6.1. Emakumeen genero-kontzientzia, autoestimua eta autonomia garatzeko laguntza ematea

#### 7. EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA

- 7.1. Emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzea, eremu eta guneko guztietan

### **3. ARDATZA: Ekonomia eta gizarte antolamendua aldatzea.**

#### 8. ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA

- 8.1. Erakundeetako zuzendarien eta arduradun nagusien jardueraren inguruko hausnarketa sustatzea, bizitza jasangarriak izan ditzaten eta kontziliazio erantzunkidearen eremuan eredugarri izan daitezen
- 8.2. Erakundeetan maila guztietako ikerlari eta teknikariek kontziliazio erantzunkidea sustatzeko ekimenak eta hausnarketa sustatzea

#### **4. ARDATZA: Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.**

##### **KALTEA DETEKTATZEA ARTATZEA ETA KONPONTZEA**

###### **9.1. Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako prebentzio- eta laguntza-protokoloa lantzea**

BRTAko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Planak 4 urteko iraupena du, 2022 eta 2025 artean, eta 9 programa, 20 helburu eta 47 ekintza ditu.

Jarraian, 2025eko ekitaldian aurrera eramatea aurreikusi diren ekintzak zehazten dira, horietako bakoitzaren arduraduna adieraziz:

###### **1.2. Berdintasunerako Plana garatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea**

###### **1.2.2. Berdintasunerako Plana garatzen dela bermatu eta segimendua egin.**

1.2.3. Berdintasunerako Planaren segimendua egin, ekintzen betetze-maila neurtuz eta ekintza-gakoen inpaktu adierazleak jasoz. Urtean behin, urte bukaeran, memoriarako datuak biltzearekin batera.

1.2.4. Planaren indarraldiaren erdian tarteko ebaluazioa egin; eta bukaeran Planaren azken ebaluazioa egin.

###### **1.3. Berdintasunerako Plana gauzatzeko bitartekoak jartzea**

1.3.2. Berdintasun Batzordean Planaren segimendua egin. Urtean behin.

###### **3.2. Datuak genero-ikuspegitik aztertzea/irakurtzea**

3.2.1. Sexuaren arabera bereizita bildutako datuak aztertu genero-ikuspegitik eta, beharrezkoa bada, neurri zuzentzaileak zehaztu. Urtean behin, kudeaketa-planerako

3.2.2. BRTAren urte bukaerako Asanblada Orokorrean, egindako ekimenen inguruko datuak sexuaren arabera bereizita aurkeztu (adib, asistentzia datuak, etab)

###### **3.5. BRTAko jarduera nagusietan genero-ikuspegia txertatzea, emakumeei eta beren lanari ikusgarritasuna emateko**

3.5.1. Genero-ikuspegia ikerketan: genero-ikuspegia ikerketan txertatzearen garrantziaz sentsibilizatzeko hitzaldi/saioa antolatu sareko kideei begira

3.5.2. Genero-ikuspegia ikerketan: genero-ikuspegiz egindako ikerketei ikusgarritasuna emateko bideak pentsatu eta landu

3.5.3. Genero-ikuspegia kudeaketan: genero-ikuspegia kudeaketan txertatzeari buruzko trebakuntza antolatu, sarean parte hartzen duten erakundeetako kudeatzaile eta BRTAko kideei zuzendutako saioa izango da

3.5.4. Genero-ikuspegia kudeaketan: Europako HRS4R logoa aztertu, eta European Researcher Act and Code delakoa sinatzea baloratu. Interesgarria bada, HRS4Rrekin bat egin, eta egindakoaren berri zabaldu BRTA sarean..

###### **4.1. Berdintasuneko lana partekatzea eta koordinatzea sare-mailan**

4.1.1. BRTAk berdintasun gaietarako sarea sortu: erakunde bakoitzeko berdintasun-arduradunak parte hartuko luke, urtean behin batuko litzateke, eta lantalde tematikoak sortu litezke gai espezifikoekin. Helburuak lirateke: elkarren arteko koordinazioa erraztea ekimenak, hitzaldiak, ikastaroak etab. errazago eta era eraginkorragoan antolatu eta dinamizatu ahal izateko

4.1.2. Praktika onak partekatzeke espazioa martxan jarri (birtuala izan daiteke). BRTA barneko erakundeek martxan jarritako ekimen arrakastatsuak partekatzeke aukera izango lukete, eta tematikoki antolatu ahalko litzateke. Arlo posibleak: genero-ikuspegia ikerketan nola txertatu, kontziliazioa, guraiza efektuari aurre egiteko estrategiak...

4.2. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin berdintasunaren eremuko lana koordinatzea

4.2.3. Urtean behin Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin erakunde bakoitzaren Planaren nondik norakoak partekatu, eta elkargune posibleak bilatu..

4.2.4. Sail berarekiko lotura duten beste erakundeekin SPRI, IHOBE, EVE, URA... berdintasunaren eremuan elkarlanean aritzeko aukerak aztertu.

4.3. Emakundek sustatutako erakundeen arteko sarean (Bai Sarean) parte hartzea

4.3.1. Emakunderen erakunde laguntzaile izateko baldintzak betetzen ditugun aztertu, eta hala balitz, ziurtagiria lortzeko prozedura martxan jarri.

4.3.2. Erakunde laguntzaile ziurtagiria lortuz gero, Bai Sareako bileretan parte hartu antolatzen diren bilera, jardunaldi edota trebakuntza-saioetan parte hartuz, gaiaren arabera dagokion pertsona hautatuz.

4.4 Nazioarteko erakunde eta eragileekin berdintasun-politikak partekatzea eta sinergiak baliatzea

4.4.1. Hitzarmenak/harremanak ditugun eragileei BRTAren berdintasun-politikaren berri eman eta beraien politikak ezagutu. Besteengandik ikasteko aukera.

5.2. BRTAk antolatzen dituen hitzaldi, jardunaldi eta ekimenetako gonbidatuen artean osaera orekatua bermatzea

5.2.2. Antolatutako hitzaldi, jardunaldi eta ekimenetako gonbidatuen erregistroa jaso eta honi segimendua egin, beharrezkoa balitz neurri zuzentzaileak aplikatuz.

7.1. Emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan

7.1.1 Mentoring programa martxan jarri. Doktoregoa egiten dabilzan emakumezko ikerlariei edo/eta teknikariei zuzendua, Post-doc osteko ibilbideaz eta aukerez jabetzeko aukera izango dute. Erakunde ezberdinek parte hartuko luketenez, aukera legoke industriaraino zein arlo akademikoagoan lan egiten duten emakumeen berri izan, eta beraien bide-orri propioa diseinatzeko bidelaguna izatekoa..

7.1.2. Emakumeen lana aitortzeko dauden egun, sari eta ekimenetan proaktiboki parte hartu

7.1.4. Emakumeak Zientzian ekimena EAE mailakoa bilakatzeko proposamena egin sarean parte hartzen dabilzan erakundeek

8.2. Erakundeetan maila guztietako ikerlari eta teknikariek kontziliazio erantzunkidea sustatzeko ekimenak eta hausnarketa sustatzea

8.2.2. Beharrak identifikatzeko inkesta zabaldu BRTAko sareko kideen ikertzaileen artean, emaitzak aztertu eta sentsibilizatorako baliatu. Horrekin batera, identifikatutako hutsuneetan eragiteko politikak diseinatzeko espazioa sortu.

## SPRI TALDEA

SPRI Taldea sortu da EAEko enpresen lehiakortasuna bultzatzeko eta hobetzen laguntzeko, horrela, Euskadin aberastasuna sortzen eta herritarren ongizatea hobetzen laguntzen baita, giza garapen iraunkorraren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Sustatzeko Politikaren esparruan. Arlo estrategiko hauek ditu: 4.0 industria, zibersegurtasuna, nazioartekotzea, inbertsioak erakartzea, ekintzailatza, eraldaketa digitala, I+G eta berrikuntza.

2024an **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana 2024-2028** onartu da SPRIrentzat. Bertan, haren jardun-eremua eta ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa nola egingo diren zehazten dira.

III. Planak hiru ardatz ditu:

I. ardatzak, Gobernu Onari dagokionak, berdintasun-politikak sistematizatu eta finkatzeko beharrezko jarduerak jasotzen ditu. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako estrategia publikoetan ere aipatzen diren jardueren esparrua da:

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 estrategia.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta haren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana (2022-2024).

II. Ardatzak, Pertsonen kudeaketari dagokionak, berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuak planteatutako gai-arloak hartzen ditu. Hala, helburuak eta jarduerak sartzen dira honako eduki hauetarako:

Hautaketa, kontratazioa, prestakuntza eta lanbide-sustapena.

Lanbide-sailkapena eta ordainsari-politika.

Lan-baldintzak (laneko denbora, eta laneko segurtasuna eta osasuna).

Bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta lanekoaren kontziliazio erantzukidea.

Emakumeen ordezkariak eskasa.

Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre hartzea eta aurre egitea.

III. Ardatzak, Eragina gizartean: emakumeen ahalduntzea eta bidezko, berdintasunezko eta jasangarriko gizarte-antolaketa dagokionak, bestalde, SPRIren izateko arrazoiarekin, gizarte-erantzukizunarekin eta gizarteari berdintasunaren arloan bultzatzaile izan daitekeen erreferente bat emateko behararekin lotutako jarduerak biltzen ditu. Ardatz hori zehazteko, emakumeen ahalduntzearen eta ekonomiaren eta gizarte-antolamenduaren eraldaketaren arloko programak hartu dira kontuan. Programa horiek, hala nola Gobernu Onarena, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategia eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2022-2024 Berdintasunerako V. Planean jasotakoak dira.

Ardatz bakoitzerako helburuak, helburu horiek lortzeko ekintzak, jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazleak, gauzatze-arduradunak eta aurreikusitako gauzatze-datak ezartzen dira. Ekintza bakoitzak barne hartzen du, halaber, Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren zein elementuri egiten dion erreferentzia eta 2030 Estrategiaren zein ardatz eta ildotan kokatzen den.

Jarraian, SPRIrako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren helburuak zerrendatzen dira. 2025-2028 aldiko ekitaldi bakoitzean landuko dira:

**I. ardatza: gobernu ona:**

- helburua: SPRIin emakumeen eta gizonen berdintasuna hedatzeko behar den plangintza eta antolaketa garatzea, bai eta horren jarraipena eta ebaluazioa egitea ere, euskal erakundeekin koordinatuta eta lankidetzan.
- helburua: emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikan eragin positiboa izateko mekanismoak eta tresnak garatzea.
- helburua: SPRIk berdintasunarekiko duen konpromisoa, III. Planaren edukiak, ezarpena eta helburuen irismena jakinaraztea.

## II. ardatza. SPRIko pertsonen kudeaketa:

- helburua: emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa aintzat hartzea hautaketa-, kontratazio-, prestakuntza- eta lanbide-sustapeneko prozesuetan
- helburua: emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa aintzat hartzea lanbide-sailkapeneko sisteman eta ordainsari-politikan.
- helburua: emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioari erantzutea lan-baldintzak definintzean, bai lan-denborari dagokionez, bai laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan.
- helburua: SPRIko pertsonen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa erantzukidetasunez uztartzea.
- helburua: emakumeek ordezkari-txikia duten eremuetan emakumeen presentzia hobetzea, hori eragiten duten oztopoak murriztuz.
- helburua: SPRIren lan-eremuan sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzea eta horri aurre egitea

## III. ardatza. Gizartean duen eragina: ekonomien eraldaketa, gizarte-antolaketa eta emakumeen ahalduntzea:

- helburua: emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko euskal esparru publikoa eta genero-ikuspegidun zerbitzuak eskaintzea.
- helburua: gizartea sentibilizatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, eta sektore industrialean, zientifikoan eta teknologikoan emakumeen presentzia handiagoa izan dadin sentibilizatzea.

"Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak" eta "Soldata-arrakalari heltzea" ataletarako, 2025ean ekintza horiek ezartzeko baliabide ekonomikoen zuzkidura 2.000 eurokoa izango dela kalkulatu da. Gainera, 2025erako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren barruan, 531.000 euroko baliabide ekonomikoak aurreikusten dira Lehiaren Euskal Agintaritzan ekintza guztiak ezartzeko (emakumeek gidatutako ekintzailtza-proiektuetarako onartutako dirulaguntzaren aurreikuspena barne), eta 13.230,11 eurokoa Arrisku-Kapitaleko Sozietatean.

## URA – URAREN EUSKAL AGENTZIA

Uraren Euskal Agentzia da Euskadin uraren arloan eskumena duen agintaritza. Hauek dira bere lanaren ardatzak:

- Uholde-arriskuaren kudeaketa eta lehortekak,
- Ekosistema urtarrik osorik babestea, kontserbatuz eta hobetuz,
- Hornidura unibertsala behar adinako kantitatean eta kalitatean lortzea, uraren ingurumen-balioak babestearekin bateragarria, uraren aprobetxamendu jasagarria eta ateratzen den ingurunera behar bezala itzultzea ziurtatuz.

## JARDUERA GARRANTZITSUAK

URaren jardueraren arloa generoari egokitzen ez zaion bitartean, berdintasunaren eremuan egiten ditugun jarduerak plantillan bertan zentratzen dira, eta administrazio-jarduerak eta prozesuen kudeaketa berdintasun-araudira egokitzen dira.

Gaur egun, Uraren Euskal Agentziaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana dago indarrean, 2023tik 2026ra.

Sexu-jazarpenera eta jazarpen sexista edo sexuagatiko jazarpenera prebenitzeko eta haiei aurre egiteko protokoloa aplikatzen dugu, 2021eko ekitaldian eguneratua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren



barruan kokatua. Protokoloa Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko 50 langile baino gehiagoko erakundeetan sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko protokolo-proposamenean oinarritzen da, Uraren Euskal Agentziaren errealitatera egokituta. III. Berdintasun Planean aurreikusitako neurri gisa, protokolo hori eguneratu egingo da 2024an, indarrean dagoen araudira egokitzeko.

Agentzian emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak kudeatzeko partida espezifikora bideratutako aurrekontua urtean 12.000,00 eurokoa da.

2025eko ekitaldian, III. Berdintasun Planean planifikatutako neurri hauei ekitea aurreikusi da. Neurri horien helburua berdintasuna sustatzea eta genero-ikuspegia txertatzea da, hala nola:

- Astean gehienez 2-3 egunetan telelanarekin jarraitzea (2. lerroa, 4. helburua: kontziliazio erantzukidea). 2025ean garatu beharreko ekintzetako bat, 4. helburuaren barruan. "Enpleguaren kalitatea hobetzea, genero-joerak antzemanaz eta ordainsarrietan eta sarbide-, hornidura-, barne-sustapen- eta prestakuntza-prozesuetan diskriminatzaileak izan daitezkeen faktoreak ezabatuz" da telelanak enpleguko sustapen-prozesuetan duen eragina aztertzea.
- Lan-arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzen duten 2024an egindako prestakuntza-ekintzen jarraipen gisa, eta, zehazki, enpresa osasungarriaren esparruan antolatutako prestakuntza-ekintzetan, kanpoko prebentzio-zerbitzuarekin (IMQ) lankidetzan, 3.000,00 euro inguruko gastu zenbatetsia aurreikusten da 2025erako. Esparru horretan, 2025erako aurreikusita dago Segurtasun eta Osasun Batzordeko kideak prestatzea aukera-berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloan, erakundearen lan-osasuneko politikan genero-ikuspegia sartu ahal izateko.
- Era berean, kalkulatu da III. Planeko neurriak ezartzen laguntzeko kanpo-aholkularitzaren kostua, 2025eko ekitaldian, 6.000,00 euro ingurukoa izango dela. Zenbateko hori inbertitu egingo da, besteak beste, 2. helburuan ("Kudeaketa-prozeduretan berdintasuna txertatzea") aurreikusitako ekintzak bereziki garatzen saiatzeko; besteak beste, kontratuetan, enkarguetan eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak txertatzea hobetzeko, eta kontratuetan, enkarguetan eta hitzarmenetan sartutako berdintasun-klausulak behar bezala betetzen direla bermatzeko mekanismoak ezartzeko.
- Azkenik, kalkulatu da berdintasunaren alorreko prestakuntzak 3.000,00 euroko kostua izango duela 2025eko ekitaldirako, kontuan hartuta Agentzian sartzan diren langile guztiak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz egiten duten oinarritzko ikastaroa, gehi Berdintasun Taldeko eta Negoziazio Batzordeko langileen prestakuntza, bai eta genero-ikuspegia genero-helburuetan txertatzeko berariazko prestakuntza-ekintza bat ere, ekonomia- eta aurrekontu-arloko langileentzat.

Aipatutako ekintzez gain, Uraren Euskal Agentziak Emakundek ematen duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen izaera. Horretaz gain, BAI SAREA Berdintasunerako Erakundearen Sareko kide gara. Sare horretako kide garen aldetik, konpromiso batzuk ditugu, berdintasuna sustatzeko eta genero-ikuspegia txertatzeko ekintza espezifikoetan zehazten direnak.

Zehazki, Agentziako berdintasun-batzordeko arduraduna Bai Sarearen "Espazio Jasangarrien" barruan dago, eta honako eginkizun espezifiko hauek ditu:

1. Erakundearen arteko lankidetzarako eta entzuteko dinamikak diseinatzea
2. Erakundearen berdintasunaren kudeaketa bideragarria dela ziurtatzea

Era berean, Agentziak honako ekintza hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

- Bai Sareak urtero antolatzen duen batzarrean parte hartzea. Bertan, sarea osatzen duten taldeek egindako ekintzak bateratzen dira.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna kudeatzeko jardunbide egoki bat bidaltzea urtero.

- Dagokion erakundearen sarean garatutako berdintasun-planerako neurrien proposamenak egitea.
- Bai Sarearen intranetean parte hartzea: podcastak entzutea, inkestak osatzea, posten gaineko iritziak ematea, etab.
- BAI SAREA osatzen duten taldeetako bateko kide gisa parte hartzea.

## IHOBE

- Etxebizitza Sailburuordetzak kudeatzen dituen etxebizitzak eraikitzeko prozesuetan genero-ikuspegia txertatzea: besteak beste, segurtasunik eza edo segurtasunik ezaren pertzepzioa sor dezaketen elementu guztiak azpimarratuz.

Azkenik, eta aipatutako jardueraz gain, beharrezkoa da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduketa batzuk zerrendatzea. Jarduketa horiek, aurrekontu-partida espezifikorik ez badute ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduerak izango dira 2025ean Sailean, bai Berdintasunerako Legean bai 2030 Estrategian xedatutakoaren arabera. Gobernu Onaren helburuaz ari gara, berdintasuna administrazio-jardueran txertatzeko helburuaz (GO2), 5. lerroan. Administrazio-prozedurak, eta batez ere:

- Actuaciones para integrar la perspectiva de género en estadísticas y estudios.

- Aumento de contenidos en comunicación que visibilizan los avances en materia de igualdad, presentan a las mujeres y hombres de forma no estereotipada y hacen un uso no sexista del lenguaje y de las imágenes.
- Incluir medidas en la evaluación normativa dirigidas a reducir o eliminar desigualdades y de género y promover la igualdad de mujeres y hombres.
- Integrar la perspectiva de género en contrataciones y subvenciones.
- Integrar la perspectiva de género en planes estratégicos y sectoriales en todas las fases de planificación: diagnóstico, diseño, implementación, seguimiento y evaluación Estadistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzeko jarduketak.
- Komunikazio-eduki gehiago, berdintasunaren arloan egindako aurrerapenak agerian uzten dituztenak, emakumeak eta gizonak estereotiporik gabe aurkezten dituztenak eta hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egiten dutenak.
- Arau-ebaluazioan genero-desberdintasunak murrizteko edo ezabatzeke eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak sartzea.
- Kontratazio eta dirulaguntzetan genero-ikuspegia txertatzea.
- Plan estrategiko eta sektorialetan genero-ikuspegia txertatzea plangintzaren fase guztietan: diagnostikoa, diseinua, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioan.

## 10. OSASUN SAILA

Bere eginkizunak betetzeko EAEko gastu aurrekontu orokorraren %32,5 dauka.


Txosten honen ondorioetarako, hauxe da aztertutako aurrekontua:

23. Taula. Aztertutako aurrekontua. Osasun Saila.

| OSASUN SAILA   |                 |
|--|-----------------|
| AURREKONTUA:   | 5.059.491.702 € |
| AZTERTUTAKO PROGRAMAK  |                 |
| 1228. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa                            | 623.009         |
| 4111. Osasunaren egitura eta laguntza                                    | 14.970.859      |
| 4112. Finantzaketa eta Kontratazio Sanitarioa                            | 334.138.105     |
| 4113. Osasun Publikoa  | 63.700.206      |
| 4114. Ikerketa eta Plangintza Sanitarioa                                 | 13.533.786      |
| 4115. Farmazia   | 602.670.021     |
| 4116. Adikzioak  | 5.031.709       |
| 5414. Berrikuntza Funtza   | 5.512.500       |
| <i>Zuzenbide pribatuko erakunde publikoa. Administrazio-aurrekontua:</i> |                 |
| OSAKIDETZA – Euskal Osasun Zerbitzua                                     | 4.019.311.507   |

Osakidetzak Sailaren aurrekontuaren % 79,4 eta txosten honetarako aztertutako aurrekontu osoaren % 29,65 kudeatzen du. Erakunde hori bere berdintasun-plana ezartzen ari da. Programa guztiak generoarekin bat datoz, eta garrantzi handikoak dira, Farmaziako programa izan ezik, generoari dagokionez garrantzi ertainekotzat jotzen dena.

17. Irudia. Osasuna. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera.



**PROGRAMA 4111: Egitura eta laguntza**

- Administrazio osoko langileei zuzendutako zeharkako ikastaroen eskaintza koordinatzea, IVAPekin batera
- Sailean gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren bultzada koordinatzea
- Berdintasunerako Administrazio Unitateari laguntza ekonomikoa ematea

AURREKONTUA: 98.914,68 €

**PROGRAMA 4112: Osasun finantzaketa eta kontratazioa**

- Ekintza Kontratazioaren kalitatea ebaluatzeko 2024ko urteko txostena, emaitzak sexuaren arabera berezita. Genero-ikuspegia txertatzea botton-up proiektuen urteko deialdian
- Programa-kontratuaren esparruan, kalitate-irizpide gisa genero-indarkeriaren adierazleak kontuan hartzea ESletan, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan eta osasun mentaleko sareetan
- Ekintza Sailen arteko planetan eta programetan parte hartzea: immigrazioa
- Ekintza Aurretiatzko Borondateen Erregistroaren erabilera/betetze-maila ebaluatzeko urteko txostena egitea, sexuaren arabera berezitateko datuekin. 2023ko urtarriletik 2024ko ekainera, erregistroen % 62,61 emakumeek bete zituzten eta % 37,33 gizonek. Ez dago jasota % 0,06
- Euskadin Suizidioa Prebenitzeko Planaren bitarteko ebaluazioaren aurkezpena (sexuaren arabera berezitateko datuekin)

Ama-esnearen bankua finantzatzen jarraitzea, edoskitze goiztiar eta goiztiarra bermatzeko, amek bularra eman ezin dietenean

AURREKONTUA: 56.054,00 €

**PROGRAMA 4113: Osasun Publikoa**

- Ekintza Txertaketa-programak hedatzen jarraitzea (12 urteko haurrei giza papilomaren birusaren aurkako txertoa jartzea)
- Helburua Genero-indarkeria detektatzeko eta prebenitzeko ekintzak bultzatzea
- Haurdunaldi, erditze eta erdiberriarako emakumeari laguntzeko materiala editatzea

AURREKONTUA: 2.024.540,00 €

**PROGRAMA 4114: Ikerketa eta plangintza sanitarioa**

- Ekintza Sailaren laguntza-deialdiaren bidez finantzatutako I+G proiektuen gutxieneko ehunekoa, emakumeak buru direla (ikertzaile nagusiak, IP). Aurreko deialdietan emakumeek gidatutako proiektuen kopuruaren arabera, % 60 kalkulatu da
- Osasunari eta generoari buruzko ikerketa-ildoak sartzeko 2025eko deialdian
- Genero-ikuspegia proiektua baloratzeko irizpidetzat hartzea
- Emakumeen arteko desberdintasunak ikerketa-subjektu gisa kontuan hartzea
- Adina modu desberdinean kontuan hartzea ikertzaile emergenteetan. Normalean, amatasunagatiko geldialdia dela eta, emakumeek beranduago hasten dute ikerketa (ikertzaile nagusi bat "gorabidean" dagoela jotzeko adin-muga desberdina sartzeko)
- 23ko EAEOI jasotako datuetan oinarritutako txostenak prestatzea eta argitaratzea
- Osasun desberdintasunen monitorizazioa (kuantifikatzea). Generoa da kontuan hartu beharreko adierazleetako bat
- Programa Osasunaren determinatzaileei eta osasun-arloko desberdintasunei buruzko ebidentziak zabaltzea. Osasun behatokia eta Osagin

- Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren Erregistroa kudeatzea eta 2024 urteko txostena argitaratzea Bularreko Minbizia Goiz Detektatzeko Programaren (BMGDP) Kalitateko Bermatzeko Programa (KBP) garatzen eta gainbegiratzen parte hartzea
  - Osasunean genero-desberdintasunak murrizten laguntzen duten prestakuntza-jardueren ehunekoa (Etengabeko prestakuntza)
  - Osasunean genero-desberdintasunak murrizten laguntzen duten prestakuntza-jardueren ehunekoa (Laguntzak eta beka)
  - Osasun-zientzietako espezialitateetan bizi diren profesionalak kanpoan txandakatzeko laguntzak
  - Egun abian dauden minbizia goiz detektatzeko programetako parte-hartzean dauden desparekotasunen azterlana)
  - Osasun-arloko erakundeei laguntzak ematea prestakuntza-jarduerak antolatzeko (elkarateak eta fundazioak)
- AURREKONTUA: 4.079.409,00 €

#### **PROGRAMA 4115: Farmazia**

- Urtean gutxienez fitxa bat egitea, herritarrei zuzendutako sendagaiei buruzko informazioa emateko (i-botika fitxa), emakumeen osasun-gaiei buruzkoa

AURREKONTUA: 290,40 €

#### **PROGRAMA 4116: Adikzioak**

- Hitzarmenak eta diru-laguntza izendunak egitea eta prebenitzeko eta arrisku eta kalteak gutxitzeko programak (programa horiek erabiltzen dituzten emakumeak biztanleria osoaren % 20 dira; beraz, zenbatetsi egiten da zenbateko hori)
- Prestakuntzako eta sensibilizazioko eskuhartze publikoak (eztabaidak, solasaldiak, jardunaldiak eta abar). Profesionalei zuzendua. Generoari eta adikzioei buruzko ikastaro eta jardunaldietarako zenbatetsitako zenbatekoa zehazten da
- Eskola-eremuan kontsumoa prebenitzeko programak eta proiektuak (genero-ikuspegiarekin). Kerik gabeko gazteak – Alkohola eta adingabeak
- Adikzioen Behatokia. Genero-ikuspegia bultzatzea adikzioen arloko azterlan eta ikerketetan
- Adikzioen VIII. Plana abian jartzea
- “Adinekoentzako eta adikzioentzako” prebentzio- eta osasun-programa. Emakumeentzat izango diren ekintzetarako zenbatekoa kalkulatu da

AURREKONTUA 355.646,20 €

### **OSAKIDETZA**

Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen bidez sortua. 1983tik, EAEko osasun-prestazio publikoen sistemaz arduratzen da.

### **JARDUERA GARRANTZITSUAK**

Las actuaciones relevantes de Osakidetza vienen determinadas por el marco estratégico mencionado en el apartado 3, el cual, sitúa la salud en el centro de todas las políticas y a las personas en el foco de una atención cercana y sin desigualdades. Respondiendo a este compromiso Osakidetza en su próximo Plan para la igualdad Osakidetzaren jarduera garrantzitsuak 3. atalean aipatutako esparru estrategikoak zehazten ditu. Bertan, osasuna politika guztien erdigunean kokatzen da, eta pertsonak hurbileko eta desberdintasunik gabeko arretaren

erdigunean. Konpromiso horri erantzunez, Osakidetzak, Osakidetzako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako hurrengo Planean, I. Plana hedatu den 4 urte hauetan egindako lanarekin jarraitzea erabaki du.

Barne- eta kanpo-eremuak hartuko ditu, eta hainbat jarduera gauzatuko ditu, besteak beste:

#### **Barne-eremua: 1. dimentsioa. Enpresa. Osakidetzako profesionalak**

- Genero-ikuspegia eremu bakoitzean txertatzen jarraitzea
- Erabaki- eta zuzendaritza-postuetan emakumeen presentzia sustatzen duten ekintzak bultzatzea.
- Soldata-arrakala murrizten jarraitzea.
- Ordu-malgutasunerako eta telelanerako neurriak ezartzeko aukera aztertzea, ahal den neurrian lanaldi-murrizketak saiheste aldera.
- Erantzukidetasuna sustatzen duten ekintzak bultzatzea.
- Osakidetzan kontziliazio-plan bat egiten lan egitea.
- Egiten diren arrisku psikosozialen ebaluazioetan genero-ikuspegia txertatzea, arreta berezia eskainiz aniztasunari eta egoera ahulenean dauden kolektiboak.
- Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Berdintasunaren arloko prestakuntza aurrera egitea eta eduki berriak txertatzea.
- Komunikazio ez-sexista bultzatzea eta berdintasunean parte hartzeko foroekin jarraitzea.

#### **Barne-/kanpo-eremua: 2. dimentsioa. Berrikuntza eta ikerkuntza**

- Ikerketa-proiektuetan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzea, eta saiakuntza klinikoetan emakumeen ordezkaritza txikiak desagerrarazten laguntzea.
- Osakidetzako ikertzaileen artean emakumeen presentzia proportzionala eta ikerketa-taldeak lidergoak sustatzen laguntzea.
- Generoa osasunaren mugatzaile gisa eta emakumeen gaixotasun espezifiko edo prebalentzia handiagoko gaixotasun gisa ardatz duten ikerketa-lanak sustatzen laguntzea.
- Erakundeekiko, elkarrekin eta unibertsitateetako eskola eta fakultateekiko lankidetzak sustatzea, berdintasunari buruzko ekintza berritzaileak ezagutzeko eta partekatzen.

Osakidetzaren 2023-2025 Plan Estrategikoak, 6. ildoan ("Osasunean balioa sortzen duten berrikuntza eta ikerketa"), bere helburu espezifikoak artean, Osakidetzaren eta zerbitzu-erakundeetan berrikuntza kudeatzeko eredu bat definitzea du, eta profesionalen talentuak aitortutako osasun-eremuko ikerketa- eta berrikuntza-sare bat lortzea. Beraz, Osakidetzaren II. Berdintasun Planaren dimentsio horri eragin daskioke arestian aipatutako helburuak lortu arte.

#### **Kanpo-eremua: 3. dimentsioa: Euskal gizartea. Pazienteak, erabiltzaileak eta arreta sanitarioa**

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzea osasun-arretako kontsultetarako sarbidean eta erabileran.
- Emaitzei genero-ikuspegia emango dieten aldagai soziodemografikoak biltzea inkestetan. Emaitzak genero-ikuspegiarekin aztertzea.
- Osakidetzak HBE programan (haurdunaldia borondatez etetea) emakumeei ematen dien arreta hobetzeko neurriak ezartzea, Osasun Sailaren jarraibideak betez.
- Zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeen kolektiboak osasun-premia garrantzitsuenak identifikatzen laguntzea.
- Emakumeen kolektiboak eta elkarrekin parte-hartzearekin, osasun-heziketako materialak prestatzea, premia espezifikoak erantzuteko.

- Sexualitateari buruzko informazioa eta genero-ikuspegidun prestakuntza ematea (harreman afektibo-sexualak, sexu- eta ugalketa-osasuna, menopausia).

#### **Soldata-arrakala**

- Kontziliazio-lizentzien erabilerak sustapen-aukeretan eta soldatetan duen benetako eta hautemandako eragina ebaluatzea, genero-ikuspegia txertatuz.
- Osakidetzan Administrazio Publikoko beste arlo batzuekin gertatzen diren lanaldi-murrizketen azterketa konparatiboa egitea, ondoren genero-berdintasunaren ikuspegitik ezar daitezkeen neurriak identifikatzeko: azterlan konparatiboa.

Aipatzekoa da soldata-arrakalak azken urteetan Osakidetzan izan duen beheranzko bilakaera, 2017ko % 22,04tik 2024ko % 13,82ra jaitsi baita.

Nabarmentzekoa da Zuzendaritza Nagusiaren barruan soldata-arrakalaren talde bat eratu dela. Talde honek prestakuntza espezifiko jaso du soldata-arrakala murrizteko planteatutako ekintzetan lan egiteko, Osakidetzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren arabera.

Era berean, eta Euskadin soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plan Operatiboari dagokionez, Osasun Sailak, Osakidetzaren bitartez, 2022-2025 aldirako Ekintza Plan Operatiboan parte hartzen du, eta hainbat neurriekin laguntzen du, bere jarraibideekin lerrokatuta, estrategia horretan zehaztutako erronkei erantzuteko eta helburuak lortzeko.

#### **Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak**

- Indarkeria matxista desagerraraztea eta berdintasunezko gizarte bat eraikitzea, emakumeen aurkako indarkeriarik gabea, haren adierazpen guztietan.
- Tratu txarren eta genero-indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra sustatzea, eta emakumeen osasun mentaleko arazoak, tratu txarrekin eta genero-indarkeriarekin zerikusia dutenak, goiz detektatzeko ekintzak hedatzea.
- Elkarteetan eta erakundeetan parte-hartzearekin jarduerak indartzea, sexu-organoen ebaketa prebenitzeko eta praktika horren biktima diren emakume eta neskatilen arreta hobetzeko.
- Genero-indarkeriaren eta haren adierazpen ezberdinen arloko laguntza ematen duten langileei prestakuntza ematen jarraitzea, haiek identifikatzeko eta datuak erregistratzearen garrantziaz sentsibilizatzeko.
- Genero-indarkeriarekin lotuta kalteberatasun berezia duten emakumeen premia espezifikoak aztertzea kolektibo horien ordezkari-taldeekin.
- Genero-indarkeriaren protokoloaren aplikazioaren jarraipena egitea
- Zerbitzuen arteko barne-koordinazioa hobetzea, informazioaren zirkuitua zehaztea eta edukiak eta pertsona erreferenteak identifikatzea.
- Koordinazio soziosanitarioa hobetzen laguntzea, arreta integrala eta pertsonalizatua lortzeko, bai eta erakundearteko taldeetan parte hartzen jarraitzea eta genero-indarkeriaren eremuan lankidetzak berriak ezartzea ere.
- Euskadin genero-indarkeriaren arloan dauden arreta-baliabideak zabaltzea.
- Aurrez aurreko topaketak eta foroak antolatzea, genero-indarkeriari buruzko ezagutzak, zalantzak eta esperientziak partekatzeko eta intranetean gune bat sortzeko



## Egindako aurrerapenak

Aurreko aurrekontuetako genero-ikuspegitik azterturiko txostenean jasotako jardueri dagokienez, honako aurrerapen hauek ikusten dira:

- 2024an, Berdintasun Plana Berdintasun Planen Erregistro Publikoan inskribatu da.
- Osakidetzan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa berrikusi eta aztertu da. Horren ondoren, bertsio berri bat onartu da, kasuen kudeaketa hobetzeko, denborak murrizteko eta baliabideak egokitzeko, gobernantza-organoak berrantolatzeke, 21 aholkularitza konfidentzial berri sortzeko eta kide guztiak prestatzeko.
- Berdintasunaren aldeko Foro parte-hartzailea "Osakidetzan, Berdintasuna aurrera" egin izana.
- Osakidetzak, Bioaraba Ollrekin lankidetzan, "Guía para la incorporación de la perspectiva de género en la investigación e innovación sanitaria" argitaratu du. Gida honen helburua da genero-ikuspegia modu eraginkorren txertatzea lan zientifikoaren etapa guztietan, ikertzaileei hainbat gomendio eta tresna erabilgarri emanaz.
- 2024an, bi gida berri aurkeztu dira, "jarduera-gida" osatzeko. Gida hori zabaldu eta martxan jarriko da 2025ean.
  - "Osasun-profesionalentzako gida genero-indarkeriaren biktima diren seme-alabekin jarduteko"
  - "Osasun-langileentzako jarduera-gida 14 urtetik gorako emakumeen aurkako sexu-indarkeriazko kasuetarako"

## 11. ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA


Bere eginkizunak betetzeko EAEko gastu aurrekontu orokorraren %2,3 dauka.

Txosten honen ondorioetarako, hauxe da aztertutako aurrekontua:

24. Taula. Aztertutako aurrekontua. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.

| ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA |               |
|--|---------------|
| AURREKONTUA:   | 354.877.055 € |
| AZTERTUTAKO PROGRAMAK                                |               |
| 1228. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa        | 6.610.230     |
| 3111. Egitura eta Laguntza                           | 4.708.949     |
| 3122. Immigrazioa                                    | 18.932.678    |
| 3123. Gizarte-zerbitzuak                             | 99.717.449    |
| 3124. Familia eta Komunitate Politika                | 160.406.629   |
| 3222. Gazteria                                       | 64.501.120    |

18. Irudia. Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera.



Aurrekontu osoa egokituz eta genero altuarentzat garrantzitsutzat jo da. Hau da, eragin nabarmena izan dezakete emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko politiken hartzaile diren herritarren artean.

### JARDUERA GARRANTZITSUAK

**Berdintasuna sustatzea helburu bakartzat** duten jardueri dagokienez eta gobernantza hobetzeari lotuta, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak lehentasunezko helburu hauek ezarri ditu: berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea; Saileko langileei berdintasunaren inguruko formakuntza ematea; eta genero-ikuspegia txertatzea legeetan, estrategietan eta plan sektorialetan, baita zeharkakoetan ere. Helburu horiek betetzeko, jarduketa hauek egingo ditu 2025ean:

- Berdintasunerako Unitate Administratiboaren 30.000 euroko aurrekontuari eustea.
- Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako legealdi-plan berria garatzea eta ezartzea.
- Berdintasunaren arloko prestakuntza egitea Sailean.
- Familiei Laguntzeko Erakunde arteko V. Plana diseinatzea eta ezartzea 226.318.000 €

Sailak, halaber, Legearen aginduei erantzuten dieten eta dagoeneko etengabe egiten ari diren jarduerak garatzen jarraituko du, hala nola: araudian berdintasun-printzipioa txertatzea eta aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea. Berdintasunaren alorrean esku hartzeko ardatzei dagokienez, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa Sailak lehentasunezko helburuak ezartzen ditu esku hartzen duen sektore-eremuetarako.

Jarraian, "Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak" lortzeko Sailak 2025ean garatuko dituen jarduera eta zerbitzu espezifikoen zerrenda laburtu bat aurkezten da:

**SATEVI** (Indarkeria matxistaren Biktimentzako Telefono Bidezko Arreta Zerbitzua) kudeatzen eta koordinatzen jarraituko dugu, baita emakume biktimentzako laguntza ekonomikoak eta arreta emateko kudeaketa integratua ere. 2025erako, zerbitzuaren aurrekontua mantenduko da, haren kalitatea eta irismena finkatzeko. Era berean, erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzak ekintzetan parte hartzen jarraituko da, arretaren kalitatea hobetzeko. Bestalde, hirugarren sektoreko erakundeei dirulaguntzak ematen jarraituko da, emakumeekin esku-hartze sozialeko jarduerak egin ditzaten. Arlo honetako berritasuna sexu-indarkeriaren biktimentzako laguntzak dira.

Jarraian, **emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak** sustatzen dituzten Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saileko jarduera nagusien laburpena aurkezten da:

- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei telefono bidezko 24 orduko arreta eskaintzeko zerbitzu espezializatua (SATEVI): 514.081 €
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako prestazio ekonomikoa: 1.600.000 €.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa: 450.000 €
- Sexu-indarkeriaren biktimentzako laguntza 1.800.000 €
- Erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzak ekintzetan parte hartzea: Erakundeen arteko III. Akordiotik eta Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokitik eratorritako egitura guztietan parte hartzea, maila politikoan zein teknikoan. Aurrekontu-partida espezifikorik gabe, zerbitzuko langileen zereginen zati bat.
- Barnahus proiektua, sexu-indarkeriaren biktima diren adingabeei eta haien familiei arreta espezializatua eta integratua emateko: 652.370 €
- Haur eta nerabeenganako indarkeriaren aurkako Estrategia: 45.000 €
- Haur eta Nerabeentzako Arreta-Zerbitzua (Zeuk Esan): 344.700 €

**Soldata-arrakala murriztera bideratutako helburu espezifikoak dagokienez**, Sailak Euskadin soldata-arrakala murrizteko ekintza-planaren garapenean parte hartuko du 2025ean, eta neurri espezifikoak bultzatuko ditu, hala nola:

- Diagnostikoa eta kontziliazio-plana egiteko erakundeentzako laguntza-programa: 420.000 € (2024-2025-2026)
- Aitorpen-sistema bat (ziurtagiria) sortzea, erakundeek kontziliazioarekiko duten konpromisoari balioa emateko: 30.000 €
- Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia: 2025ean orain arte abian jarritako ekintzei eutsiko zaie. Besteak beste, ZAINTEL, ASCUDEAN, betiON zaintzen duten familiei laguntzeko programa eta familia zaintzaileei

laguntzeko aplikazioa. Era berean, estrategian jasotako beste ekintza batzuk abiaraziko dira, hala nola aldizkako azterlan bat egitea, errealitate horri partzialki helduko dioten beste batzuk osatuko dituen, kolektiboa zehatzago kuantifikatzeko eta haren ezaugarriak, egoera, premiak eta itxaropenak ezagutzeko; zaintzari eta laguntza-baliabideei, administrazio-kudeaketari, online prestakuntzari eta familia zaintzaileen foroi buruzko informazioa eta orientazioa emango duen web-atari bat dinamizatzea; zaintzaileen bakardadea, kontziliazio-premiak eta zaintzek haiengan duten eragin ekonomikoaren murrizketa bezalako alderdiei heltzeko ekintzak bultzatzea; eta Euskadiko Familia Zaintzaileen Estatutu edo Eskubide Gutun bat diseinatzea.

- Kontziliazio Erantzukidearen programaren esparruan, lanean jarraituko da zainketetan eta kontziliazioan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna hobetzeko ekimenak eskaintzeko. Helburu horiek hainbat tresna, zerbitzu eta jardueraren bidez lortu nahi dira, hala nola Kontzilia informazio- eta laguntza-zerbitzuak (enpresei eta herritarrei zuzendutakoak), kontziliazio-neurriak ezartzen laguntzeko tresnak, bi hilean behingo newsletter bat eta gaiari buruzko ikerketa-proiektuak, bai eta Kontzilia enpresa-erkidegoari laguntzea eta erkidegoa osatzen duten enpresen kopurua handitzea ere. Haren helburu nagusia kontziliazio erantzukidea sustatzea da, bai enpresa-kolektiboan, bai langileen artean: 150.000 € (kontziliazio erantzukiderako programa) eta 58.080 € (Kontzilia zerbitzua).
- Azkenik, zaintza-lanek bizitzari eusteko ardatz gisa duten garrantziari, zaintza-lanen eta etxeko lanen erantzukidetasunari eta bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko neurriei buruzko gizarte-sentsibilizazioan lan egiten jarraitzea aurreikusten da.

Sailaren **beste helburu eta/edo jarduera garrantzitsu batzuei dagokienez**, 2025ean honako hauek garatuko ditu:

- Eraberean-Tratu Berdintasunaren eta Diskriminazioaren aurkako sarea bultzatzea: 2025ean, gorroto- eta diskriminazio-delituarekin lotutako prozesuetan arreta eta aholkularitza sustatzen jarraituko da, bai eta dibulgazio-materialak eta sentsibilizazio-kanpainak diseinatzen ere: 547.525 €
- BERDINDU zerbitzuarekin jarraitzea, LGTBI pertsonen, haien ingurukoei eta familiei orientazioa eta aholkularitza emateko, eta LGTBI pertsonen aurkako jarrera diskriminatzaileak saihesteko eta borrokatzeko neurriak garatzea (errealitatearen ezagutzari buruzko azterlanak, sentsibilizazio-jarduerak, etab.): 523.285 €
- Hirugarren sektoreko erakundeei dirulaguntzak ematea, pertsona, familia, talde eta komunitateekin esku-hartze sozialeko jarduerak egin ditzaten, pertsona guztien autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa sustatu eta babesteko. Gaur egun 3 dirulaguntza lerro daude:
  - Esku-hartze sozialeko jarduerak pertsona, familia, talde eta komunitateekin: 2.620.436 €(2025-2026).
  - Esku-hartze sozialaren eremuan ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzeko jarduerak: 419.300 €(2025-2026).
  - Esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatzeko jarduerak: 315.000 €(2025-2026).Dirulaguntza ildo horien bitartez, elkarrekin esku hartzeko proiektuak finantzatu dira, emakume ijitoen elkarrekin, gizarte-bazterketako egoeran dauden emakumeekin, prostituzioaren esparruko proiektuekin, guraso bakarreko familiei zuzendutako zaintzari laguntzeko proiektuekin eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako hainbat gairi buruzko proiektuekin, besteak beste.
- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legeko eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean ezarritako gizarte-larrialdietarako laguntzak. Bi jarduketek 41.500.000 euroko zuzkidura osatzen dute.
- Oinarritzko laguntza materialeko programa: 3.916.213 €
- Telelaguntza-zerbitzua, 2025erako 15.044.544 €-ko zenbatekoa duena.
- Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia garatzea. Estrategia horren neurrien artean daude seme-alabak dituzten familientzako laguntzak eta kontziliaziorako laguntzak hobetzea, oso kontuan hartuta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegia, alde batetik, emakumeek beren lanak eta karrera

profesionalak garatzen jarraitu ahal izan dezaten, eta, bestetik, etxetik kanpo eta etxe barruan egindako etxeko lanen eta zaintza-lanen aitorpen soziala eta ekonomikoa lortu dadin: 27.605.000 € kontziliaziorako laguntzetarako, 120.640.900 € hazkuntzarako laguntzetarako).

- Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa 200.000 €
- Gazteriaren Euskal Estrategia sortzea 40.000 €
- Egoitza-bazterketa larriaren aurkako II. Euskal Estrategia 250.000 €
- Zainketen Zeharkako Plana egitea 120.000 €
- Laguntza juridikoko, integrazioko eta kultura arteko bizikidetzako zerbitzua: 1.130.400 €
- Immigrazioaren gizarteratzerako Euskal Foroaren esparruan sortutako berdintasun-batzordeari laguntzea (berdintasunari buruzko prestakuntza Foroko batzordeei eta ezkontza behartuei buruzko protokoloa Emakunderekin lankidetzan): 180.000 €
- IKUSPEGI Immigrazio eta Aniztasunaren Euskal Behatokiaren lana babestea. Behatoki horrek, bere lanaren esparruan, emakumeen egoerari buruzko datuak ematen dituzten azterlanak eta ikerketak egiten ditu: 400.000 €. 2025ean egin beharreko azterlanetako bat honako hau izango da: "Atzerritar jatorriko hainbat emakume-talderen gizarte-errealitatearen, egoeraren eta beharren azterketa deskribatzailea eta analisia".
- Familia-bitartekaritzako zerbitzua: 840.000 €
- HARRERAGUNE zerbitzua 800.000 €

## 12. MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA


Bere eginkizunak betetzeko EAEko gastu aurrekontu orokorraren %3,6 dauka.

Txosten honen ondorioetarako, hauxe da aztertutako aurrekontua:

25. Taula. Aztertutako aurrekontua. Mugirtasun Jasangarriaren Saila.

| MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA                       |               |
|---|---------------|
| AURREKONTUA:  | 167.777.120 € |
| AZTERTUTAKO PROGRAMAK                                   |               |
| 1228. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa           | 2.344.462     |
| 5111. Egitura eta Laguntza                              | 2.685.994     |
| 5131 - Trenbideko Garraioaren Azpiegitura eta Kudeaketa | 137.840.065   |
| 5135 - EAEko trenbide-sare berria - Kudeaketa-kredituak | 7.555.000     |
| 5141 - Garraioaren plangintza                           | 17.351.599    |

19. Irudia. Mugikortasun Jasangarria. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera.



5135-EAEko Trenbide Sare Berria programaren aurrekontua generoari ez dagokiola iritzi zaio. Gainerakoak garrantzi ertain eta txikikotzat jo dira, Egitura eta Laguntza izan ezik, genero altuari eusten baiti.

### JARDUERA GARRANTZITSUAK

Las actuaciones previstas para 2025 en materia de igualdad de mujeres y hombres son las siguientes:

#### I. ARDATZA. GOBERNU ONA. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA.

- Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoa eta 2025eko Berdintasunerako Urteko Plana egitea eta abian jartzea.
- Mugikortasun Jasangarriaren Sailean Berdintasun Unitatea sortzea. 2025eko aurrekontu zenbatetsia: 67.351 € (berdintasuna sustatzeko helburu eskusiboa).
- Berdintasun Unitateak antolatutako berdintasunaren arloko jarduerak: 15.000 € (berdintasuna sustatzeko helburu eskusiboa).

- Informazioa lantzea eta zabaltzea, Berdintasun Unitatea eta berdintasun-politikak ezagutzeko tresna gisa (berdintasuna sustatzeko helburu eskusiboa).

### **III. ARDATZA. GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA.**

#### **21. LERROA. GIZARTE- ETA LURRALDE-KOHESIOA.**

OS9.13 MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA BERDINTASUNEZKO IRISGARRITASUNA. Mugikortasun iraunkorreko ekimenak sustatzea, garraio publikoa emakumeen beharretara egokitzea (konektibitatea, ordutegia eta maiztasunak, segurtasuna, irisgarritasun fisikoa, informazioa, etab.) eta gizonak garraio publikora erakartzea.

- Azterlana: Mugikortasun jasangarria genero-ikuspegitik. Jarduera honetarako aurreikusitako aurrekontua 160.000 €da (Berdintasuna sustatzeko helburu eskusiboa).
- Genero-ikuspegia txertatzea Sailaren proiektuetan (jardueraren aurrekontu orokorra adierazten da):
  - OTEUS: Euskadiko oinarrizko informazioa eguneratzea. 65.000 €
  - EJI Eri enkargua. Euskadiko MAAS sistema 149.631,97 €
  - Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Plana. 80.000€

Aipatutako jardueraz gain, beharrezkoa da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduketak batzuk zerrendatzea. Jarduketa horiek, aurrekontu-partida espezifikorik ez badute ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduerak izango dira 2025ean Sailean, bai Berdintasunerako Legean bai 2030 Estrategian xedatutakoaren arabera. Gobernu Onaren helburuaz ari gara, berdintasuna administrazio-jardueran txertatzeko helburuaz (GO2), 5. lerroan. Administrazio-prozedurak, eta batez ere:

- Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzeko jarduketak.
- Komunikazio-eduki gehiago, berdintasunaren arloan egindako aurrerapenak agerian uzten dituztenak, emakumeak eta gizonak estereotiporik gabe aurkezten dituztenak eta hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egiten dutenak.
- Arau-ebaluazioan genero-desberdintasunak murrizteko edo ezabatzeke eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak sartzea.
- Kontratazio eta dirulaguntzetan genero-ikuspegia txertatzea.
- Plan estrategiko eta sektorialetan genero-ikuspegia txertatzea plangintzaren fase guztietan: diagnostikoa, diseinua, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa.

## 13. ZIENTZIA, UNIBERTSITATEAK ETA BERRIKUNTZA SAILA


Bere eginkizunak betetzeko EAEko gastu aurrekontu orokorraren %3,9 dauka.

Txosten honen ondorioetarako, hauxe da aztertutako aurrekontua:

26. Taula. Aztertutako aurrekontua.. Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza Saila.

| ZIENTZIA, UNIBERTSITATEAK ETA BERRIKUNTZA SAILA |               |
|---|---------------|
| AURREKONTUA:                                    | 599.807.721 € |
| AZTERTUTAKO PROGRAMAK                           |               |
| 1228. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa   | 1.803.750     |
| 4223 - Unibertsitateko irakaskuntza             | 443.829.883   |
| 5410. Egitura eta Laguntza                      | 4.872.513     |
| 5412. Ikerketa                                  | 111.103.378   |
| 5414. Berrikuntza Funtza                        | 38.198.197    |

20. Irudia. Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera.



Aurrekontu osoa da egokia eta garrantzi handikoa, Ikerketa izan ezik garrantzi ertaina duela. Hau da, eragin nabarmena izan dezake emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko politiken hartzailerik diren herritarren artean.

### JARDUERA GARRANTZITSUAK

**"Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak" eta horren helburuak lortzeko 2025rako aurreikusita dauden ekintzak:**

- UPV/EHUn ordaindu beharreko prezio publikoei buruzko aginduan sartzea genero-indarkeriaren biktimei eta haien ardurapeko 25 urtetik beherako seme-alabei aplikatu beharreko murrizketak.



- EAEan egoitza duten unibertsitateekin sinatutako hitzarmenei eustea. Hitzarmen horien bidez, matrikuletan aplikatzen diren murrizketak ordaintzen zaizkie, hainbat arrazoiengatik, besteak beste, genero-indarkeriaren biktima izateagatik. 80.000€.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimek beka jaso ahal izango dute, betiere araudian aurreikusitako baldintza guztiak betetzen badituzte, 2023-2024 ikasturtean gainditutako irakastorduei buruz ezarritako baldintzak izan ezik, bekadun diren urte kopuruaren mugarekin eta 2023-2024 ikasturtean kredituen ehuneko jakin bat gainditzeko eskakizunarekin.

**Soldata Arrakala Murrizteko Estrategiari eta Plan Operatiboari dagokienez**, Eusko Jaurlaritzak gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala murrizteko 2022-2025 Ekintza Plan Operatiboa du, 2018an onartutako soldata-arrakala murrizteko strategiaren barruan. Gainera, Eusko Jaurlaritzak III. Plan Operatiboa egingo du 2025ean. Saila sortu berria dela kontuan hartuta, une honetan ez dago esparru horretan inolako jarduerarik planifikatuta, baina arlo horretan Sail honi zuzentzen zaizkion errekerimenduei erantzutea aurreikusten da.

**Berdintasuna sustatzeko beste ekintza garrantzitsu batzuk:**

**"Egitura eta laguntza" programari dagokionez, Berdintasunerako Administrazio Unitatera bideratutako aurrekontua nabarmentzen da.** Alde batetik, kontuan hartu behar da Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza Saila sortu berria dela XIII legegaldian eta, ondorioz, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako legearen 11.1 artikuluari erantzuteko, sailak berdintasun unitatea sortuko duela, hala, bestela, partekatuko du Hezkuntza Sailarekin horretarako dagokion formulaz baliatuz. Gainera, Berdintasun Legeak bere 16.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz bere jardura-plan propioa egingo du XIII legegintzaldirako; plan horrek behar diren baliabide pertsonal, ekonomiko eta materialez hornituta egongo da, benetan ezarriko dela bermatzeko. Horretaz gain, 2025 urterako plangintza egingo du ere, eta hori sustatu, koordinatu eta ebaluatuko du.

**Unibertsitate Sistemari dagokionez, Euskal Unibertsitate Sistemaren Plan berriaren bidez (2023-2026), genero-berdintasunerako politikak garatuko ditu Sailak euskal unibertsitate-sistema osatzen duten hiru unibertsitateetan.** Plana zazpi jardura-ardatzetan oinarritzen da, eta ardatz horiek estrategikoak dira. Bostgarren ardatza Unibertsitate Komunitate Inklusiboa eta Berdintasunezkoa da, eta horretan genero-berdintasuna ezinbesteko elementutzat hartzen da. Ardatz hau Euskal Unibertsitate Sistemara sartzen diren pertsona guztiek unibertsitateko prestakuntza aukera berdintasunean egin ahal izatea bermatzeko ardatz gisa planteatzen da. Zehazki, genero-berdintasuna eta ekitatea bezalako alderdiak azpimarratzen dira, euskal gizarteko talde guztiei unibertsitateko prestakuntzarako aukerak emanez. Gainera, Unibertsitate komunitatearen ardatzeko jardura guztiak Euskadiko 2030 Agendaren barruan daude, eta, beraz, GJHen barruan. Euskadiko 2030 Agendan sartzen den bezala, 2023-2026 Unibertsitate Sistema Planak lanean dihardu, besteak beste, hezkuntzan genero-desberdintasunak ezabatzeko eta irakaskuntza- maila guztietan berdintasunezko sarbidea ziurtatzeko. Hala, ardatz horretarako honako helburu nagusi hau aurreikusten da: "Unibertsitateak genero berdintasunean erreferente gisa finkatzea, prestakuntza eta ikerketa arloetatik hasi eta garapen profesionalera arte".

Marko hori kontuan hartuta, Unibertsitate ikaskuntza programari dagokionez, unibertsitate ezberdinekin kontratu-programen bidez, honako hau sustatuko da:

- EHU/UPVik ikastetxeekin, enpresa-elkarteekin, administrazioekin eta erakundeekin lankidetzan arituko da, ikerketaren emaitzak eta aplikazioak zabaltzeko, STEAM bokazio zientifikoak sustatzeko, batez ere neskatoen eta nerabeen artean (300.000€); genero-berdintasuna bermatzeko eta horretan aurrera egiten jarraitzeko neurri berriak ezartzen jarraituko du (175.000€); ikertzaile berrien eta emakumeen lidergoa bultzatuko du proiektuetan eta taldeetan (300.000€).

- Deustuko Unibertsitateak, kontzientziatzeko, sentsibilizatzeko, prestatzeko, komunikatzeko, parte hartzeko, sustatzeko eta bateratzeko programak eta ekintzak garatzen ditu, genero-berdintasuna sustatzeko unibertsitate-politikan eta –jardueran. 90775€.
- Mondragon Unibertsitateak, Prestakuntzaren eremuan genero-berdintasuna sustatzera bideratutako jarduerak abiaraziko ditu, arreta nagusia ikasleengan eta ikerketaren eremuan jarrita, fakultate bakoitzeko berdintasun-planekin koherentzian (62.556€); lan-eremuan genero-berdintasuna sustatzera bideratutako jarduerak abian jartzea, fakultateko berdintasun-planekin bat etorriz (20.848€).

Horrela, sailak bereziki lan egingo du Euskal Unibertsitate Sisteman berdintasun-politikak indartzea bultzatzen Unibertsitateen V. Planean jasotako jardueren bidez.

Aipatzekoa da ere, sailak zuzendaritza berri bat sortuko duela, Unibertsitate Komunitatea Zaintzeko zuzendaritza hain zuzen ere eta bere funtzioen artean, honako hauek aurreikusten dira:

- Unibertsitate-komunitateko kideek eskubideak eta aukerak baliatzeari dagokionez, generoagatiko edo sexu-aukeragatiko desberdintasunak egon daitezkeela identifikatzea.
- Beharrezkoak diren neurriak proposatzea, ikasleen generoaren edo sexu-aukeraren arabera unibertsitate-ikasketa jakin batzuk egitea eragotz dezaketen oztopoak kentzeko.
- Karrera akademikoan, edo hala badagokio, ikerkuntzan sartzeko eta mailaz igotzeko baldintzak aztertzea, irakasleen eta ikertzaileen generoaren edo sexu-aukaren arabera, eta, hala badagokio, sor daitezkeen desberdintasunak neutralizatzeko edo lehengoratzeko politika espezifikoak diseinatzea eta sustatzea.

Hala ere, adierazi behar da oraindik ez dagoela zehaztuta honetarako bideratuko den aurrekontua.

Halaber, ahalegin berezia egingo da lan-prozedurak Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen aginduetara egokitzeko. Nolanahi ere, aipatu behar da, Saila, lan egingo duela genero-ikuspegia lan-prozeduretan sartzeko, eta, batez ere, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiteko, sailak kudeatzen dituen diru-laguntzetan, hitzarmenetan, beketan eta sarietan berdintasun-klausulak sartzeko, eta estatistikak genero-ikuspegitik egokitzeko. Azkenik adierazi behar da, esfortsu berezia egingo da 34/2024 Ebazpena, martxoaren 22koa, zeinaren bidez xedatzen baita argitara dadila Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak eta genero-ikuspegia txertatzeari buruzko jarraibidea onartzeko erabakian ezarritakoa betetzeko.

## 14. TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA


Bere eginkizunak betetzeko EAEko gastu aurrekontu orokorraren %0,4 dauka.

Txosten honen ondorioetarako, hauxe da aztertutako aurrekontua:

27. Taula. Aztertutako aurrekontua. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila.

| TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA                 |              |
|--|--------------|
| AURREKONTUA:   | 46.752.923 € |
| AZTERTUTAKO PROGRAMAK                                    |              |
| 1228. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa            | 4.080.911    |
| 7510. Egitura eta Laguntza                               | 2.785.896    |
| 7511. Turismoa eta ostalaritza                           | 10.831.142   |
| 7612. Barne-merkataritza                                 | 21.541.681   |
| Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak: |              |
| KONTSUMOBIDE - Kontsumoko Euskal Institutua              |              |
| 4432. KONTSUMOBIDE - Kontsumoko Euskal Institutua        | 7.513.293    |

21. Irudia. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera.



Aurrekontuaren %100 egokitzen eta genero altu eta ertainerako garrantzitan jo da Egitura eta Laguntza programa izan ezik, horrek garrantzi handia baitu generoan.

### JARDUERA GARRANTZITSUAK

Jarraian, labur deskribatuko dira Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak 2025ean egingo dituen jarduerak genero-desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburua dutenak, bai eta genero-ikuspegia txertatzekoak ere.

## Turismo

- 2022an turismo-sektoreko emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruz egindako diagnostikoan oinarrituta, eta arrakala nagusiak antzeman eta genero-desberdintasunak murrizteko garatu beharreko lan-ildoak eta esku-hartzeak identifikatu ondoren, turismo-enpresetan berdintasun-programaren bigarren fasea garatuko da, sektorearekin koordinatuta. Programa honen helburu nagusietako bat turismo-sektoreko soldata-arrakala murriztea da.
- Ostalaritzako enpresa-elkarteentzako diru-laguntza izendunetan adierazi da garatu beharreko ekintzetako bat genero-ikuspegia sustatzera eta enpresa elkartuetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak sustatzera bideratuta egon behar dela.
- Lehiaketa-programa (EMET laguntzak). Bertan, proiektuen lehentasun-irizpideak baloratuko dira, besteak beste, laguntzen lehentasuna zehazteko:
  - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-plan bat izatea (irizpide hori ez da baliozkoa Berdintasunerako Legeak behartutako enpresentzat), lana eta familia bateragarri egiteko plan bat izatea, edo gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunerako erakunde laguntzailea izatea (Emakunde): 2 puntu
  - Gutxienez % 33ko desgaitasuna duten emakumeak kontratatu izana egiaztatzea: 4 puntu.

## Merkataritza

Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendurako laguntzei buruzko Aginduan, eskabideen balorazioan gehienez ere 10 puntu emango dira 100 puntu posibletik, eta 50 proiektuaren edukian, proiektuan genero-ikuspegia txertatzeko:

- A. Proiektua genero-ikuspegitik planifikatu, garatu eta ebaluatzen da: 5 puntu, gehienez:
- Gehienez ere puntu 1, erakundearen misioan, ikuspegiaren eta/edo helburu estrategikoetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egitea kontuan hartzeagatik eta sartzegatik.
  - Gehienez ere 2 puntu, proiektuan zehar eta zeharka genero-ikuspegia txertatzeagatik.
  - Gehienez ere 2 puntu, aplikatutako berdintasun-neurriak neurtu eta ebaluatzeagatik.
- B. Berdintasunaren arloko ekintza zehatzak garatzeagatik, 0,5 puntu kontzeptu hauetako bakoitzeko, gehienez 3 puntu:
- Sektoreak bere jarduera-eremuan duen emakumeen eta gizonen berdintasun-egoerari buruzko diagnostikoa edo analisisa egiteagatik edo proiektuaren zati gisa sartzegatik.
  - Sektoreari zuzendutako berdintasun-arloko prestakuntza-ikastaroren bat emateagatik edo erakundeak sustatutako sektoreko prestakuntzetan genero-ikuspegia zeharka sartzegatik.
  - Sektorean indarkeria matxista, sexu-orientazioa edo genero-identitatea prebenitzeko eta egoera horiei aurre egiteko protokolo bat edo neurri espezifikoak landu eta zabaltzeagatik.
  - Sektorean genero-hizkuntza erabiltzeko protokolo espezifiko bat onartzearen eta zabaltzearen alde, hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatzeko, estereotipo sexistak saihesteko eta berdintasun, aniztasun, erantzunkidetasun eta rol eta identitate anitzak sustatzeko.
  - Erakundearen genero-hizkera erabiltzeko protokolo espezifiko bat onartu eta zabaltzeagatik. Proiektua edo jarduera gauzatzean sortzen den dokumentazio, publikitate, irudi edo material guztiak hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin behar du, emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak eragiten dituen edozein irudi saihesti behar du, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero rol eta identitate aniztasunaren balioak sustatu behar ditu. vi) Norberaren bizitza, lana eta familia uztartzeko neurriak diseinatu, ezarri eta aplikatzeagatik, proiektua gauzatzen duten langileentzat edo haren jardun-eremuko sektoreko pertsonentzat.

- Emakumeen eta gizonen aukera eta tratu-berdintasuna sustatzen eta bermatzen duten ekintzak sartzearatik, aurrekoetatik desberdinak direnak.
  - Emakumearen ahalduntzea bultzatzen eta/edo emakumeen inplikazioa sustatzen duten ekintzak sartzearatik, eta/edo berdintasunaren alde esku hartzen dutenak.
  - Emakumeen elkarte batekin edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko helburu espezifikoak duen erakunde batekin lankidetzan jarduteagatik.
  - Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak edo beste edozein administrazio publikok emandako Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitortzea izateagatik.
  - Berdintasun-plan bat edukitzeagatik, legez horretara behartuta egon gabe.
- C. Erakunde eskatzailearen gobernu-organismoan kideen artean genero-parekotasuna dagoela egiaztatzen duen egiaztagiria: 2 puntu, emakumeen ehunekoa % 40koa edo handiagoa bada.

## KONTSUMOBIDE

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoa da, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari atxikia, eta helburu hau du: kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko eta babesteko Jaurlaritzaren politikak definitzea, planifikatzea, bultzatzea eta betearaztea.

## JARDUERA GARRANTZITSUAK

Txostenean adierazi den bezala, ez dago berdintasuna sustatzeko helburu eksklusiboa duen ekintza zehatzik, baina badira emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorraren helburua lortzeko mesedegarri izan daitezkeen ekintzak. Nabarmentzekoak dira:

- Kontsumobideko langileen barne-prestakuntza: gobernu onaren estrategian jasotzen den bezala, erakundeko langileak prestatuta egotea funtsezko piezetako bat da genero-berdintasunaren helburua Institutuaren jardura guztietan zeharka integratu ahal izateko. Kontsumobidek eskatzen dutenen eskura jartzen du genero-berdintasunari buruzko ikastaro espezifiko bat urtean, bai eta helburu hori lor dezaketen beste gai batzuetako 2 prestakuntza-ekintza ere.
- Kontsumitzaileei informazioa eta prestakuntza ematea: Informazioaren helburua da kontsumitzaileen eskubideekiko kezka zabaltzea, interesa piztea eta Kontsumobideren existentzia eta lana jakinaraztea. Horretarako, sare sozialetan ditugun profilak dinamizatzen ditugu, publizitate-kanpainak eta informazio-kanpainak egiten ditugu. Institutua etengabe ari da lanean komunikazio argia eskaintzeko, eta ezinbestekoa da herritarrekin harreman hobea izateko eta mezua hobeto ulertzeko hizkuntza berriak ezartzea. Kolektibo ahulenei eman behar zaien babes berezia kontuan hartuta, Kontsumobidek helarazten duen informazioak eskuragarria izan behar du.
- Azterlanak: 2025eko ekitaldirako, oraindik zehazteke dauden baina azterketan generoaren aldagaia sartuko duten azterlanak egitea aurreikusi da, datuak sexuaren arabera bereizita.

## 15. ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA


Bere eginkizunak betetzeko EAEko gastu aurrekontu orokorraren %1,7 dauka.

Txosten honen ondorioetarako, hauxe da aztertutako aurrekontua:

28. Taula. Aztertutako aurrekontua. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

| ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA   |               |
|--|---------------|
| AURREKONTUA:   | 230.374.543 € |
| AZTERUTAKO PROGRAMAK                                       |               |
| 5151 - Portuak   | 20.169.737    |
| 5411. Nekazaritzako eta basogintzako ikerketa eta garapena | 19.170.175    |
| 7110. Egitura eta Laguntza                                 | 2.796.135     |
| 7111. Nekazaritza eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena  | 120.659.049   |
| 7112. Arrantza   | 28.771.812    |
| 7113. Elikagaien Sustapena eta Kalitatea                   | 38.807.635    |

22. Irudia. Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera.



Aurrekontu osoa egokituz eta genero ertainatuz garrantzitsutzat jo da, portuen programa izan ezik garrantzi baxuari eusten diona.

### JARDUERA GARRANTZITSUAK

#### Berdintasuna sustatzeko berariazko jarduketak

- Berdintasunarekiko konpromiso politikoan sakontzea: hasitako prozesuak finkatzea eta zabaltzea.
  - Zerbitzu zuzendariaren berdintasun-arloko koordinazio-lana erraztea, erabiliko den jarraipen-koadroaren berri emanez zuzendaritzako gainerako arduradunei.
- Berdintasun-politikak eta arlo horretan dituzten erantzukizunak aurkezteko dokumentu bat egitea zuzendarientzat, XIII. Legegintzaldiaren hasieran.
- XIII. Legegintzaldirako Berdintasun Plana egitea
- Saileko Berdintasun Unitatea eta berdintasunerako lantaldeak indartzea.
  - Saileko STT lantaldeei eta genero-ikuspegia duten aurrekontuei eustea.

- Lan-prozesuak eta -prozedurak hobetzea.
  - Sailaren lan-prozesu komunen egutegia eta Zerbitzu Zuzendaritzak zuzendariei unean-unean eskatuko dizkien dokumentuak zabaltzea.
  - Araudiaren aldaketak sartzea Aholkularitza Juridikoak, Kontratazio Zerbitzuak eta Berdintasun Unitateak aholkatutako lan-prozesu eta -prozeduretan
  - Aholkularitza juridikoa inplikatzeko koordinatzen eta aholkatzen dituen prozesu eta prozeduretan indarrean dauden berdintasun-araudira eta -aginduetara egokitzeko, bereziki Dirulaguntzen Plana eta Ogasunera bidaltzen den dirulaguntzen urteko jarraipen-txostena..
    - Laguntza-aginduek berdintasun-aginduak jasoko dituzte, bai testu arautzailean, bai inprimakietan.
    - Planaren urteko bertsioa eginez, aldatutako fitxak ordeztuz. Urtero aldatzen diren fitxak Berdintasunerako Legearen aginduaren arabera idatziko dira.
    - Ogasunera bidali beharreko dirulaguntzen jarraipenari buruzko urteko txostenak Sail horrek bidaltzen duen eredu jarraituko du fitxa guztietan, eta ez aurreko bertsioak, eta osoa izango da erantzun-eremu guztietan.
- Kontratazio-zerbitzua: berdintasun-instrukzioen edukia Sailaren kontratazio handiago eta txikian sartzea.
- Berdintasuneko prestakuntza ematea
  - Saileko langile guztiei prestakuntza ematea, batez ere zerbitzuburuari eta webguneaz arduratzen den pertsonari dagokienez.
  - Urtebete baino gutxiagoko zeregin-pilaketetan eta ordezkapenetan dauden pertsonentzako ekintzari eustea: lan-pilaketen bidez kontratatutako pertsonari edo, beren zereginekin zerikusia badute, urtebetetik beherako kontratuak dituztenei berdintasun-ikastaro bat onartzea.
  - Sailaren intranetean dagoen Berdintasunerako Ataria mantentzea eta eguneratzea.
  - Generoarekin lotutako sektore-materiala sartzeko liburutegian eta aldizkarietan.
  - Saileko langileen berdintasunari buruzko ezagutzen mapa eguneratzea, sailean sartu berri diren langileena integratuz.
  - Saileko langile guztiak prestatzea, eta, bereziki, zerbitzuburuak, Berdintasun Atariko edukiak erabiliz, berdintasuneko oinarriko prestakuntzak ezartzeko.
  - Berdintasun-araudia hobeto ezagutzea eta lan-prozesuetan eta -prozeduretan aplikatzea.
  - Urtebetetik beherako ordezkapenetan diharduten pertsonentzako ekintza positiboari eustea: berdintasun-ikastaro bat onartzea, haien zereginekin zerikusia badu.
  - Lehengo Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Berdintasun Atarirako esteka bat egitea. Atari hori Industria, Energia Trantsizio eta Jasangarritasun Sailaren intranetean dago gaur egun.
  - Zuzendaritzari berdintasuneko ezagutza sektoriala ezagutaraztea.
  - Lanpostuak betetzeko garaian, batik bat zerbitzu-arduradunen eta III.A teknikarien lanpostuak, lehentasuna ematea berdintasuneko ezagutzari.
    - Merezimendutzat hartuko dira emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikastaroak, ALT lanpostuarekin lotura mailarekin, teknikarien eta zerbitzu-arduradunen lanpostuak betetzeko zerbitzu-eginkizunetan.
    - Genero-ikuspegiari buruzko galdera bat sartuko da zerbitzu-arduradunen eta IIIA teknikariaren lanpostuak betetzeko proiektu-proben diagnostikoaren atalean.

### **Zuzendaritzak**

- NPBrako Plan Estrategikoko (NPB) jardueretan adierazleak hobetzea: datuak sexuaren arabera bereiztea pertsona juridikoetan, nekazaritza-ustiategiak barne, eta izaera juridikoaren aldagaia gehitzea.
- Emakume Nekazarien Estatutuaren ekintza positiboak aplikatzen jarraitzea.

- Nekazaritza-jardueraren negozio-eredua berrikustera bideratutako gaikuntza, ikuspegi enpresarialago batetik eta ustiategiei enpresa-erabakiak hartzeko aholkularitza aktibotik. Emakume Nekazarien Estatutua ezartzea.
- ENE laguntzak, emakume nekazarien lana aitortzeko eta asoziazionismoa sustatzeko mantendu
- Arrantza-jardueraren eremu guztietan emakumeen enplegua zehatz-mehatz aztertuko duen ikerlan bat egitea. Asoziazionismoari eta erabakiguneetan emakumeek duten presentziari buruzko atal bat sartuko da.
- “Itsasoratu” izeneko beketan ekintza positibo bat sartzea, praktikak egiteko emakumeak ontziratzen dituzten armadoreentzat.

### **Soldata-arrakala eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako jarduketak**

Sailak generoko soldata-arrakalaren aurka egiten dituen jarduerak Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legean jasotako ekintza positiboetan oinarritzen dira.

15. artikulua.– Laguntzak eta diru-laguntzak.

Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen laguntza eta diru-laguntzei buruzko arauetan, emakume nekazarien titulartasunari emango zaio lehentasuna, betiere Europar Batasuneko araudiak debekatzen ez badu. Leheneste hori honela egingo da:

a) Aurkeztutako eskaerak erkatu egiten diren prozeduretarako balioespen-irizpideetan, puntuazio bat finkatuko da, lor daitekeen gehieneko kopuruan gutxienez % 15 izango dena, titulartasun mota hauek dituzten ustiategientzat: emakume baten titulartasuna; edo titulartasun partekatua; edo emakumeen esku dauden partaidetza sozialak edo ehunekoa gutxienez % 50 diren pertsona juridikoarena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.

b) Diru-laguntzaren xedea jarduera bat egite hutsa denean, zenbateko bat finkatuko da, orokorrean ezarritakoa baino % 10-20 handiagoa, titulartasun mota hauek dituzten ustiategientzat: emakume baten titulartasuna; edo titulartasun partekatua; edo emakumeen esku dauden partaidetza sozialak edo ehunekoa gutxienez % 50 diren pertsona juridikoarena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.

c) Eskaerak erkatu ez arren aurrekontuko partida agortzen denerako hainbanaketa aurreikusten den kasuetan, aurreko idatzi-zatian aipatutako ustiategiek zenbateko osoa jasoko dute, hainbanatu gabe.

d) Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen laguntza eta diru-laguntzei buruzko arauetan hainbanatzea edo eskaerak erkatzea xedatzen ez denean, kuantifikazio-irizpideetan titulartasun mota hauek finkatuko dira, laguntza eskatzen duen ustiategiarentzat: emakume baten titulartasuna; edo titulartasun partekatua; edo emakumeen esku dauden partaidetza sozialak edo ehunekoa gutxienez % 50 diren pertsona juridikoarena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.

16. artikulua.– Esleipenak eta bestelako neurriak.

1.– Kuota-esleipenez, nekazaritza-lurren funtsetako lursailak esleitzeaz, lantzeko administrazio-baimenaz eta antzekoez erabakiak hartzean, lehentasuna emango zaie titulartasun mota hauek dituzten ustiategien eskaerei: emakume baten titulartasuna; edo titulartasun partekatua; edo emakumeen esku dauden partaidetza sozialak edo ehunekoa gutxienez % 50 diren pertsona juridikoarena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutako ustiategiek lehentasuna izango dute nekazaritza-politika erkideko diru-laguntzak eskuratzeko, baldin eta ekarpenak egin badizkiete beren urteko errentetan izandako murriztapen nabarmenagatik konpentsazioa eskaintzen duten mutualitateei edo errentak egonkortzeko beste tresna batzuei eta bestelako uzta-aseguruei eta baldin diru-laguntzak halako ekarpenak finantzatzeko badira.



3.– Nekazaritzako elikagaien sektoreko eta landa-inguruneko enpresa-jarduerei laguntzeko neurrietan, lehentasuna emango zaie emakumeek sustatutako proiektuei, baldin eta aipatutako jardueretako proiektuen mota berekoak badira eta laguntza jasotzeko beste eskakizunak betetzen badituzte.

0. artikulua.– Emakumeen sustapena eta inoren konturako enplegua nekazaritzaren sektorean.

1.– Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen laguntza eta diru-laguntzei buruzko arauetan sistema bat finkatuko da, norgehiagoka-prozeduretarako, publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak errespetatuz sektoreko enpresek emakumeen kontratazioari eta sustapen profesionalari lehentasuna emateko.

2.– Kasu horietan, emakumeei gutxienez enpleguen % 40 ematen dieten enpresentzat, balioespen-irizpideen artean puntuazio bat ezarriko da egitate horregatik, lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 15 gutxienez izango dena.

3.– Eskaerak erkatu ez arren aurrekontuko partida agortzen denerako hainbanaketa aurreikusten den kasuetan, aurreko paragrafoan aipatutako enpresek zenbateko osoa jasoko dute, hainbanatu gabe.

4.– Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen laguntza eta diru-laguntzei buruzko arauetan eskaerak erkatzea edo hainbanatzea xedatzen ez denean, balioespen-irizpideetan finkatuko da enpresa eskatzaileek gutxienez enpleguen % 40 emakumeei eman behar dietela.

5.– Aurreko paragrafoetan aurreikusitako lehentasunak ez zaizkie aplikatuko enpresei, zuzendaritza-organoetan emakumeen partaidetzak gutxienez proportzio orekatua ez badu.

Leader eremuko dibertsifikazio ekonomikoari, besteren konturako enpleguari eta ekintzaitzari buruzko Leader laguntzetan, nekazaritzakoak ez diren gaietan, emakumeen aldeko ekintza positibo bat ere badago, baita itsasertzeko eremuak garatzera bideratutako Itsaspen laguntzetan ere.

Sailak ez du emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako jarduerarik, azaroaren 25eko kanpainan izan ezik, gaiari buruzko buletin batekin parte hartu baitzuen.

## 16. JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA


Bere eginkizunak betetzeko EAEko gastu aurrekontu orokorraren %2,3 dauka.

Txosten honen ondorioetarako, hauxe da aztertutako aurrekontua:

29. Taula. Aztertutako aurrekontua. Justizia eta Giza Eskubideen Saila.

| JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA                                 |               |
|--|---------------|
| AURREKONTUA:   | 335.116.406 € |
| AZTERTUTAKO PROGRAMAK  |               |
| 1228. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa                      | 5.142.076     |
| 1410. Egitura eta Laguntza   | 3.787.282     |
| 1411. Administración de Justicia                                   | 190.687.473   |
| 1412. Justicia   | 50.236.365    |
| 1413. Instituciones penitenciarias                                 | 74.151.733    |
| 4621. Bictimak eta Giza Eskubideak                                 | 6.685.477     |
| <i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>    |               |
| GOGORA - Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua |               |
| 4622. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua    | 4.426.000     |

23. Irudia. Justizia eta Giza Eskubideak. Aurrekontuaren banaketa generoarekiko garrantziaren arabera.



Aurrekontu osoa egokitzen eta genero handikotzen garrantzitsutzat jo da, espetxeen programa izan ezik garrantzi ertainari eusten diona.

### JARDUERA GARRANTZITSUAK

Justizia eta Giza Eskubideen Sailak lehentasunezko helburutzat dauka irisgarritasuna erraztuko duen justizia ereduaren sustatzea eta pertsona ahulenei bereziki lagunduko diona, pertsonak ardatz izango dituen, herritarren beharrei erantzuneko diona, jasangarritasunean, digitalizazioan, erantzun-denboreko hobekuntzan, ulergarritasunean eta justizia errehabilitatiboaren sustapenean aurrera egingo duena, eztabaidak konpontzeko

egokiak diren bitartekoekin, eta berrikuntzaren alde elkarlanean jardungo duena, benetako babes judiziala bermatuz. Eragindako kaltea konpontzeko politika integralaren barruan dagoen zerbitzua da.

**Berdintasuna sustatzea helburu bakartzat duten jardueri dagokienez**, gobernantza hobetzeari dagokionez, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak honako jarduera hauek egingo ditu 2025ean:

- Sailaren Berdintasun Unitatea sortzea 96.378 €, dagokion aurrekontuarekin.
- Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako legealdi-plana egitea eta ezartzea.
- Berdintasunaren arloko prestakuntza egitea Sailean.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana ezartzea Justizia Administrazioako langileen eremuan: 30.000 €.
- Euskadiko espetxe-eredu berriaren garapenean aurrera egitea, berdintasuna eta genero-ikuspegia jardueraildo bat eta oinarrizko printzipio bat baitira. Horretarako, diagnostikoa egiten jarraituko da: 60.000 €.
- Sailak, halaber, Legearen aginduei erantzuten dieten eta dagoeneko etengabe egiten ari diren jarduerak garatzen jarraituko du, hala nola: araudian berdintasun-printzipioa txertatzea eta aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.

**Berdintasunaren alorrean esku hartzeko ardatzei dagokienez**, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak lehentasunezko helburuak ezartzen ditu esku hartzen duen sektore-eremuetarako.

**"Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak"** lortzeko helburu espezifikoetara dagokienez, Sailak honako hauek garatuko ditu 2025ean:

- Erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzak-ekintzetan parte hartzea: Erakundeen arteko III. Akordiotik eta Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokitik eratorritako egitura guztietan parte hartzea, maila politikoan zein teknikoan. Aurrekontu-partida espezifikorik gabe, zerbitzuko langileen zereginen zati bat.
- Doako laguntza juridikoaren kalitatea eta eraginkortasuna eta ofiziozko txanda bultzatuko dira. Doako laguntza juridikoko zerbitzua ematen parte hartzen duten abokatuen eta ofiziozko txandako prokuradoreen baldintzak hobetu dira, behar duten prestakuntza eta espezializazioari arreta berezia eskainiz: 50.000 €
- Jarraipena emango zaio emakumearen aurkako, familia barruko eta sexu-askatasunaren aurkako indarkeria-delituen biktimei berehalako laguntza juridikoa emateko Legelarien Euskal Kontseiluarekin sinatutako hitzarmenari: 2.300.000 €
- Justiziarikiko lankidetzak-zerbitzu guztiak Istanbulgo Hitzarmenean jasotako emakumearen aurkako indarkeriaren definiziora egokitzen jarraituko da.
- Epaitegietan behar adina langile eta material egongo dela bermatuko da, biktimei babes osoa emateko indarkeria mota guztien aurrean. Arreta berezia emango zaio emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietako langileen prestakuntzari, biktimak eta biktimagileak bereizteko instalazioen egokitzapenari, eta biktimei informazioa, arreta eta laguntza integrala emateko zerbitzuen indartzei.
- Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Euskadiko Koordinazio Zentroa mantenduko da, babes-aginduak jasotzen dituen eta biktimak eskatzen dituen edo beharrezkoak diren laguntzak bideratzen dituen koordinazio-gune gisa, komunikazio-sistema telematiko baten bidez, egunean 24 orduz, 365 egunez.
- Delituen biktimei arreta ematea bultzatuko da Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren lanaren bidez. Zerbitzu horrek lehen mailako arreta integrala ematen du, baliabide espezializatuera bideratzen du eta delituen biktimen jarraipena egiten du, lehen mailako biktimizazioa arinduz eta bigarren mailakoa saihestuz. Eremu horretan, biktimei laguntzeko zerbitzua indartuko da, batez ere indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko. Horretarako, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko sailaren jardura-planean jasotako ekintzak garatuko dira: 1.183.957 €
- Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua bermatuko da, zeinak organo judizialen eta herritarren eskura jartzen baitu epaitegietara eta auzitegietara iristen diren gatazkak ebazteko bide judizialaren metodo osagarri bat.

Zigor-arloko jurisdikzioan eta jurisdikzio zibil-familiarrean egiten du lan banantzeen eta dibortzioen kasu judizializatuetan eta gure autonomia-erkidegoko barruti judizial guztietan. Doako izaera izango du: 687.283 €.

- Emakumeen aurkako indarkeriagatik kondenatutako gizonekin lan egiten jarraituko da, Gakoa programaren esparruan: 2.486.067 € (Zigorak Kudeatzeko Zerbitzuaren aurrekontuaren guztizko zenbatekoa, programa hori barne hartzen duena).
- Laguntza psikoterapeutikoko zerbitzu bat eskainiko zaie genero-indarkeriako eta/edo sexu-erasoko delituak egiten dituzten zigortuei, hainbat dirulaguntzaren bidez (IDARGI, ERAIN, AMIKECO): 208.070 €

**Sailaren bestelako helburu eta/edo jarduera garrantzitsuei dagokienez, 2025ean honako hauek garatuko dira:**

- Biktimei aitortza eta arreta ematea, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko den ekainaren 19ko 4/2008 Legean aurreikusitako laguntza integraleko sistemaren bidez, biktimek eskubideak balia ditzaten ekimenak bultzatzea eta horri lotutako funtzioak eta lankidetzak egitea, biktimei laguntzeko sortutako gizarte zibileko erakundeekin eta arloan eskumena duten beste erakunde publiko batzuekin: 414.800 €
- Uztailaren 28ko 12/2016 Legean (Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa) xedatutakoa garatzea eta ezartzea: 1.919.000 €
- Familia-elkarguneak: 2.335.291 €

## GOGORA

Gogora Institutuaren eginkizun nagusia memoria kritiko bat gordetzea eta transmititzea da, dibulgazio- eta pedagogia-helburuekin. Horretarako, memoriaren eremuan lan egiten duten beste instituzio eta gizarte-erakunde batzuekiko eta giza eskubideen sustapenarekiko lankidetzak eta elkarlana sustatzen ditu, gizartearekin ahalik eta harreman handiena izateko bidea bermatuz.

## JARDUERA GARRANTZITSUAK

Memoria historikoaren eta memoriaren elkarrekin mugimenduen esparruan, begirada androzentrikoa gailentzen da, eta, horregatik, gizonak dira oroitzen diren gertakarien eta gogoratzen diren biktimen eragile nagusiak. Memoria-elkarte eta -erakunde gehienak gizonen osatzen dituzte, eta, oro har, ez dute ikerketarik egiteko prestakuntzarik, nagusi den begirada androzentrikoa alde batera utzita.

Gogora Institutuak hori egiaztatu du, eta genero-ikuspegia txertatuko duen memoria berreskuratzeko lanean ari da. Horrela, emakume biktimen ezagutza eta errekonozimendua sustatzen da, baita emakumeek gidatutako borroketa ere, eta balio demokratikoen aldeko borrokan subjektu politiko eta aktibo gisa identifikatzen dira.

- **Genero-desberdintasunak ezabatzea eta berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatzea helburu duten jarduerak:**

Alde batetik, 2025eko ekitaldian, 1936-1978 bitartean oinarrizko eskubideen urraketari buruzko txostena garatzen jarraitzea aurreikusten da. Txosten horretan, Gerra Zibilean eta lehen frankismoan (1936-1945) egindako espetxe-errepresioa eta ikerketa datu-base baten bidez jendaurrean jartzea aztertzen dira. Tresna horrek argi eta garbi erakusten ditu biktimen zifrak, sexuen arabera bereizita, bai eta biktimek jasan duten giza eskubideen urraketak mota ere, eta, horrela, agerian uzten du emakumeek gerra-garaian eta gerraostean izan duten presentzia.

Jarduera hori gauzatzeko, Gogora Institutuak 195.000 euroko dirulaguntza izenduna emango dio Euskal Herriko Unibertsitateari, aipatutako txostena egin dezan.

Bestalde, "Gogoragunea" erakusketa-gunea pabiloi iraunkorra eraikitzeke proiektuari dagokionez, 2025ean, Gogora Institutuaren proiektuen artean espazioa martxan jartzea nabarmentzen da, eta horretarako hainbat kontratazio egingo dira. Kontratazioari dagokionez, berdintasun-klausulak txertatu dira ezaugarri teknikoetan, balorazio-irizpideetan eta administrazio-baldintzetan, eta kontratu publikoen enpresa esleipendunek nahitaez bete behar dituzte. Bestalde, txosten honetan adierazi dugun bezala, proiektua bereziki 15-19 urte bitarteko biztanleentzat izango da, ikastetxeetatik txangoak antolatuko baitira. Horregatik, arreta berezia jarri beharko da hizkera ez-sexistaren erabileran, bai erakusketaren euskarrietan (panelak eta ikus-entzunezkoak), bai gidari gisa kontratatutako pertsonalean.

Kontratazio-mahaiek eta epaimahai kalifikatzaileek, dirulaguntzen kasuan, sexuaren araberako osaera orekatua dute, eta generoari buruzko prestakuntza duen pertsona bat sartzen da.

Jarduketa horietarako 2025eko ekitaldirako aurreikusitako aurrekontua 400.000 eurokoa da.

Aurreko ekitaldietako jardunen ildotik, memoriaren dibulgazioari dagokionez, Gogora Institutuak jardunaldiak eta hitzaldiak antolatzen ditu genero-ikuspegia bi alderditan txertatzeko:

- «Emakumeen memoria demokratikoa berreskuratzea».
- «Emakumeak, gaian adituak diren ahots espezializatu gisa».

2025ko ekitaldirako jarduera horietarako aurreikusitako aurrekontua 380.000 eurokoa da.

#### – **Dirulaguntzen programa**

Gogora Institutuak urtero deitzen ditu norgehiagokako dirulaguntzak, eta horien oinarriak genero-ikuspegiarekin diseinatuta daude; horrela, genero-ikuspegiarekin egiten diren eskaerek balorazio handiagoa dute. Ondoren, dirulaguntzak zerrendatzen dira:

- «Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteek edo fundazioek memoria historikoa berreskuratzeke garatutako proiektuak egiteke laguntzak». 112.500 euro.
- «Memoria historikoa berreskuratzeke proiektuak egiteke dirulaguntzak, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek garatutakoak». 137.500 euro.
- «Memoria demokratikoa berreskuratzeke liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteke dirulaguntzak». 100.000 euro..

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako araudiak politika publikoetan eta ekintzetan genero-ikuspegia txertatzeko betebeharra jasotzen du, horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezar dezaten.

Araudi hori betez, Gogora Institutuak urtero deitzen dituen diru-laguntzen hiru deialdietan, diruz lagundu beharreko proiektuaren memorian genero-ikuspegiaren tratamendua sartu behar da. Zehazki, hautaketa- eta balorazio-irizpideen artean zeharkako politikak sartzea nabarmentzen da, eta horietatik puntuaziorik handiena lortuko dute egindako jardueren genero-eragina memorian jasotzeke konpromisoa hartzen dutenek, baldin eta emakumeen parte-hartzea erraztuko duten ekintza positiboak egitea aurreikusten badute.

Epaimahai kalifikatzaileek sexuaren araberako osaera orekatua dute, eta generoari buruzko prestakuntza duen pertsona bat sartzen da.

## 7. ONDORIOAK

2025eko aurrekontuak egiteko oinarritzko jarraibide ekonomikoek, XIII. legegintzaldiko lehenak, Eusko Jaurlaritzaren lehentasun estrategikoak ezartzen dituzte. Txosten horietan, sailei eskatzen zaie aurrekontuak diseina ditzaten, ondoren adierazten diren ardatzetara bideratutako jarduketan bidez:

- 1.- Pertsonak politika publikoen erdigunean jartzea
- 2.- Hazkunde- eta ongizate-eredu bat bultzatzea
- 3.- Energia-erlaketako, klima-aldaketaren aurkako borrokako eta ingurumena babesteko prozesuak gidatzea.
- 4.- Elkarbizitza-eredu sendo eta justu bat sustatzea
- 5.- Gure autogobernu-sistema berezia sendotzea eta sakontzea.

Laugarren ardatzean, genero-berdintasunaren eta LGTBIQ+ eskubideen politikak funtsezkotzat jotzen dira bizikidetzaren eredu sendo eta justu bat sustatzeko, non pertsona guztiak erabat eta baldintza berdinetan garatu ahal izango diren. Gainera, 2025eko aurrekontu horiekin, berdintasunaren aldeko gizarte askea eta emakumeen aurkako indarkeria bere adierazpen guztietan eraikitzeke oinarriak ezarri nahi dira, LGTBIQ+ pertsonen errealitatea berdintasun-politiken agendan txertatu, balio-aldaketa eta emakumeen eta nesken ahalduntzea bultzatu, eta pertsonen eta kolektiboen diskriminazioaren eta estigmatizazioaren aurka borrokatu. Horretarako, Gobernu Programak hainbat konpromiso jasotzen ditu, besteak beste:

### **A. Politika publikoen esku-hartze eremuetan genero-zeharkakotasuna txertatzea, eragin politikoko estrategia gisa, egiturari eragiten diona eta gizarte berdintasunean eraldatzen duena.**

Genero-ikuspegia tratatzen ari da EAerako 2025erako gastuen guztizko aurrekontuaren % 10,5ean. Kapitulu hau aztertzea konplexua da, eta, beraz, neurri gehigarriak behar dira genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala integratu ahal izateko administrazio-jardunaren planifika-prozesuetan.

Bestalde, estrategia osagarri gisa, Eusko Jaurlaritzak **ekintza positiboak** ezartzen ditu sexuaren ziozko egitatezko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko bizitzako eremu guztietan. Ildo horretan, 13 sailek eta 3 erakunde autonomok adierazi dute berdintasun-ekintza positiboak egin direla hainbat jardueratan. Horietako gehienek emakumeen aldeko berdintasun-klausulei egiten diete erreferentzia dirulaguntzen programen baremazio-irizpideetan; beste batzuetan, berriz, diruz laguntzeko programak dira emakume-kolektibo desberdinei soilik zuzentzen zaizkienak (kirolariak, ikertzaileak, nekazariak, armadoreak, zinemagileak, presoak, genero-indarkeriaren biktimak, besteak beste). Era berean, ekintza positiboak daude genero-indarkeriaren biktimen seme-alabentzat, guraso bakarreko familientzat eta gizonentzat. Azken horiek familia eta lana uztartzeko eremuan. Oro har, ahalduntzera, ekintzailetzara, lan-merkatuan sartzera eta sustatzera, familia eta lana uztartzera eta Emakume Nekazarien Estatutua betetzera bideratutako neurriak dira.

### **A. Emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerraraztea.**

EAEko gastuen aurrekontu osoaren % 0,16 erabiliko da emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitarantz aurrera egiteko. Aurrekontuaren zatirik handiena Segurtasun Sailean kontzentratzen da, aurrekontu osoaren % 44,7rekin; ondoren, urrun daude Justizia eta Giza Eskubideen Saila (% 28,5) eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila (aurrekontu osoaren % 21,3). Hona hemen baliabide nagusietako batzuk:

- Informazio- eta arreta-zerbitzua da SATEVI, eta 51 hizkuntzatan ematen die arreta entzumen- eta/edo hizketa-desgaitasuna duten pertsonen, egunean 24 orduz, urteko 365 egunetan. Biktima diren

emakumeei eta horien hurbileko pertsoneri zuzenduta dago, bai eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan lan egiten duten profesionaleri ere. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaz gain, beste indarkeria mota batzuk ere artatzen ditu: familia barruko indarkeria, sexu-jazarpena eta/edo sexuagatiko jazarpena lan-eremuan, sexu-erasoak, prostituzio behartua eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketa, besteak beste.

- EBA Proiektua, Emakumeen eta Etxekoen Babesa, Ertzaintzaren eta udaltzaingoen genero indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren espediente guztiak kudeatzeko sistema digital berri bat da. Proiektu horri esker, formatu berean, emakumeen aurkako indarkeriaren espediente guztiak sortu eta partekatu ahal izango dira; emakume bakoitzaren arrisku-ebaluazio guztiak homologatu ahal izango dira, salaketa jartzen den polizia-kidegoa edozein dela ere; eta seme-alaben arriskua modu berean ebaluatu ahal izango da.
- EUSKADIKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KOORDINAZIO ZENTROA (CCVM) izango da babes-agindua jasotzen dituen koordinazio-gunea, eta biktimak eskatutako edo beharrezko diren laguntzak bideratuko ditu, komunikazio telematikoko sistema baten bidez, eguneko 24 orduetan, 365 egunetan.
- Defentsa eta babes judizial eraginkorrerako benetako sarbidea hobetzea, bereziki pertsona ahulen kasuan, doako laguntza juridikoaren eta ofiziozko txandaren kalitatea eta eraginkortasuna bultzatzea, bai eta orientazio juridikoko zerbitzuak ere, eta EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMEI DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA EMATEKO HITZARMENARI jarraipena ematea. Halaber, ikuspegi intersektionala aplikatu nahi da ekonomiaren, gizartearen, generoaren, desgaitasunen, adinaren edo legezko egoeraren eta abarren arloko desberdintasunengatik justiziara iristeko dauden oztopoak aztertzean.
- Delituen biktimei arreta ematea bultzatuko da, BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUAREN lanaren bidez, bereziki indarkeria matxistaren biktimei dagokienez.
- Justizia Administrazioak jarraipena emango dio INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA BEREHALA EMATEKO HITZARMENARI.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekiko jarduera-plan bat sustatuko du, eta AUZITEGIKO BALORAZIO INTEGRALEKO UNITATEEN eta TALDE PSIKOSOSIALEN jarduna indartuko du, arriskua goiz detektatzeko eta indarkeria matxistaren kasuetan adingabeen egoera modu eraginkorren balioesteko. Halaber, justizia unibertsala eta irisgarria bultzatuko du, doako laguntza juridikoagatiko eta espetxeetako lege-laguntzagatiko konpentsazioak indartuz, eta desgaitasunen bat duten pertsonen, kolektibo ahulek eta adinekoek justiziara iristeko dituzten oztopoak ezabatzen aurrera eginez.
- "GAKOA" programa, besteak beste, Zerbitzu honen barruan sortu da, genero-indarkeriako delituengatik betearazpenetan kondena eteteak areagotu egin direlako. Programaren helburua emakumeen osotasun fisikoa eta psikikoa bermatzea eta zaintzea da (balio kolektibo gisa). Horretarako, esku-hartze individualizatu bat egin behar da, gizonak egin dutenaren erantzule izan daitezzen; emozioetan eta sentimenduetan sakondu behar da; indarkeriazko dinamikak berbideratu behar dira; genero-indarkeriaz jabetu behar da, eta nork bere burua hobeto ezagutu behar du.
- Ertzaintzak arreta espezializatua ematen jarraituko die indarkeria matxista jasaten duten emakumeei. Kasu bakoitzerako ezarritako arriskuaren arabera (oinarrikoa, ertaina, handia eta berezia), dagozkion babes-neurriak esleituko dira, besteak beste: autobabes-neurri buruzko prestakuntza, Bortxa app-aren edo 12 SOS Deiak app-aren eskaintza, epaitegira 1. agerraldira laguntzeko eskaintza, errutinen eta eremuen gaineko zaintza, zaintzaren aurkako aktibazioa, eskumuturreko elektronikoaren kudeaketa epaitegian (urruntze-neurria izanez gero) eta etengabeko zaintzaren eskaintza arrisku bereziko kasuetan.
- Prestakuntza eta sentsibilizazioa hainbat jarduera-sektoretan.

Garrantzitsua da, gainera, Emakunde koordinatzen duen EAE-KO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI ARRETA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO III. AKORDIOA ezartzea.

## **B. Soldata-arrakalaren aurkako planaren aplikazioa sustatzea.**

EAEko gastuen aurrekontu osoaren % 0,7 soldata-arrakalaren aurkako jardueretara bideratuko da. Eusko Jaurlaritzak SOLDATA-ARRAKALA MURRIZTEKO 2030erako ESTRATEGIA onartu du, eta, esparru horretan, 2025erako Ekintza Plana. 2025eko aurrekontu honetarako, Lehendakaritzaz gain, 12 sailek jarduerak garatzea aurreikusi dute, eta horietako batzuk 2025eko Ekintza Planean aurreikusitakoei gehitu zaizkie. Hezkuntza Saila da aurrekontuaren zatirik handiena biltzen duena, zehazki, % 89,9. Honako jarduera hauek nabarmendu behar dira:

- Hezkidetzako III. Plana egitea eta onartzea.
- Haurreskolak Partzuergoak familia guztientzat eskaintzen duen zerbitzuaren doakotasuna
- Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak
- Prestakuntzara, ekintzailatzara eta kontrataziora bideratutako dirulaguntzak
- Soldata-arrakalari eta kontziliazio erantzukideari buruzko kongresuak
- Ordainsari Berdintasuneko Lan Ikuskaritzaren Plan Espezifikoak
- SAZLko lan-kontratuko langileei zuzendutako I. Berdintasun Plana eta Ertzaintzako agenteen oinarritzko eskalan emakumeak sartzeko I. Plana ezartzea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana egitea eta ezartzea Justizia Administrazioiko langileen eremuan.
- Osakidetzaren Berdintasun Plana.
- "EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATAZIO PUBLIKOAN GENERO-IKUSPEGIA ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK SARTZEARI BURUZKO JARRAIBIDEAREN aplikazioa. Jarraibide hori Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2024ko martxoaren 12an egindako bilkuran.

Interesgarria da, halaber, ZAINKETEN ALDEKO EUSKAL ITUN bat bultzatzea, 2030eko hamarkadan erantzukizun publikoko eta komunitateko zainketen gizarte-antolaketaren eredu bat bermatzeko, genero-ikuspegian eta ikuspegi interseksionalean oinarritua eta gero eta erantzukideagoa. Esparru horretan, XIII. Legegintzaldiko Gobernu Planaren helburuen artean honako hau dago: "zaintza ordaindu-profesionalizatua garatzeko baldintza materialei arreta espezifikoak ematea, sektore feminizatu honetan kalitatezko enplegua sortzeko helburua ezarriz, enpleguaren, hazkundearen eta garapen ekonomikoaren nitxo potentzial gisa. Zainketen sektoreko egoera desagokoei heltzea, hala nola barneko emakume etorkinen baldintzei ", eta haien jarduerak lan-eremu horretan arreta berezia jartzera bideratzea, askotan ikusezina baita. Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitarioa 2021-2030, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko lanei balioa emateko eta zaintzaileei (gehienak emakumeak) laguntzeko sare bat eskaintzeko, zaintza horiek ahalik eta eragin txikiena izan dezaten beren bizi-proiektuetan (mendekotasunen bat duten pertsona edo zaintzaile gisa).

Gainera, 2025ean **beste jarduera batzuk planteatzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan lortzea helburu** dutenak. Jarduera horiek EAEko gastuen aurrekontu osoaren % 0,04 hartzen dute.

Aniztasunaren eta bizikidetzaren esparruan, hauek dira mantenduko diren beste baliabide batzuk:

Aniztasunaren eta bizikidetzaren esparruan, hauek dira mantenduko diren beste baliabide batzuk:

- ERABEREAN zerbitzua, Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarea, kolektibo batzuek arraza-, etnia- edo nazio-jatorriagatik eta sexu-orientazio eta -identitateagatik eta genero-identitateagatik jasaten dituzten askotariko diskriminazioei erantzuteko.
- Integrazio eta Kultura arteko Bizikidetzaren Zerbitzua. Zerbitzu horrek genero-arlo bat du, eta hainbat jarduera egiten ditu honako helburu hauekin: emakume etorkinen integrazioa hobetzea, haien ahalduntzea laguntzea, erakunde publikoei eta sozialei aholkularitza ematea immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloan



genero-ikuspegitik esku hartzeko, osasun-arloko, polizia-arloko eta abarreko langileak kulturartekotasunean eta genero-indarkerian trebatzea, eta emakumeen genitalen mutilazioari buruzko informazio-, prestakuntza- eta aholkularitza-jarduerak egitea.

- BERDINDU, sexu- eta genero-dibertsitatearekin lotutako gaietarako informazio- eta arreta-zerbitzua. LGTBI kolektiboekin lan egiten da askotariko estrategien bidez. Estrategia horiek, besteak beste, honako hauek jasotzen dituzte: aniztasunari eta identitate afektibo-sexualari buruzko prestakuntza/sentsibilizazioa lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleentzat eta ikasleentzat; eta aniztasuna ikusarazteko eta sensibiltzatzeko eta LGTBfobiaren aurkako borroka ekintzak.

Nabarmentzekoa da Emakunde Lehendakartzara itzuli dela; izan ere, berdintasun-politikak lehen mailan jarri ditu, eta, besteak beste, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiaren ezarpena indartu du. Estrategia horren lidergoa Emakunderi dagokio. Esparru horretan, 2024-2028 gobernu-programarekin batera, sailek, erakunde autonomoek eta partzuergoek legegintzaldirako berdintasun-planak egingo dituzte 2025eko ekitaldian.

Aurrekontuak genero-ikuspegitik diseinatzeko konpromisoari eusten zaio. Ibilbide luzeko prozesua da Eusko Jaurlaritzan, eta aktiboki parte hartzen dute sail, erakunde autonomo eta partzuergo guztiek eta EITB, Osakidetza, SPRI taldea eta URA zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, eta lehen aldiz baita IHOBEn sozietate publikoak ere. Horren emaitza da txosten honen aurkezpena. Partaidetza horri guztiari esker, aztertutako aurrekontua handitu ahal izan da, EAEko aurrekontu osoaren % 88ra iritsi arte, eta egiaztatu ahal izan da aztertutako aurrekontuaren % 99,3 generoari dagokiola eta % 97 genero ertain-altuari. Hala ere, bide hori konplexua da berekin dakarren paradigma-aldaketagatik, eta, ondorioz, denbora eta determinazioa behar dira. Horregatik, Ogasun eta Finantza Sailak lanean jarraituko du kontzeptu-esparruan, metodologiaren hobekuntzan eta aurrekontu orokorretan genero-ikuspegia txertatzea errazten duten prozesuetan sakontzeko. Talde-lan horren emaitzetako bat izango da emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzaren alde egitea aurreikusten diren jarduerari buruzko informazio zehatzagoa eta argudiatuagoa ematea.

2025erako EAEko gastuen gutzizko aurrekontuari dagokionez, gutxienez % 0,7 soldata-arrakalari aurre egitera bideratuko da, eta, gutxienez, EAEko aurrekontu orokorraren % 0,16 emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako borrokara bideratuko da, eta % 0,05 emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea helburu duten beste jarduerak batzuetara. Guztira, % 0,91 bideratuko da berdintasun-politikerara, 2030eko helburua baino 0,59 puntu gutxiago, Berdintasunerako Legearen Seigarren Xedapen Gehigarriaren arabera. Halaber, indarkeria matxistaren aurkako borrokan laguntzen dute genero-desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu espezifikoarekin garatuko diren jarduerak guztiek, bai eta genero-ikuspegiarekin diseinatzeko diren beste batzuek ere, neurri txikiagoan bada ere. Ildo horretan, txosten honetarako egiaztatu ahal izan denez, aztertutako Administrazio Orokorraren aurrekontuaren % 18, gutxienez, genero-ikuspegia 2025eko plangintzan neurri desberdinean txertatzen duten jardueretara bideratuko da, aurreko aurrekontuetan baino bi puntu gehiago. Ehuneko horiei gehitu beharko litzaieke Osakidetza, EITBk, SPRIk, URAk eta IHOBek berdintasun-planak gauzatzeko egindako ekarpena. Gainera, aipatzekoa da, ehuneko horiekin batera, Administrazioari langileek aurreko jarduerak garatzeko egindako ahalegina ere kontuan hartu beharko litzatekeela, horien aurrekontua I. kapituluari jasota baitago, bai eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren funtzionamendu-gastuak ere, II. kapituluari aurreikusitakoak.

|   |   |
|---|---|
| Fdo.: Josu Iñaki Garay Ibañez de Elejalde<br>Dirección de Presupuestos<br>Departamento de Economía y Hacienda | Fdo.: Zalao Urbizu Sierra<br>Unidad Administrativa de Igualdad<br>Dirección de Servicios<br>Departamento de Economía y Hacienda |
|---|---|

## 8. ERANSKINAK

## 8.1. TRESNA METODOLOGIKOEN LABURPENA

Ogasun eta Finantza Saileko Aurrekontu Zuzendaritzak formularioak eta txostenak eskatu eta bildu ditu, beharrezkoak baitira genero-ikuspegia duten aurrekontuen diseinuan aurrera egiteko eta aurrekontu orokorre buruzko genero-eraginari buruzko txostena egiteko.

### 1. SAILAK, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PATZUERGOAK

Alde batetik, aurrekontu-programa bakoitzeko formulario bat (P-Gen) betetzen dute. Programak bost atal eta hainbat azpiatal ditu:

1. Programa
2. Programaren generoarekiko egokitasunaren analisia
3. Programaren generoarekiko garrantziaren analisia
  - 1.1. Programaren deskribapen orokorra eta berdintasun-betebeharrak barne hartzen dituzten arau- eta programa-aginduen betetze-mailarekiko alderaketa.
  - 1.2. Programak generoari garrantzia ematea
4. Garrantzi handiko edo ertaineko programaren analisia:
  - 1.1. Sailera atxikirik dauden beste entitate publikoek kudeatzen dituzten helburuen zerrenda
  - 1.2. Berdintasunerako ezegokitzat jotako programako helburuen zerrenda
  - 1.3. Programak bereziki nabarmentzen duen biztanleriaren azterketa: emakumeen eta gizonen bizibaldintzak
  - 1.4. Azterketa, aurrekontu-inpaktuari eta aurrekontuaren plangintzan genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoa
5. Gogoeta eta programaren hobekuntza-proposamenak:
  - 5.1. Aurrerapenak aurreko ekitaldien aldean
  - 5.2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta horrek dakartzan emaitzak bultzatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko bidean aurrera egiteko hobekuntza-neurri zuzentzaileak
  - 5.3. Zer prozesuri jarraitu zaio formularioa betetzeko? Zenbateraino hartu dira kontuan berdintasun-unitateak planteaturiko oharrak? Hobekuntza-proposamenak.
  - 5.4. Beste hausnarketak eta proposamenak.

Bestetik, bi atal dituen txostena egin dute::

1. Sailaren, erakunde autonomoaren edo partzuergoaren jarduera nagusien hartzaile den biztanleriaren diagnostiko sozioekonomikoa
2. Jarduera nabarmenak.

### 2. ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK: EITB-Euskal Irrati Telebista Taldea, Osakidetza, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia eta EBB, URA-Uraren Euskal Agentzia eta Ihobe SOZIJETATE PUBLIKOA

Bakoitzek ere honako egitura hau duen txostena betetzen dute:

1. Diagnostikoa genero ikuspegitik
  - 1.1. Hartzaileei zuzendua
  - 1.2. Enteren zerbitzura dauden langileentzat
2. Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko estrategia orokorra
3. Jarduera nabarmenak

## 8.2. AURREKONTU-PROGRAMEK GENEROAREKIKO DUTEN GARRANTZIA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Programarekin zerikusia duten berdintasunerako agindu programatikoak eta arauemaileak aztertu ondoren, aurrekontu-programak generoarekiko duen garrantzia zehazten da. Horretarako, bi irizpide hartuko dira kontuan, eta 1etik 3ra bitarteko balio bat emango zaio irizpide bakoitzari (garrantzi txikienetik handienera):

**1. IRIZPIDEA: XEDE-BIZTANLERIA.** Generoarekiko garrantzia programak potentzialki eragiten dion xede-biztanleriaren izaera estrategiko edota lehentasun izaeraren arabera neurtzen da. Balorazioan kontuan hartzen dira xede-biztanleriaren tamaina eta programaren helburu den gizataldea. Hala, gerta liteke programa batek eragiteko gaitasun handia izatea, xede-biztanleria biztanleriaren ehuneko txikia izanda ere, kolektibo hori berdintasunerako bidean aurrera egiteko talde estrategikoa bada.

Biztanleria-estrategikoa da epe ertain eta luzean berdintasunerantz joatea ahalbideratzen duten aldaketa esanguratsuak ezartzeko eragile izateko ahalmenik handiena duena. Adibidez, ikasleak, irakasleak eta enpresariak.

Lehentasunezko biztanleria da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren ondorioak bereziki jasaten dituen eta berriazko berdintasun ekintzak behar dituen. Adibidez, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak.

- 3 balioa: xede-biztanleria estrategikoa, edota lehentasunezkoa, da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko, edo programa xede-biztanleria osoari heltzen zaio. Nahikoa da programako helburuetako bat berdintasunaren bidean aurrera egiteko estrategikoa den biztanleria-multzo bati heltzea, programari puntuazio gorena emateko (3).
- 2 balioa: programa xede-biztanleriaren zati nahiko handi bati heltzen zaio.
- 1 balioa: programa xede-biztanleriaren zati txiki bati heltzen zaio.

**2. IRIZPIDEA: ALDAKETARAKO AHALMENA.** Genero diskriminazioa murrizteko eragin gaitasuna neurtzen du. Programak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko eman dezakeen laguntza maila da. Aurreko irizpidearekin alderatuz, honek programaren helburuak eta ekintzak baloratzen ditu, hau da: programako ekintzek, zuzenean edo zeharka, generoarekin zerikusia duten estereotipo eta rolak aldatzeko, nola eragiten dute? Adibidez, kontratuetan berdintasun-klausulak jarritz, diagnostikoak genero ikuspegitik eginez ...

Genero desberdintasunak dira gizartean emakume eta gizonei, bereizirik eta hierarkikoki egituraturik, rolak esleitzetik eratorritakoak.

Genero estereotipoak dira gizonek eta emakumeek dituzten, edo izan behar lituzketen, atributu edo ezaugarrien edo betetzen dituzten, edo bete behar lituzketen, gizarte eginkizunen balorazio, iritzi edo aurreiritzi orokortuak (NBEren arabera).

- 3 balioa: programak emakumeen eta gizonen bizi-baldintzetan eragiten badu eta desberdintasunetan inpaktua izateko ahalmen handia badu. Programako helbururen batek genero-desberdintasunetan eragin handia badu, puntuazio gorena emango zaio programari (3). Ezberdintasunak murrizteko erabakiak hartzeko erabiltzen diren programak sartu (adibidez, azterlanak eta estatistikak sortzekoak), edo berdintasun-klausulak ezartzea ahalbidetzen duten prozedurak. Adibidez, gazteriari zuzendutako hezkuntza programen bidez.
- 2 balioa: programak emakumeen eta gizonen bizi-baldintzetan eragiten badu, baina desberdintasunetan inpaktua izateko tarteko ahalmena badu.
- 1 balioa: programak emakumeen eta gizonen bizi-baldintzetan apenas eragiten badu eta genero-desberdintasunetan (genero rolean...) inpaktua izateko oso ahalmen txikia badu.

Gero, batura kalkulatu da, eta azken emaitza baremazio-eskala honen arabera sailkatu da:

**GARRANTZI-BAREMOA:**

- Baremo 5 - 6: Garrantzi HANDI  
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko interes handiko programak.
- Baremo 3 - 4 : Garrantzi ERTAINA  
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko tarteko eragineko programak.
- Baremo 2: Garrantzi TXIKIA  
Batik bat izaera instrumentala duten programak.